



KARDABERAZ BILDUMA - 29

LEKUONATAB MANUEL

IDAZ-LAN GUZTIAK

8.

EUSKERALOJIA

LEKUONA'TAR MANUEL

IDAZ-LAN GUZTIAK

8.

EUSKERALOJIA



Autor: Lekuoná'tar Manuel
Edita: Librería Técnica de Difusión - Tolosa
Imprime: Gráficas ESET-Seminario Vitoria
Depósito Legal VI24 - 1984 Fol. 8.
I. S. B. N. 84-398-0808-9

I

DIDAKTIKA

Izkuntza

Erri baten irugarren ozaugarria, Izkuntza da. Euskalerriarena, Euskera.

Gai ontan ere, beti bezela, Jakintzaren argitan ibiltzeko, galdera au egingo degu : —Euskera, Izkuntza al da? ala izkuntz— erdi dialekto?

Gauza auetan ez jakin diranen sotik noiznai entzuten bait da, Euskera dialekto dala, eta ez Izkuntza oso; garbi-garbi, Erderaren diallekto bat. Ori esatea, Euskera Erderaren "alaba" dala esatea bait da, edota, Erderaren "aizpa gaztea".

Bañan, ori esatea norañoko zorakeria dan ikusteko, naikoa da, orain esatera goazena gogoratzea:

A) lenengo: Euskeraren zaartasuna, Erderaren aldean. —Alaba ez da iñoiz ere ama baño zaarragoa izaten; Euskera Erderaren aldean askotaz ere zaarragoa da. Gaztel-erderak 1.000'tik 1.500 urtera ditu; Euskerak berriz, asko milla, 8.000, 10.000... Izkuntza pre-historikoa da: —"mileneria lengua" esaten bait zaio—.

B) bigarren : bien artean diran ez-berdintasunak, arrigarriak dira. —"Alaba", beti ere, amaren edo aizparen antzeko izaten da. Euskeraren eta Erderaren arteko ez-bardintasunak, berriz, ain dira arrigarriak, Linguistak diotenez, Euskera :

1) gure inguruko *Erromantzeen* (Gaztelaniaren, Katalanaren, Gallegoaren) kurpil-barrutik kanpora gelditzen da;

2) berdin, baita, *Latin-jatorrikoen* (Frantzes, Italiano ta Rumanoaren) kurpilletik kanpora;

3) geiago oraindik: *Izkuntza Indoeuropeoen* (Aleman, Ingles, Greko, eta Baltiko, Kaukasiko, Eslabiko eta Indiarren) kurpilletik kanpora,

Egoera onen adierazgarri, esaera zu entzuten da linguistaen aotik: "Euskera, Izkuntza isla" dala.

ZABAL DEZAGUN GAI AU GEIAGO

Ba dakigu, zergaitik esaten duten zenbaitzuek "Euskera" —eta berdin Katalana eta Gallegoa ere— Gaztel-erderaren dialektoak dirala"; Izkuntza izatea, eta, "Izkuntza Ofizial" izatea alkarrekin naasten dituzte lako; eta ola Izkuntza Ofizial ez diran guztiak, dialekto erizten dituzte. Eta España'ko Estaduan, Izkuntz Ofiziala, Gaztel-Erdera bait da, beste irurak —Euskera ta Katalana eta Gallegoa— Gaztel-Erderaren dialekto gortatjen zaizkie.

España bezelako Estadu batean, izkuntza Ofizialaz gañera, izan ditzeke bi edo iru izkuntza geiago, "Errialde-Izkuntza" deritzaten oietakoak(egiazki Izkuntzak, ez dialektoak. Egiazko Izkuntzak dira, Euskera eta Katalana eta Gallegoa, Gaztel-Erderaz gañera.

Dialektoa, Izkuntza jator baten aldakuntza bariante bat da, Izkuntza jator izateko naiko osagarririk ez duan mintzaera, alegia —ortarako zer bear dan erabakitzea, Linguistai bait dagokie—.

st § stc

Beste batzuentzat, Euskera Erderaren dialektoa dala esateak, izan dezake beste arrazoibide bat ere: guk, euskeraz mintzatzean, erabiltzen degun zenbait itz erdaldun, alegia : dala *kutxare* edo *tenedore*, eta *estazio* edo *tren* eta *autobus*... kontuan euki gabe, itz oiek eta oien antzekoak, orain-orain sartutako itzak dirala Euskeraren barruan; eta auzi ontan berezi bearra dagola Izkuntzaren Lexikoa edo Iztegia, eta Izkuntzaren Gramatika; auzi ontan Gramatikari begiratu bear bait zaio batez ere; eta gure Iztegi guztia erderakadaz beterik balego ere (ez bait dago, ordea —ikus Azkue'rena—) Jakintzaren argitan egindako azterketa batean begiratu bear dana, ez da Lexikoa edo Iztegia, Gramatika baizik, Gramatika bere Morfologiarekin eta Fonetikarekin eta Sintaxis Joskerarekin; ori bait da Izkuntzaren zugatz-gerria; itzak, berriz, zugatzaren asto, orri...

EUSKAL-GRAMATIKA ; ERDAL-GRAMATIKA

Bi Gramatika oien artean, ez-berdintasun asko dago.

Ez-berdintasun oietaz, guk, emen, gauza axaleko bezela, auxe esango degu:

A) Erdera, bere Gramatikan, aurre-itz-zale dala, *prepositiva*, alegia; Euskera, berriz, atze-itz-zale, *postpositiva* edo-ta *sufijativa*, atzizkizale. Erderak, aurreitzak erabiltzen ditu bere gramatika-bide bezela ausarki: Erderazko artikuloa, izenaren aurretik ipiñi oi da: "eZ hombre", Euskeraz, berriz, artikuloa, atzizkia da: "gizonA" Hombre e/". Izenaren jorkaeran ere, joku-gaiak Erderak aurreitzak ditu: "*del* hombre", *al* hombre". Euskeraz, berriz, joku-gaiak, atzizkiak dira, "gizonAREN, gizon-ARI"...

B) Berdin gertatzen da, Sintaxisean ere: "la puerta de casa" "etxe-ko atea" ("casa de puerta la"); eta "has traído" = "ekarri dezu" ("traído has"); "el hombre que has visto" "ikusi dezun gizona" ("visto has que hombre el"). Itz bitan, gauzak atzekoz aurrera arkitzen dirala askotan.

Bi izkuntza, orren alkarren antzik gabekoak, ez bait ditezke izan elkarren aaide.

"LsKUNTZA ISLA"

Euskera dialekto ez dala ikusi degun ezkerro, argi dezagun gauza au apur bat geiago, Jakintzaren argitan.

Gogora dezagun, leentxeago esan deguna: Linguistak diotena, alegia, Euskera, Izkuntzaz, izkuntza berezia dala, iñungo beste Izkuntze-kin aidetasunik arkitzen etzaiona: itz bitan, "izkuntza isla".

Argi dezagun esaera au.

§ sh sji

Inguruan ditugun izkuntzak —Gaztel-Erdera, Katalana eta Gallegoa— Latiñetik sortuak dira, Latiña dute beren iturri, beren ama. Latiñaren alabak dira, baita, Frantzesaren ere, eta Italianoaren eta Rumanoaren; *Erromantzeak* ere esaten zaien Izkuntzak; erromatarrak izan bait ziran, "aien ama" Latiña lurralde oietara ekarri zutenak.

Euskera, ordea, ez dator Latiñetik. Orregatik, Erromantzeen artean, Euskera "izkuntza isla" da.

* * *

Bañan ez Erromantzeen artean bakarrik; baita Indoeuropeen artean ere berdin gertatzen zaio. Euskerak ez duala zer-ikusirik, India'tik asiata Europa'ko sartalderaño bizi diran gaurko izkuntzaekin ere: dala Alemana, dala Inglesa, dirala Ruso-Eslabikoak, Danesak, Kaukasikoak etab.

Gure Euskera ez da sartzan, ezta, "Indoeuropea" deritzan izkuntza-familia luze-zabal orren kurpil-barruan ere; oien artean ere, "isla" da.

* * #

Ortik aurrera, gai ontan, Linguistaen azken-itza, auze da : Euskera "Izkuntza pre-indoeuropea" dala, gaurko "familia indoeuropea" sortu baño leen, orain millaka urte asko, inguru auetan —India'tik Europa-sartalderaño— itz-egiten ziran izkuntza zaar-zaarretako bat, izkuntza zaarriek galdu ziranean, bera bizirik gelditua, gaurko Hungria'ko Magyrrarekin eta Filandia'ko finesarekin batean— itxas zabal artan igeri bezela, ito gabe gelditua; eta gaur, Pirenemendi-txoko ontan bizirik irauten duana, Europa guziko "Izkuntza erliki" bezela, emengo Linguistika eta Etnologi-problema garratz askoren giltza berekin duala.

Orixe da, Jakintsuak gaur gure Euskerarentzat duten iritzia ta tzen-itza : orain millaka urte, emen oietan mintzatzen zen Izkuntza Europar bat dala, beste bere kideak galduta gero, bera bizirik gelditua, Europa guztian beste birekin batean —magyarrarekin eta finesarekin— bañan, ez aiekin, ez beste iñorekin, gaur arte, aidetasunik arkitu etzaiona.

GEOGKAFIAZ

Geografiaz, Euskera, Izkuntza europarra da, bañan *jatorriz* ez da sartzan, ez oraingo indoeuropeoen, ez leengoen —leengo ezagunen— kurpil-barruan. Ez du, ez gurasorik, ez aiderik. Auzoak —Geografiaz auzo difanak— bai, ba ditu; eta, auzo bezela, elkarri zerbait kutsu erantzi izanak : lexiko-kutsu, batez ere...

AUZO-ITZ KUTSATUAK

Auzozko kutsuetaz mintzatzean, ez diogu ezer, gure egunotako itz-kutsuetaz; leen iñoiz aipatu ditugun, erderatik artutako itzetaz, alegia : *tren*, *estazio* etab.

Ba dira, ordea, aspaldi batean Erderatik kutsatutako beste batzuek ere, zaar-usai geiago dutenak. Bañan oientzat ere gauza bera esan bear bait degu : ez dutela ezer esan nai, Euskeraren jatorriarentzat; olakokak ditugu, besteen artean, zenbait jazkera-izen : *txapela*, adibidez, eta *kapusaia*, eta *práka* eta *galtza'k*, eta *mantal* eta *pratikara* etab.

Arrigarriagoak dira, latiñak, orain bi milla urte-edo, erantsi zizkigunak, Erromatarren Kulturarekin batean gure Kulturari sarturik daudenak; adibidez, burni-lanetako *maillu*, ta *txingudi* ta *perratu*, eta *akullu* ta *zartagi* ta *kollare*; eta industri-gauzetako *errota*, *tolare*, *taratulu*; eta bide-kontuko *estrata*; eta etxagintzako *tella*; eta gizarte-kontuko *errege* ta *erregiñm*; eta Botanikako *pagu*, *gerezi*, *marrubi*; eta nekazaritzako *soro* —*solo*— *golde*, *arto* (greko) eta noiznaiko *gauza*, ta *merke* ta *barka*, ta *josi*, ta *lakio*, ta *sari*, ta *artza* (greko) *joku* ta *madarikatu* etab.

Ala berean ere, arki litezke, eta arkitu ere izan dira, zenbait itz, iberiko edo zeltiko-usaidun; bañan, linguistak diotenez, ez, aidetasun jatorrik aitorrerazi lezakeanik ezer; geienaz ere auzotasun apurren bat esan nai lezatekenak, bañan beti ere arako "islatasun" nabarmen ura urratzeke.

EUSKERAREN ELKARRIZICETAERA

Gizasemeekiko eta emakumeekiko elkarrizketa ez-berdiña iñoiz aipatu degun ezkerok, sakon dezagun elkarrizketaren gai au apur bat geiago.

Euskerak —euskaldunon "indibidualihmoa" dalakoa gora-beera— alkarrizketari begirune aundi bat ematen dio beti. Euskerak, alkarrizketarako, bestela ez bezelako ízketa-mail bat sortu du —bakarrizketarako ez bezelako mail berezi bat—. Bakarrizketarako mail bat; eta alkarrizketarako, beste mail bat. "Etorri naiz" esango degu lenengoan; eta "etorri nauzu" bigarreanean. Bigarren ontan, aditz-jokuan, —*zu* sartzen degu, norbaitekin izketan ari gerala adierazteko.

Ez ori bakarrik : elkarrizketa-lagunaren ar-emetasuna adierazten degu gañera. Ika-ta-toka ari gerala, gure izketa-laguna mutilla bada, "etorri nauk" edo-ta "aita etorri dek" esango degu, adibidez; eta neskatxa bada, "etorri naun" edo-ta "aita etorri den".

Itz bitan: —*zu* bat, edo —*k* bat eta —*n* bat sartzen degula aditz-jokuan, iñorekin ari geranean. iñor orri aitornen edo aipamen egin bearrez.

Bañan, ez aditz-jokuan bakarrik, baita izen-jokuan ere.

* * *

—Zu eta —k edo —n oieri, senbait Gramatika-zalek "dativo ético" ezan izan dio. Nik uste, "dativo" ez baño, "vocativo" dala obeto.

"Vocativo" deritzan ori, orretarako da izkuntzetan : gurekin izketan ari danari aitornen egiteko, edo-ta "dei-egiteko" (*vocare, vocativum*). Latiñezko edo grekozko izen-jokuan, deklinabidean, dei-egite ori atzizki— sufijo baten bitartez egin oi da : Domine, Eyrie...

Euskeraz, gauza bera, izenaren ondotik "ori" bat ipiñiaz egin oi degu "Ori" orrek, norbaitekin izketan ari (gerala) naizela adierazten du; adibidez :

María : nora zoaz,
eder galant ORI?

"Ori" orixe da, gure vocativoaren —gure deikiaren— ezaugarria, adierazgarria : gure deiki jatorra. Latiñez, atzizki sufijo baten bitartez egin oi dana; guk euskeraz, "ori" bat izketa-lagunaren izenari ondotik ipiñiaz egin oi deguna.

* * *

Bañan, ez bait da ori bakarrik ere.

Erderaren *vocativoa*, izen-jokuaren ale bat da, ale bat bakarra, erderaz *caso* bat esan oi dana. Euskeraz, ordea, ez bait da *caso* bat bakarrik, caso-illara osoa baizik, bere *nominativo, dativo, acusativo* etab. Ez da caso bat, izketako malla berezi bat baizik. Begira :

María : nora zoaz, eder galant ORI?
María : zer nai dezu, eder galant ORREK?
María : nik zer egin, eder galant ORRI? Etab.

Itz bitan : ORI ori, berez, izen-orde *demonstrativo* dalarik, vocativo deiki biurtu zaigula, bere jokoera esoarekin.

Olakoxe garrantzi berezia ematen dio Euskerak alkarrizketari —gure "individualismoa" gora-bera— alde batetik, aditzaren jokaeran, jokae-

ra-malla berezi bat sortuaz, eta bestetik, izenaren jokaeran, berdin, izen-jokaera-malla beerzi bat.

SINTAXIS JOAKERA

Sintaxisean ere ba du Euskerak berezitasun jakingarri bat: esaeraren joskera.

Erderazko eta Latiñezko Gramatikaetan beti ere, joskeraren arau bezela, esaeraren "egillea" lenengo ipiñi bear dala esan oi da; eta erdian aditza, berboa; eta ondoren, aditzaren osagarria, complementuak. Ori dala esaeraren joskera "jatorra".

Ala ere, esan oi da, baita, Marco Tullio Cicerón'ek bere latinezko itzaldi sonatuetan, nabarmen-nabarmen, aditza ipintzen duala azken. Euskerarentzat ere norbaitek esan bait du, euskaldunok, Cicerón'en erara, aditza azkenerako gordetzen degula, joskera orrekin esaerari biribiltasun eder bat emanaz.

* * *

Joskera-kontu ontan egiazko lege jatorra, beste au da : Euskerak ez duala olako lege surrun, gogor, jakifiik; Euskeraren joskera, joskera bigun-biguna dala, istunaren asmoa bera besain biguna; iztunaren asmoari, ez iñungo beste Gramatika-lege jakiñi ez diola jarraitzen gure esaerak bere joskeran; istunaren asmoari, esan-naiari...

Iztunak, "egillea" nabarmendu nai ba du, agillea ipiñiko du berboaren nurrean; bañan, "egillea" ez baño "egiña" nabarmendu nai badu, berboaren aurrean egiña ipiñiko du. Berdin egingo baít du esaeraren beste esagarriakin ere : dala "noriki" edo dativo, dala "nolaki" edo adverbio.

Adibidez: *aita* eta *etorri* eta *menditik* josi bear ditugularik, "nor" etorri dan esan nai badegu, "Aita etorri da menditik" esango degu; bañan "nundik" etorri dan esan nai badegu, "MENDITIK etorri da aita" esango degu.

Ala berean, *aita* eta *ekarri* eta *erbia* eta *menditik* elakarrekin josi nai baditugu, aitak ekarri duala esan nai badegu, "AITAK ekarri du erbia menditik" esango degu; bañan erbia ekarri duala esan nai badegu, "ERBIA ekarri du aitak menditik"; bañan menditik ekarri duala esan

nai badegu, "MENDITIK ekarri du aitak erbia". Itz bitan; orize da gure joskeraren lege jatorra. Ola josten ditugu euskaldunok esakizun baten itzak : aditzaren, berboaren aurre-aurrean bertan, guk nabermendu, markatu nai degun itza, elementua. —Elementu orri, Azkue zanak "elemento inquirido" esan bait zion : "galdekizuna" alegia—.

Ortaz gañera, esaeraren beste itzak, naiz galdekizunaren aurretik, naiz aditzaren ondotik, esaeraren beraren argitasunak agintzen duan eran : naiz, esan bezela "MENDITIK ekarri du aitak erbia", naiz "AITak MENDITIK ekarri du erbia", naiz "Erbia aitak, MENDITIK ekarri du" ola koetan galdekisunaren aurrean arnas pixka artuaz : "Erbia aitak, MENDITIK ekarri du"...

* * #

Bañan, gerta bait diteke, "galdekizuna" berboa bera izatea : dala berboaren esan-naia, dala berboaren "baiezkoa".

Orren gauza meetaraño ere iritxi bait da, ordea, gure Euskera; eta baita korapilloari bere "askapena" eman ere. Berboaren beraren esan-naia galdekizun danean, berbo berri bat ipintzan du tartean; "egin". Adibidez: "Aitak erbia, ekarri EGIN DU menditik".

Berboaren "baiezkoa" galdekizun danean, berriz, biderik egokiena berboa bera, esaeraren asieran ipintzea izan oi da : "EKARRI DU aitak erbia menditik" ("Ya ha traído..."). Berdin gertatzen bait da berboa imperativoan dagoenean : "ATOZ, aita, menditik."

* * *

Lege onen adierazgarri, esan bait liteke, baita, izketan ari geranean beti ere galdera bati erantzuten bezela ari gerala; guk buruan darabilkigun galdera bati, edo gure entzuleen aurpegian irakurtzen ari geran galdera bati erantzuten. Eta, entzuleak jakin nai lezakeana "egillea" danean, egillea ipintzen degu berboaran aurrean; eta "ser dan" jakin nai lezakenean, "zer" ori ipiñi bere lekuan; eta berdin gañerakoetan...

* * *

Orixe da, gure Syntaxisearen lege bizi-bizia.

Itz bitan: esaeraren itzak, berez, és dute esaeran lektu jakiñik; is-

tunaren asmoak ezartzen dio bakoitzari bere leku, beti ere lege onen barruan : galdekizun dan itzari berboaren aurreko lekua dagokiola.

ERAXKUNA

ELKARRI KUTSATUTAKOAK

Geografiaz auzoak diran Izkuntzak, kutsatzen diote alkarrri itzen bat edo beste; izkuntza indartsuak beti ere geiago argalari; bañan, gutxi edo geiago, baita argalak ere indartsuari, osmosis-endosmosis ikusgarri batean.

Euskera, orain 2.000 urte, Latiñarekin auzo izena degu. Lentxuago, bear bada, Grekoarekin. Gero pixkaren bat arabearekin. Eta gero ausarki Erderarekin.

Guzti oiekin kutsatu izan bait da gutxi edo geiago. Ikustagun.

I.— Greko-kutsuak:

aner (*andros*, *andri*) = gizona (gizasemea), eusk. *andre* (emakumea)
artzos (lat. *ursus*) — erd. *oso*; eusk. *artza*
artos = ogi; eusk. *arto*
aren (lat. *aries*) = carnero; eusk. *aari*
aitia = causa; eusk. *aita*
sideros = burni; eusk. *zidar*, *sillar*
argiros = (lat. *argentum*) zillar; eusk. *argi*, ditzizari
polites = kaletar; eusk. *polit* (erd. pulido)

II.—Latin-kutsuak:

fagus = erd. *haya*; eusk. *pago*, *pagu*
ficus = erd. *higo*; eusk. *piku*, *piko*
ceresia (*queresia*) = erd. *cereza*; eusk. *gerezi*
marrubium = fresa; eusk. *marrubi*. *malluki*
malleus = erd. *mazo*; eusk. *mallu*
incudum = erd. *yunque*; eusk. *txingudi*
aculeum = erd. *mguijón*; eusk. *akullu*
culter = arado; eusk. *golde*
sartago (*sartaguiné*) erd. *sarten*; eusk. *zartagi*

ferratum = erd. *herrado*; eusk. *perratu*
terebratulum = erd. *taladro*; eusk. *taratulu*
catena = erd. *cadena*; eusk. *kate*
gypsum = erd. *yeso*; eusk. *kizu* (*kare*)
tegula = erd. *teja*; eusk. *tella*
corpus = erd. *cuerpo*; eusk. *gorputz*
lex (*lege*) = erd. *ley*; eusk. *lege*
rex (*rege*) = erd. *rey*; eusk. *errege*
causa = erd. *cosa*; eusk. *gauza*
solum = erd. *suelo*; eusk. *solo*, *soro*
angelus (*angelus*) = erd. *angel*; eusk. *aingeru*
merx (*mercado*) = artículo comercial; eusk. *merke* (*barato*)
parcere (*parquere*) = perdonar; eusk. *parkatu*, *barkatu*
pax (*paque*) = erd. *paz*; eusk. *pake*
pix (*pique*) = (*la*) *pez*; eusk. *pike*

III.— *Arabe-kutsuak* :

Alkandora = túnica *atorra*; eusk. *alkandora*, *alkondara*
almud = ale-neurri; eusk. *almute*
soko = merkatu, eusk. *azoka*

* * *

Erderatik kutsatutakoak, asko ta asko ditugu: orain berrirokoak eta leengoak, arkaikoak —oietako batzuek leen ikusi bait ditugu : dala txapela, dala praka, dala jaka. —. Bide ori utzita, alderantzira, Euskerak Erderari kutsatutako batzuek aipatuko ditugu orain. Bide batez latinezko gure kutsudun bat aipatuaz : *espata* = erd. *espada*; eusk. *ezpata*. *Latin* jatorrak *ensis* eta *gladius* esaten bait zuan; bañan ibillian-ibillian *spatarii* zeritzan gudalozte bat azaltzen da erromatarren historian, guda-lozte ortakoak erabiltzen zuten *ezpata* motzetik izen ori artu zuana.

IV.—*Orra orain Euskerak Erderari azpaldidanik kutsatutakoak:*

rancura = apuro, desventura; eusk. *errenkura* (= *queja*)
gorroto = odio; eusk. *gorroto*
ardura = cuidado; eusk. *ardura*

bildur = temor; eusk. *bildur*

asmar = conocer; eusk. *asmatu* (= pensar, adivinar)

aizcona = flecha; eusk. *azkona*

buruca = pelea; eusk. *burruka*

anca, anco = pierna, grupa; eusk. *anika, zango* (erd. *zancarrón*)

alzar = elevar; eusk. *altza*

botar = lanzar; eusk. *bota* (erd. *botadura*)

cencerro = campanilla de pastor; eusk. *zintzarri*

cazurro — malicioso (metatesis *zacurro*) eusk. *zakur*

cachorro = perrito (metat. *chacurro*) eusk. *txakur*

Itz oiek euskeraz areago erabiltzen bait dirá, euskaldunak diranez.

EUSKERA BERE BARRUTIK

Orain arte, Euskera azaletik ikusi degu, bere inguruko Izkuntzen aldetik, alegia. Ikustagun orain barrutik. Apurtxo bat.

Itz bitan aipatu degu leen, Euskera dan atzizki-zalea izenen jokuan, eta atzekoz-aurrera-zalea Morfologian eta Sintaxis'ean : (*GizonA, gizonaREN; etxeko atea; etorri da; ikusi dezun gizona* "hombre el", "hombre el de"; "casa de puerta lá"; "venido ha"; "visto has que hombre el").

Aipa dezagun beste ezagugarri bat-edo-beste geiago.

Izkuntza-Jakintzan, leen, "Izkuntza *aglutinante*" eta "Izkuntza *flexionaV* etab. aipatzen ziran : "aglutinante" eta atzizki-zalea, alegia, ez aurre-itx-zalea; eta "flexional", aditzaren jokuan batez ere, kiribil-zalea, biurri-zalea... Orain "aglutinante-ta", itz oiek ez bait dira ainbeste aipatzen. Bañan, ala ere, "aglutinante" itzak zerbait argi ekartzen dio gure Izkuntzaren ezaguerari.

* * *

1.— Aglutinante izateak, —itzak alkarrekin itxaskor izateak, alegia, Euskeraren Iztegiari aberastasun aundia ematen dio; bi itzekin bat egiñez, itz berri bat— askotan itz tekniko eder bat —sortzen bait degu euskaldunok.

Gr.ekoa artzen da erredutzat, itz teknikoak sortzeko bidean, Izkuntza orrek ortarako duan erretasunagatik. Bañan —Orixe zanak esan oi zuan bezela— Euskerak bide ortan ez dio zorrik iñori, ezta Grekoari berari ere. Ikus "buru-ezur" (burezur) = craneo (lit. "hueso de la cabeza"); "belaun-katillu" = rótula (lit. "taza de la rodilla"); "bizkar-ezur" = *vértebra* (lit. "hueso de la espalda").

Mediku Jaunak-eta erabiltzen duten, teknika-itz-sorta luzea, ia dana. Grekotik sortutako itz-osatuz ornitzen da : *hemorragia* lit. "rompimiento de sangre"; *hemotisis*, lit. "derrame de sangre"; *hemoglobina*, lit. "glóbulos de la sangre"; *craneotomía*, lit. "corte del cráneo"... Euskeraz ain errex esan bait diteke, *hemorragia*, "odol-lertze"; *hemotisis*, "odolixurtze"; *craneotomía*, "burezur-ebaite"...

Euskerak duan erretasunnori, bere agluti-izakeratik datorkio. Izan ere, Erderak, aglutinante ez danez, *hemorragia* esateko, "rompimiento" eta "sangreren" artean "de" bat ipiñi bear du; Euskerak, berriz, batere de'rik gabe, naikoa du, *lertze* eta *odol* atzekoz aurrera ipiñi eta alkar-izea, eta ola, grekoak bezain argi ta txukun, *odol-lertze* esan...

* # #

2.— Izkuntza aglutinante izateak Euskerari ematen dion beste erretasuna, aditzari, berboari dagokiona da. Edozein itzetik aditz berri bat sortzeko arretasuna, alegia.

Euskerak naikoa du edozein itzi —*tu* atzizkia erastea, aditz berri bat sortzeko; naiz, ori *adiectivum* dala ("eder", "edertu"; "aundi", "aunditu"; "luze", "luzatu"); naiz, itz ori izen bat izan ("gizon", "gizondu"; "Jaungoikoa", Jaungoikotu"); naiz izen bat bere atzizkiarekin ("etxeko", "etxekotu"; "etxera", "etxeratu"); naiz itz ori izen-ordeko bat izan ("neretu", "neraganatu")...

Oarra.— Erderaz ere egiten da, itz bat aditz biurtze ori, itzari arbat atzizki ipiñiaz; ("atras" "atrasar"; "adelante", "adelantar"; "largo", "alargar"); bañan ez euskeraz bezain luze ta zabal ta lasai.

Beste aitornen bat ere egin bear degu erderarentzat: aditz batzuei, aurre-itx (*preposición*) bat eraxtea naikoa duala, aditz berri batzuek sortzeko; orrela izkuntza asko aberasten bait da: adibidez, *poner*, *preponer*, *anteponer*, *posponer*, *suponer*, *componer*, *exponer*, *sobreponer*, *imponer*, *deponer*, *trasponer*...

:

3.— Lexikozko aberastasunaz gañera, ba du Euskerak beste aberastasun bat ere : formaen aberastasuna, aditzean batez ere. Itz bitan, erderazko "trae" forma bakarrarentzat, Euskerak 21 forma dituala. Besteak beste, aberastasun ikaragarri au bait da, Linguistak beartu dituana, berriz ere, Euskera "lengua *isla*" dala esatera.

EUSKERAZKO ADITZAREN ABERASTASUNA

Euskeraren bereizkuntzarik aundiena, aditzaren formaetako aberastasun ori da : aditz-jokoaren aberastasuna.

Aditz-jokoa —erderaz *conjugación verbal* esan oi dana— gauza jakina da zer dan : aditzak esan nai duan "egitea", banan-banan, 1'go pertsonari, eta 2'gnari eta 3'gnari erastea, dala bakarka, dala askoka...

Gauza orren "egitura" ere jakina da nola dan : 1'go. 2'gn. eta 3'gn. pertsonaen eraskin-izki batzuek aditzaren zutarrari banan-banan erantsiaz : "traig-o, tra-es, tra-e; tra-emos, tra-eis, tra-era".

Eraskin-izki auek, beti ere sei dira : bakarkakoan iru, eta askotakoan beste iru. Eta, neurri ortan, erderaz beti sei forma dira, aldi eta egoera bakoitzean, dala "oraingo" aldian, dala "leengoan" : *tra-i-a*, *tra-i-as*, *tra-i-a*; *tra-i-amos*, *tra-i-ais*, *tra-i-am*...

Lege ori dago Erderan, eta berdin latinjatorriko Izkuntzetan.

Euskeraz, ordea, beste aberastasun bat degu.

Erderazko forma batentzat —bakarkako 3.gn pertsona "ha traído" batentzat— Euskerak, gutxienez 14 forma ditu; amalau forma ondo be-reziak.

Izan ere, Erderak aditzaren zutarrari pertsona egillea bakarrik egozten dio —"ha traido" ortan, egillea bakarrik jartzen du jokoan; Euskerak, berriz, egilleaz gañera, baita "egiña" ere, *régimen directo* dalakoa, egillearen sei formaz gañera beste sei formatan (*me, te, lo; nos, os, los*); eta, ortaz gañera, baita noriki-datiboa ere, *régimen indirecto* dalakoa. (*me lo, te lo, se lo; nos lo, os lo, se lo*); eraskin oiekin errex sortzen bait dira onako amalau forma auek, erderazko "ha traido" batentzat:

ekarri nau ("me ha traido")	ekarri dit ("me lo han traido")
" au	" dik, din
" du	" dio
" gaitu	" digu
" zaitu	" dizu
" zaituzte	" dizute
" ditu	" die

Amalau forma oietan, azkeneko "lo" ori, "los" biurtuta, zazpi forma geiago egiten bait dira, eta zazpi geiago oiekin, *ogeitabat formai*, erderazko "ha traido" bakar batentzat.

Ogeita-bat forma oiek oraindik geitu litezke —eta geitzen dira— b: edo lau aldiz geiago, ika-ta-toka'ko izkeran sartzen bagera, orain gi zasemarekin, orain emakumearekin : *ekarri dit*, *ekarri dizkit'en* arian *ekarri zidaik*, *ekarri zizkidak*; (gizonezkoarekin); *ekarri zidanen*, *ekarri zizkidanan* (emakumearekin); *ekarri dio*, *ekarri dizkio'ren* arian, berriz *ekarri zetxiok*, *ekarri zetxizkiok* (gizonezkoarekin); *ekarri zetxionan*. *ekarri zatxizkionan* (emakumearekin)...

Ola luza bait liteke arrigarriri, aditz-joku arrigarri ori... Arrigarrigo bait da, ordea, nolako garboz erabiltzen dituzten forma guzti oiek, gure baserrietako baserritarrik xumeenak, jakintsurik jakintsuenak arriturik uzteraño.

ESAERA ZAARRAK, ATSOTITZAK, SUPITAK, ESAERAK

Erderaz, "refranez". Erriak ain gogozko dituan esaerak. Erri bakoi-tzaren psikologi-ageriak direnak. Jakinduri-kutxa. Erri-jakinduri.

Gai asko ukitzen dituzte esaera zaar oiek. Danak zuurtasun ederrean. Azalez, gure esaera zaarrik geienak, bertso-eran daude. Ba dira, ala ere, bertso-eran ez daudenak. (Erderaz, bear bada, geiago dira bertso ez diranak).

Purran bezela bilduak, irurogei bat ipiñiko ditugu.

Goiz gorri, arrats eudi.

Zapata txuri paperez, eudi danean batere-ez.

Gezurra esan nuan Getarian, ni baño leen zan atarian.

Ez jan, .eta ez lan.

Goiz jeikia goiz gose; berandu jeikia loz ase.
 Gaizki oitua, beti da oroitua.
 Aitzaki ederra, olajaun pobreak agorra.
 Kanpoan uso, etxean otso.
 Nun da nere gogoa, an da nere zankoa.
 Noruntz eguzki, aruntz buruzki.
 Danean, bon-bon; ez danean, egon.
 Osasuna, mundu ontako ondasuna.
 San Simon eta Juda, udea jun eta negua eldu da.
 —Zer berri?— Zearrak berri, gazteen errabigarri.
 Aleluya, Meza-luzagarria.
 Iru Erregeen trufanaia, Jai guzien bukansia.
 Lotsik ez, eta bearrik ez.
 Ez zerurako, ez lurrerako.
 Karga, karga, bertan deskarga,
 Sant Jiurgi, artuak ereiteko goizegi; Sant Markos, artuak ereinda
 balegoz.
 Babia, bere bezain ona dau saldia.
 Senidea baño auzoa beiñago.
 Egualdi ona, bera da praka, bera da gona.
 San Pedro Klaro, gaztaña naro.
 Kandelerio-lerio, atxari ura dario.
 Urrutiko intxaurrak amalau; bertara eta lau.
 Gero ageriko, Maria Arregiko.
 Leen negarrez, orain farrez, soldado zarrarekin ezkondu naiez.
 Eguberri, eroak igerri.
 Azak, Jaungoikoaren gauzak.
 Aurra azi, eta penak azi.
 Apirilleko lorea, batere-ez bañon obea.
 Txikiena naitiena.

* * *

Ardi txikia, beti bildots.
 Bururik ez duanak, txapel-bearrik ez.
 Txapel batek bi buru ezin estali.
 Okin berriak begia zuri; zaarrak ...an zuloa.
 Zurraren poltsak bi zulo.

Belarrak ardiari "Goian goxo"; ardiak belarrari "Bertan goxo".
 Oriko txoriak, Orin du laket.
 Pujo-makurrak "zorrak, zorrak"; auspoak "paga, paga";
 gabiak, aurten ez, aurten ez"...
 Ezer ez dan tokian, atzaparrak garbi
 Astoa saldu, eta potx erosi.
 Agindua zor da.
 Berreun diralakoan, ua berriz ere.
 Denbora bateko amonarena : Mayatzean aulkia erre.
 Zozoak beleari... beltz.
 Negua, etzuan otsoak jan.
 Usteak, erdia ustela.
 Zerk ekarri, ark eraman, nere mengala ederra.
Poco miedo etxeko leiotik.
 Antiolako supitak, egiak.
 Nolako Peru, alako Mari.
 Aseak, gosea no pentsa.
 Batez beste, Simonen pekatuak.
 Txerri goseak, ezkurra amets.
 Soroak larrea zor du
 Ez giñala, bañan ba gaitun.
 Azak eta naste.
 Balizko errotan iriñik ez.
 Etzegok gaizki, zeruan eserita dagon amona.

OLERKI - POESIA

Gure Literaturak —Literatur-bildumak— Erriarpn oroimenean gor-derik iraun duala esaten degu askotan: Erriaren oroimenean, beste zen-bait Erritakoak liburuetan-da iraun duten bezela.

Erriaren oroimenean izan diran olako olerki batzuek aipatu bear di-tugu orain bizpairu, labur-labur.

Zaarrenetatik asiko gera :

Neurri ortakoak ba ditugu, Erdiaro-erdiarokoak batzuek, Erriaren oroimenean bizirik iraun, eta, bear bada, gaur oraindik abestu oi dira-

nak. Ori ere ala bait da: gure olerkiak beti ere kantudunak izaten dirala, eta kantuaeren egoetan guganaño iritxi.

Urtezar-urteberrietako zenbait koplak —gaur oraindik kantatzeni diranak— antziñako urte aietan sortuak dirala, garbi asko ageri dute. Berdin baita zenbait seaska-abesti, gure amonak beren illobatxoai kanta oi dizkietenak.

Ikustagun azken oietako bat:

Bonbolontena, nere laztana,
ez egin lorik basoan;
aizteritxoak eramango zaitu
erbia zeralakoan.

"Aizteritxo" ori gaur iñor gutxik ezagutzen duan egazti bat da. Gaur ez-ezaguna; bañan Erdiaroan oso ezaguna zana; aundi-jendeak eiza-egiteko izaten zutena: erderaz "azor" dalakoa.

Seaska-abesti onek, Erdiaroko eiza-kontu bat —aiztoareekin egin oi zan erbi-eiza— gogorazten digu. Gaurko "aizteritxo", iñoiz "aztoaretxoa" izana da.

Erderaz *caza de cetrería* esan oi zana, XIV-XV gizaldian oso oitu ta zabaldua zan baztarretan. Beste orrenbesteko zaartzarora aitortu bear bait diogu gutxienez gure seaska-abesti polit oni.

¶ % ¶

Ikus dezagun Urtezar-Urteberrietako eta Santa Agedatako beste koplak-pare bat, Erdiaroko usaia deriona bera ere.

Lenengo-lenengo, ain aipatua eta ezaguna degun "Eder zeruan izarra".

Eder zeruan izarra;
errekaldean lizarra...
Etxe ontako Nagusi Jaunak
urre gorrizko bizarra.

Erdi-aroan bizarra urrezko zutenak, Santuak izan oi ziran, Aldareko Santuak: gure Jauna, Apostoluak... Ama Birjiña, berriz, buruko illea izaten bait zuan, berak ere, urrezkoa...

Kopla ontan, etxeko Jaunari esan leikeon loxintzarik aundiena esa-

ten zaio : Aldareko Santuak bezain gizon ona dala, alegia. Bañan guzti ori Erdi Aroko giro bete-betea. Kopla oni ere, antziña-antziñako kut-sua bait dario nunnaitik.

Berdin, baita, onen ondoren, nagusi berari kantatzen zaion kopla ere. Ola dio :

Urr.e gorrizko bizarra eta
zillar zurizko sorbalda...
Erreal bikoz egiña dauka
Elizarako galtzada

Elizarako galtzada erreal bikoz egiña eukitzea, gaur oraindik Goie-rrian, Idiazabalen esan oi da, antziña-antziña otsaundiko Etxalde sona-tua izan zan Ojarbiko Nagusiarentzat. Nagusi onek, Ojarbitik erriko Elizara —bear bada, Gurutzetara— dagon bidea, zillar zurisko erreal bikoz egiña zeukala, alegia, esan oi da.

Ortaz gañera, bai bait dago tarte ortan beste zerbaite ere: Nagusiaren zillar zurizko "sorbalda", alegia; sorbalda ori, Erdi Aroko Zaldunak, biz-ka eta bular aldean jantzi oi zuten "armadura" esan nai bait du garbi-garbi : gerratean galtzairuzkoa izaten bait zan —galtzairu fiñezkoa— ba-ñan, pake alardeetan, zillarrezkoa ere izan zitekeana.

* * *

Ari oni jarraituaz, aipa dezakegu emen beste kopla bat ere, kutsu berekoa, Etxeko Andreari kanta oi zaiona :

Pazku-goizean jantziko dituala (alegia)
bere soiñean sei gona.

Fin askoak bearko bait zuten izan, seirak soñean egoki egoteko; sedazkoak-edo, alegia... dana Erdi Aroan oitura zan bezela : sei bat go-na sedazko soñean, Pazku-goizean.

Berdin esan bait liteke, seme zaarrenari aipatzen zaizkion urrezko txintzarrietaz ere; eta berdin, otxeko alabari opa zaion, kutxan gor-detako doteaz etab. etab. Dana, antziña-antziñako usai-jario...

* * *

Gure kanta-biltzailleak bildutako kanta-bildumaetan ere azaltzen zaiz-kigu, antzin-antziñako zaldun oituretaz mintza zaizkigun kopla eder-as-

koak. Oitura oietan bat —eta ez garbi-garbiena— "rapto" esan oi zaiona —gaur "secuestro" esango litzakena— arako "Paris'eko neskatxarenak" aipatzen duana, adibidez. Begira :

Parisen, ostaliertsu batek
 ninduen salutatu;
 ninduen salutatu
 berriak ere galduatu :
 bortxaz edo amorioz egiña nintzan
 "arren erraidazu".
 —Ez naiz, ez, amodioz egiña;
 ongi bortxaz egiña nausu...
 Irur Kapitainek,
 bortian enegaturik,
 Paris'at ekarri ninduten,
 sitak eta amak jakin gabarik.

* * *

Orr.en antzera, erdiaroko otin aundia dute, baita, "Bereterretxeren kantoreak" eta "Atarratzeko Jauregikoak"; eta zer esanik ez, arako "Egun bereko alarguntzarenak". Onela bait dio "dramaren" laburmen jatorra dan lenengo bertsoak:

Goizean goizik jeiki ninduzun
 ezkuntu nitzan goizian;
 bai-eta ere zetaz bestitu
 ekia jelñi zenian;
 etxek-andere zabal ninduzun
 eguerdi-aldean;
 bai-eta ere alargunts gazte
 ekia sartu zenian.
 Nik ba nizun maiteño bat
 mundu ororen ixillik;
 mundu ororen ixillik eta
 Jinko Jaunari agerik...

Buket bat igorri ditadazut
 lili arraroz egiñik;
 lili arraroz egiñik eta
 erdia pozuaturik.

* *

Antziñate aundiko, bañan beste "tonika" batekoak dira, artzai-garai jatorreko, portuak batez ere aipatzen dituztenak

Uso txuria : errazu,
 norat joaiten ziren zu?
 Españiako portuak oro
 elurrez beterik dituzu.
 Gaur gaberako ostatu
 nere etxean ba duzu.
 Txoriñua : norat ua
 bi egalez aidian?
 Nafarralat joiteko
 elurra duk bortian;
 junen gutuk elgarrekin
 ura eltu denian.
 Bortian Ahuzki;
 ur onak osoki...

Bukatzeko, aipa dezagun emen, antziñako zaldun-oiturak —kanb.e-ra apañetako andere-joku engañagarriak, alegia— artzai-kulturazko portu-kantakin alkartzen dituan, arnas aundiko koplak eder bat. Onela bait dio :

Ai-ranuak, bortietan—
 —gora dabilta egaletan...
 Ni ere leen andereki
 ebilten kanberetan.
 Orain, aldiz, ardura-ardura,
 nigarra dizut begietan

Gure Musikaz mintzatzean, zerbait goiago esango bait degu Literatura-gai berezi ontaz, uztagun onten gauza au.

LITERATURA ITURRIAK

Leentxeago aipatu, gure Aozko Literaturaren iturri bezela, Artatxuriketak eta Jostundegiak.

Oien antzera, ba zan, ordea, beste olako iturri geiago ere. Ostatueta, txitian-pitian sortu oi ziran bertso-kantariak, adibidez —bertso zaar kantariak— eta oietaz gañera ipui-kontatzalleak. Entzuleak ordu osotan farrez txixare gaizto egiten euki oi zituztenak, Beste aiek kanta-kantari bezela, berak kontu-kontari ordu osotan aritzen ziranak; aiek bertso zaarrak bezela (Xenpellarrenak, Otañorenak) berak ipui zaarrak; zaarra mamia, berria azala; zaarra gaia, bañan bapateko grazi aundiz jantzia, apaindua, bizitua...

Ola konta oi bait zuten "Estudiante tonto" ren ipuia; eta "Zazpi lapurrena" eta "Bi alargunen seme-alabena", entzuleak algara batean leertzen zeudela.

* * *

Ipui oietan, zenbait gai, mundu guzian zabaldurik daudenak izan oi dira; bañan beti ere erri bakoitzak detalle bereziren bat erasten diela.

"Esne-zale ameslariaren" ipuia, adibidez, erri askotan banatua da; bañan Euskalerrian ba du detalletxo bat, benetan berezia. Beste lekuetan esne-ontzia burutik erortzea, lurrean txirrixt-eginda izan zala esan oi da; bañan gure artean beste zerbaitegatik: esne-zalea, zearo aberastuta jendartean igarotzean, jendeak diosal aundi egiten ziotenean, berak nola erantzungo zien, buruarekin zeremoni aundiz makur-keiñua egitean ontzia burutik beera erori zitzaiola, alegia, eta milla puska egin; ola esan oi da, ez txirrixt eginda...

Olako detalle bereziak, bestelaz gañeko izaera berezi bat ematen bait diote ipuiari.

* * *

Orain, ipui-eredu bezela bizpairu ipiñiko ditugu:

- 1) "Iru anaiena";
- 2) "San Martin Txikiarena"; eta
- 3) "Axular Apaizarena".

IRU ANAIK

Aita batek iru seme zituan.

Aunditu ziranean, mundurik-mundu, irabazitara joatea erebaki zuten.

Aitak etzeukan beste zer-emanik, eta bati igitaia eman zion, eta besteari katua, eta besteari oillarra.

Eta j'oañ ziran —joanda-joan— urruti batera; eta, soroan gari ebaiten ari ziran gizon batzuek. Arrizko aizkoraz ebaiten zuten garia.

Igitaia zuanak onela esan zien : "Aizkoraz gari ebaiten? Nik ba det gauza egokiagorik ortarako". Eta igitaia zakutik atera, eta ristiti-rasta, ixtanpatean bere aldiko sailla ebaki zuan.

Arriturik gelditu ziran ebailleak, olako erreminta azkarrarekin.

— Salduko al diguzu? erosiko dizugu. Zenbatean?

— Onenbestean.

Eta mutillak dirutza ederra artu zuan, bere igitaia salduta.

* * *

Eta, joanda-joan, erri batera iritxi ziran.

Errian, gizon emakume, danok saguak arrapatu eta saguak il ari ziran. Sekulako sagutea zan errian, eta ezin burutu ifiola ere ainbeste sagurekin.

Eta katudunak onela esan zien :

— Zer ari zerate olako istillutan, errian saguak dituzutela-ta? Nik ba det gauza egokiagorik saguak akabatzeke.

Eta katua zakutik aterata, lurrera bezain laister, asi zan, saguak arrapatu eta saguak arrapatu, arik-eta berealako batean erri guztia garbi utzi suan arte .

Arriturik gelditu ziren erritarrak alako eiza azkarrarekin:

— Salduko al diguzu? guk erosiko dizugu, zenbatean?

— Onenbestean.

Eta bigarren mutillak ere dirutza ederra artu zuan, bere katua salduta.

Gero, joanda-joan, beste erri batera iritxi ziran arrats-beranduan.

An inguruko mendixka batean gizon-sail aundi bat, eguzkiaren sortaldera begira, makillaz lurra jo ta lurra jo ari ziran.

Eta oillardunak, onela esan zien :

— Zer dala-ta ari zerate, makillaz lurra jo ta lurra jo, eguna argitu baño leenago?

— Eguzkiari deika ari gera, loak artuta biar etorri gabe gelditu ez dedin.

—• Nik ba det eguzkiari deitzeko zerbait egokiagorik.

Eta oillarra zakutik atera bezain laister, *kukurrukuka* asi zan, eta baita eguzkia egertu ere laister asko.

Arriturik gelditu ziran gizonak, alako egazti arrigarriarekin.

— Salduko al diguzu? guk erosiko dizugu. Zenbatean?

— Onenbestean.

Iregarren mutillak ere dirutza ederra artu zuan, oillarra salduta.

* * *

Gero irurak etxera biurtu ziran, ondotxo aberasturik. Eta beren aitarekin ederkitxo bizi ziran andik aurrera.

Eta txuri eta gorri ta kikirriki... ipui au egi baledi.

* * *

Ipui onek besteak-beste, bi kultura oso antziñakoak ikutzen ditu : eiztari-kultura, eiztari-garaia, animaliak —katua ta olloa— oraindik etxerakoitu gabe zeuden leku ta kultura; eta nekazaritan oraindik oso atzeratua zegoen leku ta kultura —igitairik gabeko garaikoa—.

"SAN MAETIN TXIKI" ETA GARIA

Ataundarrak garia zer zan etzekiten.

Aralarko jentillak, berriz, bai. Beren etxeko genbaraetan berealdiko gari-pillak euki oi zituzten. Bañan eskutada bat ere iñori ematen ez.

San Martin Txiki, Ataungo mutil bixkor-bixkor bat zan. Artxek ekarri zuan bere errira lenengo gari-alea. Aralarko jentillai ostuta. Orra nola.

* * *

Egun batez, beste askotan bezela, joan zan gure San Martin Txiki Aralar'ko jentil-etxe batera; eta, beste askotan bezela, goiko ganbarara

igota, apustu egin zuan etxe artako jentillakin: baietz pasa berak gari-pilla, batetik bestera, salto batean... Ezetz. Baietz...

Eta, esanda-egin : abiadura artuta, itxuraz indar guztiakin, salto, gure mutillak! Eta, gari-pillaren erdi-erdian sasta!

An ziran algarak, San Martin Txikiren bizkarretik! Eta berak ere, bai, lotsa-plantak, apustua galdu zualako. Bañan barrutik poza. Oñetako abarka ta mantarrak naiko garia jaso bait zuten, ixil-ixillik Atauna eramana eta an ereiteko.

Jentillak berealakoan etzioten igerri San Martin Txikiaren azarikeriari. Bañan gero bai. Bañan ordurako, lotsa-plantak egiñaz, ba zijoan gure mutilla leguerdi-bidean. Eta joaten ikusirik, jentillak, beren amurruan, aizkora jaurti zioten. Ez alperrik! mutilla jo bearrean aizkora, burruadaran, gaztain-ipurdi batean sartu omen zan. Eta, oraindik ere, an ageri omen da, gaztain-ipurdian aizkoraren zastada.

* * *

Eskutada-pare bat gari-ale izan omen zan guztia; bañan naikoa, soroan ereinda, urte gutxiren buruan, Ataunen eta ingurumarian gari-soro ederrak sortzeko.

* * *

Ipui ontan —historiaren testigu— gauza bat ageri da : gure mendiartean nekazaritzarik etzan garai bat izan zala. Eta Nafarroako erriberran, bai. Eta gure Nekazaritza Nafarroatik-eta sortua degula Cipuzkoan.

AXULAR APAIZARENA

Axular Apaiza, Apaiz jakintsu-Jakintsua zan. Salamankan ikasia. Salamankan, Ikastaroetako Unibertsidade ospatuz gañera, ba zan beste jakinduri-iturri bat ere. Bañan patu txarrekoa. Etsaiaren koba bat, inguru aietan. Koba artan erakusten bait zituan etsaiak bere arte txarrak. Eta, aldian-aldian joaten zitzaizkion estudianteren batzuek, arte aiek ikastera.

Gure Axular ere, bere jakiteko kutiziaren kutiziz, joan zan, bein batean, etsaiaren koba artara. Etsaiak arrera ona egin zion. Eta baita

esan ere nolako arte arrigarraiak ikasiko zituan. Bañan jakinduri orren pagu, bere anima saldu bear zion etsaiari. Gauza gogorra. Bañan gure mutilla ain zan jakin-zale... Baietz, ba, salduko ziola. Eta bereala asi zitzaion etsai maisua, bere arteak erakusten.

Gure mutillak berealako batean asko ikasi zuan. Arte aien artean, bat aparte-apartekoa : edozer gauzeri izketan erakusteko artea.

Etsaiak gure mutilla bai batekin irifia eralkitzen ipiñi zuan an koba-barruan; bañan kobatik atera gabe; eta, bera beste lanetan ari zala, ustegabe iges-egin etzezaion, beti ere deika aritzan zitzaion : "Axular: nun aiz? Eta mutillak beti, "Emen, jauna" erantzun bear.

Bañan, naikoa ikasi zuanean, eta kobako egoeraz aspertu zanean, iges-egitea gogoratu zitzaion. Bañan etsaiak beti kanta bera : "Axular: nun aiz?"; eta berak, "Emen, jauna".

Bañan alako batean, baiari berari "Emen, jauna" esaten erakustea gogoratu zitzaion; eta baita baiak ederkitxo ikasi ere... Eta geroztik, errex iges-egin zezakeala pentsatzen asi zan gure mutilla. Naguziaren deiari baiak erantzungo ziola, eta berak ederki iges-egin.

Eta esanda-egin, alako batean, ankamuturrean-ankamuturrean asi zan kobako atera-bidean. Etsaia, ordea, zakur zaarra izan, eta susmo txar batek jota, jeikitzen da salto batean bere beste lanetatik, eta or ikusten du gure Axular kobako atetik oraintxe irteten. Mutillak gorputza kanpoan zuan, bañan gorputzaren itzala barruan oraindik; eta etsai maltzurak, besterik ezean, or eltzen dio itzalari. Eta gure Axularrek iges-egin bai, bañan itzalikan gabe. Gerostik Axular Apaisak, eguzkirik ederrenean ere etzuan egiten itzalik. "Gorputza bai, bañan itzalik ez". Itzala etsaiaren oskuetan utzia. Eta itzalerekin... baita anima ere. Etsaiaren oskuetan.

Geroztik, ikaragarritzko jakintsu izan zen gure Axular. Bañan ala ta guztiz ere, beti kezka : itzalik ez. Eta ondo bait zekian, itzalik gabe iltzen bazan, inpernura bearko zuana.

Ala ere igerririk zaukan, Meza ematen ari zala, Mezerdi-Mezerdian, itzala berriro etortzen zitzaiona. Eta bere buruari ala esaten zion: "Axular : ik Mezerdian il bear dek; bestela betiko galdua aiz"...

Eta, urteak joan eta urteak etorri, alako batean ala dio bere Sakristaui : "Sakristau : ik igerri alde, nik itzalik ez dedana? —Bai, jauna : aspaldidanik igerririk nago—. Eta igerri al dek, Mezerdian itzala etortzen zaidana? —Bai, jauna; igerririk nago. —Ba... ola ta ola... Aspaldi

batean nik nere anima etsaiari saldurik zedukiot. Eta orain, itzalikan gabe iltzen banaiz, inpernurako nauk. Bañan Mezerdian iltzen banaiz, zerurako. Mesedez, Sakristau : ik Mezerdi batean il bear nauk...

Sakristauak ezetz ta azetz; eta Apaizak, baietz ta baietz : mesedez ta mesedez...

* * *

Aizkenean, konformatu zan gure Sakristaua.

Bañan, ordua etortzean, atzera egiten. Bein eta bi aldiz... Bañan aizkenean, Apaiza Mezerdiko ítzetan ari zala, labain-kolpe bat biotzean, eta illik utzi zuan Sakristauak gure Axular.

Eta, zerura zijoan señale, uso txuri bat apaizaren aotik zerura egan joan omen zan.

* * *

Ipui au, Euskalerritik jasorik omen, Adalbert von Chamisco de Boncourt, aleman Literato batek argitaldu zuan, gauza jakingarri bezela.

Beste gauzatxo bat: ipui ontan, antziña-antziñako zenbait kulturatan bezela, gizonaren anima itzal iristen dala; itzal, ez arnas, ez odol...

Aita Kardaberatz'en «Euskeraren berri onak» irakurtzen

Jaun eta andreok:

Aita Kardaberatz'ek "Euskeraren berri onak" deritzan liburu bat argitaratu zuan 1761'gn urtean, il baño amar urte juxtu-juxtu leenago.

Liburu oso interesgarria, orduko Euskeraren problematikari buruz alde batetik, eta A. Kardaberatz'en beraren Euskerarekiko problematikari buruz, bestetik.

Ez da liburu aundia, 8.º zortziurreneko 62 orrialde. orduko Kristau-Doktriña bat añatsuko liburuxka.

Zuen erritar argi-argi ark, orain 210 urte egindako liburutxu aren gune, muiña, mamia azertu ta aizatu nai nuke, gaurko ernaniarren aurrean, zuen erritar aundi aren zerbait gaur gogoratu dezazuten, guztion pozetarako, baiñan baita guztion erakusbiderako ere.

Beste izlariren batek esanda, ba dakizute onuzkero, XVIII gizaldiko euskaltzale bikain ura, zuen Ernani ontan jaio zala, 1703'gn urtean; amar urte ezker Donostia'n bizi izan zala, aita Donostia'ko ixkribau egin zutelako; eta, Iruñea'n eta Valladolid'en estudiantan ibilli ondoren, 1721'gnean —emezortzi urte zituala— jesuita sartu zala; eta 1730'gnean Meza eman ondoren, 1735'etikan 1755'era —ogei urte ondo beteak— Eusllallerri guztik mixiolari ibilli zala, bai Gipuzkoa'n, bai Araba'n, baiñan batez ere Bizkai-aldean.

Bere sermoi-gaiak, mixioetan oítzen ziranak izan oi zituan ots, gizonaren "lau ondorenak" batez ere. Baiñan ba zuan beste gai bat ere, beretzako gai "kuttuna": Jesus'en Biotzaren jaiera, orduan jaiera ta sermoi-gai berria. Ain zuzen, gauza jakiña da, Frantziak beste, emen oetan lenengo aldiz jaiera ori, Jesus'en Biotzaren jaiera, kulpitotik predikatu izan zuana, lenengo-lenengoa gure ernaniar jator au izan zala; eta Bilbao'ko San Anton Elizan ain zuzen predikatu ere, 1733'gn

urtean, berak Bilbao'ko Jesuiten Ikastetxean, "Humanidades" diralakoak erakusten zituan garaian.

Ba dakizute, baita, Espaiña'ko Errege Jaun Karlos III'aren aginduz, beste emengo jesuita guztiak bezela, 1767'ganean, desterratua, Italia'ra joan bear izan zuala, eta, andikan lau urtera an il zala gizagajoa, Bolonia-inguruko Castel San Giovanni deritzan erri txiki batean; eta, aizkenik, 1908'ganean aren ezurrak Loyola'ra ekarri zirala, zati on bat emen, Ernani'n zuek, "santu-usaian" gordetzen dezutelarik.

Bere lenengo jesuita-bizitzan, ogei urtez Mixiolari Euskalerra guzian ibilli ondoren, osasunak laguntzen-ez-eta, bere Agintariak Loyola'ra bil zedilla agindu zioten, an, San Ignazio'ren "Gogo-jardunak" Ejerzizioak ematen ari zedin, Mixioetan aña neke gabe, baiñan beti ere animen onerako lanean.

"Animen onerako", eta Euskeraren bentaja aundi baterako. Loyola'ko egoera artan idatzi bait zituan zenbaint Liburu euskeraz: Aita San Ignazioren Ejerzizioen osagarri irakurgai sutsu-sutsuak batez ere —lau Liburu bikain—; eta "Ondo iltzen laguntzeko" beste liburutxo bat; eta "A. Astete'ren Kristau Doktriña euskeraz"; eta "Jesus, Maria ta Jose'ren deboziak" beste bat; eta Azkoitia'ko Ama Josefa'ren bizitza bat; etab.; baiñan, batez ere, gaur guk emen aztertu eta jorratu nai degun Liburu txukun, bixi, bitxi, arrigarria: "Euskeraren berri onak"...

* * *

— Zer dakarréla Liburu onek? zer girotan dagola egiña?

— Liburuaren giroari bagagozkio, gauza bat degu, lenbaitlen eta naita-ez esan bearrik: A. Kardaberatz'en beste liburu guztietatik oso bestelakoa dala bere gaiak Biburu au. Beste liburuetatik eta bere bizitzako tonika guztitik, oso bestelakoa ta diferentea, begiratu baterako, begiratu axal baterako... Baiñan ori, geroxeago ikusiko degu obeto. Orain esan dezagan, zer dakarren, zer liburu-mota dan?

Liburua, bere izaera arruntean, Gramatika-liburu bat da: Gramatika eta Erretorika : Gramatika-apur, eta Erretorika- apurrago.

A. Agustin'en Gramatikaren teknikaz ez natzaizute luze mintzatuko: bi gauzatxu bakarrik aipatuko dizkitzuet: biak nabarmen xamarra: bata Morfologiari buruzkoa, eta bestea Ortografiari.

Ortografiari gagozkiola, auxe bakar-bakarrik: A. Kardaberatz'ek H

zearo baztatu zuala; eta ez praktikan bakarrik •—bere libiruetan ez erabilliaz— baita teorian ere, letra onen aurka zorrotz mintzatuaz, eta mintzatu ere, ain xuxen, gure Liburu ontan: "Euskeraren berri-onetan".

Orra aren itzak, Liburuaren 22'gn orrialdean: "Emen, gure Euskeran eta Bizkai'an, *atxe* ori alferrikako edo serbitzen ez duan gauza da... Ken ortik! Gure Euskera suabe, eztizkoarentzat soñu ori ez da".

Gure A. Agustin'en itz oiek, diruditen baiño garrantzi aundiagoa dute, aren inguruko giroari begiraten badiogu. A. Kardaberatz'en egunetan oraindik, aren bi lagun, idazle jakintsu-jakintsu, A. Mendiburu ta A. Larramendi'k, oso gutxi, bañan, erabiUi erabiltzen zuten H ori: oso itz gutxitan, ale-ale batzutan, urri benetan: Larramendi'k bi edo irutan (*hitz, bihotz* —ez beti— *hau, hori, hura* —auek ere ez beti—); eta A. Mendiburu'k ale batzuek geiago... erdi-illean dagon forma bat bailitzant...

Erdi-illean zegon elementu orri, A. Kardaberatz'ek eman zion Bizkayan eta Gipuzkoan "puntilla" esan oi dana, orain dala berreun-da-amar urte. Esan bait liteke, Aita ernaniarraren ondotik etorri diran Idazle bizkai ta gipuzkoar guztiak ernaniarraren legeari jarraiki zaizkiola orain arte... Ortografiari gagozkiola ori.

Morfologiari gagozkiola, berriz, beste au, oso arritzekoa: Aita ernaniarrak, bere idazti-lanetan, etzuala *bait* aurrezkirik bein bakarrik ere erabilli. Bidasoaz beste aldeko eskribitzalleak ain ugari erabiltzen zuten, eta Gipuzkoan ere, Beterrri-aldean bederenik, itzetik-ortzera erabiltzen dan *bait* elementu ori, gure Aita ernaniarrak ez du bein bakarrik ere bere idaz-lanetan erabiltzen, izketan berak ere txikian-pitian erabiliko zuan arren.

"Arritzekoa" dala, esan det; bañan ez bait da orren arritzekoa. Gauza bera gertatzen zaigu A. Mendiburu'rekin ere. Berdin, baita, A. Larramendi'rekin ere. A. Larramendi'k, bere Gramatika "El imposible vencido" ez du aipatzen *partícula causal* txiki au, beste ainbeste *partícula* ain zeatz aztertzen duan arren, eta berak ere, bere erritarrakin itzegitekoan, itzetik-ortzera erabiliko zuan arren. Arritzekoagoa bait da gauza au A. Mendiburu'rengan, bera, izkuntzaz, nafarra —oyartzuarra— izanik, eta bere idaz-lanak Nafarroako euskaldian bete-betean egiñak; Nafarroan oso erabillia bait da *bait*-forma ori...

Digresio-ixkintxo polit bat egiteko gai berezia eman lezaiguke gertakari onek. Gauza bat ageri da garbi emen: Idazleetan ez dagola Eus-

kera "guztia". Idazleetan ezin ikasi ditekela Euskeraren izaera betea. Idazleai, izkuntza mintzatuaren detalle asko, eskuetatik igertzeke joan zaiela.

Gaur garrantzi aundia ematen zaio, "Klasikoak" irakurtzeari. Ez dago gaizki. Bear bada, izan degu aldi bat, XVII, XVIII ta XIX gizaldiko gure Klasikoak baztarturik euki izan dituguna, lexiko erdal-kutsuduna zutelako-edo. Orain, berriz, Idazle zaarren irakurtzeari eman nai diogu garrantzirik aundiena. Ez dago gaizki, bañan, ez degu aaztu bear, gure Klasikoai, Euskera mintzatuaren zenbait detallek iges-egin diela, igertzeke iges-egin. Arestian ikusi degun *bait* ori dago esaten.

Eta ez da arritzeko, alde batetik. Gure Klasikoak, idazterakaan, beren ideiak erdal-iturrietan edaten zituzten; eta beren Gramatika bera ere, erderazko Gramatiketan —Latin-grekoan— kalkatua egin oi zuten. Eta, erderazko textoetan eta erderazko Gramatikaetan arkitzen etzuten zenbait gure Euskeraren detalleri etzioten jaramonik, etzioten kasurik egiten. Ori gertatu bide zitzaion Larramendi'ri gure *bait* orrekin.

Itz bitan: Euskera osorik ikasi nai duanak, Klasikoak irakurriaz gañera, Peru Abarkaren Basarteko Unibertsidadera joan bearra daukala : buru-belarri baserri-baserrian sartu bearra.

Bañan jarrai dezagun aurrera.

Aita Larramendi'ren Gramatika ta Iztegia askotan aipatzen ditu gure A. Kardaberatz'ek bere Liburuan; aipatu eta "goraipatu" ere bai. Jesuita biok jenioz oso elkarren bestelakoak ziralarik, gure A. Agustin'ek, beti ere, itzal ta maitasun aundiz aipatzen du bere erdi-erritar zuan A. Larramendi. A. Larramendi eta, esan degun bezela, aren bi lan bikain, Gramatika ("El imposible vencido") eta Iztegia ("Diccionario trilingüe") askotan goraiatzen ditu.

Bañan, dana-dala, eta biok gramatikaz ari ziran arren, gure A. Agustin'en "Euskeraren berri onak" eta A. Larramendi'ren Gramatikak, alde aundia dute elkarren artean : A. Manuel'en Gramatica erderaz dago; A. Agustin'ena, euskeraz...

Ba dirudi, gure ernaniarrak, euskera edozein jakintza-gaitarako, edozein erdera bezain egokia dala, praktikan eta ibillian erakutsi nai ziela bere denborako euskaldunai. Ez du ortarako luze idazten; bañan bai, bere elburu ortara iristeko naikoa, Euskeraren egokitasun ori edozeiñi sinistarazteko, alegia, Gero ikusiko degu obeto, ortarako zenbait deta-

Ue. Eta ontatik aterako degu, Liburuaren tonika, beti ere "Apoloji-tonika" dala; Euskera goratu...

Aren garaitsuan izan zan beste norbait ere, ta bera baño leenago, bide ortatik ibilli zanik: Sarako Joanes Etcheberri, Azkoitiako mediku izana, bere "Euskararen atsapenak" eta "Lau-urdiri Gomendiozko karta gutuna" deritzan liburuan; liburu ortan latinez ikasteko metodo bat ematen bait du, dana, asi-ta-buka, euskeraz egiña, erdera jakin gabe latina ikastekoa... Eta gure Aitak ezagutzen zuan nunbait eta aipatzen ere du, ain zuzen, itxuraz, Etcheberri onen metodo ori.

* * *

Gauden, beraz, ontan, gure Aita Kardaberatz'en liburu bitxi oni buruz: liburu apologetikoa dala: Euskeraren aldeko liburu apologetiko bero-beroa: gure Aitak Euskerari zion maitasun aundiaren agiri bikaña. Eta aren Apologetikaren aria ta nuña, ontan dagola: Euskera edozein erdera bezain gai dala edozein erakus-gai argi ta errex erabiltzeko. Eta ori, praktikan erakusten duala: ots! Aita Larramendi'k erderaz ematen duan Euskeraren Gramatika, berak euskeraz emanaz: Gramatika eta Erretorika laburki, bañan euskera ederrean... eta asarrerikan gabe.

"Asarrerikan gabe" diot. Izan bait zan, ura baño leenago ta Sarakoa baño ere leenago, beste Joanes de Etcheberri bat, Ziburuko apaiza, Euskeraren edertasunak erderaz goraiatzen zituztelako, euskaldun idazle zenbait arbuyatzen ta mendratzen zituana. Ikus Etcheberri onek gure Garibai eta Echaberi buruz idatzi zuan bertsoa :

Burlatzen naiz Garibaiez,
bai halaber Etchabez,
zeiñek mintzatzen baitire
erdaraz euskaldunez.

Ezen, ziranez geroztik
euskaldunek hek biak,
eskaraz behar zituzten
egin bere historiak.

Garibai ori, ba dakizute, mondragoarra zan; eta bera izan zan, XVI gizaldian, Espaini guztiko lenengo Historia batua idatzi zuana, ots! "Compendio historial de todos los Reinos de España", iru tomo aundi-

tan; eta ortaz gañera euskerazko zenbait errepiñ-bilduma interesgarria; bañan, erderaz. Baltasar de Echabe zumayarrak, berriz, Euskeraren Apologi txiki bat idatzi zuan izen onen-pean: "Discurso de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada".

Ziburu'ko Etcheberri onek iru otoitz-liburu argitaldu zituan, irurak euskeraz, eta irurak bertsoetan, bata, batez ere, oso errikoi egin zana, "Noelak" izenekoa, bere egunetan eta gero ere asko aldiz argitaldua.

Ikusten denez, Etcheberri ziburutarra ta gure Kardaberatz, ari berean dabilta: biok euskeraz idazten dute, beste askok ez bezela; bañan ziburutarrek aserre, besteak berak bezela egiten ez dutelako; gureak, berriz, aserrerikan gabe, eredu ixil bezela, itzikan gabeko ixpillu mutu bezela, A. Larramendi'rentzat berarentzat ere: bere Gramatika eta Erretorika-saioak euskera ederrean idatziaz...

Ziburu'ko Etcheberri'k gaizki ikusten zuan, Etxabe'k eta Euskera-
ren beste apolojeta zenbaitzuek beren apoloji-gaiak erderaz erabiltzea, Euskeraren artarako gaitasuna teoriaran aitortuaz, bañan praktikan ukatuaz. Bañan gure A. Agustin'ek, A. Larramendi'ren ariera ez du arbutuzten. Ontan dira alkarrengandik oso bestelakoak, Ziburu'koa eta Ernani'koa. Ernaniarrak aitortzen zuan nunbait, gure gauzak erderaz ere erabiltzea ondb zegona. Bañan... berak praktikan beste bidea entsaiatzen du: Sarako Joanes Etcheberri'rena.

Dana dala, gure A. Kardabertz'en entsaioa, oso ondo etorri zan orduan, eta ondo etorri ere da orain guztiontzat. Olako entsaioai eskerrak, gaur esan dezakegu, ez dala jakintza-gairik, gaurko egunean euskeraz entsaiatu ez danik. Gure A. Ernaniarra izan zitzaigun aurrelari bide ortan: aurrelari, aitzindari, bide-austalle.

*If TP JJ

A. Larramendi'ren gure Kardaberatz'enganako "zera" aipatu degun ezkerok, sakon dezagun gauza au pixka bat geiago.

A. Larramendi'k, nere erritar A. Mendiburu oyartzuarrari "Oyartzun'go basurdea" esaten omen-zion. Gauza jakiña da, bi jesuita aundi aiek, Euskalerriko dantzaen gañetik elkarrekin oso aserre ibiltzen zirana: A. Mendiburu, dantza-mota guztien etsai amorratu, eta A. Larramendi Euskalerriko dantzaen apolojeta bero. Ortatik sortu bide zan basurde-kontu ori. Bañan esan dezagun garbi: A. Andoaindarrak oyar-

tzuarrarentzat erabiltzen zuan neurria guk berari ezarriko bagenio, "Andoain'go zakarrondo" —edo beste zerbait olako— esan bearko genioke berari.

Ala izan bide zan, izan ere-ta, zakarrondo, batez ere gure A. Agustin'entzat.

Gure A. Agustin'ek euskeratutako A. Astete'ren Kristau-Doktriñaren iritzia —teólogo-iritzia— eskatu zitzaion noizpait nunbait; eta... dakitenak diotenez, A. Larramendi'k "asto belttxarenak" esan zituan bere iritzi-deskarguan, A. Agustin'en lanarentzat. —Bear bada, umoretzar-aldiren batean eman zioten enkargu ura—. Dana dala, A. Kardaberatz'ek min aundia artu bide zuan iritzi zorrotz arekin, eta baita berak bere deskargua eman ere bere Agintarien aurrean, gauzari zegokion bezela. Orregatik diogu, Aita andoaindarrari egoki zegokiola, berak besteri "babsurde" esatea bezela, bestek berari "zakarrondo" esatea.

*J *3* *1r

Bañan ziranak zirala aien aserreak, gure A. Agustin'ek etzion orregatik betiko asarrerik gorde A. Larramendi'ri. Kontrara baizik.

Begira gure Liburuaren VI Kapitulutik artuta aren itzak; ezin bait litezke adiskidekorragoak izan:

"Orain Euskeraren Gramatika ederra ikustera goazen —dio, A. Andoaindarraren Gramatikari buruz—. Munduak ikusi duen mirari aundi edo marabilla guztizkoetatik bat, dudarik gabe, Arte au da (ots: Larramendi'ren "El imposible vencido", alegia). Onek, ez gizonen, ezpada Aingeruen beargaia zirudien; eta orain, egiñik ikusi, ta alare "ezin dittekeana" dirudi. Jainkoaren milagrozkko obra bezala da. Ta Libru au eskuetan iñoiz ere artzen ez det (ta askotan artzen ta irakurtzen det, ta geiago ta obeto, al banu, nai nuke) miretsi ta Jainkoa alabatu gabe. Berari milla esker, zeren Aita Larramendi'ri berezkirozko bear ziran argi andiak eman ziozkan, Gramatikak dituen bazter guziak ondo barendu eta bere Arte preziosoan euskaldunai agertzeko. Lan aundi onetan, ez gizon baten, ezpada askoren burnigita edo muellerik sendoenak eten, urratu ta desegin zitezkean. Alabantza guzien gañeko ta neke guzien eragiñen ta izugarrien au ondo ezagutzeko, Gramatikaren parte ta erregladi guzien berri ondo jakin bear da". Eta ola jarraitzen du laudoriozko izkuntza beroan.

Itz oietatik argi ageri bait da, guk dioguna: ernaniarrak etziola betiko aserrerik gorde andoaindarrari.

Dana dala, eta "joanak joan", aizkenik A. Larramendi'k bere erioztako orduan etzuan arkitu gure A. Agustin bezelako laguntzallerik ordu estu artarako. A. Agustin'en besoetan eman zuan bere azken-arnasa Loyola'n, 1766'gn urtean, gure ernaniarraren santutasunari aitormen ura egin naiez, bear bada, lengo zakarrerien ordañetan.

•P •P w

Eta orain, A. Mendiburu aipatu degun ezkeru, aurrera jarraitu baño len, konpara ditzagun elkarrekin, Jesus'en Biotzaren Apostolu biok, oyartzuarra eta ernaniarra, eta ikusi zertan ziran elkarren antzeko eta zertan ez A. Agustin eta A. Sebastian.

Biok euskal-idazle gotorrak izan genituan; biok Jesus'en Biotzaren jaiaren —orduan oraindik jaiera berriaren— zabaltzalle ta Apostolu langille, asper-gaitz Euskalerra guzitik zear; biok euskal-sermoilari bikañenetakoak —A. Mendiburu'ri "Zizeron euskalduna" esaten bait zioten—: A. Mendiburu Nafarroa'n batez ere, eta Gipuzkoa'n; A. Kardaberatz Gipuzkoan, bañan batez ere Bizkai'an, Araba'n ere bere saioak egiten zituala. Gureak amalau bat liburu labur bezela, oyartzuarrak gutxiago, bañan askoz luzeagoak argitaldu zituan: "Jesus'en Biotzaren débozioa" batez ere, eta bere "Otoitz-gai", luze ta zabal, ots aundikoak: 11 tomo zortziurreneko... Biok, idazle oparoak.

Lanaren tonikari bagazozkio, guretzat ernaniarra bioztunago genduan; oyartzuarra burudunago, zerebralago. Biok "izlari": ernaniarra beroago, oyartzuarra apañago, eleganteago; bañan biok, itz-jario errex ta oparo.

Bañan goazen orain, leen aipatu degun puntu garrantzitsu ura ukitzera.

Gure A. Agustin'ek —esan dizuet— amalau bat liburu ditu argitaratuak, guzitara; eta amalautatik amairu —egoki ere itxuraz ala zanda— amalautatik amairu jaungoiko-gaiezkoak. Bestalde, bere bizitzaz ere, etzan ura nolanaiko jaungoikozkoa, mistiko goren-gorenekoa baizik, Er-

nani'n guztiok ezagutzen dezuten "Los ardores de un serafín" liburu galantatik ondotxo dakizuten bezela.

Zer gogokaldik eman zion, beraz, gure A. Agustin'i, Loyola'ko ez-kutu mistikoan bizi zalarik, Aita San Ignazio'ren "Gogo-iñarkun" Ejerzizioak eman-ta-eman ari zan artean, zer gogokaldik bultzatu zuan —zer?-ta— Gramatikari ta Erretorikari buruz liburu polit bat euskeraz idaz-tera. Tentazio txarren bat sentitu al zuan? bere mistika-bizitzan xabar-aldiren bat izan al zuan?

Ikustagun gauza astiro.

Meza eman-berritan, Bilbao'ra bidali zuten, ango Ikastolan Gramatika ta Erretorika erakustera. Urte aietan bere baitan pentsatu edo amets-egin zezakean, noizpait, nunbait, gauza aiek berak euskeraz erakutsi zitzazkeala. Ez dakigu; baiñan, nola-nai dala, Bilbao'ko erakusketa ark, seguru asko sakonerazi zizkion Gramatikaren eta Erretorikaren legeak, edozein izkuntzetan txukun ta garbi erakusteko lain. Larramendi'ren "El imposible vencido o Arte de la Lengua Vascongada" argitalduta ikusteak, idirikirik zedukion nunbait, berak ere gai ontan zerbait egiteko gogoia.

Baiñan, beti ere, gure A. Agustin'en liburuen tonika ta bere izaera ezagutzen dutenai, arrigarri egiten zaie bere Loyola'ko ordu barrukoiak olako lan batean —Literatura entretenigarri lan batean— eman izana. Batez ere bere Erretorikaren eredu ta ejemplo bezela Liburuak 40'gn orrialdean dakarren troxu ironiko irritsua ikusi-ta.

Izan ere, ikusi besterik ez dezute, "berezko" Erretorikaren eredu bezela dakartzian bi troxuak, lenengoa batez ere, arako "gatz eta pi-perdun" donostiar "errekardari" garbosaren itz-jario bixi-bixia.

Ara:

"Andre donostiarraren Erretorika.— Beste errekardari asko oi dabilzan bezela, au, batetik bestera, bere gauzak saltzen edo tratuan zebillan. Erri batean, ala bearrez, galai gazte batekin topatu zan; eta, ikusi ta ezagutu zuaneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andiak egiten asi zitzaion:

— Ai! au enkontrua! "Zuña ta bedeika!" Au galaia! au joia preziatua! auxe, bai, gure Donostia'ko semea degula! —Onela beste milla edertasun, gazte orri esan ziozkan".

Baiñan garbo orrekin mutillaren alderdi onak esan ondoren, orra orain txanponaren besté aldea, lengoa bezain garboz betea :

"Arako, beren tratu-gauzetara etorri ziranean, orra non gure galaiak eskeiñi txarren bat egin zion, eta bear etzan moduren bat erre kardariari erakutsi (Zirri pixkaren bat, seguru asko, A. Agustin'ek garbi ez dion arren) eta biak aserratu ziran, eta tortilla goitik bera irauli, eta andrea-ren beletak jira-buelta arin eman, ta gaztearen kontra biurtu... Besoak gerrian ifiñi, ta desaire guziak esaten asi zitzaion:

"Nere jende onak! zer ikusi bear ote degu? zer eskeñi degu au, eta nork egin digu?

Oni begira! au nongoa ote degu? onen patxadari begira!

Ea! ken orpoetatik, "koartoa bosteko estampa"! ken gure begie-tatik! Ez guri beintzat, orrelakorik!

(Eta orain, ironia ta humorezko troxu bat emen): "Au nor degu? Gu español puru-puruak; au nongoa dan ez dakigu. Gure aita ta ama frantsesak ziran; bañan gu español garbiak, San Bizente'ko pontean bateatuak : jende onak...

Au zer degu? ken ortik!

Ai! au kontua! deabruak ikusi du golillarekin astoa".

Olakoxe kabriola ta ostikada batekin bukatzen du gure A. Agustin'ek bere erre kardari donostiarraren erretorika-troxu bixi-bixia.

Bañan, arrigarria! Ironia ta kabriolaz beste, andre donostiarraren erretorika ber-bera erabiltzen du gure A. Agustin'ek bere beste libu-ruetan ere : "San Ignazio'ren Ejerzizioetan" adibidez.

Ikus, berak "Eriotzaren gañeko ejerzizioan" dakarren troxu au:

"Ah! lurreko andi edo altu-nai aizezko utsak! non zerate?

Ah! munduko aberats pobreak! non dira ondasunak?

Ah! atsegin loien ondoren, lau-oñekoen gisan, arrastaka zabiltzate-nak! non dira zuen atsegin nekezkoak?

Ai! zer ordua au! Au da mundua serbitzea? ainbeste dolore ta nekerekin, lurreko gauzen ondoren ibilli, ta orien pagua ori da?

Oh, eriotza! eriotza! zein gauza samiña, latza ta garratza dan, zu begien aurrean ikustea!".

Olakoxe erretorika, sermolari-erretorika, erabiltzen du, bi troxu oie-tan berdin. Irakurlearekin jardurio zorrotzean, apostrofe bizi-bizian. Zenbait Retorikako tropoz ere egoki baliatuaz: "Aberats pobreak", "atsegin nekezkoak"; "gauza latza ta garratza", "sendo ta ondo", "ai, au larria! ta larrua ere utzi bear", "zure osasun, ondasun, edertasun, indar

ta beste doaiak"... Olakoxe erretorika-puxketaz ondotxo baliatuaz. Eta berdin bere liburu bi oietan: "Euskeraren berri onetan" eta areago, bear bada, oraindik, "San Ignazioaren Ejerzizioetan".

Bañan bioen artean bai bait da beste bestelakotasun nabarmen-nabarmen bat: San Ignazio'ren Ejerzizioetan —bear ere bai-ta— Jaungoikozko gauzak darabilzkiala, eta Euskeraren berri onetan, berriz, Euskeraren bentajak... Eta ontatik orain, berriz ere, gure leengo galdera: —Zer gertatu da bion bitarte ortan? gure A. Agustin jaungoiko-zale zorratua, *jetxi* egin al da bere liburu bitxi ontan? eratxi egin al du bere tonika, bere betiko tonika? zerutikan lurrerañoko erorkadaren bat egin al digu gure liburu ontan?

— Ez, iñolaz ere! Bat-bezain-beste, bi liburuak tonika ta malla ber-berekoak ditugu; bat-bezain-beste, biok jainkotiarrak, alaxe zegokion-da egillearen bizitza jainkotiar-jainkotiarrari, eta, gai ontan batez ere, ala zegokion aren biotzeko Apostolu-gar bizi-biziari.

Ikustagun.

Arte-gaietan "*eZ Arte por el arte*" esan oi dan ariera bat dagon bezela, egon liteke, baita, "*Zo Retórica por la Retórica*" esan dezakegun zerbait ere: "Erretorika Erretorikagatik": ots! zenbait eskribitzalleren, artifiziozko su polit uts batzuek, ipurtargi batzuek, alegia, idaz-lanetan...

Gure Apostolu ernaniarra, erretorikalari bortitza zan arren, etzan eskribitzalle utsal oietakoa. Aren Erretorika, etzan, ezta urrik eman ere, Erretorika "bere baitan bildua, kiribillatua". A. Agustin'en Erretorikak gora jotzen zuan beti, zerura, bere biotz-biotzeko Jaunarengana: bere gauza guztietan bezela, baita "Euskeraren berri on aietan" ere.

Ikustagun.

Garbi-garbi agiri da ori, liburuaren azalean bertan. Apaizai eskeintzen die, batez ere, bere erregali polit au, Apaizak beren predikuetan artaz balia ditezen, beren eliz-itzaldiak gero-ta jasoagoak, apañagoak, biozkorragoak, gero-ta jatorragoak egin ditzaten. Apaizai eskeintzen die; eta baita Maisu Jaunai ere, liburuaren azalak berak dionez.

Bañan gauza onen adierazgarririk argiena, arako liburuaren barruan, 64'gn orrialdian datorren esaera gogoangarri-gogoangarri ura da: *Askoren animak salbatzeko, Euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du.* Entzun dezute: *Euskarak burua jaso, askoren animak salbatzeko.* Euskerera aoan, zerua gogoan...

Ikusten degun bezela, guzti ontan ez dago *el arte por el arterik*; "Erretorikarik Erretorikagatik"; dana Jaungoikoagatik. Gure A. Agustín, beti bera izan zan: betiko gizon jainkotiar: bai bere sermoietan, bai bere A. San Ignazio'ren Ejerzizioetan; bai bere "Euskeraren berri onetan".

Bañan, Jainkoaren naiarekiko kontu ori ikutu degun ezkeru, sakon dezagun gauza au apur bat geiago.

G-ure euskaltzaletasunarentzako gauza pozkarria da benetan, olako gizon batek, ez praktikan bere burua euskaltzale azaldu bakarrik, ortaz gañera, teorian are bere zaletasun ori aitortu izana; eta aitortu, ikusi degun mallaraño: "Euskerarak burua jasotzea Jainkoak nai du" garbigarbi esateraño. Ez bait da edozein bat, olako esate pozkarriak esaten dizkiguna; gizon "karismatiko" bat baizik, gaur esan oi dan bezela: gizon karismatiko bat, Jaunak bere karismaz señalatu ta nabarmandu izan duan bere kutunetako bat baizik. Eta, itz-egiten duanean, gañera, bai bait dirudi Jaunaren beraren izenean eta Profeta-antzo mintzatzan zai-gula ere. Begira zer dion, itz pozkarri aien ondoren: "Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, Euskarak iraungo du". Eta Euskararen bizi-bide orri Elizaren Kateketikan eta Homiletikan euskarri sendo bat ipiñi naiez-edo, itz auek gañeratzen bait ditu: "Jaungoikoaren borondate jakiña da, Aren Fede ta Legeko Misterio askutatu ta Dotriña salbatzeko bear dana, Sazerdote Jaunen Ministerio Sagraduetan, euskaraz baizik emen egin eta esan bear ez dala".

Orra, beraz, gure Aita Kardaberatz'en egitarau ta programa, gauza auei buruz: Jaungoiko-zale, Jaungoiko-zale; bañan Jaungoiko-zale zalako, ta Jaungoikoaren beraren aginduz, euskaltzale, eta ez nolnaiko: bere Euskera maitearen Apologeta bero ta suar izateraño, aztertzen ari geran Liburua testigu.

* *

Con esto, Sras. y Sres. podemos decir que hemos llegado al punto final de esta mi Conferencia, que no la quiero, sin embargo, dar por terminada sin dar de ella un brevísimo resumen para los que han tenido la gentileza de venir a ofrendar este homenaje al gran hernaniarra que fue el Ven. P. Kardaberatz, sin entender quizás más que muy a medias

el lenguaje que yo, en atención al carácter del homenajeado, he debido usar en mi disertación; gentileza que yo y los buenos hernaniarras agradecemos muy de veras.

En el punto culminante de mi Conferencia he recordado las palabras carismáticas del Serafín hernaniarra con respecto a su lengua nativa el Euskera : "Dios quiere que la Lengua Vasca se mantenga vigorosa para bien de muchas almas": "*Euskerak burua jasotzea Jaungoikoak nai du*"; palabras carismáticas, dichas por un alma que amaba entrañablemente su lengua nativa, como amaba conjuntamente al que para él era la fuente de aquel su amor : su Dios, su *Jesus Maitea*.

En mi Conferencia he desarrollado brevemente algunos puntos de la problemática de la Lengua del País en el siglo XVIII, a través del curioso librito que el fervoroso hernaniarra publicó con el significativo título *l'Euskeraren berri ona* como quien dice "El buen mensaje del Euskera".

El librito de 62 páginas, es una entusiasta apología de la lengua, he dicho, inspirado, sin duda, en el tan famoso de su compañero y cuasi-paisano el andoaindar P. Larramendi "El imposible vencido o Arte de la Lengua Bascongada"! ; inspirado en él, pero diferente de él, por cuanto que el célebre P. Larramendi nos da su libro en castellano, mientras el P. Kardaberatz nos da el suyo en vascuence; gesto éste, que nuestro Padre imita de su cuasi-contemporáneo Joanes de Etcheberry, natural de Sara, médico de Azcoitia, quien compuso una Gramática latina en Euskera; gesto igualmente imitado por ambos, de otro Joanes de Etcheberry, Sacerdote de Ciburu junto a San Juan de Luz, quien, no solo escribe en verso euskérico un triple devocionario, sino que increpa muy duramente a nuestro mondragonés Garibay y nuestro sumayarra Baltasar de Echave, porque, siendo ellos vascos, componen sus obras apologéticas del Vasco, en lengua castellana. Ciertamente que nuestro pacífico P. Agustín no increpa a su vez, v. gr., al P. Larramendi por un parecido motivo, pero, eso sí, él por su parte da a todos un soberano ejemplo, escribiendo su obra didáctico-apologética en la lengua cuyas alabanzas pregona.

Tales son, en síntesis brevísima, los conceptos que he desarrollado en mi Conferencia.

He aprovechado, así mismo, la oportunidad del P. Larramendi, para hacer una corta digresión acerca de mi paisano P. Mendiburu, la tercera figura del célebre tríptico vascófilo-jesuítico del siglo XVIII, los guipuzcoanos Kardaberatz, Larramendi, Mendiburu; para desembocar por fin, como he dicho en la frase kardaberatziana, siempre con tanta fruición repetida: "Euskerak burua jasotzea Jaungoikoak nai du". Frase, de sabor carismático y cuasi-profético, con cuyo regusto y saboreo quiero terminar esta mi ya un tanto larga Conferencia.

Orra esan.

Gramatika - Aditz zerduna

EUSKAL-ADITZA (Gure Andereñoentzat)

Izkuntzak, beti ere bi itz nagusi ditu: izena ta aditza (*nombre, verbo*).

Izenak "gauza" bat esan nai du; eta aditzak "egite" bat. Mendia, etxea, ogia, aritza, txakurra, gizona... izenak dira. Jan, edan, egon, ibilli... egiteak.

Guk emen, aditza bakarrik aipatuko degu. Aditza: aditzaren jokaera.

AITORMEN BAT

Aitormen bat egin bear dizutet. *Scientibus loquor...* "Dakitenakin ari naiz". Ez dizutet leendik ez dakizuten gauzarik aipatuko. Nik bezain ondo egiten dezute zeuek aditaren "jokaera" ori.

"Egin" egiten dezute; bañan bear bada, konturatu gabe. Nik emen, nola egiten dezuten kontuerazi nai zaituztet: pentsaerazi. Aditzaren jokaeraren *praktika* ba'dezute; nik orain praktika orren *teoria* erakutsiko dizutet.

ZER DA ADITZAREN JOKAERA? (Conjugación)

Izkuntzako itz batzuek, beti berdin irauten dute: "ondo", "gaizki"...

Beste batzuek, ordea, beti aldatzen ari dira: "Dakit, dakizu, daki; dakigu, dakizute, dakite".

Aditza, azkeneko oietakoa da: beti ibillian dabil.

"Ibilli" orri, "jokaera" deritzaio.

NOLA EGITEN DEGU ADITZAREN JOKAERA?

— Nola egiten degu aditzaren jokaera?

— Aditzaren zuztarrari norkiak erantsiaz.

— Eta zer da "aditzaren zuztarra"? zer dira "norkiak"?

— Aditzaren jokaeran ba'da zerbait, beti berdin irauten duana. Zerbait orri, "zuztarra" deritzaio. Eta ba'da beste zerbait, beti aldatzen dabillena: izki letra batzuek, alegia. Izki oiek, "norkiak" (personas) dira. *Dakit, dakizu, daki; dakigu, dakizute, dakite*. Erdiko *-ki-*, "jakin" aditzaren zuztarra da ; eta gañerakoa norkiak dira.

Norki oiek, guzitara, iru dira bakarkakoan; eta iru askotakoan: *ni, zu, ura (bera); gu, zuek, aiek (berak)*.

Sei norki oiek, zuztarrarekin naastuaz, sei aditz-forma sortzen dira (Gero ikusiko degu zeatzago, naasketa ori nola egiten dan). (Batzuetan zuztarraren atzetik; besteetan aurretik; besteetan bietatik).

Nola-nai ere, norkiak aditzaren jokaeran, itz oso ez baño, izki biurturik arkitzen ditugu : *Da-ki-t, da-ki-zu, da-ki; da-ki-gu, da-ki-zute, da-ki-te. N-eki-an, zen-eki-an, z-eki-an; gen-eki-an, zen-eki-ten, z-eki-ten...*

ALDIA ADITZEAN

"Gauzak" egonean daude; "egiteak" beti etorri-ta-joanean. Orregatik "izenak" ez dute aldirik; bañan "aditzak" bai. Iru aldi: leena, oraiña ta geroa...

Begirutzen badegu, ikusiko degu, aditzaren jokaeran, norkiez gañera beste izki batzuek ere naasten dirala: izki oiek, "egitearen aldia" esan nai dute. Iru aldi : leena, oraiña ta geroa.

"Nekian" ("Nik ori ba'nekian") esaten degunean, bukaeran ipintzen degun *-n* orrek "leengo aldia" adierazten du.

"Oraingo aldia" danean, ez dago olako izkirik.

"Gerokoa" danean, *-ko* bat eraxten diogu aditzaren jokaerari: adib. "Ikusi& degu".

GURE ADITZAREN BEREZITASUNA

Ikustagun nola eratzen dan euskal-aditzaren jokaera.

Ikustagun lenengo, erderaz ta latiñez nola eratzen dan.

Erderazko aditzetan, aditzaren zuztarrari, izki bat eraxten zaio bukaeran: and-o, and-as, and-a; and-amos, and-ais, and-are...

Bukaerako izki orrek "nor" egillea esan nai du: egitearen egillea: yo and-o, *tú* and-as...

Euskeraz ere berdin: dakar-t, dakar-ízu, dakar; dakar-gu, dakar-*Izute*, dakarte. Edo "Ikusi de-t, ikusi *de-zu*, ikusi *du*; ikusi de-git, ikusi de-zute, ikusi du-te"...

Bañan, berezitasun aundi bat: erderaz "egillea" bakarrik sartzen dala jokaeran; bañan euskeraz, egilleaz gañera baita gauza "egiña" ere, eta "nori" egiten zaion. Adibidez: *dakar-t* bezela esaten degu *dakar-kio-t* ere, norbaiti ekartzen zaionean. Eta *ikusi dezu* bezela, baita *ikusi nauzu* ere, ikusia *ni* naizenean.

Erderak jokaeran norki-bat bakarrik (egillea) sartzen duan bezela, Euskerak iru norki sartzen dituala: egillea, egiña ta nori egiten zaion. Itz batean: nork, zer ta nori: nork dakarren, zer dakarren ta nori dakarkion...

Ortik gure aditzaren berezitasuna... aberastasuna, ta... zailtasuna...

ADITZAREN BI JOKAERA-MUETAK

Aditzak bi jokaera-mueta ditu: itz-bakarduna eta itzbiduna. *Nator* ta *nentorren* itz-bakardunak dira; *etorriko naiz*, itzbiduna.

Erderazko ta latiñezko aditz guztiak, itz-bakardunak dira, ia aldi guztietan: *ando*, *andas*, *anda...*; *andaba*, *anduve*, *andaré...*; *he andado* bakarrik, itzbiduna...

Euskeraz aditzikan geienak jokaera itzbiduna dute: *jaten det*, *ikus-ten nuan*, *jakingo degu...* Oso gutxi dira itz-bakardunak (amalauren bat): *nator*, *nago*, *náhil*; *dakit*, *dakart*, *daramat...*

— Nola egin oi-da aditz itzbidunaren jokaera?

— Erderaz, ikusi degu: *he andado*: *andado'ri he* bat aurrez ipiñita (*andado* participioari, verbo *haber* ipiñiaz).

Euskeraz ere berdintsu: *ibilli naiz; ibiltzen naiz; ibilliko naiz.* (*ibilli* aditzari, atzetik *izan* ipiñiaz) *Izan* oni, *naiz* oni, *aditz laguntzallea* deritzaio.

ADITZ LAGUNTZAILLEA ITZBIDUN JOKAERAN

Erderaz, aditz laguntzallea, beti bat da: *haber* (*He* traído, *he* andato).

Euskeraz aditz laguntzalleak bi dira: "naiz" = ser; eta "det" = haber.

"Det" aditz *zerdunekin* erabiltzen da; eta "naiz" aditz *zergabeekin*.

—• Zer da, ordea, aditz "zerduna" eta aditz "zergabea"?

— Aditz, bat aipatzean, "zer" galdetzen badegu, bitan bat gertatuko da: edo-ta a) "zer" orrek erantzunik ez'duala; edo-ta b) ba'duala. Erantzunik baldin badu, aditz ori "zerduna" da; eta ez badu, "zergabea".

Adibidez: — Edan det. — Zer edan dezu? — Sagardoa... *Edan* aditza zerduna da.

— Ba'nijoa. — Zer zoaz? — Ezer ez; joan... *Joan* aditza, ez da "zerduna", "zergabea" baizik.

— Ba'gaude. — Zer zaudete? — Ezer ez; egon... *Egon* ez da zerduna; zergabea baizik.

Neurri ontan, *he bebido*, "edan *det*" esango degu; bañan *he estado*, "egon *naiz*"...

I. IZTEGIA

aditz = verbo

jokaera = conjugación

zuztar = radical, raíz

norki = persona

bakarkako = singular

askotako = plural

izki = letra; atziki = sufijo

aldi = tiempo

leen = pasado (tiempo)

orain = presente (")

gero = futuro (")
 eratu = formar
 norki egille = persona agente; zerki complemento directo (*egiña*)
 nori = persona recipiente
 jokaera-mueta = formas de conjugación
 itz-bakardun = simple, sintético
 itz-bidun = compuesto, perifrástico
 aditz laguntzalle = verbo auxiliar
 aditz zerdun = verbo transitivo
 aditz zer-gabe = verbo intransitivo

II. IKASGAIA

ADITZ ZERDUNA

Erderazko *"Yo lo sé, tú lo sabes"* etab. euskeraz onela da :

(Nik) dakit	(Guk) dakigu
(Zuk) dakizu	(Aiek) dakite.
(Ark) daki;	(Zuek) dakizute

Aztertu dezagun jokaera au:

Jokaera ontan norki egillea aldatzen dijoan neurrian, aditzaren bukaera ere aldatzen dijoa. Beraz bukaera, norki egillea da.

Zatitu dezagun orain jokaera :

da-ki-t	da-ki-gu
da-ki-zu	da-ki-zute
da-ki;	da-ki-te.

Dakit'en bukaerako -t ori, lenengo norkia da: *ni*; *dakizu'n* bukaerako -zu ori, bigarren norkia da -zu; *dakixen* bukaerako norkirik-eza, irugarren norki da: *ura*; eta *dakigu'xen* bukaerako -gu ori, laugarren norkia: *gu*; dakizute'ren bukaerako -zute ori, boskarrena: *zuek*; eta dafcite'ren -te ori, seigarrena: *aiek...*

2. ERDERAREN ONDOAN

Jokaera au, erderazkoarekin berdinkatzen baldin badegu, biok berdintsuak arkituko ditugu.

(Yo)	sé ,regular, <i>sabo</i>)
(Tú)	sabes
(El)	sabe;
(Nosotros)	sabemos
(Vosotros)	sabéis
(Ellos)	saben.

Erderaz ere, norki egillea aldatu ala, aditzaren bukaera ere aldatu egiten da. Erderaz ere, bukaera, norki egillea da. Sa&o'ren bukaerako -o ori, *yo* da; eta safees'en -es, *tú*; etab.

3. BESTELAKOTASUNAK

Ontaraño erdera ta euskera berdín dabilta.

Bañan, beti ere, zerbait "bestelako" berealaxe arkituko degu bion artean:

a) *nik dakit* esaeran gure aditz zerduak, bere norki egillean -*k* atzizki bat daramakiala, erderak ez daramakian bezela. Erderaz *yo sé* esaten dan bezela, euskeraz ez degu *ni dakit* esaten, *nik dakit* baizik.

z) gure jokaeran aditzak asieran *da-* bat daramakiala. Erderaz aditzaren jokaera, zuztarretik asten da: safe'etik (*sabes, sabe, sabemos...*). Euskeraz ordea, aditzak, zuztarraren aurretik -*da-* bat daramaki asieran: *dakit, dakizu, daki...* Aditzaren zuztarra -*ki-* ez dago asieran; erdian, baizik. Bukaeran norki egillea daramakian bezela, asieran *da-* bat daramaki.

— Zer da *da-* ori?

— *Da-* ori, aditzaren *zerkia* da; eta erderaz *lo sé, lo sabes* esatean ipintzen dan *lo* ori esan nai du : *dakit, dakizu...*

Itz bitan: Erderazko jokaeran, aditzaren zuztarrarekin batean, norki egillea besterik ez dago; euskerazko jokaeran, norki egilleaz gañera, *zerkia*.

Zerki ori erderaz ere ba'dago; bañan ez zuztarrarekin uztarturik, berez baizik: *lo sé*; euskeraz, berriz, dana bat egiñik : *dakit...*

4. BAKARKAKO TA ASKOTAKO

Orain beste oar bat.

Lo ori, bakarkakoa dala; bañan askotakoa ere izan ditekeala; Zo'ren ordezt, *los* (*lo sé, los sé*). Olakoetan, euskerazko jokaerari beste zer bat geiago sartzen diogula barruan: *-zki-* bat, alegia. *Lo sé* ori, *los sé* biurtzen danean, euskerazko *dakit* ura, *dakizkit* biurtzen zaigula: zuztarra-
ren ondotik *-zki-* eraskiña sartzen diogula: *dakit, dakizkit; Ikasgai au ba'dakit; ikasgai guztiák ba'dakizkit.*

Beste oar bat orandik: *-zki-* ori zenbait lekutan *-tzi-* edo *-tza-* dala: *dakart, dakartzit; dakit, dakitzat...*

5. LENEGO TA BIGARREN NORKIAK, ADITZAREN ZERKI

Orain arte *lo* ta *los* bakarrik erabili ditugu, aditzaren zerkitzat. Bañan *lo* ta *los* bezelan izan ditezke *me, te; nos, os* (*me has visto, te he visto; os he visto, nos has visto...*).

Olakoetan, gure aditzari, *da-* ren ordezt, beste izki batzuek ipintzen dizkiogu. *Me* baldin bada, *nai-*; *te* baldin bada, *za-*; *lo* baldin bada, *da-*; *nos* baldin bada, *ga-* (bere askotzalle *-zki-* edo *-tói-'rekin*); eta *os* baldin bada, *za-* (bere askotzalle *-zki-* edo *-tzi'rekin*).

Begira nola:

(Aitak bizkarrean)	nakar(ki)	(ni)
(Aitak bizkarrean)	zakarzki	(zu)
(Aitak bizkarrean)	dakar(ki)	(ura)
(Aitak bizkarrean)	gakarzki	(gu)
(Aitak bizkarrean)	zakarzkite	(zuek)
(Aitak bizkarrean)	dakarzkite	(aiek)

Ikusten danetz, zerki guztiak sei dira: erderaz *me, te, lo; nos, os, los*; eta euskeraz berdín, beste sei :

na-	ga-
za-	za-
da-;	da-

Ipiñi ditzagun adibide batzuek, *eraman* aditzarekin :

"Tú *me* llevas en hombros" = Zuk bizkarrean norama(ki)zu

"Yo *te* llevo en hombros" = Nik bizkarrean *zaramazkit* (*zaramatzit*)

"Ellos *nos* llevan en hombros" = Aiek bizkarrean *garamazfcite* (*garamatzite*)

"Yo *os* llevo en hombros" = Nik bizkarrean *zaramazfcitet* (*zaramatzitet*).

Oar bat: zerkiak askotakoak diranean, zuztarraren. ondoren (ikus-ten dan bezela) *-zki-* edo *-tzi-* askotzallea ipintzen degula; eta berdin baita, bakarkako *za-* danean ere (za ori leen, bakarkakoa ez baño, askotakoa izan zan señaile : *te* ez baño, *os* (*vos*) alegia).

Beste oar bat: zerkiak ta norkiak, euskeraz, ezin ditezkelat bat-bera izan: adibidez, lenengo norkiak (*nik*) ezin dezakela izan zerkitzat lenengo norkia (*nik ni*); ezta bigarrenak ere, bigarrena (*zuk zu*). Olatan *Nik nere burua*, *Zuk zere burua*; *Guk geren burua*, *Zuek zeron burua* egin oi-degula; eta berdin baita, *Ark bere burua* eta *Aiek beren burua*... Itz batean : euskeraz ez dagola jokaera "reflexivorik".

Adibidez: "Yo me llevo a mí mismo" = *Nik nere burua darama(ki)t*: *nereburua* = "mipersona"; *zereburua* — "tu persona"...

Ikustagun orain, "Yo lo sé, tú lo sabes" etab. bezela, nola egiten degun "Yo lo he" ("Yo *lo he* traído").

Nik	(ekarri)	det
Zuk	(ekarri)	dezu
Ark	(ekarri)	du;
Guk	(ekarri)	degu
Zuek	(ekarri)	dezute
Aiek	(ekarri)	dute.

Zati dezagun orain jokaera au :

(Bizkaieraz):

Nik	d-e-t	Neuk	d-o-t
Zuk	d-e-zu	Zeuk	d-o-zu
Ark	d-u;	Arek	dau;
Guk	d-e-gu	Geuk	d-o-gu
Zuek	d-e-zute	Zeuk	d-o-zue
Aiek	d-u-te	Euek	dau-e.

Bukaerako izkiak, norki egiJlea dira, *dakit'en* bezelaxe: *-t*, *-zu*, (utsa); *-gu*, *-zute*, *-te*.

Erdiko izkia, zuztarra da; 1'go ta 2'gn. norkian *-e- {det}* (Naparroan eta Bizkaian *-u- {dut, dau}*); 3'gnean. *-u-*; 4'gn. ta 5'gn. *-e-*; ta 6'gnean, *-u-*.

Asierako izkiak, zerkia dira: *ura* alegia: *d- {det}* (Bizkaieraz *da-*; *{dau}* *{daue}* *{daut = dot}*).

Zuztarrak, beraz, aditz ontan, bi dira: *-e-* ta *-u- {det}* eta *du*).

Asierako zerki ori, 1'ngo. ta 2'gn. norkiak diranean *{ni, zu, gu, zuek}*, jakin'en bezelaxe, onela dira :

na-
za- (+ *-it*, *-zfc'i'ren* ordez)
ga- (+ *-it*, *-zfc'i'ren* ordez)
za- (+ *-it*, *-zfc'i'ren* ordez)

Adibidez:

Aitak ekarri nau
Aitak ekarri zaitu
Aitak ekarri gaitu
Aitakekarri zaitu(z)te.

Zatitu-ta, onela;

na-u
za-it-u
ga-it-u
za-it-u-(z)-te.

Eta ez dago jokaera *reflexiborik*, onela baizik:

Nik nere burua (ikusi det)
Zuk zere burua (ikusi dezu)
Ark bere burua (ikusi du) etab.

III. IKASGAIA

NORIKIDUN JOKAERA

Beste izkuntzetan, aditzaren jokaerak, *norkidunak* dira bakarrik, egilledunak, alegia, "sujeto agentedunak".

Euskerazko aditza ez da *norkidun* bakarrik; *zerkidun* ere da, era berean beti: jokaeran sartzen degu beti ez *norkia* bakarrik, baita *zerkia* ere, ots, "complemento directo" dalakoa ere; eta ez *zerkia* irugarrenekoa danean, erderaz *lo* danean bakarrik; baita lenengo edo bigarrena danean ere: baita *me*, *te*, *nos*, *os* danean ere, II Ikasgaietan ikusi degun bezela.

Goazen orain aurreratxuago.

Gure aditz-jokaeran sartzen degu, baita, *nori* ere; ez *nork* eta *zer*, baita *nori* ere. *Nori* orri, *noriki* esango diogu. Eta orla gure aditzaren barruan, *norki-* a ta *zerki-* a ta *noriki-* a izango ditugu.

Orain arteko Ikasgaietan ikusi degun jokaera, onela da:

Dakart (= "Yo lo traigo").

Orain beste zerbait erantsiko diogu:

Dakarkizut (= "Yo te lo traigo").

-kizu- ori, *norikia* da: *zu* *norkiari* dagokion *norikia*.

Norikia, sei eratakoa izan diteke: *neri*, *zuri*, *ari*; *guri*, *zuei*, *aiei*.

Sei *noriki* oiek, aditzaren barruan onela dira:

-da- (edo *-(ki)da-*); eta bukaeran, *-t*, edo *-(ki)t*.

-tzu- (edo *-(ki)zu-*).

•*kio-*;

•*gu-* (edo *-(ki)gu-*).

-tzute- (edo *-(ki)zute-*).

-kie-.

Oarra: Gipuzkoeran, *eramanea*. eta *ekarri'n*, askotan, *norikiak -ki-* batez apainduak izan oi-dira: *-kida-*, *-kizu-*, *-kigu-*, *-kizute-*: *ekarkidak...*

Ikustagun orain, nola egiten degun jokaera osoa *ekarri* aditzean:

Zuk *neri* opilla *dakarkidazu* = "Tí me traes un panecillo".

Nik *zuri* opilla *dakarkizut* = "Yo te traigo un panecillo".

Nik ari opilla <i>dakarkiot</i>	=	"Yo le traigo un panecillo".
Zuk guri opilla <i>dakarkiguzu</i>	=	"Tú nos traes un panecillo".
Nik zuei opilla <i>dakarkizutet</i>	=	"Yo os traigo un panecillo".
Nik aiei opilla <i>dakarkiet</i>	=	"Yo les traigo un panecillo".

Zati ditzagun orain jokaera oiek :

da-kar- {ki}da-zu
da-kar- {ki}zu-t
da-kar-kio-t
da-kar- (ki)gu-zu
da-kar-kizute-t
da-kar-kie-t.

Da, zerkia *da*; *-kar-* ekarri'ven zuztarra; *-{ki}da*, l'go. norikia; eta *-zu*, 2'gn. norki egillea. Etab.

Zerkia, askoduna danean, zuztarraren ondotik, *-zki-* bat ipintzen diogu: *dakarzkidazu*, *dakarzkizut...*

Oarra: Norki egillea irugarrenekoa danean, jokaerak ez du izaten egille-bukaerarik; eta orduan, lenengo norikia ez da izaten *-(ki)da*, *-kit* baizik; onela : "Ark neri opilla *dakarkit*".

Bigarren oarra : Beti ere gogoan euki, euskeraz ez dagula jokaera *reflexivorik*; beraz, "Nik neri'rik" ez degu; ezta "Zuk zuri'rik" ere; "Nik nere buruari" baizik, eta "Zuk zere buruari"...

Irugarren oarra: Zerkia, lenengo edo bigarrena danean, ez dago norikidun jokaerarik; ez dago "El *te* me trae'rik", ez "El *nos* les trae'rik". Norikidun jokaerak beti ere, irugarrenengo zerkidunak dira (io'dunak): "me *lo*, te *lo*, se *lo*; nos *lo*, os *lo*, se *io*"; berdin baita "me *los*" etab.

Aditz laguntzallean

Ikus ditzagun jokaera oiek aditz laguntzallean *{izan}* edo *u/can'en*) :

(Zuk neri ekarri) *didazu*
 (Nik zuri ekarri) *dizut*
 (Nik ari ekarri) *diot*;
 (Zuk guri ekarri) *diguzu*
 (Nik zuei ekarri) *dizutet {dizuet}*
 (Nik aiei ekarri) *diet {diotet}*.

Sei noriki oiek, aditz laguntzallearen barruan, onela dira :

-da-	-gu-
-zu-	-zute
-o-;	-e-.

Erdiko *-i-* ori, aditzaren zuztarra da. *Det'en -e-*, ta *du'en -u-* dan bezela, jokaera norikidun ontan *-i-* da.

Asierako *d-* ori, irugarren zerkia da, zerki bakarduna. Askoduna danean, zuztarraren ontotik *-zki-* sartzen diogu :

dizkidazu	dizkiguzu
dizkizut	dizkizutet
dizkiot;	dizkiet.

Ikustagun jokaera au zatituta :

d-i-zki-da-zu	d-i-zki-gu-zu
d-i-zki-zu-t	d-i-zki-zute-t
d-i-zki-o-t;	d-i-zki-et.

3. ABERASTASUN

Ikustagun orain, *norki* ta *zerki* ta *zeriki* guzti oiekin zenbat jokaera-forma ateratzen zaizkigun euskeraz, erderazko forma bakar baten-tzat:

Erderazko forma : "*Ha traído*"

Ekarri nau	=	Me ha traído
Ekarri zaitu	=	Te ha traído
Ekarri du	=	Lo ha traído;
Ekarri gaitu	=	Nos ha traído
Ekarri zaituzte	=	Os ha traído
Ekarri ditu	=	Los has traído.
Ekarri dit	=	Me lo ha traído
Ekarri dizu	=	Te lo ha traído
Ekarri dio	=	Se lo ha traído;
Ekarri digu	=	Nos lo ha traído
Ekarri dizute	=	Os lo ha traído

Ekarri die	Se lo ha traído (a ellos).
Ekarri dizkit	Me los ha traído
Ekarri dizkitzu	Te los ha traído
Ekarri dizkio	Se los ha traído;
Ekarri dizkigu	Nos los ha traído
Ekarri dizkitzute	Os los ha traído
Ékarri dizkie	Se los ha traído (a ellos).

IV. I K A S G A I A

JOKAERA ALDUNA

1. Orain arte ikasi degun jokaerari, erderaz, *indikativo* esaten zaio eta gauza "dan bezela" adierazten du, beste ezeren naaste gabe : *dakart, ekarri det...*

Jokaera "alduna" (*Potencial*) "Nik ekarri dezaket" (*Yo lo puedo traer*) euskeraz indikatibotikan dator zuzen-zuzenean, ezagugarri txiki (-fte-) bat tartean ezarriaz. Indikatiboa, *ekarri det;* alduna, *ekarri dezaket.*

Ikustagun jokaera onen sorrera :

<i>Ekarri det</i>	<i>Ekarri deza-ke-t</i>
<i>Ekarri dezu</i>	<i>Ekarri deza-ke-zu</i>
<i>Ekarri du</i>	<i>Ekarri deza-ke;</i>
<i>Ekarri degu</i>	<i>Ekarri deza-ke-gu</i>
<i>Ekarri dezute</i>	<i>Ekarri deza-ke-zute</i>
<i>Ekarri dute</i>	<i>Ekarri deza-ke-te.</i>

Oarrak: 1) Zuztarraren ondotikan datorren *-ke-* ori, alduntasunaren ezaugarria da.

2) Aditzaren zuztarra, indikatiboan *-e-* ta *-u-* dan bezela, jokaera aldunean *-eza-* da (obeto esan, *-za-*, askotan *-e-* bat aurretikan duala).

Zerkia, askoduna danean, jokaera onela egiten degu:

<i>Ekarri ditut</i>	<i>Ekarri ditzaket</i>
<i>Ekarri dituzu</i>	<i>Ekarri ditzakezu</i>

Ekarri <i>ditu</i>	=	Ekarri <i>ditzake</i> ;
Ekarri <i>ditugu</i>	=	Ekarri <i>ditzakegu</i>
Ekarri <i>dituzute</i>	=	Ekarri <i>ditzakezute</i>
Ekarri <i>dituzte</i>	=	Ekarri <i>d-it-za-ke-te</i> .

Zati ditzagun jokaera oiek :

Ekarri <i>d-it-u-t</i>	=	Ekarri <i>d-it-za-ke-t</i>
Ekarri <i>d-it-u-zu</i>	=	Ekarri <i>d-it-za-ke-zu</i>
Ekarri <i>d-it-u</i>	=	Ekarri <i>d-it-za-ke</i> ;
Ekarri <i>d-it-u-gu</i>	=	Ekarri <i>d-it-za-ke-gu</i>
Ekarri <i>d-it-u-zu-te</i>	—	Ekarri <i>d-it-za-ke-zute</i>
Ekarri <i>d-it-uz-te</i>	=	<i>d-it-za-ke-te</i> .

Asierako *d-*, zerkia da (3gna.); *-it-* zerkiaren askotzallea; *-za-*, zuztarra; *-ke-*, alduntasunaren ezaugarria; eta bukaerako *-t*, norki egillea (l'goa).

2. Zerkiak, l'goa edo 2'gna. diranean, asierako *d-*ren orde, *na-* edo *za-* izagun dira, bear dituzten beste gauzak. Ola :

Zuk <i>ni</i>	ekarri	<i>nazakezu</i>
Nik <i>zu</i>	ekarri	<i>zaitzaket</i>
Zuk <i>gu</i>	ekarri	<i>gaitzakezu</i>
Nik <i>zuek</i>	ekarri	<i>zaitzateket</i> .

Zati dezagun adibidez azkeneko au :

za-it-za-te-ke-t.

za- bigarren zerkia da; *-it-* zerki onen askotzallea (berez askodu na bait-da); *-za-* zuztarra; *-te-* zerkiaren bigarren askotzallea (*-it-*ez gañera izaten duana); *-ke-* alduntasunaren ezaugarria; eta bukaerako *-t* ori, l'go. norkia.

3. Berdin egin ditezke, baita, "norikidun" jokaerak ere (beti ere, zerki 3'gnarekin). Onela:

(El <i>me</i> lo	puede traer)	Ark <i>neri</i> ekarri <i>dezaidake</i>
(El <i>te</i> lo	puede traer)	Ark <i>zuri</i> ekarri <i>dezaizuke</i>
(El <i>se</i> lo	puede traer)	Ark <i>ari</i> ekarri <i>dezaioke</i> ;

(El *nos* lo puede traer) Ark *guri* ekarri *dezaiguke*
 (El *os* lo puede traer) Ark *zuei* ekarri *dezaizuteke*
 (El *se* (les) puede traer) Ark *aiei* ekarri *dezaieke*.

Eta zerkia askoduna danean, onela :

Ark *neri* ekarri *dezazkidake*
 Ark *zuri* ekarri *dezazkizuke*
 Ark *ari* ekarri *dezazkioke*;
 Ark *guri* ekarri *dezazkiguke*
 Ark *zitei* ekarri *dezazkizuteke*
 Ark *aiei* ekarri *dezazkieke*.

Zati ditzagun jokaera oiek : Ark *neri* ekarri *d-eza-zki-\da-ke...*

D-, 3'gn. zerkia; *-eza-*, zuztarra; *-zki-* zerkiaren askotzallea; *-da-*, l'go norikia; bukaerako *-ke* ori, alduntasunaren ezaugarria (egillea 3.gna. danean, jokaerak ez du egillerik).

V. I K A S G A I A

SUBJUNTIBOA

1. Subjuntiboko jokaeran, gauza ez da adierazten "dan bezela"; gure barruko *zerbaitez* naastua baizik : gure gogo, nai, apeta... *Yo > lo traiga...*

Subjuntiboa ere —alduna bezela— indikatiboko jokaeratik ateratzen da, zuzen-zuzenean, bukaeran *-n* bat erantsita: indikatiboa, *dakargu*; subjuntiboa, *dakargun*; indikatiboa, *ekarri degu*; subjuntiboa, *ekarri dezagun...*

Orra jokaera osoa:

<i>Nik dakart</i>	=	<i>Nik dakardan</i>
<i>Zuk dakartzu</i>	=	<i>Zuk dakartzun</i>
<i>Ark dakar</i>	=	<i>Ark dakarren</i> ;
<i>Guk dakargu</i>	—	<i>Guk dakargun</i>
<i>Zuek dakartzute</i>	=	<i>Zuek dakartzuten</i>
<i>Aiek dakarte</i>	=	<i>Aiek dakarten</i> .

Oarrak: 1) *Dakart'en* bukaerako -í (l'go. norkia), subjuntiboaren ezaugarri -n erasten zaionean, -dw- biurtzen da : *dakart*, *dakardan*.

2) Irugarren norkian, -e- bat erasten diogu bukaerako -r-ri: *dakar*, *dakarr(e)n*...

2. Subjuntiboa aditz laguntzallean.

Ikustagun orain nola gertatzen dan subjuntiboaren jokaera aditz laguntzallean:

Nik ekarri *dezadan*
 Zuk ekarri *dezazun*
 Ark ekarri *dezan*;
 Guk ekarri *dezagun*
 Zuek ekarri *dezazuten*
 Aiek ekarri *dezaten*.

Oarrak: A) Aldungoan bezela, subjuntiboan ere, 1) zuztarra -(e)za-dala; eta 2) bukaerako -t, l'go. norkia, -da- biurtzen zaigula subjuntiboaren ezaugarri -n erasten zaionean.

B) Subjuntiboa geienetan "final" izan oi-dala: *Nik ekarri dezadan* = "Para que yo lo traiga".

Zerkia askodun egin dezagun orain:

Nik ekarri *ditzadan*
 Zuk ekarri *ditzazun*
 Ark ekarri *ditzan*;
 Guk ekarri *ditzagun*
 Zuek ekarri *ditzazuten*
 Aiek ekarri *ditzaten*.

Oarra: Zerkia askodun egitekoan, zuztarrari -(e)'- kenduta, asierako d- orri, -it- askotzallea erasten diogula: *dezadan*, *ditzadan* (*d-it-za-da-n*).

Ikasgai ontan orain arte 3'gn. zerkidun jokaerak bakarrik ikusi ditugu; ikus ditzagun orain l'go. ta 2'gn. zerkidunak (*me*, *te*, *nos*, *os*: *na*, *za*; *ga*, *zo*'dunak, alegia).

Zuk *ni* ikusi *nazazun* (Para que tú *me* veas)
 Nik *zu* ikusi *zaitzadan* (Para que yo *te* vea)

Zuk *gu* ikusi *gaitzazun* (Para que *tú* nos veas)
 Nik *zuek* ikusi *zaitzatedan* (Para que yo *os* vea).

Zati ditzagun jokaera oiek :

na-za-zu-n
za-it-za-da-n
ga-it-za-zu-n
za-it-za-te-da-n.

Zaitzatedan ontan, asierako *za-*, 2'gn. zerkia da; *-it-*, zerki orren askotzallea; *-za-* zuztarra; *-te-* 2'gn. zerkiaren 2'gn. askotzallea; *-da-*, l'go. norki egillea; eta kukaerako *-n* ori, subjuntiboaren ezaugarria.

Oartxo bat: jokaera oietan zuztar *-(e)za'ri*, (e) ori kenduta, *za* soilik gelditzen zaigula.

2. SUBJUNTIBO NORIKIDUNA

Ikus ditzagun orain, jokaera norikidunak subjuntiboan :

Zuk *neri* ekarri *dezaidazun*
 Nik *zuri* ekarri *dezaizudan*
 Nik *ari* ekarri *dezaiodan*;
 Zuk *guri* ekarri *dezaiguzun*
 Nik *zuei* ekarri *dezaizutedan*
 Nik *aiei* ekarri *dezaiedan.*

Zati ditzagun jokaera oiek :

d- (e)za- (i)da-zu-n
d- (é)za- (i)zu-da-n
d- (e)za-io-da-n;
d- (e)za- (i)gu-zu-n
d- (e)za- (i)zute-da-n
d- (é)za-ie-da-n.

Dezaidazun ontan asierako *d-*, 3'gn. zerkia da; *-(e)za*, zuztarra; *-(i)da*, l'go norikia (*-tZo*-ren aurreko *(i)* ori bear bada, iñoiz *-ki-* izana

bait-da (*dezakidazun*); -zu-, 2'gn. norkia; bukaerako -n, subjuntiboaren ezaugarria.

Eta zerkia askoduna danean, jokaera onela egiten degu:

Zuk *neri* ekarri *dezaizkidazun*
 Nik *zuri* ekarri *dezaizkizudan*
 Nik *ari* ekarri *dezaizkiodan*;
 Zuk *guri* ekarri *dezaizkiguzun*
 Nik *zuei* ekarri *dezaizkizutedan*
 Nik *aiei* ekarri *dezaizkiedan*.

Oarrak: Jokaera ontan zerkiaren askotzallea, ez da -it-, -zki- baizik. Zati dezagun jokaera:

d-eza- (i)zki-da-zu-n
d-eza- (i)zki-zu-da-n
d-eza- (i)zki-o-da-n;
d-eza- (i)zki-gu-zu-n
d-eza- (i)zki-zute-da-n
d-eza- (i)zki-e-da-n.

Zenbait lekutan, parentesis arteko (i) ori gabe egiten da: *ekarri dezakidazun*.

VI. I K A S G A I A

AGINTEDUN JOKAERA

Indikativotikan sortzen dan azkeneko jokaera, "agintedun jokaera" da, erderaz *imperativo* esan oi-dana.

Agintedun jokaerak, bi norki ditu bakarrik: *zuk* eta *ark* (*zuek* eta *aiek*, askodun diranean).

Indikativoko jokaera onela da :

Zuk *dakartzu*
 Ark *dákar*
 Zuek *dakartzute*
 Aiek *dakarte*.

Jokaera ontatik, agintedun au ateratzen da :

ekatzu
bekar
ekatzute
bekarte.

Zer egin degu, indicativo'tik agintedun au ateratzeko?

- a) Jokaerari asierako *d-* kendu (irugarren zerkia kendu); eta zerki ori kentzean, aditzari berezko asierako *e-* biurtu: *dakar... ekar...*
 b) Irugarren norki egillean, *b-* bat ipiñi: *bekar* (bukaera norki gabe).

Jokaera norikidunean, puxketa guztiak, indicativoan bezela erabiltzen dira: *ekarkidazu, ekarkiozu; ekarkiguzu, ekarkiezu*; zerki askodunean, *zki-* bat zuztarraren ondotik: *ekarzkidazu, ekarzkiozu; ekarzkiguzu, ekarzkiezu.*

Zerkia *lenengoa* edo *bigarrena* danean, jokaera onela egiten da:

Tráeme tú	=	<i>enarkartzu</i>
Tráigame él	=	<i>benakar</i> etab.

Oarra: *Lenengo norki egillean*, zerkia *lenengo* ta *bigarren* diranean (*na-*, *zot-*, *ga-za-*), aditzaren leengo *e-* biurtu egiten zaio (*e-na-kar-tzu; e-ga-kar-tzi-zu*).

Tráenos tú	=	<i>egakartzizu</i>
Tráiganos él	=	<i>egakartzi</i> etab.

Oarra: Jokaera itzbakardun onen ordezt, itzbidunak erabili oi-dira.

JOKAERA AGINTEDUNA ADITZ LAGUNTZALLEAN (Jokaera itzbiduna).

Asierako oar txiki bat. Ekarri aditzean, jokaera agintedunean, bigarren norkia ("trae") beti itzbakardun egiten da: *ekatzu, ekarri eza-zu'ren* ordezt. Irugarrenean ("traiga él"), bi jokaerak berdinean erabiltzen dira: *bekar, ekarri beza*. Beste edozein aditzetan ere, agintedun jokaerak itz bakarrera jotzen du bigarren norkian: *ikustazu, egizu, eramazu, garbi-zazu (ikusit ezozu'ren ordezt, eta egin ezazu, eraman ezazu, garbitu ezazu'ren ordezt).*

Ikustagun orain nola egiten degun agintedun-jokaera aditz laguntzallean:

Trae tú	=	ekarri <i>ezazu</i>
Traiga él	=	ekarri <i>beza</i> ;
Traed	=	ekarri <i>ezazute</i>
Traigan	=	ekarri <i>bezate</i> .

Zerkia askodun danean, tartean *-it-* bat ipintzen diogu, onela:

Traélos tú	=	ekarri <i>itzazu</i>
Traigalos él	=	ekarri <i>bitza</i> ;
Traedlos	=	ekarri <i>itzazute</i>
Traiganlos	=	ekarri <i>bitzate</i> .

Zati dezagun azkeneko jokaera au :

ekarri *b-it-za-te*.

b-, irugarren norkia; *-it-* zerkiaren (irugarren zerkiaren) askotzallea; *-za-* zuztarra, *-te* irugarren norkiaren askotzallea. Berdin baita *itzazute* ere: *it-* zerkiaren askotzallea, *-za-* zuztarra, *-zute* bigarren norki askotan. Berdin baita *ezazu* ere: (*e*)*za*, aditzaren zuztarra; *-zu*, bigarren egillea. Irugarren zerkia dualako, ez daramaki jokaeran zerkirik. (Vid. *ekatzu*).

Ikus ditzagun jokaera norikiduna :

Traemelo (-melos)	=	ekarri <i>ezaidazu</i> (<i>ezazkidazu</i>)
Traigamelo (-melos)	=	ekarri <i>bezait</i> (<i>bizaizkit</i>);
Traedmelo (-melos)	=	ekarri <i>ezaidazute</i> (<i>ezazkidazute</i>)
Traiganmelo (-melos)	=	ekarri <i>bezaidate</i> (<i>bezazkidate</i>)

Zati dezagun *bezazkidate*: *b-eza-zki-da-te*. B- irugarren norki egille, *-eza-* zuztarra, *-zki-* zerkiaren askotzallea, *-da-* lenengo norikia, *-te*, irugarren norki egillea (jokaerak ez du zerkirik, 3'gna. dalako).

Jokaéra, lenengo norkiduna danean (*me*, *nos*; *traeme*, *traenos*), jokaera ola da:

ekarri *nazazu*
 ekarri *benaza*; (*nazala* maizago);

ekarri *gaitzazu*
 ekarri *begaitza* (ekarri *gaitzala* maizago).

Zatituta : *na-zmrzu, b(é)na-za; ga-it-za-zu: ga-* l'go. zerki askoduna
-it- zerkiaren askotzallea, *-za-* zuztarra eta *-zu* bigarren norki egillea.

VII. IKASGAIA

LEENGO (PRETERITO) ALDIAREN JOKAERA

"Orain-aldiaren" jokaerak, egillea bukaeran duan bezela (det-dezu),
 "leengo aldiaren" jokaerak egillea asieran du. Ikustagun. (Adibiderik ar-
 gienak berak dituan, aditz laguntzalleak erabiliko ditugu).

<i>Yo lo traía</i> etab.	Ekartzen nuan
	Ekartzen zenduan
	Ekartzen zuan;
	Ekartzen genduan
	Ekartzen zenduten
	Ekartzen zuten.

Zati dezagun:

n-u-an,	gen(d)-u-an
zen(d)-u-an	zen(d)-u-te-n
z-u-an;	z-u-te-n.

Erdiko -u- ori, zuztarra da; asierako izkiak, norki egilleak dira;
 eta ondoren datorren -(a)n, leenaren ezaugarria da. Zerkia irugarrena
 dalako (lo), jokaerak ez du zerkirik.

Norki egilleak, beraz, oiek dira :

n-	gen(d)-
zen(d)-	zen(d)-... -te-
z-;	z-... te-

Itz-bakardun jokaeran, *ekarri* onela jokatzen degu ;

nekarren	senekarren
zenekarren	zenekarten
zekarren;	zekarten.

Zatituta:

n-ekar-en	gen-ekar-en
zen-ekar-en	zen-ekar-te-n
z-ekar-en;	z-ekar-te-n.

Oarra: *Zenekarrenen* ordez, zenbait lekutan *zenekartzun* esan oi -da, 2'gn. norki egillea (zu) bi aldiz ipiñiaz (zen... zu-); berdin baita *genekargun*, *genekarrenen* ordez (gen... gu); eta *zenekartzuten*, *zenekarrenen* ordez (zen... zute-)...

Zerkia askoduna danean, itz-bakardun aditzean, zuztarraren ondotik -zki- bat ipintzen degu; onela :

nekarzkian	genekarzkian
zenekarzkian	zenekarzkiten
zekarzkian;	zekarzkiten.

Zatituta:

n-ekar-zki-an
zen-ekar-zki-an etab.

Aditz laguntzallean, -zki-ren ordez, -it- bat ipintzen degu, bañan ez zuztarraren ondoren, aurretik baizik; onela :

Ekartzen nituan
Ekartzen zenituan
Ekartzen zituan;
Ekartzen genituan
Ekartzen zenituzten
Ekartzen zituzten.

Zatituta:

n-it-u-an	gen-it-u-an
zen-it-u-an	zen-it-u-z-te-n
z-it-u-an;	z-it-u-z-te-n.

Oarra: Zenituzten ortan, -it-ez gañera, beste askotzalle bat ere ipintzen degu: zuztarraren ondorengo -z- ori; eta berdin baita *zituzten* ortan ere. Zenbait lekutan, ordea, ez da ipintzen olako -z-rik: *zenituten*, *zituten* baizik; edo-ta *zenituen*, *zituen*...

VIII. IKASGAIA

(LEENGO ALDIA)

NORIKIDUN JOKAERA

Leengo aldian, norikidun jokaerak, onela dira :

Lenengo norikiduna : *neri* : -da-.

<i>Me lo traías</i>	=	Ekartzen zenidan (zidazun)
<i>Me lo traía</i>	=	Ekartzen zidan;
<i>Me lo traíais</i>	=	Ekartzen zenidaten (zidazuten)
<i>Me lo traían</i>	=	Ekartzen zidaten.

Zatituta:

zen-i-da-n	zen-i-da-te-n
z-i-da-n;	z-i-da-te-n.

Oarra: Jokaera ontan, zuztarra ez da -u-, -i- baizik; *zen-*, bigarren norki egillea da; erdiko -da-, l'go. norikia da (*neri*); bukaerako -n leenaren ezaugarria. Ez da zerkirik: (irugarren zerki dan seña).

(*Zidazun'en* -i-, zurtarra; z + zu, egillea; -da- noriki (*neri*); -n leenaren ezaugarri).

Zerkia askoduna danean, zuztarraren ondotik -zhi- bat ipintzen diogu : adibidez *zenizkidan*, *zizkidan* etab.

Bigarren norikiduna: zuri: -zu-

Te lo traía (yo) =	Ekartzen	<i>nizun</i>
Te lo traía (él) =	Ekartzen	<i>zizun</i>
Te lo traíamos =	Ekartzen	<i>genizun</i>
Te lo traían =	Ekartzen	<i>zizuten.</i>

Zatituta:

<i>z-i-zu-n</i>	<i>gen-i-zu-n</i>
<i>n-i-zu-n</i>	<i>z-i-zuten-n.</i>

Oarra: Ez da zerkirik. Zuztarra, -i- da; asierako *n-*, *z-*, *gen-* norki egilleak dira; erdiko -*zu-* 2'gn. norikia; ondorengo-*te-* norkiaren askogarria; eta bukaerako *-n*, leenaren ezaugarria.

Zerkia askoduna danean, zuztarraren ondoren -*zki-* bat ipintzen diogu; edibidez *nizkizun*, *zizkizun*, *genizkizun*, *zizkizuten...*

Irugarren norikiduna: ari: -o-

Se lo traía =	Ekartzen	<i>nion</i>
Se lo traías =	Ekartzen	<i>zenion</i>
Se lo traía =	Ekartzen	<i>zion;</i>
Se lo traíamos =	Ekartzen	<i>genion</i>
Se lo traíais =	Ekartzen	<i>zenioten</i>
Se lo traían =	Ekartzen	<i>sioten.</i>

Zatituta:

<i>n-i-o-n</i>	<i>z-i-o-te-n</i>
<i>zen-i-o-n</i>	<i>zen-i-o-te-n</i>
<i>z-i-o-n</i>	<i>gen-i-o-n</i>

Zenioten ortan, *zen-*, norki egillea da; -*i-* zuztarra; -*o-* norikia (3'gna.) -*te-* norki egillearen askotzallea; eta bukaerako *-n* leenaren ezaugarria. Ez du zerkirik.

Oarra: Zerkia askoduna danean, zuztarraren ondotik -*zki-* bat ipintzen diogu; adibidez, *nizkion*, *zeniskion* etab.

Laugarren norikiduna: guri: -gu-

Nos lo traes =	Ekartzen	<i>zenigun</i> (z(en)iguzun)
Nos lo trae =	Ekartzen	<i>zigun;</i>
Nos lo traeis =	Ekartzen	<i>zeniguten</i> (z(en)iguzuten)
Nos lo traen =	Ekartzen	<i>ziguten.</i>

Zatituta: *zen-i-gu-n* *z-i-gu-te-n.*
 z-i-gu-n; *zen-i-gu-te-n*

Oarra: Zerkia askoduna danean (los), *-zki-* bat zuztarraren ondoren: *zenizkigun.*

Boskarren norikiduna : zuei : -zute-

Os lo traigo = Ekartzen *nizuten* 3
 Os lo traía = Ekartzen *zizuten;*
 Os lo traíamos = Ekartzen *genizuten (genizutegun)*

Os lo traían = Ekartzen *zizuteen.*

Zatituta: *n-i-zute-n* *gen-i-zute-n (gen-i-zute-gu-n)*
 z-i-zute-n; *z-i-zute-e-n (z-i-zute- (t)e-n).*

Oarra: *Genizute(gu)n* ortan, *gen-* norki egillea da; *-i-*, zuztarra; *-zite-* norikia (*zuei*); erdiko *-gu-* ori, asierako *gen-en* sendogarria; eta bukaerako *-n*, leengo aldiaren ezaugarria.

Zizute(t)en ortan, askotan erdiko (*t*) ori kenduta, *zizuteen* esan oi-da.

Zerkia askoduna danean, beti bezela, *-zki-* bat zuztar-ondoren : *nizkizuten*, etab.

Seigarren norikiduna: aiei: -e-

Se lo traía = Ekartzen *nien* = *nizkien*
 Se lo traías = Ekartzen *zenien* = *zenizkien*
 Se lo traía = Ekartzen *zien;* = *zizkien;*
 Se lo traíamos = Ekartzen *genien* = *genizkien*
 Se lo traíaais = Ekartzen *zenieten* = *zenizkieten*
 Se lo traían = Ekartzen *zieten.* = *zizkieten.*

IX. I K A S G A I A

(LEENAREN JOKAERA)

LENENGO TA BIGARREN ZERKIDUNEN JOKAERA

VIII Ikasgaian, 3'gn. zerkia (*lo*) duan jokaera ikusi degu. Jokaera

ortan, ez da azaltzen zerkirik; zerkirik-gabeko jokaera, beraz, 3'gn. zerkiduna da.

Ikustagun orain, l'go ta 2,gn. zerkiduna. Ikustagun lendabizi irugarren norkiarekin bakarrik (norkirik ez du agiri, irugarrena dan señaile).

El me veía	=	Ikusten	<i>ninduan</i>
El te veía	=	Ikusten	<i>zinduan</i>
El lo veía	=	Ikusten	<i>(zuan)</i>
El nos veía	=	Ikusten	<i>ginduan (ginduzan)</i>
El os veía	=	Ikusten	<i>zinduzten</i>
El los veía	=	Ikusten	<i>(zituan).</i>

Ikusten danez, zerkiak aurretik dijoaz, eta guztiak onela dira:

nin(d)...

zin(d)...

(ez du zerkirik, 3'gna dalako)

gin(d)...

zin(d)... zte...

(ez du zerkirik, 3'gna dalako)

Zati ditzagun: *nin* (*d* sendogarri) l'go zerkia (*ni*); *-u-* zuztarra; *-an*, leenaren ezaugarri. Ez du norki egillerik, 3'gna dan señaile.

Zinduain berdin : *zin(d)-u-an*.

Zuan'ék ez du zerkirik, irugarrena danez *-u-* zuztarra; *-an*, ezaugarria.

Ginduan, berdin : *gfre(d)-u-an*. Zenbait lekutan *ginduzen* esan oi-da : *gin(d)-* 4'gn berkia (*gu*); *-u-* zuztarra; tarteko *-z-* 4'gn zerkiaren askogarri; *-an*, leenaren ezaugarri.

Zinduzten, berdin: *zin(d)-zte* 5'gn. zerkia (*zuek*); *-u-* zuztarra; tarteko *-zte-* 5'gn zerkiaren askogarri.

Zituzan, ere, berdin: *-it-* 6'gn. zerkiaren askogarri (*aiek*); *-u-*, zuztarra; *-an*, ezaugarri.

Aldatu ditzagun norkiak:

Tú me veías	=	Zuk	ikusten	<i>ninduzun</i>
El me veía	=	Ark	ikusten	<i>ninduan</i>

Vosotros me veáis	=	Zuek ikusten <i>ninduzuten</i>
Ellos me veían	=	Aiek ikusten <i>ninduten</i> .
Zatituta:		<i>nin(d)-u-zu-n</i>
		<i>nin(d)-u-an</i> (ez du norki egillerik)
		<i>nin(d)-u-zute-n</i>
		<i>nin(d)-u-te-n</i> (ez du norki egille.)

Nin(d)- 1'go zerki (*ni*); *-u-* zuztarra; *-zu-* egille etab.

Yo te veía	=	Nik ikusten <i>zindudan</i> (ziñudan)
El te veía	=	Ark ikusten <i>zinduan</i>
Nosotros te veíamos	=	Guk ikusten <i>zindugun</i>
Ellos te veían	=	Aiek ikusten <i>zinduten</i> .
Zatituta :	<i>zin(d)-u-da-n</i>	<i>zin(d)-u-gu-n</i>
	<i>zin(d)-u-an</i>	<i>zin(d)-u-te-n</i> .

Zin(d)-, 2'gn. zerkia (*zu*); *-u-* zuztarra; *-da-*, norki egillea (*ni*); *•n*, ezaugarria. *Zinduan'ék* ez du norki egillerik, 3'gna dalako. *Zinduten'en -te-*, egillearen askogarria da.

Tú nos veías	=	Zuk ikusten <i>ginduzun</i> (giñuzun)
El nos veía	=	Ark ikusten <i>ginduan</i>
Vosotros nos veáis	=	Zuek ikusten <i>ginduzuten</i>
Ellos nos veían	=	Aiek ikusten <i>ginduzten</i> .
Zatituta:	<i>gin(d)-u-zu-n</i>	<i>gin(d)-u-zute-n</i>
	<i>gin(d)-u-an</i>	<i>gin(d)-u-z-te-n</i>

Ginduzten ontan, *gin(d)-*, 4'gn zerkia (*gu*), *-u-* zuztarra; zerkiaren askogarri; *-te-* norki egillearen askogarri...

Yo os veía	=	Ikusten <i>zinduztedan</i> (ziñuztedan)
El os veía	=	Ikusten <i>zinduzten</i>
Nosotros os veíamos	=	Ikusten <i>zinduztegun</i>
Ellos os veían	=	Ikusten <i>zinduzteen</i> .
Zatituta:	<i>zin (d)-u-zte-da-n</i>	<i>zin(d)-uzte-e-n</i> .
	<i>zin(d)-u-zte-n</i>	<i>zin (d)-u-zte-gu-n</i>

Tarteko *-zte-* ori, zerkiaren askogarria da (*zuek'en* askogarria).

Azkeneko *zinduzteen* orrek *zinduzteten* izan bear luke; bañan otsobe bearrez, bigarren í kendu egiten diogu : *zinduzten...*

Euskeraren zertzelada berezi bat

ALKAR-IZKETA-ERA

"Zer-zelan" dik —gipuzkoeraz "zer-nola" esango gendukeanetik— bizkaieraz "zertzelada" itza sortu izan da, erderazko *detalle* adierazteko.

Euskeraren *detalle* bat ezagunerazi nai det lantxo ontan: Gramatikako *detalle* txiki bat; Gramatikatikan Sikologiara eta Sociologiara jauzika igarotzen dan *detalle* bat. Ea alkar-aditzen degun ahalik-lehenen.

TV -IV-

Euskaldunok, bakar-zale-edo gerala esan oi-dute idazle entsaio-zale zenbaitzuek: bakar-zale, ots! individualistak: iñorekiko artu-emanetan ez gerala, alegia, alkar-izketa-zale... Itz bitan: bakar-izketa, *monologoa* atsegiñago zaigula. (Bizi ere, ola omen-zaigu atsegiñago: etxe berezietan, baserrian, bordaetan bizi izatea; gauza orrek beste ekonomi-arrazoibiderik ez balu bezela). Dana dala, baserri, borda ta saletxe, besteak beste, gure Izkuntzak beintzat, ez digu olako indavidualismorik agertzen. Alderantzira, oso alderantzira baizik: gure jardun-lagunarentzat, beste iñungo izkuntzek ageri ez duan itzal ta begirunea agertzen du. Ikustagun.

Euskerak, bere mintzaeran, ez du *genero* esan oi-dan gramatikazko zertzeladarik, beste izkuntzetan ain erabillia dan zertzelada ori, ar-emetasuna itzetan adierazten duan *detallea*, alegia. Beste izkuntzetan, txakurra arra bada, *perro* esan oi-da; emea bada, berriz, *perra*. Berdin "ona" gizona bada, *bueno*; eta emakumea bada, *buena*. Ots! izenak bere bukaeran, grumatikazko zertzelada batez adierazten du ar-emetasuna^ beste izkuntzetan. Euskeraz, ordea, ez dago olako gramatikazko zertzeladarik. Ar izan, eme izan, "ona" beti berdin izango da: *gizon on*,

emakume on, gizon ona, emakume ona; berdin baita *mutil aundi, neskatxa aundi; aita maite, ama maite*. Geienaz arra, izen batez; eta emea, beste batez: *cahallo* "zaldi"; *yegua* "beor"; eta ori ere, ef beti: *burro* "asto-ar"; *burra* "asto-eme".

Izenetan ori: izenetan ez degula, alegia, *genero gramaticalik*.

Aditzetan, ordea, besterik da. Aditzak ba'du *género'*, adierazten du ar-emetasuna. Ez, ordea, ez aditzaren "egillearenik", ez "egiñarenik". (Latiñez iñoiz oi-dan bezela: *Homo mortuus* est; *mulier mortua* est).

— Norena, bada?

— Alkar-izketa-lagunarena. Ots! *persona interlocutoraren* ar-emetasuna... Baiñan goazen poliki-poliki.

* ix. jt.
 *jr w

Euskerak, euskaldunaren individualismoa arren, alkar-izketari itzal aundia dio: itzal aundi, begirune berezi. Alkar-izketarako Euskerak, bestelako izketa-mailla bat sortu du, bestetan ez bezelako izketa-mailla berezi bat. Bakar-izketan aditz-joku-malla bat erabiltzen degu; eta alkar-izketarakoan, beste mailla bat.

"Etorri naiz" esango degu lenengoan; eta "etorri nauzu" bigarreanean. Bigarren ontan, aditz-jokuan *zu* bat-edo sartzen degu, norbaitekin alkar-izketan ari gerala adierazteko. Ez ori bakarrik; alkar-izketa-lagunaren ar-emetasuna adierazten degu; *conjugación familiar* dalakoan ari gerala, gure alkar-izketa-laguna mutilla bada, *etorri nauk* esango degu; eta nexkatxa baldin bada, *etorri naun*.

(Gaur, *conjugación familiar* dalakoa —euskaldunok "ika-ta-toka"-jokua esaten bait diogu— gure malla berdiñekoekin erabiltzen degu bakarrik; leen, ordea, maJJa guztietakoakin erabiltzen bide-zan; geroztikan sortua da *zuka* aritzeko malla; *zu* orduan erderazko *vos* bait zan; eta *tu* esateko beti *i* edo *eu* erabili oi-zan).

Zu bat, edo *-k* ta *-n* bat sartzen degu, beraz, iñorekin ari geranean, iñor orri aitormen egin bearrez. Eta orain berriz ere leenera biurtuaz, aitormen-egite orrek, individualismo ez baño, "altruismo" berezi bat esan nai bait du: berekoitasuna ez baiño, bestekoitasun berezi-berezi bat.

* * #

Baiñan ba da oraindik zerbait geiago ere gai ontan.

Zu eta *-k* edo *-n* orri, zenbait gramatika-zalek, *dativo ético* esan izan dio. Nik uste, *dativo* ez baiño, *vocativo* dala obeto. Ea, itz bitan alkar-aditzen degun.

Vocativo dalako ori, ontarako da edozein izkuntzetan: gurekin izketan ari danari aitormen-egiteko, edo adierazteko edo dei-egiteko (*vocare, vocativo*). Izenaren jokoan, dei-egite ori, zenbait izkuntzetan (latiñean-eta), atzizki, sufijo, baten bitartez egin oi-da: *Domine; Kyrie...*

Euskeraz, izenari erantsitako *ori* baten bitartez. *Ori* orrek, norbaitekin diardugula adierazten du; norbaitekin ari zerala. Norbait orren izenari, *ori* bat erasten diogu. Adibidez :

"Maria : nora zoaz, eder galant *ori*?"

Ori orixe da gure *vocativoaren* —gure "deikiaren"— ezaugarria, adierazgarria: orixe da gure deiki jator-jator. Latíñez-ta, atzizki sufijo baten bitartez egin oi-dana, euskeraz *ori* bat izketa-lagunaren izenari erantsiaz egin oi-degu.

Baiñan ez bait-da ori bakarrik. Erderatan *vocativoa*, izen jokoaren zati bat besterik ez da (*caso* bat, alegia). Euskeraz, ordea, ez da *caso* bat, *caso*-illara osoa baizik: bere nominativo, genitivo, dativo etab. guztiakin. Ez da *caso* bat; izketako malla berezi bat baizik. Ikustagun:

- 1) Maria : nora zoaz eder galant *ori*?
- 2) Maria : eder galant *orren* amakneri...
- 3) Maria : eder *orri* gaur nik ekarriko...
- 4) Maria : eder *orrenzat* gorderik dauzkat nik...
- 5) Maria : eder *orreatatik* nikegingo...
- 6) Maria : galant *orrek*in nik ezkontzeko... etab. etab.

Ikusten danez, *ori* ori, berez izen-orde *demonstrativo* dalarik, bere jokaera guztiarekin, bere *declinacio* osoarekin, *vocativo* biurtu zaigu, *zu* edo *eu* baten ordeko ta betegarri. *Zu* edo *eu* orrek, berriz, gure alkar-izketa-laguna adierazten du.

Olakoxe garrantzia ematen dio Euskerak alkar-izketari: alde batetik, aditzaren jokaeran, jokaera-mailla berezi bat sortuaz; eta izenaren jokaeran, berdin, izen-jokaera-mailla berezi bat.

* * *

Euskaldunok bakar-zale gerala esango da gero; ots! ez gerala alkar-zale... Eta, ala ere, gure Izkuntzak alkar-izketari olako bereizkuntzak ematen...

Idazle entsayistaen iritzi ura arintxua ote-zan? zuzendu bearrekoa ote-zan? Ba liteke. Gutxi edo geiago, gauza ori bera esaten bait du arako gure kanta zahar eder ark:

Denak Yinkuak iñak gire :

zuek eta bai gu ere...

Denak Jaungoikoak egiñak, alkar-aditzeko, alkar-izketarako. Besteak beste, gure Euskera beintzat bai.

Conjugación dialogada

Es aquella en que, dentro de la propia forma verbal hay un elemento personal correspondiente a la persona dialogante, persona interlocuente, una especie de vocativo a quien estamos continuamente dirigiendo nuestra palabra.

La conjugación de *ika ta toka* o conjugación familiar, es esencialmente dialogada; y el elemento personal correspondiente se manifiesta dentro de ella en esa *k* característica del sexo masculino del dialogante, y *n* correlativamente femenino. V. gr. *Etorri dituK, etorri dituN; ekarri di (K)at, ekarri diÑat*.

Lo corriente es que la conjugación dialogada sea solamente la de *ika ta toka* o conjugación familiar. Pero en algunas regiones y algunas zonas sociales existe todavía un residuo de tal conjugación de diálogo aun en la conjugación de forma cortés o de *zuka*. V. gr. *Etorri gaituZU* (compárese con *etorri gaituk, gaitun*); *ekarri diZVt* (compárese con *ekarri di (K)at, ekarri diÑat* = "lo he traído").

Veamos la técnica de esta conjugación. Su resorte consiste en dar cabida dentro de la flexión verbal al vocativo de interlocución o diálogo, es decir, al elemento representativo del tal vocativo, segunda persona, *k* y *n* según los sexos. Ahora bien, si nos fijamos en el lugar o puesto que ocupa dicho elemento, veremos que no siempre es el mismo. Desde luego vemos que en los primeros ejemplos, él se halla al fin, en el mismo lugar que ocupa el elemento de sujeto agente (*dituK, dituN*) (*gaituZU*), pero en los segundos ejemplos se halla en medio de la flexión, en el lugar que característicamente corresponde al complemento indirecto, al elemento representativo del complemento o régimen indirecto o dativo (*ekarri diñat* —vid. *ekarri didazu—, ekarri di(K)at; ekarri diZUt*). Y sin embargo, ni es sujeto agente (nominativo), ni régimen indirecto (dativo), sino puramente vocativo, persona interlocutora, dialogante.

Otra observación: que en esta conjugación dialogada no existen propiamente las formas de conjugación intransitivas; ellas se convierten

en otras equivalentes transitivas (*etorri dira; etorri dituk, ditun, dituzu;* no de otro modo que si se tratase de *ekarri —ekarri dituk, ditun, dituzu—*). Solo hay flexiones intransitivas en la segunda persona: *etorri aiz*. En las demás personas son transitivas las flexiones: *etorri nauk, naun, nauzu; etorri dituk, ditun, dituzu; etorri gaituk, gaitun, gaituzu; etorri dituk, ditun, dituzu...*

Con todo, no cabe decir que las dos formas, intransitiva y transitiva, se confundan. Hay una diferencia técnica entre ellas. La técnica de las formas intransitivas es que el elemento vocativo, interlocutor, va en la flexión a modo de sujeto, al fin (claro que ahora sólo me refiero al presente de indicativo, de donde están tomados los ejemplos que nos sirven de base para este estudio); y la técnica de las formas transitivas, es que dicho elemento vocativo está tratado más bien como dativo, complemento indirecto, en medio de la flexión: *ekarri di(K)At, ekarri diÑAt...* Tal es la diferencia entre ambas clases de formas, intransitiva y transitiva: diferencia técnica, que se traduce en una diferenciación significativa, o diferenciación valorativa gramatical: de ahí procede que en estas explicaciones se hable de "dativo ético" en lugar de "vocativo".

Aita Larramendi'ren Gramatika-puntu bat

Nere itzaldi onen izena, ba'dakizute, "Aita Larramendi'ren gramatika-puntu bat"; bañan izenpeko edo sub-título bezela, beste au ipiñi bear litzaioke: "Aditzaren zenbait bukaera-forma"; eta zeatzago oraindik, 'Berboaren desinentzi *-an, -en*': ots, *nuan, nuen*.

Pozik egingo nuke nik emen, izenen-ta deklinazioari buruz digresio txiki bat; bañan "naikua degu parolatik" bestela ere, ta iriñetan eskua sartzera nijoa, digresioak utzita.

Ikustagun gai au, A. Larramendi'ren Gramatikaren argitan.

Aztertu nai dedan desinentzi ori, *-an, -en* da: *nuan, zenduan, zuan, genduan; nuen, zenduen, zuen, genduen*; eta berdin baita *nituan, nituen*, eta berdin *duana, duena*...

Aurrera jarraitu baño leenago, ba'dakit, zenbaiten aotan *-[^]*eta idazkortzan ere bai— *nuan, zenduan* eta *nuen, zenduen'ea*. ordez, *nun, zendun* etab. arkitu oi-dala. Bañan edozeñek daki, azkeneko forma oiek, erriaren aotan sortutako "forma relajada" dirala, *ardik* eta *mendin* eta *zerun* bezela; "forma alperrak", "alper-formak".

Eta jarrai dezagun aurrera.

A. Larramendi'k, bere "El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada"n, iru euskalgi, dialecto, aitortzen dizkio Euskerari: Gipuzkoera, Bizkaiera eta Napar-Laburdiera. Eta bere, aditzaren paradigmaetan, lenengo aztertzen dituan formak, gipuzkoerarenak dira (*jaten det*); eta bigarren, berak *Dialecto 1* esan oi-dionarenak, ots, bizkaierarenak (*jaten dot*); eta irugarren, *Dialecto 2'*ekoak, ots, napar-laburdierarenak (*jaten dut*). Eta, ain zuzen, paradigma oietan, *Pretérito imperfecto*'ra eltzen danean, lenengo lekuan, gipuzkoerari dagokionean, onela dio *Jaten nuen, zenduen, zuen, genduen...*; eta *Dialecto 1'n*, bizkaierazkoan, onela: *Jaten nevan, evan* edo *zenduan, zevan, genduan...*; eta *Dialecto 2'ean* —ots, napar-laburdierazkoan— beste onela dio: "Se hace con los auxiliares *nuen*, o mudando la *e* en *a*, *nuan, zenduan*".

Ikusten degun bezela, A. Larramendi'k azterketa onetan, Dialectologiari eta Atlas Lingüístico'ri dagokion problema bat ukitzen du. Eta laburki, aren iritzia, gai onetan, auxe da: Gipuzkoeran, forma -e erabiltzen dala; Bizkaieran, forma -a; eta Napar-Laburdieran, formak nahasian erabiltzen dirala: naiz -e, Gipuzkoeran bezela, naiz -a, Bizkaieran bezela.

Ain zuzen, Dialectologiari dagokion problema ontan det nik, A. Larramendi'ri buruz zerbait esan bearrik.

Gauza ondo aztertuta, nik uste, A. Larramendi, Gipuzkoerari dagokion ontan, ez dagola zuzen; nik gauza beste era batera ikusten det; gipuzkoerako forma jatorrak, forma -a dirala; ori bai, zenbait interferentziarekin forma -e'ren aldetik; bañan jatorriz forma -a: *nuan, zenuan, zuan...*

Zer gertatu bide zitzaion Larramendi'ri gai ontan?

Nola-nai-dala, A. Larramendi'k Salamanka'n, bere "El imposible vencido" antolatzen ari zala, etzuan izango, bear bada, nori galde ta nork erantzun askorik, gai ontan dudaren bat sortu balitzaio.

Gañerakoan, nik uste, gai ontan, anarteko idazle laburditarren itzalak —Axular baten itzalak-eta— azpi-lan aundia egin zuala gure Aita andoaindarraren iritzietan.

Axular'ek, dakigun bezela, forma -e erabiltzen du beti; eta Larramendi'k begirune aundia zion beti idazle napar-laburditar sonatu arri.

Axular'ez gain, A. Mendiburu'k ere bultzada aundia eman bide-zion forma -e'ri Larramendi'ren garaian.

Beste alde, gipuzkoera, zenbait Gipuzkoa'ko napar-inguruetan (Donostia'n adibidez, eta Ernani'n, Urnieta'n, Andoain'en etab.) naparrez ondotoxo kutsatua arkitu oi-da... Napar-laburditar-itzala aundia zan Larramendi'ren egunetan (gaur areago), bera bizi izan zan baztarretan: Andoain'en, adibidez, bañan batez ere Ernani'n. Ez da, beraz, arritzeko, gure Aitak naparrera gipuzkoeratzat artu izana : bata bestetzat.

Orain ori bai, guk diogun guzti onen sendogarri bezela, emen aipa ditzakegun, garai artako gipuzkoeraren testigu ta dokumentalak, oso urriak dirala, obeto esateko, ez daukagula orduko dokumental segururik. A. Mendiburu, oyartzuarra zanez, naparra zan euskalgiz. A. Kardaberat, berdintsu, Ernani'n jaio ta Donostia'n azia, napar-kutsu aundikoa bide-zan gai ontan.

Ufrenge gizaldian (XIX gizaldian) bai, ba'dauzkagu ugari eta on askoak, jaiotzez giputz jatorrak: Lardizabal bat, Zaldibi'koa, Gerriko bat Mutiloa'koa, Agirre bat Asteasu'koa. Bañan oiekin ere —lenengo biekin baintzat— kontuz ibilli bearra dago gai ontan; nekez ta oxta-oxta atera zitezkean garai artan Larramendi'ren itzal eta gonapetik, ots, "El imposible vencido"ren itzalpetik. Itzal auditxoa zan ura. Lardizabal, beintzat, garbi asko ageri da Larramendi'ren eskolako, lexikoan baño aditzean, berboan, beti ta beti forma *-e* erabiltzen, bere jaiot-errian, Zaldibi'n, forma *-a* erabiltzen zan arren.

Gerriko mutiloarra, berriz, erdizkako ageri zaigu; zein bat zein beste, bi formak erabiltzen ditu : batean *e*, bestean *-a*.

Agirre asteasuarra da, bakarrik garai artan, galbide ta arraixku ontatik libre dabillena. Agirre, guk dakigunez, beti forma *-o*'ren bidetik ibilli zan. Eta guretzat zalantzarikan gabe, bera da gipuzkoeraren testigurikan jatorrena ta garbiena, XIX gizaldiaren asieran.

Besteak beste, Gipuzkoaren biotz-biotzean jaioa izatea, ez da segurantzagarri makala, ori sinisteko. Bañan ortaz gañera guk ba'degu, gure eskuetan beste segurantzagarri bat ere gai onetan. Agirre'ren liburu berezi-berezi baten jabe gera; eskuz egiña liburua, berak bere eskuz idatzia, iñoiz inprentatu gabea. Iturritik zuzen-zuzenean datorren ura, beraz: duan guztia Agirre-Agirre'rena, beste iñoren eskuetan nahasi-gabea... eta gai onetan, asi-ta-buka, dana forma *-a*'duna.

Liburuaren izena, onela da: "Pazcoaraco prestaera... eracusaldiac... Esqueintzen diezte euscaldunai Dn Juan Bautista Aguerre (sic) Asteasuco Erretore, eta Guipuzcoaco Arciprestazgo Nagusian Diputado generalac". Liburuak 64 orrialde ditu. Eta XLX gizaldiaren asierako "prantzestearen" ondo-ondoren egiña dirudi. Liburuaren izenetik asi eta azkeneraño datozen aditz-forma guztietan, forma *-a* erabiltzen du: *kentzen dituan, eraman dituana, erakusten dituan, padezitu zuan, ipiñi zuala, igaro bear dituan nekeak... igaro zituan, aunatu zuan, agertu zuan, esan zuan, artu zuan, esaten zuala, igari zituan, eman zuan...* Orrelaxe lenengo zazpi orrietan. Eta berdin baita, gañerako guztietan ere. Naiz dala "pretérito imperfecto", naiz presente relativodun. Eta iñoiz *zuen* ta *zuela* esaten badu, *zuten* eta *zutela'ien* ordez esango du, eta ez *zuan* eta *zuála*"ren ordez.

Gerriko'k, bere aldetik, esan dedan bezela, etzuan bereganatu Larramendiren legerik oso-osoan, pusketan baizik. Bat-ere legerikan gabe

erabiltzen ditu bi formak: batean bat, eta bestean bestea. Zergatik? Ez dakigu.

Eta ondotik etorritako askok eta askok ere, Fr. Jose Krutjs Etxeberriak bezela, era berean erabiltzen zituzten : naastuan.

Bañan XIX gizaldi orren bukaeran, arkitzen ditugu zenbait idazle, goyerriar —gipuzkoar jator— naaste ortatikan naikoa garbi ateratzen diranak. Aien artean, irazean, bat aipatuko degu eredu bezela, Ezkioga-Zegama'ko seme, D. Alfonso María de Zabala, Apaiza, Ernani'ko Parroko il zana. Oso forma -a'ri atxikia arkitzen degu idazle jator au, bere idaz-lan politetan.

Bañan, bukatzeko, beste guztien gañetik, Asteasu'ko Agirre-ren errenkadan garbi ibiltzen, beste Agirre bat arkitzen degu: Txomin Agirre, bere berdiñikan-gabeko GAROA'n; eta berdin baita aren eskuetik ain txukun atera oi-ziran beste lan guztietan ere. Asteasu'koaren bide ber-berean. Zergatik? Ez dakigu ori ere. Bear bada, bizkaitar bezela —naiz gipuzkoeraz ari— berak beti bizkaierara jotzen zualako? Ez dakigu. Orixe bakar-bakarrikan dakigu : beti ta beti, bide ortatik—a'ren bidetik— etzala alderatu.

Eta bukatzera noa.

Arakatu ta aztertu degun problema, ez da garrantzi aundiko problema; bañan, bein eskua iriñetan sartu degun ezker, bai egiaren bidean erabaki bearrekoa...

Bukatzeko: gipuzkoera jatorrean, forma *-e*, ez; forma *-a* baizikan dala forma jatorra. Ez *nuen*, *nuan* baizik. A. Larramendi'k bere "El imposible vencido"an besterikan dion arren.

Loyola-Azpeitia'n, 1966"gn. Agorra'ren 25'ean.

«Zuen»? ala «zuan»?

(BATASUN-BIDEAN)

BATASUNA —Euskeraren literatur-batasuna— egin bearra dagola-ta, idazteko formarik egokienak aukeratu bearrean arkitzem gera.

Bide ortan aukeratu bearreko bat, auxe da: "zuen"? ala "zuan"? Itzetik-ortzera erabilli bearreko itzak bait dira olakoak.

Nere iritzia gai ontan, *-an* formaren aldekoa da. Itz bitan esango det zergatik (1).

* *

Batasun bidean, besteak beste, fonetismoak baztatu bearra dago beintzat. Fonetismoen bidetik ez goaz batasunera, bi edo irutasunera baizik. Itzaen berezko forma jatorrera jo bearra daukagu.

Eta, gero, euskalkirik geienak erabiltzen dituzten formak aukeratu bear ditugu.

Eta, ortaz gañera, forma naasiak baztatu.

Ikustagun orain, aipatutako bi formaen artean, zein dan, baldintza oien barruan garbien dabillena.

. T T

Euskalkirik geienak erabiltzen dutena, zein da? "Zuen"? ala "zuan"? Gipuzkoerak —Gipuzkoera jatorrak— "zuan" esan oi du.

Bizkaierak ere *-an* formara jotzen du garbi-garbi: *neban, eban*.

(1) Txosten onen antzeko beste bat bidali nuan nik Euskaltzaindiara bere garraian. Euskaltzaindiak *nuen, zuen* etab. aukeratu du, bere batasunerako. "Nola? ez dakigu".

Zuberotarrak ere, garbi-garbi, *-an* formara, eta aiekin batean erronkariarrak ere (2).

Laburdi eta bi Nafarroak dira *-en* forman dabiltzanak, eta aiekin batean Gipuzkoa Beterrria.

"Iru iruren kontra" gaude, beraz. Gero ikusiko degu, beste alderdie-tatik nola gabiltzan.

* * *

Gipuzkoaren aditz-jokua gai ontan, garbi dago :

Nuan	genduan
uan (ukan, unan)	zenduten edo zenduen
zenduan	zuten edo zuen.
zuan;	

Bizkaierak ere berdin egin oi du :

Neban	genduan (geban)
zenduan (zeban)	zenduen
eban;	eben.

(2) Zuberotarren, gauza ontako iritzi eta praktikaz, garbi-garbi ageri da, gure *zuan'en* ordez, berak *zian* esaten dutela, *-a* forman garbi-garbi; berdin baita gure *nuan'en* ordez, berak *nian* (naiz-ta askotan, *nin*, esan *guk. nun* esango gendukean bezela). Orixe da ango forma. Erronkari'n ere gauza bera gertatzen bait da. Gipuzkoerari buruz, orain urte batzuek, egin nuan nik, Euskaltzaindiarentzat beste txosten bat, A. Larramendiren iritzi oker bat zuzenduaz. Aita andoaindarrak, bere Gramatikan, gipuzkoartzat *nuen*, *zuen* jartzen bait du, Beterriko forma Gipuzkoa guztiari egotziaz, eta alderantzira Laburdi ta Nafarroai, *nuan*, *zuan*; eta Lardizabal bera ere Larramendi'ren iritzira makurtu zan, bere "Testamentu zarreko eta berriko kondaira" liburu ederrean; Agirre astesuarra, ordea, garbi-garbi, *-a* formaren barruan dabil beti... eta baita Kanta Zaar gipuzkoarrak ere...

Bart arratzean / beranduan
panparriokeria / ba *genduan*,

kantatn oi da Ber-gara-aldean.

Ogeitalaugarrena degu Abenduan;
deseo-genduana logratu *genduan*,

entzun oi da Gabonetan, Gipuzkoa-Goierrian.

Bizkai eta gipuzkoar aditz-jokutik agiri danez, *-en* formak, askozko formak dira —plural-formak—, ez bakarkakoak. *Zenduen* forma, *zenduten'en* berdiña da; *zenduten*, berriz, guztiok dakigun bezela, askozko forma da, ez bakarkakoa. Ala berean, *zuen* eta *zuten* berdiñak dira; *zuten*, berriz, garbi-garbi, askozkoa.

Gipuzkoan ori. Bañan Bizkaian ere berdin gertatzen bait da. Bakarkako formak, *-an* formatara jotzen dute: *neban*, *zenduan* (*zeban*), *eban*... Askotara iristean, jotzen dute bizkaitarrak ere *-en* formatara: *zenduen*, *eben* (tarteaz, berriz ere, *genduan* (*geban*), *-an* formaren sallean gelditzen dala.

Beraz euskera batuan, bakartako sallean *-en* forma sartzea, NAASKILLO bat sortzea da, batasunaren kalte aunditan.

* # #

Ladurdi eta Nafartarren gauza ola da:

Nuen	zuten.
zenuen	zenuten
zuen;	genuen

Dana *-en* forman —guretzat askozkakoa dan forman—; berak, ezik, ederki bereizten dutela bakarkakoagandik askozkoa; *zenuen'i* eta *zue/i'i* *-t-* bat tarteaz sarturik (*zenuten*, *zuten*). Bañan bide ori euskera batuan ezin ezarri genezaieke gipuzkoar eta bizkaitarrai, naaskillo bat sortu gabe.

Bizkaian eta Gipuzkoan *-e* formak, askotazko formak dira: *dezu*, *du*: *dezue*, *due*; *dozu*, *dau*: *dozue*, *dabe*; *diot*, *diet*; *deutsat*, *deutset*; *gizonari*, *gizoneri* etab. Beraz, gauza au arruntean eramatekotan, *zenuen*, *zuen* ere —beren *-e* forman— askozko egin bearko ditugu, eta ez bakarkako.

Alderdi ortatik, beraz, naaskillo aldetik, alegia, arrazoibide bat geiago dago *-e* formaren kontra.

Ikustagun orain beste alderdia, fonetismo-alderdia.

•jɛ •jr •fɛ

Berezkoa al da, ala fonetismoz sortua, *-en* forma? *nuen*, *zuen*? Pentsatzekoa bait da, fonetismoz sortua dala eta ez berez.

Izan ere, fonetismoz, garbi-garbi, *-e* biurtzen dira, *u* edo *i* baten ondoren datozen berezko *-a* formak: *burua*, *burue*; *begia*, *begie*; *laguna*, *lagune*; *egiña*, *egirae*. Ez bait da gertatzen, ordea, alderantzira, berez *-e* diranak, *-a* biurtzerik...

Ikusi ditzagun argiago adibide batzuek aditz-jokuan :

/ baten ondoren datorren *a*, *e* biurtzen da adibide auetan :

esan nikan nik
 esan niken nik;
 esan niñan nik
 esan niñen nik.

Zein da emen forma jatorra?

Berdin esan bait liteke, *u* baten ondoren datorren *a*'rentzat: *e* biurtzen dala, alegia. Ikus :

ez ukan esan ik
 ez uken esan ik;
 ez unan esan ik
 ez unere esan ik;

Berriz ere galdera bera egin bait genezake: zein da emen forma jatorra? zein, fonetismoa?

Au da gai ontan nere arrazoibidea : dilemma garbi-garbia :

Edo-ta *-e* forma da, *-a* formaren fonetismoa; edo-ta, kontrara, *-a* forma da *-e*'ren fonetismoa. Ez bait da, ordea, iñor, *-a*, *-e*'ren fonetismoa dala esango duanik. *Nuen* da, beraz, *nuan'en* fonetismo, eta ez alderantzira.

Forma jatorrak, beraz, *nuan*, *uan* (*ukan*, *unan*), *zenduan*, *zuan* eta *genduan*, dira; eta ez *nuen*, *zenduen*, *zuen*; *genduen*...

•jr •fɛ

FONETISMOAREN baldintzari dagokionez ere, beraz, arrazoibidea, *-a* formaren alde dago, eta *-e* formaren aurka.

Zuen, ala zuan? Duen, ala duan?

Gure Liturgi-Bazkunak ba du bere eskola, bere euskal-lanetarako. Amar urtean zear, arian-arian, sortu zaiguna. Ez Ortografian bakarrik, baita gañerako Gramatika-arazoetan ere.

Aditzaren Jokaeran ba degu eskema bat, asiera-asieratik erabiltzen deguna. Aditzaren jokaera ori, *pretérito* dalakoan, ola da :

Gipuzkoeraz : (Ekarri) nuan,	Bizkaieraz : (Ekarri) neban,
zendum,	zendum,
zuan;	eban;
gendum,	gendum,
zenduten,	zenduen,
zuten.	eben.

Ikusten danez, gure jokaerak, bakardunean, *-an* formari jarraitzen dio, naiz gipuzkoeran, naiz bizkaieran; *-en* forma, guretzat ez da forma bakarduna, askoduna baizik.

* * *

Euskaltzaindiak, oraintsu, bere batasun-biderako, beste eskema bat aukeratu du:

(Ekarri) nuen,	gendum,
zenduen,	zenduten,
zuen;	zuten.

ARRAZOIBIDEAK

Amar bat urtean ibillitako bideari, leenean eustea, arrazoizkoa da. Bañan ori azaletiko arrazoibidea danez, uztagun gerorako, eta aztertu ditzagun erain barrendikako arrazoibideak.

1) Lenengo arrazoibidea: Oso gauza sistematikoa dala, Gramatikarentzat, bakardun-formak beti *-an* izatea; eta askodun-formak, beti *-en*. Deklinabidean ere bide orri jarraitzen zaio: bakardunean *gizonAren* eta *gizonAri* esaten degu; eta askodun danean Euskaltzaindiak berak ontzat artua daukala dirudi *gizonEri*, *gizonEi* (1).

Aditzaren jokaeran ere, Bizkaieran bide au oso argi ageri da: bakardunean *Ekarri ehan*; eta askodunean *Ekarri eben*: *Ekarri ebAn*, *Ekarri ebEn*.

Egia da, gipuzkoeran, *Ekarri zuan* bakarduna, askodun egin nai degunean, *Ekarri zuten* esaten degula (ots, *-e* soillaren ordez *-te-*); bañan zenbait lekutan, gipuzkoera jatorrean, *Ekarri zuten* bezelaxe, *Ekarri zuen* esaten da: *Ekarri ZJETS* = "trajeron". Euskaltzaindiak BAKARDUN bezela erabiltzen duan forma, erriak ASKODUN egiten du.

2) Bigarren arrazoibidea; ikusten dan bezela, Euskaltzaindiaren *Ekarri ZUEN* forma, forma naasia, ekibokoa bilakatzen da: Gramatikarentzat oker aundia. Askotaz ere garbiagoa bilakatzen da *Ekarri ZJJAN*.

3) Irugarren arrazoibidea: Euskaltzaindiak ezarri nai dizkigun *-en* forma oiek, beti ere sospetxagarri —fonetismo-sospetxagarri— gertatzen dirala; ots, aditzaren zuztarreko *-u-*'ren indarrez, ondoko *-a-*, *-e-* biurtu dala, alegia; ots, *zuen ori*, leenagoko *zuan* baten fonetismoa dala. Berriz ere, oker eta ez-bear aundia, ez Gramatikarentzat, bear bada, bañan bai, eta ez txikia, "batasunaren" arazoarentzat: batasun-bidean, aal dan fonetismorik gutxien erabilli bear bait da. (Alderantzira, ez bait da iñoiz entzun, *-a-* formak, *-e-* formaren baten fonetismo diranik).

KANPOTIKO ARKAZOIBIDEAK

Goazen orain, kanpotiko arrazoibideetara.

Guk arazo ontan orain arte ibilli geran bidea jarraitzeari —aldaketarik ez egiteari, alegia— arrazoibide jatorra derizkiogu; kanpotiko arrazoibidea, ezik, orain arteko gure "histori-egoera edo ariera", bañan beti ere barrendiko arrazoiakin "a dos" datorrena, ikusi degun bezela.

Beste olako kanpotiko arraziobide bat Euskaltzaindiaren itzala izan diteke. Bañan ikustagun.

(1) "Ekarri dio" ere, askori danean, "Ekarri diE" esan oi degu.

Euskaltzaindiak ez dakigu nola artu duan gai ontan beste erabaki ori. Gauza bear bezela aztertuta? Guk ez dakigu. Nolanai dala, arazo ontan euskaltzain guztiak etzeuden "a dos". Nik nere iritzia idatziz bidali nuan, eta nere iritzia kontrakoa zan. Eta olako arazoetan, erabakia guztioi ezarri bear zaionean, "adostasun" betea bearrezkoa da. Bestela Euskaltzaindiaren itzala, ez da ain itzal aundia.

Euskaltzaindia bere bidetik dabil. Batasuna nai du iñolaz ere. Ikustagun nola gure arazo ontan.

Laburdi'n eta Gipuzkoa Beterrian, *pretérito* dalako ortan, *Ekarri nuen, zenduen, zuen; genduen, zenduten, zuten* erabilli oi dira. Lapurtarrakin batasuna egitearren erabaki zuan Euskaltzaindiak nunbait, beste Euskalki guztiai *-en* forma ori ezartzea... Botoak, bozak geitzeko, alegia. Ikustagun, ordea.

Guk erabiltzen degun *-an* forma, alde batetik, gipuzkoar jatorra da eta beste aldetik Bizkaian ere *-an* formari jarraitzen zaio. Beraz batasun-bidean *-en* formarekin Lapurdi-aldera irabazten dana, ein ta neurri berean Bizkai-aldera galdu egiten da.

-an formaren gipuzkoartasuna gauza garbia da. Bi kantaetan garbi-garbi azaltzen dana. Guztiok entzunik dauzkagu biok:

Ogeitalaugarrena

degu Abenduan:

deseo gendua

logratu genduan.

Bart arratsean beranduan,

panparroikeria ba genduan.

Gipuzkoa guztian kantatzen diran kanta, bai Goierrian, bai Beterrian, naiz-ta Beterri, aspaldidanik, Laburdi'ko *-en* formarekin kutsatua egon.

Bizkaiari gagozkiolarik, *-an* ariari jarraitu bakarrik ez; *-an* formak oso-osorik ere ba ditu gipuzkoerarekin gai ontan berdiñak diranak: *zenduan, genduan*, eta *zenduen* (askoduna).

Aditzea degunez, Zubero-aldean eta berdin Erronkari-aldean ere, *-en* forma baño areago erabiltzen da *-an* forma. Orrek berak sospetxerazten bait digu, *-en* formak garbi-garbi fonetismoak dirala, *-an* formaren fonetismoak.

* 4€ 3€
"J" TP

Gauza bera esan bear degu, *Ekarri du'ven relatiboari* buruz: ez dala *Ekarri duen*, *Ekarri duan* baizik: *Ekarri duana*, *Ekarri zuana* bezelaxe.

Gentza, 1975, Apirillak 3.

Deikia izenetan

(EUSKALTZAINDIAREN ITZALDIAK DONOSTIAN)

Jaun-Andreok: Gutxi oitutako gai bat dakartzutet, gaur, nere entzuleoi: "Euskerazko vocativoa"; edo-ta "Vocativoa euskeraz".

Gutxi oitua itzaldi oietan. Gramatikari dagokion gai bat.

Orain arte, beti ez bada ere ia beti, Literaturari dagokion gairen bat erabilli izan da mai ontatik. Literaturari, Literaturaren Edestiari, Literaturaren Atzeari, gure Orixe'k liokean bezela.

Gaur, ordea, ni Gramatikari atxikiko natzaio, Gramatikari elduko diot. Eta Gramatikako zati txiki bati eldu ere: Declinazio edo *Sufijos de relación* erderaz deritzaion zatiari; eta zati ontan, *caso* bakar bati: *vocativoari*, ots, deikiari.

Izkuntza-zale guztiok berexkuntza asko arkitzen dizkiote gure Euskeraren Gramatikari. Euskeraren legeak ez dira ondo sartzen, gure inguruan mintzaten diran izkuntzen Gramatiketan. Phonetikatik asita, Sintaxisen bukaeraraño, gure mintzatzeko molde asko, ez dira beste gure inguruko mintzatzeko moldeen antzekoak. Gure Gramatikak ba'ditu, beste zenbait Gramatiketan ondo kabitzen ez diran zenbait izaera.

Izaera oietako bat aipatu nai dizutet gaur.

"Vocativoa euskeraz ez da beste iskuntzetan bezelakoa". Orra nere gaurko itzaldi onen gaia. Nolakoa da, bada? Nola erabiltzen degu euskaldunok, gure izketakoan, *caso vocativo* dalako ori?

VOCAEIVO DEIKI

Guztiok dakizute zeri deritzaion erderazko Gramatiketan *caso vocativo*. Adigarririk ezagunenak aipa ditzagun: *Cordero de Dios, que quitas los pecados del mundo, ten misericordia de nosotros...* Orra or *vocativo* bat: *Cordero de Dios...* Zergatik deritzaion *vocativo*, *Cordero*

de Dios orri, itz-sail ortan? Ez da erantzuten zail: "dei-egiteko" dago-lako. Dei egin, *vocare, invocare; vocativo, invocativo.*

Beste adigarri bat: *Gloria a tí, Serafín del Carmelo.*

Beste bat. *Cerca de Tí, Señor.*

Beste bat: *Omnia propter temetipsum operatus es, Domine : Todo lo hicistes para Tí, Señor.*

Beste bat: *In Te, Domine, speravi: En Tí, Señor, esperé..*

Orra or, zer dan *caso vocativo* dalakoa : *Cordero de Dios, Serafín del Carmelo, Señor, Señor...*

Bañan esan lezake norbaitek: "*Vocativo* diozu, bañan ez al-dira-ba, *caso nominativo* iru izen oiek, ola esanda?". Bai, eta ez. Erdaldunentzat, esan-tankeraz, esateko formaz, berdín izan ditezke, *vocativo* bezela *nominativo* ere. "Esan-tankeraz"; bañan egoeraz, ordea, ez; egoeraz, frasean, esaera osoan daukaten lekuz, eta batez ere esan-nai danarekin daukaten artu-emanaz, ezin izan ditezke *nominativo, vocativo* baizik. Len ere esan dizutet: *vocativo*aren egitekoa, dei egitea da; *nominativo*aren egitekoa, aditzaren egille edo euskarri izatea dan bezela. Lenengo adigarrian, *Cordero de Dios* diogunean, Jaungoikoaren Bildotsari dei egiten diogu, ta gero esaten, erruki dakigula. Berdin beste adigarrietan ere. Ba'dirudi *vocativo* oietako bat esaten degunean, Ebanjelioko arako esakun ura esaten deguna: *Adolescens, tibi dico, surge: Joven, a tí te digo, levántate: Gazte, zuri diotzut, jeiki zaite. Vocativo* bakoitzak, *vocativo* orok, bere baitan antxe darama "zuri diozut" ori. "Zuri diozut" edo-ta beste onelako zerbait: "Adi ezazu" edo "Aizu, zu" edo-ta "aizak, i"... Orixe da *vocativo*aren egitekoa, guna, muña, esan-nai ezkutua, berarizkoa: dei egitea.

Esan-nai ortatik, frasean daukan egoera ortatik, bereizten da *vocativo*a erderaz. Dei-egin-bear ortatik; dei-egin -nai ortatik bakarrik. Erderaz ez dago *vocativo*a *nominativo*tik bereizteko beste erarik. Geienez ere, tarteka-tarteka O/i'ren bat ipiñiko zaio: *Oh Cordero de Dios! Oh Señor! Oh Serafín del Carmelo!* etab.

Latiñez, ordea, eta griegoz ere, ba'dago beste bereizgarririk. Latiñez eta griegoz, *declinazio* edo dalakoa dago, casoak alkarrengandik bereizteko. Orregatik esan oi da frase oietan, *Domine* eta ez *Domnus, Kyrie* eta ez *Kyrios. Dominus* *nominativo* dan bezela, *Domine* *vocativo* da. Izen biak bat diran arren —biok gauza bat bera, "Jauna" alegia, esan nai

duten arren— ala ere bi bukaera alkarrengandik bestelakoak darabilz-kite: *Domine* eta ez *Dominus*, *Kyrie* eta ez *Kyrios*. *Desinencia de vocativo* deritzaio bukaera bereiz orri, *desinencia de vocativo*, vocativo-bukae-ra, dei-bukaera. Eta orixe da latinez caso vocativoaren berexgarria. Erderáz, ordea, ez bait-dago olakorik.

EDER GALANT ORI.

Vocativoa, deikia, zer dan ikusi degun ezkeru, ikustagun orain zer lege darabillan gure Euskerak vocativo oni, deiki oni buruz.

Adigarri bat ipiñiko dizutet begien aurrean lenengo. Guztiok eza-gutzen dezuten koplaxo bat:

Maria, nora zoaz,
eder galant ori?

Ona emen euskera jatorrezko deiki, vocativo bat. Koplaxo au, itz lauz beste onela litzake: "Maria, eder galant ori, nora zoaz?".

Erderaz nola esango genduke koplá onek diona? nola biurtuko genduke erderara? *Hermosa, esbelta María, ¿a dónde vas?*

Ona emen deiki vocativo bat. Nola egiña? *Eder galantari*, ORI bat ipiñita. *Eder galant ORI*.

Ori orrek erderaz ez du biurpenik, ez du traduziorik. ORI, itz sail ortan ez da bestetan bezela *demonstrativo de proximidad* (ots, *Ori*, igual a *ese*): beste zerbait da baizik. Orregatik ez da erderara biurtzen ESA *hermosa, esbelta* esanaz, *hermosa, esbelta* baizik. Latinez, ordea, lenengo declinazioak vocativo bereizik baleuka, vocativoan, vocativo-forman ipiñiko litzake; ots, emakumea dan bezala (lenengo declinaziokoa dan bezela) gizaseme balitz (bigarren declinaziokoa balitz), *formose* litzake ta ez *formosus*, vocativo-forman alegia. Euskeraz, berriz, olakoetan ORI bat erasten degu. ORI orixe da euskerazko vocativoaren, deikiaren be-reizgarri jatorra.

Orra bada nola egiten dituan gure Euskerak bere vocativoak, bere deikiak. Naiz eta ez guztiak eta beti. Bañan egin, bai.

Deitzeko zeregiña duan itzari, deitzeko dan itzari, deikiari, vocati-voari, latinez *desinencia de vocativo* erasten dion bezela, Euskerak ORI bat erasten dio. Auxe da ontako gurelegea. Lege jatorra.

DEIKIEKRIOI...

Laister ipiñiko dizkitzuet adigarri geiago, eta orduan ikusiko dezute obeto or diodana : Gure Erriak olaxe egiten dituala alegia bere deikiak.

Beste koplak errikoi bat, lenaz gain, esango dizutet emen, bat bakar-bakarrik, Bizkaikoa, trikitietan kantatu oi dana bera. Begira :

Mandadu egin deusat
ama zeureari:
gorde zaizala neuzat
prenda eder ORI.

Erriak ola egin izan du, eta ola egiten ere du.

Bañan (arritzeko ta ez-arritzeko gauza) gure idazleak, Axularrengandik asi ta orain ogeitamarraren bat urte arte, ez diote oartu, kontu artu, gure erriaren vocativo-era oni. Bat bakarrik ere ez da, nik dakidanik, ia gaurdño, vocativo-era au Literaturen mallara oartuki jaso duanik.

Oartuki diot. Oartzeke ta kontura-gabe, lantzean-lantzean, bai, arkitzen dira olako txinpartatxuren batzuek idazle zaharretan; bañan ez bear aña, alderatzeko ere; ustekabe "eskapatuta" bezela baizik; ez iñolar ere, oartuki ari balira, ipiñiko lituztekeen añean. —Mikoleta'ren adigarri ba dakar Azkue Jaunak bere *Morfología* (núm. 433): *Oa bada, eske, ardi-seme oril* Adigarri jatorra, benetan!— Auxe bezain jator ba'dakarte beste adigarri bat Kapanaga'ren eta Bizkai'ko *Doctrina Christianea* diralakoak ere (Vinson, Essai... 24 bis) *Confíteor* edo Confessiñoea deritzan otoitzean: *Ni betacarieu confessetan nachaco... berorri Ayte Espirituelorri... errequetá deuzet... berorri Ayte Espirituelorri...* Olaxe, *Espirituelorri*, deiki-noriki jator bezela. (Bear bada, *Confíteor'en* fórmula au antziña-antziñatikakoa zan Bizkaia'n; otoitzeko izenak ere olaxe adierazten dute... *Jandone Miquel, Jandoneanes, Jandone Peri eta Paulori...*)— Beste olako ORI geiago ere agiri dira Leizarraga'ren *Testamentu* feerria'n; eta Lardizabal'en *Testamentu zar ta berriko kondaira'n*; relativo-ondoren ezik, ez adjetivo jator ondoren. (Lard. XVII-9: *Nor aiz, Erregea esnatzen oska agoen ori?*). Nolanai dala, naiko jator; ez, ordea, bear litzaken guztietan; ez, idazleak oartuki ari balitz, ipiñiko lituzkean guztietan. Bear bada, euskeraz Antzerkilari asko, dramaturgo asko izan bagenitu, orduan bai, orduan ausaz olako adigarri

ugariagorik ikusiko genduan gure Literaturan. Alkarrizketa errikoi bizia egin bearrez, olako ORI geiago "eskapatuko" zitzaizkien gure dramaturgoei (Latiñez ere berdin gertatzen bait-da...?). Izkuntza bare, lauan, ordea, olako eskutuko izkerakiak, beren ezkutuan iñor oartzeke geldi oi dira beti ere, ondikotz! Sobra ere, idatzi-bearrak, lenengo, erderaz-edo pentsatu oi bait-ditugu...

"Arritzekoa, esan det, eta ez arritzekoa". Ez bait-da, izan ere, arritzeko, idazleai, eskribitzalleai olakorik gertatzea. Len ere iñoiz esan izan det eta, eskribitzalleak arraixku ortan bizi dira : beste izkuntzetako klasikoen ereduai begira daudela, errex ematen diote atzea beren erriari, erri xumeari. Eta orrela, uste ez dutela ere, beste izkuntzen, izkuntza arrotzen Gramatiketara jotzen dute. Nai ez dutela ere... Ez da, beraz, arritzeko.

Iñork esan oi dit iñoiz, erri-zaletxo ex ote-naizen euskera-gaietan. Erria, erri xumea, idazleen gaintxotik ipintzen ez ote-dedan... Bai bear ere zenbait aldiz! Begira, bestela, voativoaren gertakari oni. Lareun urte igaro bear izan dira, idazle-jendeok konturatu izan geraneko, gure erriak bere deikiak nola erabiltzen dituan, bere vocativoak nola erabiltzen dituan. Arritzekoa. Bañan baita ez-arritzekoa ere. Berdin gertatu izan bait-da beste zenbait bereiztasun jatorrekin.

Ez uste izan, orratik, ori gure arteko akatsa bakarrik izan danik. Beste errietan ere berdin ibilli izan dira jatortasun-gai ontan. XIV ta XV gizaldiko idazle erdaldunakin ere berdin gertatu izan zan. Latiña zerabilten aiek ere eredu ta ixpillu. Latiñari begira bizi ziran. Eta latiñezko paragrafoetan kalkatzen zituzten, sobera, beren erderazko parrafoak. Santa Teresa batek etorri bear izan zuan mundura, molde aiek austerera, latiñezko moldeak apurtzera, eta gatzelani jatorrezko molde zar errikoietan beren pentsamentuak moldatzen idazleai erakustera... Toki guztietan berdin.

EDESTIAPUR...

Nik ez dakit noiz ezkeroztik "berentzakotu" duten euskal-idazleak ORI-dun vocativo jator ori. Nik emen esan dezakedana, auxe da: ogeitamar urte igaroak dirala ondotxo, gauza oiek orla erakusten asi nintzala gure Gazteizko Seminarioan. Beste iñoren berri gabe. Ain xuxen, "Maria, nora zoaz"-en koplá eder ortatik igerri ta konturatuta.

Eta gure erakutsaldi aietan orrela jarduten genduala, andik puska batera izan zan —eta ez lenago— jakin eta ikusi nuana, gure Azkue zanari ere etziola oartzeko iges egin gure Erriaren ORI jator orrek... guk ez bezelako azalpen bat, bestelako leku bat, bestelako explicacio bat ematen bait-zion ezik ark euskera jatorrezko eraxkun bereiz orri... Olakoetan ORI ori, ZU'ren ordezkagola esan zuan. Eta ez bait-det uste leku ori ondo emana dagonik... (1).

Egin dezagun Azkue zanaren iritzi oni buruz kritika apur bat.

Egia da vocativo oro, deiki bakoitza, ZU'ren bati dagokiona beti. Deia, beti ere *zu'ri* egiten zaio; ez neri, ez eta ari are; beti ere zu'ren bati. Bañan orrek ez bait-du, ZU ta vocativoa elkarrekin nahasi bear diranik esan nai. Bi gauza dira "vocativoa beti zu'ri egokitzea" eta "vocativoaren ORI ori zu'ren ordezkagotea". Egoki, bai ba'dagokio; bañan ezdago "aren ordezk". Elkarrekin dabilta; bañan ez elkarren ordezk (2).

Bañan, jarrai dezagun aurrera.

Azkue Jaunak ezik, beste zenbaitzuk ere oartu zioten gure vocativoetako ORI oni; eta erabilli ere, erabiltzen asi ziran biren idaz-lanetan urte aietantsu beretantsu. Bañan ez bait-zuten ORI onen zabalgunegutia bear bezela aztertu, ez baitzioten zabalgunegeder arri bear bezela oartu... Adibidez erakutsiko dizutet, esan nai nukeana.

Orain arte adigarri bi bakarrik ekarri dizkitzutet begien aurrera. Ori bai, adigarririk argienetakoak, guztiontzako ezagunak, ta iñortxok ere ukatu ezin ditzazkeanak:

Maria, nora zoaz
eder, galant ori?

eta

Gorde zaizala neutzat
prenda eder ori.

(1) R. MARIA DE AZKUE, *Morfología vasca, loc. cit.* (núm. 433).

(2) Obeto esan diteke, beste onako au: vocativoari eta izketa-lagunari (*interlocutoreari*, alegia) beti ere iztunanen urkoak diralako nunbait, Euskerak *demonstrativo de proximidad* bat-edo, *ORI* bat-edo, erasten diola. Edo-ta berdin dana, ztt'ri dagozkion itzai, gure Izkuntzak *ORI* bat erasten diela. NI-ri dagozkienai *AV* bat erasten diem bezela. Eta gi'ri ta zitefc'i *OK erasten dien bezela, ola, "ni, zoro AU"* eta "nik, zoro *ONEK*" esan oi bait-da; eta berdin, baita "gu, gizonok" eta "zuek, emakumeok", edo-ta "zuok, emakumeok" Axular'ek esan oi duan bezela... -a atzizkiaren ordezk, -o bat erasten bait-diogu.

Edozeñek igarri dezake, olako adigarriak asko ta asko ugaritu ditezkeana. Ez, bear bada, bi oiek bezela, gure Koplategi jatorretik artuta; bañan bai, guztiok egunoro erabiltzen degun izkuntzatik jasota.

Adibidez : "Zer abil or, i, kaiku aundi ori?"; "Atoz gaxori atoz"...
ORI, ORI

Bañan ez bait-da ORI bakarrik. Entzun onako beste adigarri oiek ere:

"Ekatzu gaxorrek, ekarri".

"Nork egin dizu zuri, gaxorri?".

"Nor nai dek ibiltzea irekin, alprojatzar orrekin?".

"Ementxe daukat gorderik nik zuretzat prenda eder orrentzat"...

Ikusten dezutenez, gure vocativoa, gure deikia, ez da declinazioko *desinentzi* bakar bat; *desinentzi* guztiak dituan izketa-malla bat obeto baizik... ORI. ORREK, ORRI, ORRENTZAT, ORREKIN. Eta orixe da lentsuago aipatu ditudan idazleak, bear bezela oartu etzutena.

Aiek, beti ta beti, vocativo-mallan ipiñi-bearreko itz guztiak, ORI erasten zioten, ortarako ORI besterik ezpaitlitzan. Ez noa aien adibide askorik aipatzera. Or aipatu dizkitzutedan adibide oietan, aiek onela idatziko zuten : *Atoz gaxori bezela, Ekatzu gaxori; eta berdin "Ementxe daukat nik zuretzat, prenda eder ori, gaxorrek eta prenda eder orrentzat* esan bearrean.

Geienetan gañera, ORI'ren orde, 01 erabiltzen zuten. Eta ola zenbait otoitzetan, sarri erabiliko zizkitzuten onelako edo onen antzeko deikiak: *Emaiguzu, Jaunoi; Jaunoi, entzun egizuz geure otoitzak; Eskarrak zor deutzuguz, Jaunoi...* JAUN ORREK eta JAUN ORRI esan bearrean.

Olaxe bait-da, izan ere; ORI, ORREK, ORRI, ORREKIN, ORRENTZAT... gauzak berak dakarren bezela.

NOIZ ETANOLA...

Galde bat egingo didazute, ausaz, emen :

— Noiz bearco da ORI, noiz ORREK, noiz ORRI etab.?

— Gauzak berak dakarren bezela.

— Zer da, ordea, "gauzak berak dakarren bezela" ori?

— Ara: lentsuago esan dizutet, vocativo oro, deiki guztiak, ZU'ren

bati dagozkiola; vocativoa dei bat dala; eta deia beti ere ZU'ren bati egiten zaiola.

ZU orrek, urruti-gabe inguruan daukan aditz edo berboren batekin zer-ikusiren bat izango du askotan. Zer-ikusi orren neurrian eta araueran, ZU ori, aldiz *zu* dan bezela, aldiz *zuk* izango da, eta aldiz *zuri*, eta aldiz *zugana* etab berboarekin duan lokerak eta artu-emanak agintzen duan neurrian.

Orra bada: zu'ri dagokion ORI orrek ere, neurri ber-bera darabilki. Bear bada, *zu* ori ezkutuan egongo da; bañan zu'k agirian balego izango lukean forma ber-bera, izan bear du ORI'k ere : aldiz *ORI* aldiz *ORREK*, aldiz *ORRI*, aldiz *ORREGANA* etab.

Beste itz batzuetan : tartean dabillen ZU ori, aldiz berboaren egille izango da, edo-ta *norki* (nominativo) ZU, ZUK; aldiz *noriki* (dativo) ZURI; aldiz *zerki* (acusativo) ZU; aldiz *norenki* (posesivo) ZURE; aldiz *norentzaki* (destinativo) ZURETZAT; aldiz *lagunki* (ablativo *con*) ZUREKIN etab. Eta neurri berean, baita deikia bera ere: aldiz *norkia* izango da, ORI, ORREK; aldiz *norikia* ORRI; aldiz *zerkia* ORI; aldiz *norenkia*, ORREN; aldiz *norentzakia*, ORRENTZAT, aldiz *lagunkia*. ORREKIN

Orain obeto ulertuko dituzute len aipatu dizkitzutedan adigarri erritar-erritar aiek: *Zer abil or*, I, kaiku aundi ori? I'ri, ORI dagokio.

Ekatzu gaxorrek, ekarri. Adigarri ontan *zuk* bat dago ezkutuan; eta *zuk'i* ORREK dagokio : *Ekatzu zuk, gaxo orrek*.

Nork egin dizu ZURI, gaxo ORRI? ZURI'ri ORRI dagokio.

Nor nai dek ibiltzea IREKIN, trakets aundi orrekin? IREKIN'i ORREKIN.

Ementxe daukat gorderik nik ZURETZAT, prenda eder ORRENTZAT. ZURETZAT'i ORRENTZAT dagokio.

Eta berdin litzake ORRENGANA beste adigarri onetan: *Eraman gaitzazu zuk mundu ontatik ZUGANA*. *Jaun aundi orrengana*. Berdin baita ORRENGAN beste onetan: ZUGAN, Jaun aundi ORRENGAN *daukat nik nere itxaropena*. Berdin baita ORREN ere, beste onetan: *Egunen batean ZURE* ondora, Jaun aundi ORREN ondora *bear degu danok...*

Auxe da gure deiki jatorraren izaera eta legea.

DEIKI UTS, DEIKI NAHASI ; DEIKI ASKATU, DEIKI LOTU. . .

Eta —orain berriz ere atzera begiratur—, ontatik dator arako, asieran esan degun Euskeraren berexkuntza bereiz ura. Beste izkuntzetan, vocativoa, casu bakar bat da, *caso absoluto* bat, itz askatua, alegia; gramatikaz beintzat berboarekin lokerarik ez duana: itz askatua, *caso absoluto*.

Euskeraz, ordea, gure deikiak berboarekin geienean du gramatika-lokera; izan ere, berez bait-du deikiak berboarekin zer-ikusiri; eta zer-ikusiri au aldatzen dan araueran eta neurrian, aldatzen da baita, izan dituzken *caso* ta *desinentzi* guztietara ORI orren azala eta forma. Casu guztietara: *ori, orrek, orren, orri, orrentzat, orrekin, orrengan, orrengana* etab. etab.

Ez da casu bat; kasu guztiak dira. Obeto esatako, *izketa-malla* bat da, —*una categoría de locución*—: alkar-izketa-malla —*categoría de interlocución o diálogo*—. Gerotxuago agiriko bait-da obeto.

Bitartean, esan dezagun beste zer-edo-zer.

Gure deikiak —ta berdin aren inguruan dabillen ZU arek ere— *mskotan* berboarekin, aditzarekin, zer-ikusiren bat, lokerarren bat duala esan dizutet; ez dala askatua, ez dala *absoluto*, alegia... Askotan, geienetan, bear bada, ola izango da. Bañan ez bait-dezakegu esan beti-beti ola danik. Zenbait aldiz arkitzen ditugu deikiren batzuek askatu-tankeran, a&soZufo-tankeran ere. Adibidez, idazkien, kartaen asierako arako *Querido padre* ta *Estimado amigo* ura. Ala berean, baita, itzaldien sarrerako arako *Señoras, Señores* ura. Olakoetan, berboagandik urrutitxo dagolako edo, deikiak askatu-tankera artzen du. Berdin baita onako ontan ere : *Aita, eguna da*, eta olakoetan, deikiari dagokion ZU arek berboarekin zer-ikusirik ez duanean, alegia (*Aita, eguna da*. Bañan gañerakoan —askotan ta askotan— deikiak berboren batekin —ingurueneko berboarekin— zer-ikusirik izan oi bait-du.

Zer-ikusirik eta lokerarik ez duan deikiari, guk, *deiki-uts* (*vocativo puro*) esango genioke. Lokerarik, zer-ikusirik duanari, berriz, *deiki nahasi*: aldiz DEIKI-NORKI (*vocativo-nominativo*); aldiz DEIKI ZERKI (*vocativo-acusativo*); aldiz DEIKI NORIKI (*vocativo-dativo*); aldiz DEIKINORENTZAKI (*vocativo-destinativo*) etab. etab.

Ona emen orain esan-bear bat: Deikia deiki uts danean, berboarekin

lokerarik eta zer-ikusirik ez duanean, ba'dirudi ez dagokiola ez ORI'rik, ez bestelakorik.

Bañan ori gero ikusiko degu obetotxoago. Eta jarrai dezagun aurrera.

ADJETIVO ONDOTIK... ADJETIVO GABE?

Oar bat zor dizutet, ordea, aurrera jarraitu baño lenago.

Beti ere ORI ori, adjetivoren baten ondotik datorrela ikusiko zenduten. Izen sustantivo baten ondotik ez; beti ere adjetivoren baten ondotik: *galant ori, gaxo ori, gaxo orri, gaxo orrek, alprojatzar orrekin, Jaun aundi orrengana, prenda eder orrentzat, kaiku ori* (jakiña, *kaiku* itz au adjetivo bezela erabilliz)...

Oar onek asko estutzen du, gure deiki bereiz onen zabalgunea. Bereiztasunari ta jatortasunari bat ere kalte egin gabe, ori bai; bañan asko estutzen duala aren zabalgunea. Adjetivo-ondotik bakarrik ikusten degu ORI ori; deikia adjetivoren batekin datorrenean. Eta adjetivorik ez duanean, zer? Sustantivo soillaren ondotik —*Jaun aundiaren* ordez, *Jaun* soil-soillik danean— zer?

Len aipatu dizkitzutedan oker-idazle aiek, berdin arabiltzen zuten beren betiko ORI ura, izen sustantivo baten ondoren ere: adibidez, *Jaun* soillaren ondotik, JAUN ORI, edo-ta berak oi zuten bezela JAU-NOI,JAUNOI

Orain beste galde bat: Erriak nola egiten ditu bere deikiak, adjetivo-gabeko sustantivo soilletan, ots, *Jaun* bakarrik datorrenean, adibidez?

Gaurkoari bagagozkio, danok dakigu nola esan oi dan *Bai, Jauna* ta *Ez, Jauna*, olaxe, nominativo bezelaxe, atzizki artikulua *-a* andotik duala, *Bai, Jauna, Ez, Jauna*.

Bañan berdin, baita, ba'dakigu *Bai, motell* eta *Ez, motell* esan oi dana ere, olaxe, atzizki *-a* artikulua gabe: *motell, motell*. Berdin, baita, *Bai, adixkide* ta *Ez, adixkide* ere...

Ikusten degunez, gai onetan bi eskutara jokatzen du gure baserri-tarren euskerak. Bañan nik ez bait-dakit zergatik; bañan benetan jator eta jatorrago arkitzen ditut nik onako artikulua gabeko deiki oiek eta

oien antzeko beste asko: *Kaixo gizon! Kaixo lagun (zar)! Aizu gizon, Aizu aixkire...* Eta onako koplak zahar oietakoak gañera :

Madalen Busturiko:
gabian-gabian
errondian dabilta
zure portalian.

eta

—Josetxo Olaberriko:
zer dezu negarrez?
—Amak ezkontzerako
dirurik eman ez.

eta oiek baño ondotxo-z zaharragoko, XIV gizaldiko beste ontakoak:

Arren, ene Andra Milia Lastur'ko,
Peru Garzia'k egin dausku laburto...

Olaxe *Milia Lastur'ko* ta *Josetxo Olaberri'ko* ta *Madaleni Busturi'ko*;
ta ez *Madalen Busturikoa* ta *Josetxo Olaberrikoa* ta *Milia Lastur koa*.

PRAXIS

Oraintxe dator egoki, len erabaki gabe utzi degun auzi bat erabakitzea: deikia askatu tankerakoa danean (ots, idazkien asierakoan, itzaldien sarrerakoan, eta deikiak berak inguruko berboarekin zer-ikusirik ez duanean alegia) ORI'rik ote-dagokion ala ez. Eta ala izan ezean, zer dagokion erriaren arauz, erriak egin oi duanaren araueran.

Bi gertakizun, bereizi bear ditugu: deikia, askodun, plural dala; eta deikia bakar dala.

Askodun danean, oraintxe esan deguna dagokio: artikulu -a/c'en ordeaz, -ok bat ipintzea, arako ORI aren erraño ta gogoangarri bezela. Adibidez, Itzaldien asieran: *Nere entzule maiteok, Jaun-andreak*. Eta, izan ere, *Entzule maiteak* eta *Jaun-andreak* esatean, bai bait-dirudi urrutiko norbaitzueri mintzatzen gatzazkiola; entzuleak, berriz, ez bait-dira urrutiko, urrean bait-daude iztunagandik: izketa-lagun bait-ditu iztunak.

Deikia bakarra danean, ordea, zer egin oi du gure erriak?

Begira dezaiegun, len aipatu ditugun adigarri aiei: *Bai, motell; Aizu, lagun zar; Kaixo, gizon*. Ori litzake jatorren. Olaxe, artikulu-gabe.

Milia Lastur /co-ta bezela. Eta neurri ontan ez leudeke gaizki onako idazki-asiera oiek: *Adixkide*; *Adixkide maite*; *Agur, adixkide*; *Seme: Agur, seme*; *Seme maite*; *Gure seme maite*; *Aita maite*; *Ama kutun*; *Lagun zar*; *Agur, lagun zar*; *Agur, lagun*; *Agur Nagusi*; etab., etab. Olaxe, artikulu gabe. Berriz esanda ere, -a atzizkiak, -a artikuluak, urruti-antxa ematen bait-dio ukitzen duan guztiari. Eta, idazle-irakurleak, elkarrengandik urruti egon arren, idazkiaren bitartez urko egiten bait dira, izketa-lagun egiten bait-dira...

Eta norbaiti gogor-antxa baleritzaio *Muy Sr. mío, nere Joun*, soillik ipintzea, erantsi dezaiola *agurgarri* edo *maitagarri* bat. Eta ori egin ezkerro, ez' derizkiot gogor egingo zaionik; ala nai izan ezkerro, *Nere Jaun maitagarri* edo *agurgarri* ipintzea, naiz-ta baita adjetivotxo oiei ORRI bat gañeratzea ere *Agur* batekin; adibidez: *Agur, nere Jaun agurgarri orri*: edo-ta *Nere Jaun maitagarri orri, agur...* Nolanai dala, artikulu urrutiratzaille -a ura gabe. Olaxe litzake jator. Bañan baita gutxien oitua ere, len ere ean dizutedan bezela. Gutxien oitu, bañan jator...

Eta bukatzera noa oraintxe.

Ez dakit zergatik, bañan artikulu gabeko esaera oiei antziñako usai ta kutsu aundiago arkitzen diegu. Artikuludunai baño aundiago.

Geiago oraindik. Olakoetan —ots, esaera bi, elkarren bestelakoak, ola elkarren ondoan bizi dirala ikusten degunean—, bata etorkia ote-dan, eta bestea jatorra, uste izan oi degu. Eta etorkia indarrean datorrela, mardul datorrela; jatorra, berriz, galtzen dijoala, makaltzen. Eta ola, deiki-tankera bi oietan ere, artikulu gabea (*motell*) deritzaigu guri esaera jator; eta artikuluduna (*Jauna*), etorki. Bañan ala berean aitortu bearra dago, baita, artikuludun etorkia —ots, *Bai, Jauna*— mardulago bizi dala gure Literatura guztian, eta baita gaur beintzat erriaren agoan ere. Artikulu-gabeko jatorra, esakun jakin-jakin batzuetan bakarrik arkitzen eta erabiltzen bait-degu. Adibidez: *Bai, motell*; *Ez, motell*; *Kaixo, gizon*; *Kaixo, lagun zar*; *Aizu, gizon*; *Aizu aixkire*; *Tori, aita-txo*; *Ekatzu, amatxo*; *Zer abil, seme?*.. eta itzetik ortzera beti ezpañetan degun arako *Ene!* ta *Ene, badal* ura... (3). Eta arako, urte-sasoi onetan guztiok gogorako dezuten koplatxo zahar ura gañera:

Ator, *mutill*, ator etxera,
gaztaña zimelak jatera...

(3) *Enetxoa* esan oi dan arren deiki bezela (*Bai, enetxoa*; *Ez enetxoa*), ez da esaten *Enea*; *Ene* baizik,

Artikulu-gabeko bait-dira deiki oiek adibide oietan...

Erriaren agokoak dira, ordea, esakun oiek. Ia orain arteko Literatura guztian, berriz, deiki artikuluduna bait-da gallen.

Ala ere, deikia askodun, plural, danean, artikulu -afe-en ordez maiz arkituko degu, erriaren agotan ezik, baita aldiz aldiz Literaturan ere, -ok bat, len aipatu degun ORI'ren edo-ta OEK'en gogoangarri ta errañu bezela. Nolanai dala, artikulu -a'rik gabe beintzat.

Bañan, bukatu baño len, nere erakutsaldi legortxo au itz gutxitara laburtzeko, len aipatu ditugun koplaxo aiek bir-esango dizkitzuet emen.

Ara:

Ator, *mutil*, ator etxera,
gaztaña zimelak jatera...

olaxe,^í tor, *MUTIL*

Arren, ene Andra *Milia Lasturko* :
Peru Gartziak egin deusku laburto.

olaxe *Milia LASTURKO*... Eta orain, XV gizaldiko onen antz-antzeko diran beste bi aiek:

Madalen Busturi'ko:
gabian-gabian,
errondian dabilta
zeure portalian.

eta

—*Josetxo Olaberrri'ko*:
zer dezu negarrez?
—Amak ezkontzerako
dirurik eman ez.

olaxe, *Josetxo OLABERRVKO* ta *Madalen BUSTURI'KO*.

Bañan, guztion gañetik, arako berdiñik gabeko beste ura, itzez ezik, musikaz ere berdiñik gabeko dan beste ura :

—Maria, nora zoaz
eder galant *ori*?
—Iturrira, Bartolo,
nai badezu etorri.

olaxe, *eder galant ORI*... Edo-ta, oraindik osoago errex asko egin ditezkean onako beste aldakuntza oiek :

—Maria, zer nai dezu
eder galant ORREK?
—Maria, nik zer opa
eder galant ORRI?
—Maria, eder galant
ORREN ama nun da?
—Maria, eder galant
ORREKINnainuke...
—Maria, eder galant
ORREGANdaukatnik...
—Maria, eder galant
ORREGANA nai det. .
—Maria, eder galant
ORREGANDIK urrun
—Maria, eder galant
ORIGABE ezin det ..

olaxe, *orri, orrek, orri, orren, orrekin, orregan, orregana, orrengandik, ori gabe*, etab. etab.

Olakoxea bait-da gure Deikia, gure Deiki jatorra.

Eta bukatu det gaurkotz.

1954, Abendua, 23

Deikia aditzetan

EUSKALTZAINDIAKEN ÍTZALDIAK DONOSTIAN

Jaun-Andreok: Juandako jardun-aldian, deikiari buruz, vocativoari buruz mintzatu nintzaizuten. Deikiari buruz era-bat. Bañan batez ere, deikiari buruz izenetan, declinacioan, izenen declinacioan.

Gaur berriz ere gai berari jarraitu nai diot: deiki vocativoaren gaiari. Bañan oraingoan ez bait-degu *deikia izenean* ikusiko, verboan baizik; deiki vocativoa aditzean, verboan...

Euskerazko Deikiak izenetan zer egiten duan azaltzeko, adibide-sail bat ipiñi nizuten nere orduko irakurraldiaren bukaeran. Deikiak izenetan eraxten duan eraxkuna bere zazpi edo zortzi eratan azaltzeko, zazpi edo zortzi adibide ipiñi nizkitzuten... oriotuko zerate oraindik sobra ere.

—Maria, nora zoaz,
eder galant ORI?

—Maria, zer nai dezu
eder galant ORREK?

—Maria, nik zer opa
eder galant ORRI?

—Maria, eder galant
ORREN ama nun da?

—Maria, eder galant
ORREKIN nai nuke

—Maria, eder galant
ORREGAN daukat nik .

—Maria, eder galant
ORRENGANA nai det

—Maria, eder galant
 ORREGANDIK urrun
 —Maria, eder galant
 ORI gabe ezin det...

Olakoxea dala gure Deikia esan nizuten orduan: olakoxea dala. Beste izkuntzetan Vocativoak izenari desinentzi bat eraxten dion bezela, euskeraz ORI bat eraxten diola. Bañan ez ORI bakarrik: *ori, orrek, orri, orren, orrekin, orregan, orregana, orregandik, ori gabe* etab. etab. Ez dala, beraz, beste izkuntzetan bezela declinacioko casu bakar bat, caso guztiak baizik (*ots, nominativo, dativo, acusativo, posesivo, destinativo*; norki, noriki, zerki, norenki, norentzaki etab.); casu guztiak bere barruan dauzkan izketa-malla bat, izketa-kategori bat dala obeki: *categoría de interlocución*.

Bañan, ori bai, eraxkun ori, izena adjetivoren batekin datorrenean eraxten zaiola, eta ez izena bera bakarrik datorrenean. Bera bakarrik datorrenean eta askodun plural izan, orduan *-ok* atzizkia eraxten zaiola (*Jaun-Andreok* adibidez); eta bat-dun, singular danean, jator asko *bai, motell* esan oi dan bezela, *bai, Jauna* ere esan oi dala, *ots*, aldiz artikulugabe, aldiz artikuludun artikulugabea guri jatorrago baderitzaigu ere, eta artukuluduna etorki, arrotz...

Orixe da orduan, Deikiari buruz esan nizutena, orixe orduko nere irakurraldiaren gaia: "Deikia izenetan".

Deikia verboan, Deikia aditzean izango da gaurkoaren gaia...

DEIKIA ADITZEAN, VERBOAN

— Zer bada? izenetan ezik, verboan ere bai al-degu Deiki? —esango du norbaitek—.

— Bai.

Deikia, ez izenetan bakarrik, ez sustantivoetan bakarrik; verboetan ere ba'da.

Ikusiko dezute. Zagozkidate adi-adi, berealaxe bukatuko det eta.

GURE ADITZA, GURE VERBOA.

Ba'dakizute, ezagutzen dezute, gure Aditzaren, gure Verboaren aberastasuna. Gure Verbo sonatuak, beste edozein izkuntzetako Verboak

baño forma geiago ditu. Aien forma bakoitzeko, berrogeitaseiren bat forma guk.

Forma oietako bakotzari, esan-nai bat, *significacio* bat dagokio. Bakoitzak, egitearen nolatasun bat, *matiz* bat esan nai du.

"Egitearen nolatasun bat" esan dizutet. Bañan ez bait-da zearo ego-ki esana. Ara: Hebreozko Verboen formak bai, egitematiza, egitearen nolatasun zenbait esan nai izaten dute. Zazpi formatan erabiltzen ditu hebreoak bere Verboak: *Kal, Niphal, Pihel, Puhel, Hiphil, Hophal* eta *Hitpmhel*; eta Kaf-formak, egitea soillik eta garbi esan nai duan bezela, *NiphaVek* egitea nor-berekoi (reflexivo) biurtzen du; eta *PiheVek* eta *PuhaVek* indartsu (intensivo); eta *Hiphil, HophalVek* eragille (*Pihel* eta *Hiphil* egille (activo) diralarik, eta *Puhel, Hophal* eta *Hitpahel* jasotzaille (pasivo). Olakoak izan oi dira egitearen matizak, egitearen nolatasunak : berekoi, indartsu, eragille etab.

Gure Verboak ere ba'du olako zenbait nolatasun; eragillematiza, adibidez: *egin, eragin; ekusi, erakutsi; ibilli, erabilli; eman, eraman, ekarri, erakarri; eta jan, janerazo; galdu, galerazo* etab. (1).

Bañan gure Aditzaren, gure Berboaren *nolatasuna* aipatzean, beste zerbait esan nai degu guk. Ez *nolatasum-m.aúza*; zer-raori-matiza baizik, *matiz de relación*. Ala bait-da, izan ere. Beste izkuntzetako Verboak, egitearen *norkia*, egillea, besterik ez du aditzera ematen, Verboaren nominatiboa, bere sei notin edo personetan: *ni, zu, ura; gu, zuek, aiek...* Gure Aditzak, berriz, *norkiaz gañera, zerkia* edo acusatiboa, bere sei personetan; eta *gañera norikia*, datiboa, sei personetan ura ere... Olaxe ateratzen zaizkigu gure Verboaren erabilkeran, *bateko berrogeita sei aiek*.

Alaxe bait-da, izan ere. Begira bestela, onako adibide xume oiei. Lenengo, ogeitalau bakarrik azalduko dizkitzutet: erderazko HA TRAI-DO bati dagozkion ogeitalau forma garbi, askatu. Begira :

Ekarri nau,	ekarri aune,
ekarri au	ekarri du;
ekarri din	ekarri gaitu,
ekarri dizkin,	ekarri zaitu,
ekarri dio	ekarri zaituzte,
ekarri dizkio ;	ekarri ditu.

(1) *Activu* ta *pasiva*, ots, egille ta artzalle-matiza, berriz, ba'dirudi izkuntza oroen izatekoa dana.

Ekarri dit	ekarri dizu
ekarri dizkit,	ekarri dizkitzu,
ekarri dik	ekarri dizute
ekarri dizkik,	ekarri dizkitzute,
ekarri digu	ekarri die
ekarri dizkigu,	ekarri dizkie.

Orra or ogeitalau forma, erderazko HA TRAIIDO bakar bati dagozkionak. Eta, esan dizutedan bezela, oraindik beste ogeitalau, edo-ta ogei gañera. Guzitara berrogeitalau; eta, gero aipatuko ditugun beste birekin, orra or berrogeitasei. Berrogeitasei forma gure, aien forma bakar batentzat, edo-ta 4.600 %...

Aberastasuna ez bada ba! ! Bañan, esan dedana : ez bait-dira egitearen nolatasun-adierazgarri, *zertasun* ta *Moriiasim*-adierazgarri baizik. Dana dala, aberastasun izugarria —zenbaiten iritzian *geiegia*... Bañan, ala izanda ere, ez bait-gera gu nor, oberastasun oiekin jarri-ta-kendu-jokoan asteko, dana dan bezela aztertu ta jasotzekó bait-gaude baizik... Eta orrela ez da gure artean iñor, gure baratz aberats ontan kimaketan eta iñausketan astea ontzat emango duanik . Eta jarrai dezugun aurrera.

ERABILKERA ALKARRIZKETATUA

Ikus ditzagan orain, len esan gabe utzitako beste ogei forma aiek. Bañan oar bat lenago.

Ba'dakizute, gure Verboak, gure Aditzak —erderazkoak ez bezela— besteak beste, erabilkera bi, conjugacio bi dituana: askatua edo *absoluto* deritzana bata, eta alkarrizketatua, *dialogatua* bestea. Adigarriz: *Ekarri du*, erabilkera askatua; *Ekarri dik*, erabilkera alkarrizketatua, *dialogatua*.

Verbo guztiak dituzte erabilkera bi oiek. Eta len azaldu dizutedan HA TRAIIDO'ri dagokion e/carri-sail ura, ain xuxen, erabilkera "askatua" izan da. Bañan arek ere izan bait-lezake erabilkera alkarrizketatua ere;

ona orain forma aien erabilkera alkarrizkettuari dagozkion beste ogei formak:

Ekarri natxiok	ekarri zione
ekarri natxione (2),	ekarri zizkione,
ekarri gatzik	ekarri ziguk
ekarri gatzixe.	ekarri zizkiguk,
Ekarri zidak	ekarri zigune
ekarri zizkidak,	ekarri zizkigune,
ekarri zidane	ekarri ziek
ekarri zizkidane,	ekarri zizkiek,
ekarri zio	ekarri ziene
ekarri zizkiok	ekarri zizkiene.

Ba dakizute, elkarrizketako erabilkera onek, bere ezagungarri bezela, eraxkun bat izan oi duana: *dik'en* azkeneko *-k* ori-edo (*ekarri du, ekarri dik(S)*).

Orra bada —eta oraintxe dator, ain xuxen, Deikiari buruz gaur esan nai nizutena—: Erabilkera alkarrizketatuaren ERAXKUN AU, DEIKA DA, VOCATIVO DA; Deikiak sartzen du Verbo-barruan, gure Aditzean. Dife'en *-k* eraxkun au, Izenean ORI ura bezela, Deikiaren adierazgarri bat da, Vocativoaren itzal eta erraño bat, Verboan.

IKATAZTJKA...

Oar bat, aurrera jarraitu baño lenago.

Verboaren erabilkera elkarrizketatua, era bitakoa dala. *Ikakoa* bata; eta *zukakoa* bestea. *Zukakoa*, itzalezkoa, errespetuzkoa; eta *ikakoa*, laua, edozeñentzakoa, *ika-ta-tokakoa*, *i-t-nokakoa*...

(2) Lenagoko sallan esanak bezela, ez ditugu eraen ipintzen sei forma oiek: *eka rri au, ekarri aune; ekarri dik, ekarri dizkik, ekarri din, ekarri dizkin*.

(3) Eraxkun au, ordea, ez bait-da, beti-beti, *-fe* ori bezela, atzizki, sufijo izaten. Aldiz-aldiz barru-eraxkun bat, infijo 'bat izan oi bait-da. Eta aldiz, berriz, beste zerbait. *Ekarri dik* eta *ekarri dira'en*, bai, atzizki, sufijo bat da (*-fe, -n*). *Ekarri dikat, •ekarri diñat'em*, ordea, barru-izki bat (*-ka-na*). Eta *etorri aiz, etorri intza'i'en*, berriz... beste zerbait.

Azaldu dizutedan alkarrizketako erabilkera-sail guztia, *ikakoa* izan da (*Ekarri natxiok, natxione; ekarri zidak, zizkidak* etab.). Igarriko zenduten. Eta bear bada, orregatik norbaitek uste zezakean, *ikakoa* beste erabilkera elkarrizketaturik ez ote-dagon. Bañan ez bait-da ola. Zukako alkarrizketa-erabilkera ere ba'degu euskeraz. Zukako deiki-eraxkunek ere ba'ditugu. Ikakoak bezain oparo ez bañan. Ona emen HA TRAIIDO'ri dagozkion biak. Biek irugarren personako zerkiari dagozkio: *Ekarri du; ekarri dik, din* (ika), *ekarri dizu* (zuka); *Ekarri dizkik, dizkini* (ika), *ekarri dizkitzu* (zuka).

Beste oartxo bat azkeneko forma oni buruz. Zabalgune txikia dua-la, batez ere Verbo zerkidunetan, Verbo transitivoetan; pixka bat aundiago Verbo intransitivo, zerkigabeetan: ots, txikia efcarrig'an, pixka bat aundiagoa eforri'gan. Dana dala, napar eta laburditarren artean noiz-nai entzun oi dira auek edo oien antzeko formak: *Etorri nauzu, etorri duzu; etorri gaituzu, etorri dituzu... Etorri nauzu, etorri nauk'en berdin; Etorri duzu, etorri duk'en berdin; etorri gaituzu, etorri gaituk'en berdin; eta etorri dituzu, etorri dituk'en berdin...* Gipuzkoeraz eta Bizkaieraz, ez, ez dira ain entzunak, gazte-jende-artean batez ere.

Beste oartxo bat: Zerki-gabeko Verbo baten, ots Verbo *intransitivo* baten erabilkera askatua, alkarrizketatu biurtzean, zerkigabetik zerkidun, *intransitivotik transitivo* biurtzen dala. Adibidez: *Etorri naiz* bat, *etorri nauk* edo-ta *eorri nauzu* biurtzen dala, *etorriez* baño *ekarri* balitz bezelaxe. *Ekarri nauk, ETORRI NAVK; Ekarri nauzu, ETORRI NAU-Zu* etab. Azpikoz-gañeratze ikusgarria bait-da auxe, gerotxuago esango degun bezela.

Eta jarrai dezagun aurrera.

ALKARRIZKETAKIAK

Eta nolakoak dira ba, Verbo askatua Alkarrizketatu biurtzeko, Deikiak Verbo-barruan sartzen dituan eraxkun edo zatiko aiek?

Ba'dakizute, gure Aditzaren, gure Verboaren berexkuntzarik aundienetan bat, bere bizkarreratzen duan izki-zama aundi-aundia dana. Beste izkuntzarik geienetako Aditzak, bi edo iru izki, elementu, bakarrik bere soñeratzen, bere gañeratzen dituzte: zuztarra ta egillea eta beste uskeriren bat bakarrik: *ama-mos, ama-ba-mos, amare-mos* (ama-zusta-

rra; *-mios*, egillea; *-ba-*, *-len-garaia*)... Euskerazko Aditzak, ordea, beste elementu bi geiago bizkarreratzen ditu gutxienez: egilleaz gañera, *norkiaz gañera*, *zer eta nori: da-kar, da-kargu, da-kar-kia-gu*; ta beste uskeriren batzuek gañera (*dakarzkizutegu, da-kar-zki-tzu-te-gu*)...

Orra bada: Verboari, erabilkera alkarrizketatuan erabiltzen deguenean, oraindik beste eraxkun bat geiago, beste pusketa bat geiago ere sartzen diogu: gure izketa-lagunari, interlocutoreari dagokion beste pusketa bat: izketa-laguna gizasemea bada, bat (*-k*), eta emakumea bada, bes-telako bat (*-n*).

Beste itz batzuetan: beste izkuntzetako Verboak, nominativoaren pusketa bakarrik darama bere soñeratua, zuztarrari erantsia (ama-MOS); euskerazko Aditzak, *norki*, nominativoaz gañera, *zerki*, acusativoa (*da-kargu, -kargu* = traemos, *da-* = lo, *da-kar-gu* = lo traemos) eta gañera *noriki*, dativoa (*dakarkiogu: dakargu* = lo traemos; *-kio-* = le; *da-karkiogu* = se lo traemos a él)... eta, erabilkera alkarrizketatua danean, dialogatua danean, *vocativoa, DEIKIA* gañera, ots, *izketa-laguna*, interlocutorea (*zekarkionagu: zekarkio(ka)gu* = se lo traemos, eta erdiko *-NA-íu* fem., *zekarkionagu* = tú, se lo traemos). Beste puxketak nominativoari, ta acusativoari, ta dativoari dagozkion bezela, puxketa berri au, *vocativoari, DEIKIARI* dagokio. Deikiari, paragrafoan ezkututzen dan *zu* arri, lengoan aipatu nizuten *ZU* edota *I* arri.

Esan dezagun berriz ere. *Zekarkio(k)at. zekarhionat*. Begira zenbat pusketa dituan forma onek: *ze-karkio(-k)a-t: ze*, acusativo, zer ekarri; *kar*, aditz-zuztarra, ekarri; *kio*, dativo, nori ekarri; azkeneko *-t*, nominativo agente, nork ekarri... eta tartean gelditzen zaigun *-ka-* edo *-na-* ori, *vocativo, deiki*, izketa-lagun, interlocutore, tartean beti dabillen *zu* edo *i'ri* dagokiona.

Orixe da, esan nai nizutena. Gure Aditz-formak, olakoxeak dirala, orren ondotoxoz zamatuak. Eta bizkarreratzen dituzten puxketaetan, eraxkuntan bat, orixe dala: *deikiari, vocativoari, izketa-lagunari, zu'ri* edo *i'ri* dagokion zatixka, eraxkuna.

Emen berritu ditzakegu, lentxuago "bateko 46" artan aipatu ditugun *ikako* forma alkarrizketatu guzti aiek: *Ekarri natxiok, ekarri natxione; ekarri dik, ekarri diñe; ekarri gatxik, ekarri gatxiñe; ekarri dizkik, ekarri dizkiñe*... Forma guzti oietan, erabilkera askatuari *-k-* ta

-ne bat eraxten zaio, besteak beste : *Ekarri du, ekarri dik, ekarri diñe; ekarri ditu, ekarri dizkik, ekarri dizkiñe...* (4).

DATIVO ETICO?

Ba'dakit zenbaitzuk, *vocativo* oni, Deiki oni, *dativo ético* esaten diotela.

Ez gera geiegi asarretuko orregatik.

Nik, ordea, lendik *vocativo* izena egonik, ez bait-dakit zergatik sortu bear degun beste itz berri bat, len ezagutzen etzan kategori berri bat arkitu bagendu bezela. Ez dago kategori berririk. Len eta beti, *vocativo* esan izan dan casoa besterik ez da, nere itzaldi guzti ontan ikusi dezuten bezela.

Ikustagun nundik eta nola sortu ote-dan *dativo ético* deitze ori. Au ere adigarritz egingo degu, bidea errezago dedin.

Ona adigarri bat: *Ekarri dizkiat edo-ta osoago ekarri dizkikat*, naiz emakumezko *ekarri dizkiñat*. Ikako *ekarri dizkikat* au, zukako beste onen antzekoa da, *ekarri dizkitzut (dizkitzut, dizkikai)*. Eta *dizkitzut* ontan, itz-barruko *-tzu-* ori, dativo izan oi da (*zuri ekarri dizkitzut*). Beraz orren leku berean dauden *-ka-*, *-na-* oiek ere dativo bear dute izan.

Ondo legoke arrazoi-bide au, adigarri ori besterik ezpalego. Bañan bai bait-dira beste adigarri geiago ere, adigarri onengandik bestelako askoak.

Egia: adigarri orretan, izketa-lagunaren eraxkuna (*-fea-*, *-na-*) dativoaren leku ber-berean dago, dativoaren gañean kalkatua. Eta orixe da, izketa-lagunaren eraxkun orri, *dativo-antza* ematen diona. Bañan beste zenbait adigarritan berdin arkitzen baitdegu *nominativo* egillearen gañean kalkatua; eta beste batzuetan *acusativoaren* ganean; beste batzuetan, berriz, iñoren gañean kalka gabe.

Begira: *Ekarri nauk* esatean, izketa-laguna ta *nominativo* egillea (nork ekarri) dira elkarren gañean kalkatuak, edo-ta biok bat-bedera: *Ekarri nauk = I, ik ekarri nauk ni = (Tú, tú me has traído a mí)*.

(4) "Besteak beste" diot; eta *ekarri natxiok'en -txi(ó)* orri buruz diot batez ere... ez bait-dagokit orain neri *-txi-* ori zer dan aditzera amatea... *-fe(a)-* ta *n(é)* oiek bakarrik bak-dira .gaur neri dagozkidanak; eta esan dizutet esan, izkitxu oiek Deikiari dagozian zatitxoak dirana eta ez besterik.

Ilko au(kat) edo-ta *Ilko aunat* esatean, berriz, izketa-laguna ta acusativoa (nor ilko) daude elkarren gañean, edo-ta biok bat-bedera: *Ilko aunat = I, nik ilko aunat =* (Tú, yo te mataré a ti). Len *ik* egille, nominativo; orain *i* zerki, acusativo.

Adigarri oien araueran, izketa-laguna diogun ori, ez da dativo bakarrik (dativo ético); dativo ta nominativo ta acusativo ere ba'da...

Esan dezagun garbiki: ez dativo, ez nominativo, ez acusativo... vocativo baizik... euskerazko arako vocativo, deiki jator ura baizik; bera bait-da, lengoan esan nizuten bezela, bai nominativo, bai dativo, bai acusativo... ta gañerakoak gañerako.

Ikus, bestela, onako beste adigarri au : *Etorri naiz*. Aditz-formatxo askatu txiki onek, ez du zati bi besterik: nominativo (nor etorri) *na*, ta aditz-zuztarra *-iz*. Bañan biur dezagun formatxo askatu au, biur dezagun alkarrizketatu, dialogatu, *Etorri nauk*. Zer gertatu zaio? Izketa-laguna erantsi diogula (*naiz? nauk*): *-k* bat erantsi diogula. Bañan *-k* ori ez bait-da, ez nominativo, ez dativo, ez acusativo; ez *nor edo nork*, ez *nori*, ez *zer*; vocativo soil-soillik, baizik. *Etorri nauk'en* azkeneko *-k* ori, soil-soillik vocativo da, deiki da : *I, etorri nauk* esango balitz bezela-bezelaxe, edo-ta beteago : *Aizak i, etorri nauk ni; Aizan i, etorri naun ni...*

* * *

Dativo ético deitze ori, sortu zeikean beste zerbaitetik ere.

Lengoan ere esan nizuten, vocativo bakoitzean ZU ta I bat ezkutatzen dala; vocativo bakoitzean, gutxi-gora-bera, aopean-edo, arako Ebanjelioko ura esan oi degula: *Adolescens, tibi dico, surge*: Muchacho, *a ti te digo*, levántate: *Gazte, IRI DIAT, jeiki adi. IRI DIAT, IRI ESATEN DIAT* entzuten bezela degula, alegia, geuren barrunbean, deiki bat, vocativo bat esaten edo entzuten degun bakoitzean; eta berdin, baita, *IKA* ta *NOKA* ñorekin izketan diardugumean. Eta *IRI* ori dativo, noriki bait-da... Ortik sortuko zan, bear bada, *dativo ético* deitze ori.

Bañan "barrunbe ortan IRI bat ezkutatzen dala" bezelaxe esan bait-dezakegu AIZAK I bat ezkutatzen dala ere. Eta AIZAK I ortan I ori ez bait-da dativo, vocativo baizik, deiki baizik...

Emendik atera dezakegu nolako zabalgunea duan Deikiak gure Gramatikan, nolako zañak dauzkan gure izkuntza guztian, gure mintzatzeko tankera ta formaetan: izenetan lenengo; ez bait-da declinacioko casu bakar bat, casu guztiak dituan izketamalla bereiz bat baizik; eta verboan gañera; verboaren erabilkera alkarrizketatuan antxe bait-dabil beti, norki ta zerki ta noriki guztiakin nahasian eta trabaturik, ajedrez-joku berdiñik gabe batean bezela, orain emen, urren or, gero an... bañan beti ere tauleroan, beti ere mayean.

PSIKOLOGI APUR...

Eta gure Euskeraren berexkuntza bat orain, berriz ere.

Lengo eguneko irakurraldian Euskeraren berexkuntzak aipatu nizkitzuten. Eta gaurko irakurraldi au ere Euskeraren berexkuntza batez izan da, gure Izkuntzaren berexkuntza, apartetasun bati buruz. Bañan egun artako berexkuntza, Gramatikari dagokiona zan; gaurkoak, ordea, Gramatikari dagokion arren, ba du, orratik, beste usai bat ere, Gramatika'tik asi, ta Psikologiaraño eltzen dan usai bat. Zagozkidate adi-adi, eta berealaxe adituko didazute esan nai nukeana.

"Berexkuntza bat" esan dizutet; eta, bear bada, ez bat, bi baizik azalduko dizkitzutet. Esau ta Iakob bezela, elkarren ondotik orporik-orpo jaiotzen diran berexkuntza bi.

* * *

Begira. Erderaren Psikologia aztertzen dabiltzan jakintsuak, gauzaxo baten konturatu dira: *Tendencia personalizadora*, ta *Construcción refleja con verbos intransitivos* azaltzen dala aldiz-aldiz erderazko verbo-erabilkeran eta adibide bezela onako adigarri oiek aipatzen dituzte: *el cántaro SE sobra*, edo *SE sale*; *estm casa SE llueve*; *NOS ha llovido todo el día*; *SE LE murió el hijo*; *ME estoy helando...* edo-ta *yo ME lo guiso*, *yo ME lo como* (Vid. Américo Castro, *España en su Historia. Cristianos, moros y judíos*, Buenos Aires, 1948, pág. 222).

Construcción refleja esaten zaio guzti oni; *construcción refleja* ta *tendencia personalizadora*. Eta guzti ori Sorkaldeko izkuntzetatik omen-datorkio Gaztel-erderari: ots, Arabetik eta Hebreotik. Izan ere, izkuntza oietan ba'da forma bat (lentxuago aipatu dizutedan forma *Niphal*

ura-edo hebreoz bigarren forma bait-deritza, eta arabez laugarren forma) egiteari norberekoi-antza ematen diona, *vailor reflexivo* ematen diona.

Ez degu ukatuko —ezta gutxiagorik ere— makurtasun ori (berekoi-tasunerako nai ori) erderazko Verboari Arabetik eta Hebreotik etorri zaionik. Ez degu ukatuko. Ezta gutxiagorik ere. Ain xuxen, Euskerak bere reflexivoak bere berekoi-formak egiteko beste bide bat ibilli oi du: guztiok dakizuten, arako *nere burua*, *zure burua*, ta *bere burua*, erderak *me*, *te*, *se* erabiltzen duan bezela...

Ez det gure Euskerarentzat eskatuko, erderaren makurtasun orren iturburu izaterik. Ain xuxen, nik gaur erderaren Psikologi orren kontra-kontrako beste Psikologi bat azaldu nai nizukete. Erderak *me*, *te*, *se* (yo *me* lo guiso, yo melo como) bezela, Euskerak, aitzitik, eta kontrara, beti *te*, *te*, *te*, (ots, yo *te* lo guiso, yo *te* lo como) esan oi bait-du. Igarriko dezute nola. Bere Verboaren erabilkera alkarrizketatuan, beti ta beti Deiki *i* edo *zu* ori (ots, k, *n* edo-ta *zu*) erabilliz... (5).

Auxe da gure Euskeraren Psikologia, gai ontan. Erderarentzako benetako kontra-Psikologia. Erderak, forma berekoiak; Euskerak forma bestekoiak. Erderak, esku bildua duala; Euskerak esku zabala... izketa-lagunarengana zabaldua.

Orra or berexkuntza bat. Eta ez txikia.

Adigarri batzuek argituko digute esaten deguna.

Erabilkera askatuko *Ekarri du*, erabilkera alkarrizketatuan *Ekarri dik* da: *Ekarri du* "Lo ha traído"; *Ekarri gatxik* "Te nos ha traído"; *Ekarri ditu* "Los ha traído"; *Ekarri dizkik* "Te los ha traído"... Eta olaxe beti ta beti, erabilkera alkarrizketatuan diardugunean. Erderaz, *Me lo*, *Te lo*, *Se lo* dan artean, euskeraz beti *Te lo*, *Te lo*, *Te lo*, beti izketa-lagunari deituaz, ari itza zuzenduz ari omen egiñaz...

...Eta euskaldunok bakartiak gerala esango dute gero! Bakartiak, individualistak gerala... Eta, bitartean, gure Verboan, gure Aditzean, nundik izketa-lagunari omen eta agur egingo diogun gabilta beti, zoratzen bezela.

...Ara: izenetan eta adjetivoetan ez degu generorik; ez gizaseme,

i(5) *Te*, *te*, *te*, esan dizutet: olaxe, dativo balitz bezela, *dativo ético* balitz bezela (ola esaten bait-diote, ain xuxen, askok erderazko forma orri); baña egiz ta benetan deiki bezela, vocativo bezela, izketa-lagun bezela, dialogante bezela, interlokutore bezela.

ez emakume, ez ar, ez eme (generoa diot, atzizkia, alegia). Izenetan eta adetivoetan ori. Verboan, berriz, antxe azaltzen zaigu ar-emeki, generoa; ez, ordea, egillearen generoa, ez eta iztunaren generoa ere; izketa-lagunarena baizik. Izketa-lagunarentzat ditugu gure txera ta itzal ta errespetu guztiak. Eta bakartiak gerala! Ez gerala sozialak!... Zer ote-litzake sozialak bagiña!

Eta orixe da, lenengo berexkuntzatik, orpoz-orpo erantsirik jaiotzen dan bigarren berexkuntza: Euskeraren gizartetan nabarmena, gure izkuntzaren sozialtasun ederra.

YO TE LO GUISO, TO TE LO COMO

Kontraste onen adibide bezela ipiñi ditzagun orain adigarri batzuek. Nola litzake euskeraz *Yo me lo guiso, yo me lo como* ikako izkuntzan? *Neronek egosten diat, eta neronek jaten diat*; edo-ta noka, *Neronek egosten diñat, eta neronek jaten diñat*; bañan euskerazko itz oiek, erderara itzez-itzez bihurtzeko, *yo ME lo guiso, yo ME lo como* eman bearrean, *yo TE lo guiso, yo TE lo como* ematen digute. Ez bait-da txantxetako bestelakotasun ta kontrastea! Orixen da, bada, gure Verboa, berekoi ez baño, reflexivo ez baño, *bestekoia* dala esatean, esan nai deguna.

Ikustagun, beste adigarri aietan bat geiago. *Construcción refleja con verbos intransitivos* diote Psikologoak dagola aldiz-aldiz erderazko Verboen erabilkeran: *Construcción refleja con verbos intransitivos* dagola. Ots; demagun erderaz verbo intransitibo bat, impersonal bat, nai badezute: *llueve*. Begira zer dioten Izkuntzaren Psikologi-zaleak: impersonal au *personalizatu* egiten dala erderaz askotan, eta *reflexivotu* edo-ta berekoitu, SE baten bitartez, denbora berean; onela: *Llueve en esta casa* esan bearrean, *Esta casa SE llueve* esan oi dutela erdaldun jatorrak. Eta euskaldunok zer? *Eudi egiten dik etxe onetan*; edo-ta *Eudi egiten dizu etxe onetan*; itzez-itzez *TE llueve en esta casa*... An *SE llueve*; emen *TE llueve*... Len esan deguna: aien Verboa berekoi; gurea bestekeoi, zukoi, ikoi...

Berdin baita, *Se le ha muerto el hijo* diotenean ere. Guk, *Orren semea il dek* esango genduke: ots. *Se TE ha muerto el hijo de ese*. Berdin, baita: *Me estoy helando* diotenean ere. Guk, *Izozten ari nauk*: ots, *TE me estoy helando*...

Orra, nolako bestelakotasunak bi izkuntzen artean.

Nun dago *Te ori? Ari nauh'en* azkeneko *-k* orretan; *eudi dek* eta *il dek'en -k* orretan; *egosten dikafen -ka-* orretan, edo-ta *egosten diñat'en -ña-* orretan.

* Jt. Jfc
 -iv- -i

Eta orain, verbo intransitiboa transitiboa biurtzeari buruz, ta gure Verbo-barruko Deiki orri *dativo ético* esaten diotenentzat, beste oartxo bat.

Verboa zerkidun, *transitivo* danean, ots, Verboak *det, dezu, du* darabillean eta ez *naiz, zera, da*, erabilkera zukakotik ikakora aldatzen badegu, *det, dezu, du* oiek, *dikat, dek, dik* biurtzen dira; edo-ta, nokakora aldatzean, *diñat, den, din* (*Ekarri dikat, ekarri diñat; ekarri dik, ekarri din*). Egia da, forma oien berdiñak dirala, beste zukako forma oiek: *Ekarri diñat? ekarri dizut; ekarri dik? ekarri dizu*. Orra bada: forma oietan izketa-lagunaren eraxkun oiek, norikiak, datiboak dira, dativoaren leku-lekuan daude beintzat (*Ekarri diñat? ekarri dizui*). Olaxe da.

Bañan Verboa intransitiboa danean, zerkidun ez danean (*det, dezu, du*'ren ordeaz, *naiz, zera, da* danean) erabilkera askatutik alkarrizketa-tura biurtzen badegu, beste onelako formak sortuko zaizkigu: *Etorri naiz? etorri nauk, etorri naun* (*ekarri nauk, ekarri naun* bezelaxe); *Etorri da? etorri dek, etorri den, ekarri dek, ekarri den* bezelaxe... Begirorute gauzaren arritzekoari! —Ien ere esan dizutet eta—. *Etorri naiz eta etorri da*, intransitiboa izanik, transitiboa biurtzen dira. Eta, ain xuxen, izketa-lagunaren eraxkun bezela artzen dute beren *-k* ta *-n*, ez dativotik, norainativotik baizik. Berdin-berdin bait-da, izan ere, formaz, /, *etorri dek* eta *Ik ekarri dek*; eta *I, etorri nauk*, eta *Ik ekarri nauk*. *Ik ekarri nauk'en ik*, nominatiboa, norki bait-da; eta *I, etorri nauk'en*, berriaz, Deiki; ots, Deiki-norki.

AR-EMETZEA VERBOAN

Verboaren generoa, edo-ta "Aditzaren erabilkerako ar-emetzea" aipatu dizutet lentxuago. Euskerak ez bait-du olako gora-berarik izenetan —berdin esaten bait-degu *gizon on* ta *emakume on*, *gizon ona* ta *ema-*

kume ona—... Verboetan, ordea, ika ta noka ari geranean, gizonari *ekarri dek* esaten diogu, ta emakumeari *ekarri den*... Esan dezagun orain zer-
-edo-zer gai oni buruz ere.

Beste izkuntzetan ere olako zerbait ba'dago Verboan. Latiñean, adibidez, eta hebreoan. Guztiok dakigu, latiñez *aita juan zala* esateko, *pater profectus est* esan oi dala; eta *ama juan zala* esateko, berriz, *mater profecta est*. Hebreoz ere berdintsu, *gizonaik il du* esateko, *ha-ix katal* esan oi da, eta *emakumeak il du* esateko, berriz, *ha-ixah katelah*.

Bañan ba'da alde, eta aundia gañera, gu ta oien artean. Latiñ eta mbebreozko verboak, ar-emetze au, egilleagandik artzen du: egillea, gizonetzkoa danean, verboa era batera (*katal, profectus est*), eta emakumetzkoa danean, bestera (*katelah profecta est*). Euskerak, ordea, ez egilleagandik, izketa-lagunagandik, interlocutoreagandik artzen du.

Ba'dakizute, erderak ez duala Verboan olako ar-emetzerik, Latiñetik sortua dan arren. Latiñiak *pater profectus est* eta *mater profecta est* esaten duan arren, erderak naiz aita izan, naiz ama, naiz gizon, naiz emakume, beti berdin esaten bait-du, *se ha MARCHADO el padre, se ha MARCHADO la madre*; berdin baita *se han MARCHADO los hijos*; beti *MARCHADO*, bein ere es *MARCHADA* edo *MARCHADOS* latiñiak bezela *profecta est, profecti sunt, es marchada, son marchados* esaten badu ere, bañan *se ha marchado; se han marchados* bein ere ez.

Oroituko zerate noski, gai oni buruz nolako oarpen polita egin zigun A. Omaetxebarria'k Menendez Pidal'en aipamenez. *Seminario de Urquijo'ven* Itzaldietan, oraindik berriro. Erderazko participio oietan ar-emeketarik ez izatea, euskeratik omen-datorrela erderara. Euskerak ere, participio pasivo oiek olaxe egiten bait-ditu: neutro, ar-emeketarik gabe, ta numerorik ere gabe, neutro jator: *aita etorri zan, ama etorri zan, umeak etorri ziran : etorri, etorri, etorri*, beti berdin.

Ala da, izan ere; euskerak participio oietarako ez dauka ez generorik, ez numerorik —egilleari dagozkion itz oietarako, ez dauka ez generorik ez numerorik—. Ez litzake, beraz, oso arritzeko, A. Omaetxebarriak zion bezela, erderak erabilkera neutro ori euskeratik artua izatea; latiñetik ez beintzat; eta emen inguruan ez bait-du erderak beste itxurazko iturbururik gauza oietarako...

Bañan, dana dala, izketa-lagunagandiko ar-emetze ori beintzat ez dio erantsi gure Euskerak Erderari ez beste izkuntzeri ere. Ortan bait-

-dago egon, gure Iskuntza zahar onen berexkuntza. Eta ez txikia benetan. Euskerak eta euskaldunok izketa-lagunari diogun itzal ederra.

Esan dezatela gero, berriz ere, euskalduna, individualista dala ta berebaitakoia... Ez det esango, berebaitakoia izatea gauza txarra danik. Izan leike gauzarik ederrena. Bañan gure Jaungoikoak gu ez gaituala ala egin. Ori da gure Izkuntzak azaltzen diguna. Gerenbaitakoi ez baño, besterenbaitakoi; gerekoi ez baño bestekoi egin gaituala obeto. Izketa-koan beintzat. Bizierarako baserritar egin bagaitu ere, izketakoan ez gerala bakar-zale. Ez gerala misantropo; giza-zale, baizik, altruista-altruista baizik...

NI TA GU

Eta ontara geran ezkerro *Psikologia SociaVi gatxizkion ezkerro*, beste agiritxo bat ere aipa bear dizutet, beste karakteristikatxo bat, gure gizar-te-zaletasunaren beste agiri txiki bat, bete-betea aditzari verboari dagokiona ez bada ere —eta onenbestez bukatuko degu Irakurraldi luzetxo ta aspergarri au—.

Baserrian jaioak bazerate, edo-ta baserrian aziak, naiz baserritarren artean asko ibilliak, igarriko zenduten onuzkerro, orain esatera nijoakizutena: ez dutela gure baserritarrak bein ere *nere erria* esaten, *gure erria* baizik; eta berdin ezta *nere etxea* ere —Elizanburu'k orrela badio ere—, *gure etxea* baizik; ezta *nere aita* ta *nere ama* ere, *gure aita* ta *gure ama* baizik; eta berdin *gure semea*, *gure alaba*, *gure anaia*, *gure arreba*, *gure mutilla*, *gure neska*; eta, oraindik garratzago dana, emazteak senarrari *gure gizona*, eta senarrak andreaki buruz *gure andrea*... eta, iñoiz gizonak *nere emaztea* esaten badu, ta andreak *nere senarra*, beste ainbeste aldiz esango dutela —geiagotan ez bada— *gure senarra* ta *gure emaztea* ere. Olaxe, *gure gizona*, *gure senarra*; *gure andrea*, *gure emaztea*...

Kontrara erdaldunak.

Etzait sekulan ahaztuko, nolako arrotz-ukitua nabaritu nuan nere barruan, nere bizian lenengo aldiz *mi pueblo* ta *mi casa* entzun nuanean. Etzait ahaztuko. Seminarioan zan. Eta Seminarioan, euskaldunak bezela, erdaldunak ere biltzen bait-giñan, Errioxatar bati entzun nion lenengoz. *Mi pueblo* gora, ta *mi casa* behera... Alakoxe arrotz-ukitua, arrotz-

-*impresio* bat egin zidan izkera ark, errioxatarraren izkera ark. Guk euskaldunok, erderaz mintzatzean ere, beti ta beti *nuestro pueblo* ta *nuestra casa* esaten bait-genduan... Aiek, ostera, itzetik ortzera, *mi casa* ta *mi pueblo*.

Orra or Psikologi bi, elkarrengandik ain bestelakoak; erdaldunena, nerekoia, edo-ta berekoia, ots individualista; eta euskaldunena, gurekoia, gizartekoia. Gwre'k ba'dirudi *régimen de comunidad* adierazten bezela duala. *Régimen de comunidad*. Euskaldunen artean ba'dirudi, *nerea* ezer ezтана; eta dan guztia *gurea* dana, guztia *guztiona*; ots, etxea ta etxeko oro, guztionak; ez *nereak*; *Gureak*... Fraidetegietan bezela, Monjategietan bezela...

Eta, izan ere, bidezkoa dirudi ola itz egitea, erriari ta etxeari gagozkionean. Berdin, baitá, aitari eta amari ta senideai gagozkionean ere —seme bakar edo alaba bakar ez bagera beintzat— Ederkitxo esaten bait-zuan arako beste arek. Anai batek besteari onela ziola entzun zuan bein: *Pepe: te llama tu madre*. Eta entzuten zegonak orduan: *Tu madre* La madre no es de los dos, o qué?

Ola dirudi bidezko. Bañan, zer nai dezute? Guri, *gure* esatea bezain jator deritzaie erdaldunai *tu* ta *mi* esatea. Aintxe jator... Psikologi-kontuak dira guzti oiek.

Guri, anaiak anaiari *mi madre* esatea bezain arrotz egingo zaie aiei, senarrak emazteagatik *gure andrea* esatea, ots *nuestra señora*. Bakoitzak geren ikuspegitik begirutzen bait-diegu gauzai. Gizon erdaldunarentzat emazteari begiratzeko ikuspegi, Ezkontza da ots Ezkontzako *Kontratua* (*Jus Romanum*'ek egintzen dion bezela, Ezkontzako *Kontratua*; *Kontratu* orren bitartez egiten bait-da gizona bere emaztearen jabe): gizon euskaldunarentzat, ordea, emazteari begiratzeko ikuspegi, *etxea* da; Ezkontzaren bitartez emaztea *Etxeko Andre* egiten da. Eta etxea, etxeko guztiona dan bezela, Etxeko *Andrea* ere nolapait guztiona da. Orregatik nunbait, *etxea, gure etxea* bezela, Etxeko *Andrea* ere, *Gure Etxeko Andrea* da. Eta ola, naiz-ta gizonarentzat bakarrik dan *emazte* ta ez beste iñorentzat, ala ere, beste guztiak bezela, emaztea ere *régimen de comunidad* artan, etxearen pusketa ta zati bat bait-da, orregatik nunbait, ez deritzaie *gure gizonai* ain oker beren emazteai *gure andrea* ta *gure emaztea* esatea. Zenbat ikuspegi, ainbat iritzi.

Olaxe dira gauzak. Eta goazen bukatzera.

Lenago Verboari buruz esan dizutet euskaldunon sozialtasun-adierazgarri bat dala gure Verboa. Ona orain beste adierazgarri bat geiago, eta au ere Gramatikatik artua.

An vocativoa zan : Deikia Verbo-barruan...

Orain, posesivoa : ots, euskaldunok *nere* ta *gure* erabiltzeko degun era.

Dana dala: guzti onek gauza bat dakar: euskaldunon gizartetasuna; ez gerala, dioten bezain bakarti, gerekoi, individualista; bestékoiki gerala, gizarte-zale gerala : ots, etxekoi, etxekoirik iñor bada-ta .. Iñor baño areago. Gure Euskerak ola azaltzen gaituala beintzat.

Eta bukatu det onenbestez.

1955, Ibeltzta.

LABURKUNTZA

M. Lecuona : El vocativo en el verbo.

En la conferencia anterior publicada en *Euskera* trata del vocativo en el nombre y explica en ésta, al comienzo, este punto.

Describe la riqueza del verbo vasco con relación a otros idiomas. Por cada forma de otros, en vascuence tenemos unas cuarenta y seis, cada una de ellas con su matiz diferente.

No se trata de formas como las del hebreo, el cual tiene siete: *Kal*, *Niphal*, *Pihel*, *Puhal*, *Hiphil*, *Hophal* y *Hitpahel*. Mientras que *Kal* indica la acción solamente, *Niphal* la convierte en reflexiva; *Pihel* y *Puhal* intensiva; *Hiphil*, *Hophal* factitiva (*Pihel* y *Hiphil* activos y *Puhal*, *Hophal* y *Hitpahel* pasivos).

Nuestro verbo también tiene algunas formas de este tipo; por ejemplo factitivos: *egin*, *eragin*; *ekusi*, *erakutsi*; *ibilli*, *erabilli*; *eman*, *eraman*; *ekarri*, *erakarri*; y *jan*, *janerazo*; *galdu*, *gálerazo*, etc.

Pero cuando hablamos de la riqueza de nuestro verbo nos referimos a otro tipo de riqueza, al matiz de relación. Véase la primera lista de

formas verbales. Estas formas que corresponden a la idea de HA TRALDO del castellano expresan también la idea de acusativo y dativo. En la segunda lista se expresa, además de los conceptos de la anterior, la idea de la persona con quien se habla y damos por Uamar formas dialogadas. He aquí lo que estudia el autor: la partícula *k* de difc, por ejemplo, de la misma forma que ORI en el nombre, expresa el vocativo, es una sombra, un eco de él.

Hay dos formas de tratamiento dialogado, *ika* y *zuka*. Las flexiones que están incluídas en la lista anterior son de *ika*; pero existe también el tratamiento de *zuka*, principalmente en verbos intransitivos y entre labortanos y navarros: *Etorri nauzu, etorri duzu, etorri gaituzu, etorri dituzu* que en *ika* corresponden a *etorri nauk, duk, gaituk, dituk*.

Es de notar que cuando se utiliza un verbo intransitivo en forma dialogada adquiere la forma de transitivo: *etorri naiz, etorri nauk, etorri nauzu*, como *ekarri : ekarri nauk, ekarri nauzu*.

El elemento que se introduce en las conjugaciones dialogadas y que representa al interlocutor puede ser masculino *k* o femenino *n*.

Algunos sabios que se dedican al estudio de la psicología del castellano han observado la tendencia personalizadora y la construcción refleja con verbos intransitivos.

El vasco hablante tiene más tendencia a abrirse al interlocutor y estas formas tienen la tendencia contraria precisamente. Y se dice luego que los euskaldunes somos individualistas, mientras que en la conversación siempre nos afanamos en cómo saludar y homenajear a la persona con quien mantenemos el diálogo.

Y para terminar habla de una característica de psicología social: la tendencia a emplear la primera persona del plural en lugar de la del singular; es decir, la de incluir al compañero de conversación en la cuestión. *Gure erria* por *nire erria*; *gure etxea*, etc. Y hasta el marido o la mujer dice *gure emaztea, gure senarra* tantas veces como *nire emaztea* o *nire senarra* por lo menos; *gure etxeko andrea*, etc.

El Vocativo en el Vasco

LECCION

Vitoria, 15 de Febrero de 1980.

Gotzai Jaun beneragarriok.

Unibertsidadeko Irakasleok.

Unibertsidadeko Ikasleok.

Gañerako entzule euskaldun maiteok.

Nik uste, gure Euskerak izango zuan nunbait, "lerro edo linea gu-

(5) Errex ikusi diteken bezela, nere lan au ez da "iturri-agortzalle", *labor ex-haustiva*; ez det olakorik nai izan ere. Nik nere antuxiña beteta gero ere, urik asko geldituko da osin ontan, bestek beste orrenbeste ta geiago atera dezan; eta obe ola.

rutzetuak" izendatzeko izen jatorrik, gurutzearen izena Elizaren aotik ikasi baño len. Lerro-mueta guztiak —naiz dala *lerro zuzena*, naiz *lerro makurra* ta *lerro biurria*, naiz *lerro makua*, naiz *lerro zuta*, naiz *lerro etzana*, naiz *lerro bikotea*, naiz *lerro gurutzetua*— diranak lerro ezagunak, lerro jatorrak, bat-bateko lerroak, *líneas elementales*, *espontánem*, dira. Eta guzti oientzat gure Euskerak, nai ta ez, izen jatorrik izan bear zuan. "Lerro besoduna" edo "beso-zabala", ez litzake gurutzetako lerroa izendatzeko izen traketsa. Bañan euskaldunoi —kristautasunez geroztikako euskaldunoi— etzaigu gogoratu "lerro besoduna" gure izketan erabiltzerik. Guztiok ao batez latíñezko CRUCE-zutzarrari, CRUCE-radicalari atxiki izan gatzazkio, lerro "besodun" edo "besozabala" adierazteko.

Gaur oraindik somatu izan degu, egia, nor edo nor, *gurutzea'xen* ordez euskera jatorrean auma-edo esaten; bañan "garbi-saio" bat berterik ez da izan guzti ori. Guztiok, saio ori gora-bera, beste era batera jarraitzen degu izen au esaten : KURUTZA, KURUTZE, KURTZE, GURUTZE...

Au ola da. Gauzak ola gertatu izau dira gure artean. Eta —ain zuzen— gaur ni, gertakizun edo "gertatu" onen aztarrenak eta gora-berak eta zearka-mearka azteztzera ta azaltzera natorkizute. "Zenbat era edo kera, zenbat forma, artzen dizkigu izen onek, Izen Santu onek, gure Toki-iendegian, gure Toponimian?". Auxen da nere galdea. Auxe, zuen artean eta zuekin batean ikustera ta aztertzer aatorrena.

Zagozkidate adi-adi.

ERANTZUNA

4.—Zenbat era edo keratan dabil gure Toponimian Gurutzearen *izena*? Bi era, bi era nagusi, bi era fundamental ditu Europa'ko beste Izendegietan : bata, Gaztelako erromantzean arkitzen degun CRUZ; eta bestea, Italia'ko erromantzean arkitzen degun CROCE. Bi era fundamental, bi era nagusi, era "iturburu" : bata, u-duna (cruz); eta bestea, o-duna (croce). Esan bait-dezakegu bi oietara biltzen dirala Europa'n diran Gurutzearen beste gañerako izen-mueta guztiak.

Ez noa orain Europa'ko Gurutzearen izen guztiak banan banan aipa-

treza ta aztertzera. Ez da orrenbesteren bearrik (6). Bañan auxen, bai, esan bearra daukat: Gaztelako erdera dabilhela latiñezko CRUCE-tik alderentxuen gai onetan. Gaztelerazko CRUZ, latiñezko CRUCE'tik zuzen-zuzenean dator (7). Italera, berriz, lurrez latindegitik bertena bera dagon arren, izkeraz gai onetan urrutixeago azaltzen zaigu : *cruce*, *croce*, *\croche~*.

Orra bada : italerako eta gaztelerako Gurutzearen bi izen-kera edo forma oiek, bi-biok, gure artean elkarren ondoan oso-osorik arkitzen ditugu. Bi-biok, bete-betea. Latiñezko cruce orrek, Euskalerrian, alde batetik GURUTZE eman digu, ta bestetik GOROS. Europa'n elkarrengandik ain urruti arkitzen diran bi kerak (*Cruz* eta *Cross*), emen biok batean arkitzen ditugu.

Orixe nuan nik nere esan-bearra, nere zuentzako esan-beartxua. Gurre Euskeraren Izkelgi edo Dialectoetan, ez degula *Cruce* izena, GURUTZE edo KURUTZE-keran bakarrik arkitzen; GOROS edo GOROZ-keran ere arkitzen degula...

Ez eidazutela eman estutasunik. Berealaxe ikusiko dezute.

Bañan Edesti pixka bat, Histori pixka bat lenengo.

BIZKAIAN ZEAR

5.—Urteak dira, Bizkaya'n zear eta bizkaitar abizen ta toki-izen artean ibilli nenbillela, beste zeinbait toponimo artean, sail gaitz bat, sail azterkaitz bat topatzen nuala : GOROZARRI ta GOROZIKA-salla. Egia esan, izen oiek entzuten nituan bakoitzean, bapatean, "spontanee", *gorostia* zetorkidan burusa; beste askori bezela *gorostia*, erderazko "el acebo"; izen aiek *Gorostiaga* ta *Gorostidi* ta *Gorostiza* ta *Gorostola*'ren

(6) Ona emen gure itigurutxuengo errialdeetan erabiltzen diran gurutz-izen-muetak (vid. W. Meyer-Lubke.—*Romanisches Eymologisches Woterbuch*, p. 217, n. 2.348): rumaii, *cruce*; ital. *croce*; engad. *krus*; friaul. *kros*; franc. *croix*; provenz. *crotz*; catal. *creu*; españ. port. *cruz*; alem. *kreuz* (*kroitz*); kymr. *crog*; irl. *croch*.

(7) Ba'dirudi, erderaz ere, *cruz* ez baño *croz* izan bear zuana. Latiñezko *u* laburrak, erderaz beti o eman izan dute: sumus="somos", Zupíis="lobo". Bear ba-da, Gaztelako eliztarren jakinduriz (por *reacción erudita*) lortu izan zan, latiñezko *cruce*, *croz* biurtzeke, *cruz* gelditzea.

aideak bailirean... (8). Bañan ez bait-netzakean errex-errex ulertu, nola galdu zezakean gorosti orrek bere erdiko *-ti-* ori nere *Gorosarri*, *Gorozarri* ta *Gorozika aietan*... beti ortantxe lur jo-ta gelditzen ziran nere etimologi-azterketak... lur jo-ta... "beste bein arte". Eta beti olaxe. Bañan bein batean, nik ez dakit zer susmok, zer *intuiciok* eraman ninduan GOROS, GOROZ oietan GURUTZ ikustera... eta geroztik —eta au zanik urteak dira, alakoak ezik!— ezin burutik kendu izan det, norbaiti nere susmotxo au esan-naia eta esanbearra. *Gorozika* ori, *Gurutzeaga* dala; eta *Gorozarri* ta *Gorosarri* oiek, *Gurutze-arri*; eta berdin baita *Goltzarri* ere; eta, bestelako bide batetik bañan, baita *Gorrotxategi* ere "Casa de Cruz"; eta oien antzeko beste zeinbait izen gañera...

Gorrotxategi onek, bere erre latzarekin, GURRUTXAGA ekarriko dio zeinbaiti burura. Ta ez dago gaizki. *Gurrutxaga*'k KRUTXAGA'ren bitartez —*Gurrutxaga* gipuzkoarrak, *Krutexaga* naparraren bitartez— *Gurulzeaga*'ra jotzen du zuzen-zuzen.

Orra or nere edestitxua. Orra nere hipotesis berriaren asiera (9).

(8) Pozik uzten ditut gorosfi'ren pillarako, *ti* ezik *t* bakar bat ere duten *goros* guztiak: *Gorostartzu*, adibidez. *Gorostegi* ez, *orratik*. *Gorostegi*'ren *t* ez da goros'ena, tegi'rena baizik.

(9) Ba'dakit nik nere susmo-gai guzti cien sendogarririk sendoena, beste zer bat litzakena: ain xuxen *goroz*, *koroz*, *gorrotx*, *korrotx* cietako bakoitzaren ondoan Gurutzeren bat —arrizko Gurutze bat edo— egoki-egoki ezarrita arkitzea. Eta ba dakit zeinbait aldiz ola gertatzen dana : Berastegi'ko *Gorostegi*'n adibidez; antxe dago, ain xuxen, zut-zutik gurutze bat, arrizko gurutze bat. Beti ola gertatzen danik ez bait-dezaket esan. Ontan ere ez det iturri-agortzalle izan nai. Besteren batzuek aztertu bezate ori. Bañan auxe bai adierazí bear det: 1) ez dala naitanaiezkoa olakoetan beti Gurutzeren bat arkitzea; berdin izan leike bide-gurutze bat; 2) zeinbait aldiz *Goros* ori antropónimo bat izan leikeala, giza-izen bat, alegia; Errezil'go *Gorostegi*'n adibidez; eta berdin *Gorostegi*'n eta *Korrotxano*'a eta *Gorrotxategi*'n eta berdin baita Napar-erriberako *Korroza*'n bertan ere (*Korrotxa*, *Gorrotxa* = "Cruz" antropónimo); eta 3) gaur olako lekuetan Gurutzerik ez izan arren, len iñoiz izana zeikeala; ez zan orretarako, adibidez, toki makala, Orreaga'tik Luzaide'ra bidean dagon *Goroskarai* ura; peleginarien bidean zegon, eta, ain xuxen, peleginarien Ostatu izana zan antziña, ta Orreaga'ko Kalonge Jaunak ziran ango nagusi; ez bait-zxian anrizko Gurutze eder batek itsuski emango alako leku batean, ausaz gaur aspaldidanik galdua ba-da ere.

TALDETAN

1.—Aldaki edo variante guzti oiek bi taldetara bildu ditzagun, ta egin ditzagun orain sail bi; eta ola ikusiko degu osoago ta argiago izen gogoangarri onen aldaketa-aldi guztia.

Lenengo sallean M-dun aldakiak ipiñiko ditugu; eta bigarrean o-dunak.

1) KURUTZE (Bizk. *Kurutziaga*, Laburd. *Kurutzet...*);
 KURTZE (Bizk. *Kurtzebarri*, *Kurtzipizio*, eta metatesis *Krutzelegi*);
 GURUTZE (Gip. *Gurutzeaga*, *Bidagurutzeta*);
 GURRUTX (Gip. *Gurrutxaga*, Nap. *Gurrutxarri*, erre latzdunak);
 KRUTX (Nap. *Krutxaga*);

2) KROZ (Erriox. *Krozera*, *Krozia*, *Kroziba*, *Kroziga*, *Krozibirio*, *kroziera*);

KOROTZ (Gip. Zerain, *Ko(r)otzmendi*, Erriox, Ezkaray, *Korozid*);
 KOROS (Gip. Oñate-Legazpia, *Koroso*);

GROZ (Erriox. Zorrakin, *Grozio*);

GOROTZ (Gip. Errezil, *Gorotzene*; Erriox. Oiacastro, *Gorotxd*);

GOROZ (Bizk. *Gorozika*, *Gorozarri*, *Gúltzarri*; Erriox. Ezkaray, *Gorozeizd*);

GOROS (Gip. *Gorosabel*, *Gorosmendi*, *Gorospe*, *Gorostegi*; Bizk. *Gorosarri*);

GORTZ (Erriox. *Gorzalaia*, *Gorzikolato*, *Gortxa*);

KORROTZ (Nap. *Korroza*, *Korrotxano*, erre latzdunak);

GORROTX (Gip. *Gorrotxategi*, erre latzduna).

ARGIBIDEZ

7.—Aldaki edo variante oietxei buruz ba'degu emen zer-edo-zer esan bearrik. Esan-bearrik edo gogorazi-bearrik.

Lenengo, *Cruce* ta *Croce*'ren asierako *C* ori, *G* biurtzen dala euskeraz. Beti-beti ez bada-ere; aldiz-aldiz *K* irauten bait-du. Eta ola sortzen zaigu *Gurutze*; bañan baita *Kurutze* ere, Bizkaia'n eta.

Eta bigarren, erderazko *Cru*, euskeraz *Guru* edo *Kuru* biurtzen dan bezela, berdin italierazko *Cro* ere *Goro* edo *Koro* biurtzen zaigula. *C*

ta r orren artean, *u* edo *o* bat sortzen dala, alegia. Berdin gertatzen baita Iparraldeko euskalgietan *Cristianus*'ekin ere : *Giristimo* biurtzen da. Ja, alegia, erdian *i* bat artzen duala. Berdin, baita, zeinbait lekutan *sacra*, *sagara* biurtzen dan bezela, *a* bat erdian artuaz.

Oso euskerazkoa da, oclusiva baten eta *r* baten artean, vocal gozogarri bat sartzea. Bañan ori ere ez bait-da beti-beti ola gertatzen. Euskeraren gaurko lurralde mami-mamian bai; bañan ertz-aldeetan, besterik ere gertatzen bait-da. Gure artean *arriturik* eta *ikustera* esan oi-degun bezela, Sarasaitzu-aldean, Naparroan, *arritrik* eta *ikustra* esan oi-dute, erdiko *u* ta e'rik gabe. Ala berean. Araba-aldeko, antziña euskaldun izandakoak ere, erderazko *vísperas* eta *derecho* esan bearrean, *vispras* eta *drecho* esan oi-dute; eta berdin *Berantevilla*"ven ordez *Brantevilla*; guk geurok *aindere*'ren ordez *andre* esan oi degun bezelaxe.

Beste orrenbestetxe gertatu oi-da baita Gurutzearen izenarekin ere aipatutako ertz-alde aietan. Iparraldeko Gro'ri geienean o bat erasten zaio tartean (*Koro*, *Goro*); bañan beti-beti ez; *Cro* arek, *Kro* edo *Gro* irauten ere du. Eta ola arkitzen ditugu, Errioxa-aldean batez ere, zenbait o-kerazko Gurutze-izen, tarteko vocalik gabe : aldiz *goro*, aldiz *gro*; aldiz *koro*, aldiz berriz —geienetan— *kro* : *adibidez*, *Gorotxa*, *Gorozeiza*, *Gortxa*, *Gorzalaia*, ta ala berean *Grozi'o*; eta *Korozia*, bañan ala berean *Krozia*, *Kroziga*, *Krozibirio* (*Krozia*, gaurko *Gurutzea*; *Kroziga*, gaurko *Gorozika*, edo *Gurutzeaga*; eta *Krozibirio*, gaurko *Gurutze-bide* bezela).

Eta azkenik, beste esan-bear bat: Critce'ren eta Croce'ren r geienean r gozo gelditzen dala, bañan aldiz-aldiz baita *rr* latz biurtzen ere, (*Gurutzeaga*, *Gurrutxmga*; *Gorozika*, *Gorrotxategi*).

CROCETIK CRUZ'ERA EUFEMISMOZ

8.—Iñoiz bi aldakiok —*gurutz* eta *goroz*— "bat bezain beste" erabilii izan diran arren, gaur *gurutz* bakarrik erabiltzen degu izketan.

Aldaketa onen zergatia ikusi dezagun orain.

Ba'dakigu zenbait itz-ots, eufoni-legez aldatu oi-dirana; eufonilegez, belarriari atsegin eman bearrez alegia. Bañan eufoniaz gañera ba'da beste legerik ere aldatze-arazo onetan. *Eufemismo* deritza. Eta *eufonia estetikari* ez baño *eufonia etikari* obeto zor zaio. Eufemismo, eufonia ética, "ondo mintzatze-legea"...

Lentxuago, Gorozika ta Gorozarri aipatu ditudanean, ez dizkitzuetet, bear ba-da, izen oiek zuzen esan. Gorozika ta Gorosarri ez baño *Gorolzika* ta *Gorotzarri* esan bear nizuten. Ala diradi. *Gurutz* dan bezela, *Gorotz* izan bear luke. Bañan emen sartzen da bete-betea Etikaren egitekoa. Etikak ezin ontzat eman dezake, izen Santu onentzat, esan-kera ori. Gipuzkoan beintzat, toki askotan "simaurrari" esaten zaio *gorotz*. Eta Gurutzearentzako izen traketsagorik ezin izan. Eufemismoaren egitekoa olakoetan zein izan ditekean, edozeñek asma dezake. Izena bera; edo-ta izenaren kera, izenaren forma bat-beste biurtzea... Nola, ordea? nora-bidean?

Gipuzkoa'n zukean okerrik aundiena *Gorotz* izen-kera arek. Eta orra Gipuzkoerak zer egin zuan oker ori zuzentzeko: *Gorotz* trakets ura *Goros* biurtu, eta zeinbait lekutan *Korotz*; eta *Gorotzategi* erre leunduna, *Gorrotzategi* erre latzlun.

Bizkaia'n, ordea, etzan nunbait onelako edo onenbesteko okerrik. Bizkaia'n simaurrari, *gorotzah-en* ordez *pekorotza* esan oi zaio. Bañan Bizkaia'n ere, agidanean, antziña *korotza* esan oi zitzaion, eta eufemismoz sortu zan gero feorotza'ren ordez *pekorotza* esatea, bear ba-da Gurutze Santuari itzal txar bat kentzearren. Nork daki? Olako zer-edozergatik beste itzen batzuek ere arkitzen ditugu aldaturik gaur; keraz, formaz aldatuak alegia. *Atza*, adibidez, *beatz* eta *azkure* biurturik. Eta *atsa*, berriz, *arnas*. Eta abar.

* * *

9.—*Atz* itzak, azal bakar baten barruan bi mami ditu : erderazko "dedo" eta "prurito, rasquera". Eta bata besterekin nastu ez dedin, gipuzkoerak "dedo" esateko *atza'xi be* erantsi dio, eta *beatz* esaten du, bizkaierak *korotza'vi* beste *pe* bat erantsi eta *pekorotza* esaten duan bezelaxe... Eta berdin egin dio "prurito"-ren aizo'ri ere. Gaur "prurito" gutxik esan oi du gipuzkoeraz *atza*; *azkurm* edo *azkurea*. baizik; bear ba-da zeinbait erritan *atz* eta *ats* berdin esan oi diralako eta elkarrekin naasten diralako; bañan bear ba-da, beste zergati ezkutuagoko bategatik, Eufemismoz... *atza'k* atzeko aldeko edo behere-parteeetako azkurea adierazten dualako askorentzat. Eta berdñintsu gertatzen da *atsa'*rekin ere *Atsa'k* gaur dan egunean, zeinbait erri-aldetan "aliento fétido" esan nai du; eta leku oietan ez dizute oísa-itzik iñork ere erabilliko "alien-

to" sollik adierazteko; "aliento" adierazteko, *arnasa* edo *arnasia* erabiliko dizute, edo-ta *asnasi* édo *esnasia* zeinbait lekutan. Len ere esan dizutet-eta, Eufemismo deritzaiogu itz-egite-kera oni; eta etika-bearrari dagokion iz-kera da; etika-bearrari, "a imperativos de Etica", ez estetika-bearrari; ezta argitasun-bearrari ere, zeinbait aldiz oi dan bezela.

Ez ote-zigun olako beste Eufemismoren batek euskaldun guztioi, antziña, *gorotz* alde batera utzierazi ta *gurutz* esanerazi? obeto esateko, *goroz*, *koroz*, *goros*, *koros*, eta *gorrotx*, *korrotx*, *korrotz* utzierazi eta *gurutz* artuerazi?

EUFEMISMOZ BAKARRIK?

10.—Luzetxo jardungo nizuten, ausaz, gai onetan. Eta aspertuxeak eukiko zaituztet bear ba-da... Igaro gaitezen, beraz, beste zerbaitzuetara.

Arritzekoa da, bi izen-kera ain elkarren antzeko-ezak, ain elkarren bestelakoak, CRU- eta CRO-, GURUTZ eta GOROS, gure Euskalerrri txiki ontan biok sortu izatea. Bañan fenomeno onek ba'du bere zergati.

Bi kera oiek, bi lekutatik etorriak ditugu Euskalerrian. Bi lekutatik, eta bi gizaldi elkarrengandik oso banatuetan etorriak etorri ere. *Goros*, iparraldetik; *gurutz*, egoaldetik; *goros* lenengo; eta *gurutz* bigarren. *Goros*, *Prantzi-aldetik* (Akitania'tik bear ba-da, edo Proventza'tik) etorria degu; eta *gurutz*, Gaztela-aldetik.

Gurutz, agidanean, *goros* edo *goroz'ea* okerra zuzendu-bearrez sortua degu, eta, beraz, *goros*'en ondoren, *goros* baño geroago sortua. Nolanai dala, "arkaikoa" da gaur *goros*; gaurko izkera bizian *goros* galdua dago; gaur danok *gurutz* esaten degu. Eta gertakari onek ere gauza bera dakar : *goros* zaharragoa degula ta *gurutz* geroztikagoa gure artean.

Goros Toponimian bestetan ez degu arkitzen; bañan, ori bai. Euskalerrri guztian dago zabaldurik. Sobera ere, Prantzia'tik Napparroan barrera etorri zitzaigun; bañan, Gipuzkoa'n zear Bizkaia'ren biotzeraño ere eldu zan. Danok dakizute, *Gorozika* Gernika-bidean dagona, Durango'tik iparraldera, Bizkaia'ren biotz-biotzean. Gañerakoan, berriz, lenxuago aipatu dizkitzutedan Gipuzkoa'ko *Gorosabél* ta *Gorosmendi* eta abarrez gañera, orain gogoratzen zaidala, ba'dakit Napparro-aldean ere, nere jaiot-errian bertan, Oyartzun'en, *Goroskarate* bat; eta berdin, baita, Napparro-Napparroan ere—Orreaga'tik Luzaide artean—*Goroskarai* bat. Eta

ez Napparroan bakarrik, baita Errioxan ere, ta ugari asko. ...Eta guzti onek ondotxo dakizute zer esan nai duan etnografi-zaleentzat: bi izen-kera oiek, bi kultura-estratotan, bi kultura-mallatan ezarriak daudela : bata bestea baño sakonago; au ura baño axalago; *gurutz* axalago, goros sakonago.

* * *

11.—Noiztikoa degu, ordea, *gurutz-k&ra* gure artean?

Lentxuago esan dizutedanez, *goros* Napparroan barrena etorria degu. Obeto esango nizuten, Vasconia'n barrena esan banizute. Ez baitzegon sorturik oraindik Napparroa, gauz oiek ziranean. Napparroaren izena esan nai det. "Vasconia" zeritzaion anartean, gero—Moroen gorabera ezker—"Napparroa" esango zitzaionari. Vasconia zeritzaion, eta bizi ere orduko uaskoak edo euskoak Aquitania'ko Dukeen itzalean-edo bizi izaten ziran. Godoen egunetan zan. Eta egun aietan uaskoak ez genbiltzan ibilli Toledo'ren baranoan. Prantzi-aldeko Dukeen babesean bizi giñan baizik. Ipar-aldera begira, iñoiz ere. Geroztik aldatu ziran gure gauzak. Noiz, ordea, zeatz esateko? —*Reconquista-garaiam*}. Moroak, ia Hispania guztiaren jabe egin ziranean. Anartean Toledo genduan etsai euskaldunok. Ordutik, ordea, beste etsai bat izaten asi gifian. Guk eta Toledotarrak, danok etsai bat: moroa. Moroak gure lurralde-inguruetatik bota bearrez, len ez bezelako artu-emanetan asi giñan euskaldunok gaztelarrekin. Eta orduan asi zan gure artean Gaztela'ko Elizaren eta Gaztelako Errege Jaunen itzala... Ordutik degu, baita, zalantzarik gabe, guratze-izena gure artean, anarteko *goros* edo *grozVven* ordez.

§ * *

12.—Beraz *gurutz* ori eufemismoz bakarrik ote-degu sortua gure errian *goros'en* ordez? Orain esan degunaren arauera, ba'dirudi beste zer-edo-zer ere bitartean ibilli izan dana. Zer-edo-zer politika-kutsuko, alegia. Zer-edo-zer, gure erriaren izaera ta egoera berri artatik sortutako, alegia. Len iparraldera begira geundenok, egoaldera begiratzen asi baitgiñan orduan... Ego-aldera begiratzen... Gogora ekarri besterik .ez degu, Napparro'ko Erregeak, "Santxo Aundi" bat eta, izan zirala, ia esateko, Gaztel-kondadoaren sortzaille...

GURE LENENGO KRISTAUTZEA, NUNDIK?

15.—Gertakari oiekin ondotxo lotutako beste problema bat ere, ba'da, emen aipa dezakeguna : pi-oblema bat, auzi bat; histori-zaleen artean askotan aipatzen dan auzi bat. Nundik etorria degu Kristautasuna gure Euskalerrira? nungoak ziran gure lenen-lenengo Mixiolariak? Jesus'en izen donea lenengo aldiz guri erakutsi ziguten Gizon Apostolutarrak, nungoak ziran? Egoaldekoak? Iparraldekoak? .. (10).

Gurutzearen izen-kera utsez, ezin erabaki dezakegu oso-osorik auzi au. Egia. Bañan ezin ukatuko degu, ala ere, izen-kera orrek asko lagundu leikiguen ortarako; argirik asko sortu dezakeala, alegia, illunbe orretan. Gurutzearen izenaz gañera besteren batzuek ere gogoratzen baditugu batez ere : sinismenari dagozkion beste zenbait izen, alegia.

Izen oiek iparraldekoak ba-dira, gure mixiolariak ere angoxeak izan bear zuten.

Eta alaxe dira, izati ere. Ez Gurutzearen izena bakarrik (*Goros, Koros, Krozi* etab.); baita beste olako zenbait izen ere; oien artean MEZA, (*Mesa* bizkaieraz) eta ELIZA (*Eleiza* bizk.), eta agur egiteko ADIO gañera... Itz oiek iparraldeko usaia dariote alde guztietatik. Egoaldekorik ez; iparraldekoa. Egoaldean, Gaztela-aldean, latiñezko *Missa'lz* i-dun irauten du bere lenengo silaban (*Misa*); euskeraz, ostera, e-dun biurtzen zaigu, prantzieraz eta italieraz bezelaxe, *Meza, Messe, Messa...* *Ecclesia*'k berriz, e-dun du bigarren silaba gazteleraz (*Iglesia*); i-dun, berriz, euskeraz, prantzieraz eta italieraz bezelaxe, *Eliza, Eglise, Chiesa...* Latiñezko *Deus'ék* erderaz berekin eusten dio bukaerako s'ri, plural bat bait-litzan (*Dios*); euskeraz, berriz, izen ori s'rik gabe da agur egitekoan (*adiol adiyol ariyol*), prantzieraz *adieul* ta italieraz *adio*\ bezela... Eta esan bearrik ez dago Sinismenaren muin-muñeko itzak dirana iru itz oiek. Lenengo Mixiolariak, bearrik bazuten, asko erabilli bear zituzten itzak *Meza*, batez ere, ta *Eliza*, Gurutzearen izenarekin batean...

Eta ain zuzen, Historiari ba-gagozkio, gauza bera digu Historiak

'(10) Vid. ANDRES E. DE MAÑARICUA, *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*. Editorial Vizcaya, Bilbao, 1950. "Orígenes oristianos y orígenes marianos", (pág. 61).

(10") Iruña'n *Sazernin*; Gipuzkoa'n, Zaldibia'n, *Saturdi*.

ere, batez ere Naparroari buruz, Iruñari buruz. Historia'tik dakigunez, Tolosa'ko Gotzai *Satummus*'ek Sazernin Donea'k, Gipuzkoa'ko *Saturdi*'k., bidali zituan Iruña'ra lenen-lenengo Mixiolariak. Mixiolari oietan bat, Honestus izan zan. Eta Iruñako lenengo kristauetan bat, berriz, guztiok dakizute *Firminus* izan zala, gure Fermin Donea; kristau, ta Apaiz ta Gotzai, emen eta Prantzi-aldeko zenbait erritan. Olaxe bizi izan bait-zan gure San Fermin ura, Iruña'tik Tolosara, ta Tolosa ta beste iparraldeko errietatik Iruña'ra, ta berriz ere Tolosa'ra... Euskaldunen Eliza bezelaxe, ipan-aldeko Elizekin artu emanetan...

NORAÑO?

14.—Beste problema bat ere ba'degu histori-zaleen artean gai onen iriguruan. "Noraño eltzen da lurrez eta erriz iparraldeko itzal ori?".

Histori-zaleak digutenez, bi aldetatik etorri ziran gure inguruetara lenengo Mixiolariak: Tarragona-aldetik batzuek, Kalagurri'n barrena; eta Aquitania-alde'tik besteak, Iruña'n barrena. Noraño eldu ziran Tarragona-aldekoak? noraño Aquitani-aldekoak?

Goros-kera edo Krozi-kera Aquitani-aldeko itzalaren ezugarri ta índice bezela artzen ba-degu, Aquitaniaren itzala ez da Naparroa'ra ta Gipuzkoa'ra bakarrik eltzen; eltzen da, baita, Bizkai'raño ere. Bañan ez bait-da ori bakarrik; eltzen bait-da Errioxa Goraño, Rioja Altxaraño ere. Errioxa Be'raño eztezakegu esan; bañan Errioxa Goraño bai. Ango Toponimi edo Leku-izendegian, Bizkaikoan ta Gipuzkoakoan ta Naparroakoan bezelaxe, berdin-berdin arkitzen degu *Goros* edo *Krozi-kera*. Ikusi besterik ez dago ortarako Merino ta Urrutia'tar Jose J. Bautista'ren gai onetako liburu ta lanak (11). Izen-talde ederra benetan agiri da lan oietan, *Krozi* batez ere itzetik ortzera argi asko derabilenik. Lenengo Mixiolariak eraman-da Errioxan ere? Guk ala uste degu. Bañan nork-edo nork izan bait-lezake beste iritzi. Errioxa Be ta Errioxa Goi, biok, berdin, Tarragona'tik kristautuak dirala; eta Errioxa Goian

(11) Vid. JOSE J. BTA. MERINO URRUTIA, *El Vascuence en el Valle de Ojacastró*. Sociedad Geográfica. Madrid, 1991. "*Más sobre el Vascuence en el Valle de Ojacastró*". Sociedad Geográfica. Madrid, 1932. "*El Vascuence en el Valle de Ojacastró, con una adición sobre el Vascuence en Burgos*". Sociedad Geográfica. Madrid, 1986.

Goros edo *Krozi* arkitzen ba-da, geroztiko etorkia dala, godo-aroko etorkia dala alegia, euskaldunok —eta Errioxa Goi ere euskaldun baitzan— euskaldunok Toledo'rekin muturtuta bizi izan giñaneko iru edo lau gizalditako etorkia alegia... Nork-edo-nork izan lezake iritziz ori. Guk, ordea, ez degu olakorik uste. Gure iritziz, Gurutzearen izenean o-kera erabiltzen dan lurralde guztia, Aquitania'tik kristautua da, Iruña'n zear; Bizkaia ere bái, eta baita Errioxa Goia bera ere.

Errioxa Bea'rentzat ez gera ausartzen beste onenbeste esaten, erosotxo bait-dago lurralde ura Tarragona'tik, Iber-ibaian gora anditxik errez eta azkar asko kutsatua izateko. Ala ere ba'da Historian zer-edo-zer, Kalagurri bera —Errioxa Bea'ren Erri burua dan Kalagurri bera— Aquitania-aldera begira agertzen digunik. Erdi Aroan oraíndik, Auch'eko Gotzaia, tarteka Kalagurri'n bertan ikusten degu zenbait zeremoni ta Elizkizun Aunditan, angoxe Metropolitales bailitzan (12). Ez dakigu zergatik izan zitekean Bear ba-da orretxegatik, antziña-antziñako Kalagurri, Auch'eko Gotzaiaren mendeko-edo, sufraganeo-edo izan izan zalako. An ere lenengo kristautasuna iparraldekoa dalakoaren gogoangarri bezela.

Nolanai dala, berriro ere Historia'ri ba-gagozkio, Errioxa Goia'rentzat ez dago zalantzarik. Errioxa Goia, antziña, Vasconia izana degu. Eta ez nolanai. Najera izan zan iñoiz Naparroa'ko Errege Jaunaren Erri Buru, Najera, Errioxa-errioxako erri otsaundikoa, Naparroa'ren kapital.

Geiago oraíndik. Gure ustez Najera'ri bait-dio zor Naparroa'k bere izena bera. Obeto esan : "Naparra" ta Najera edo "Najara", izen bat bera dira. Najera-izenaren sorkuna, bear ba-da, *nahar* da, sortaldetarren, semitarren *nahar*="ibaia". Antziñako paperetan *Najara* deritzaio erriari. Eta ez da ain urruti, gaur Casalarreina deritzan, bañan antziña *Nahar-ur* zeritzan erri polita Errioxa Goian. An inguruan da, baita, *Navarrete*. Navarrete onek, Araba'n dagon beste erri *Nafarrate* bait-darakar gogora, *Nafarrate*. Alde ortatik bertatik, berriz, erderazko Navarra'ri guk euskeraz *Nafarroa*, *Naparroa* esaten bait-diogu. Legez eta logikaz *Navarra*, *Nafarra'tik* dator; eta *Nafarra*, berriz, iVa/iarra'tik. *Naharra*, berriz, ez bait-dabil ain urruti Najera'ren edo *Najara'ren* sorkuneko *nahar'etik*.

(13/) "Vid. Obituario I, Catedral Calahorra (Cartul. I, núm. 6): "Translatio Sanctorum corporum Emeterii et Oeledonii et Dedicatio Altaris eorum ab Archiepiscopo Ausciensi et Episcopo Oxomensis, presente et laborante Episcopo nostro Sancio... Era M. CLXX, anno Incarnationis MCXXXH".

iVa'ior = "ibaia", *rio, rivus*... Kontu aietan *navarro, rivero* da... Ta, izan ere, histori-zaleak diotenez, *Navarra* izena, Iruñaz beerako Erriberari ezarri zitzaion lenengo; eta gero zabaldu izan zan Iruña-ingurura ta Iruñaz ipar-aldera, mendi-aldera (13). Lenengo *naparrak* edo *nafarratk*, gaurko *riveroak* bakarrik ziran. Izenari dagokion bezela-bezela... Orra gure iritzia.

Neurri ontan, Naparroa'ren izena, arabe-itx batetik datorrela? Bai, sobera ere. Lentxuago ere esan degu-ta, izen au moro-jendearen etorre-raz geroztikoa da. Gaur Naparroa deritzanari, antziña *Vasconia* esan oi bait-zitzaion, edo-ta obeto, *napar'ai* berai *vascones*...

* * *

Bañan goazen, berriz ere, gure lengo arira.

II

15.—Nere igarkizun guztiak, len ere esan dizutet-eta, Gorozika-ize-nean izan zuten beren asiera. Eta neretzat —au ere esan dizutet lentxuago— neretzat *Gorozikm*, itzez itz, *Gurutzeaga* da.

Beraz, neretzat, Gorozika'ren *-ka* ori, *-aga* da. Eta esate onen zergatia zor dizutet orain, nere igarkizun oien osagarri bezela. Zergati au gabe, nere itzaldi au, ankabakar izango litzake. Edo-ta, berdin. dana, beso-motz.

Goazen, beraz, ontara ere. Zagozkidate adi-adi. Bereala bukatuko degu.

(13) Ain xuxen, Naparroako Erregeak, beren mendeko lurraldeak zenbatu bea-rietz ari diranean, askotan aipatu oi-dituzte *Nafarroa* ta *Mendiak*, ez lurralde bat be-zela, bi lurralde bezela baizik. "Reynando D. Garsía, hijo de D. Ramiro, en la so-bredicha Pampilona, en Tudela, en Uogroño, en *toda Navarra* y en *todas las mon-taynas*". (Confirmación de donaciones nechas a San Juan de la Peña, año de 1138). "Reynando el Rey D. Garsía en *Navarra*, en Logroño, en Valdonsella y en *todas las Montaynas*". (Donación de Zuazu a la Catedral de Pamplona, 1141). Ikus baita, Florez, "España Sagrada", tom. XXXII.

-KA ATZIZKIA

16.—Itz asko ta asko daukagu, Bizkaia'ko Toki-izendegian, *-ka* atze-eraskiz bukatzen danik. *Gernika, Muxika, Gatika, Gabika, Fika, Legendika, Menika, Meñaka, Mentxaka...* Eta —egia esan— itz oientzat eman izan diran etimologi edo itxorkunak, ez naute ni sobera bete al izan iñoiz. Neretzat *-ka* oiek guztiok, gaur *-aga* esango genituzke. Len, ordea, askotan *-ka* esan oi ziran. Au ere, len aipatu degun goragoko ta beragoko estrato-arazoa da. *-ka*, malla zaarragokoa; *-aga* malla berri-txuagokoa. Bañan biok gauza bera.

Ia alkar aditzen degun.

Itxura duanez, *-ka* onek, askotan, geienean *-i-* bat darabilki aurretik. *-i'z* bukatzen diran itzai erasten zaiolako ote-da? ala berak du artzen *-i* ori eufoniz eta tarteko bezela? Ez dizutet esango nik orain. Bañan, au bai : *-i-* orrenganako makurreri aundia duala gure *-ka* onek : *-ika, -ika* dabil geienean.

Ala ere, ez dezagun aztu, *Gernika* etabar'en ondoan *Meñaka* bat eta *Mentxaka* bat ere arkitzen dituguna. Berdin, baita, *Mundaka, Andraka, Astoreka, Gereka...* Eta jarrai dezagun aurrera.

-ka -ika oiek, *-aga* dirala esan dizutet. Bide ontan adibide bakarra erakutsiko dizutet; bañan uste bait-det bera bakarrik naiko argi ta indar duana. Bizkaiko Izendegietan bi izen oiexek arkitzen ditut: *Zeni-Kyá-Zelaya*, eta *ZeraiG⁴-0naindia*. *Zenika* ta *Zeniga* oiek, zalantzarik gabe, izen bat bera dira. Beste lurralde batzuetan *Asturikm* ta *Astorga* izen bat bera diran bezela {*Asturika* zaarragoa izatea, ta *Astorga* berriagoa); ta *Ergavica'ren -ca*, ta *Flaviobriga'ren -ga*, atzeeraski bat bera diran bezelaxe.

Neretzat *Mentxaka*, zalantzarik gabe, *Mentxiaga* da. Gaur "la casa de Mencia", *Mentziaga* esango genduke. Antziña *Mentxaka* esan oi zuten. Eta berdin, baita, "la casa de Menia", gaur *Meniaga* esango genduke; bañan antziña *Meñaka* esan oi zuten nunbait. Eta ez nuke esango *Lauzurika* ta *Luzuriaga* itz bera eztiranik ere.

GIZA-IZEN EDO ANTROPONIMOAK

17.—Eta Mentzia ta Menia aipatzen ditugun ezker, esan dezagun beste gauzatxo bat ere : Mentzia ta Menia, giza-izenak, antroponimoak dirala. Eta auxe da gai oni buruz emen. esan nai nukeana : gure leku-izen edo toponimoetan, ausaz, guk uste baño giza-izen geiago ezkututzen da-la. Au gogoan euki-ezean, askotan ibilli izan gera, bide okerrez, leku-izenen sorkun edo etimologiak ezin asmaturik. Ez da gaur goizeko ipuia ni neroni ere orrelaxe ibilli izan. nintzana, *Estibalitzen* etimologian ez dakit zer ezti-edo arkitu-bearrez ibilli izan nintzanean. Orduantxe jo ninduan jo *Estibal* orretan giza-izenen bat edo ezkututzen ez ote-zan. gogoan-bearrak (14). Izan ere, bai bait-liteke, *Estibal* giza-izena izatea. Erdi-aroan ba'zan, gure artean, orren antzeko izenik. *Persebal* adibidez; Mondragoe'ko Eresietan azaltzen dan *Presebal* (Juan Carlos Guerra zanak "gure Parsifal, eusko-Parsifal" ziona) alegia (15).

-AGA'REN GORA-BERAK

18.—Bañan orain, gauzak obeto biribiltzeko eta lokarri-mutur guztiak obeto korapillatzeko, uki dezagun azkenik, *-aga* orri *-ka* biurtu bearrez gertatu oi zaion aurreko *-a-* orren galtzea. Adibidez ibilliko gera bide ontan ere.

Lenengo, beintzat, esan dezagun, *-a-* ori askotan *-e-* biurtzen dana. Gatir *Artzeniega* esaten deguna, oraindik ez dira gizaldi asko *Artzeniaga* esaten zana. Eta uste bait-det *-a-'ren -e-* biurtze ori beste izen askotan ere gertatu izan dana : *Samaniego'n* adibidez. Nere ustez gaurko *Samaniego* arabarra, iñoiz *Samaniaga* izana degu. Berdin, baita, Araba ta Naparru bion erdian dagon *Berberiego* ere, iñoiz *Berberiaga* edo izana da. Ez dezaket esate au paperez baieztu; bañan bai hipotesis-aldera egi-

(14) Vid. JUAN DE ESNAOLA, *Monografía histórica de Sta. María de Estíbaliz*. Vitoria, 1918. Pág. 85. Ikus baita ortarako gaia oparo, Julio Caro Baroja'ren. *Materiales para una historia de la Lengua Vasca en su relación con la Latina-n*. Salamanca, 1946. Cap. VII et passini.

(15) JUAN CARLOS DE GUERRA, *Primer Congreso de Estudios Vascos*. 1919, pág. 699. "Lecciones de Genealogía y Heráldica".

usaidun bezela aipatu. *Artzeniega*'k. ortarako argirik asko bai bait-dakar-kigu berekin. Eta bide beretik dabilta baita Rioxa-arabako *Lantziego*, *Eltziego* etab.

Eta, ontara geran ezkeru, esan dezagun baita beste gauzatxo bat ere. Izen oien antzeko izenik asko ba'dagola baita Euskalerrri'tik urrutu gabe ere, bañan, gaur, Gaztelerrri bete-betea. Eta olako izenak ez genituzkeala ezetsi ta zokoratu bear, gure Etimologiak aztertu ta ikasi bearrez lanean ari geranean. Izen oietako asko ta asko, gure Euskerarekin kutsa-kutsaturik-edo daude, mendi-lurraldeetan arkitzen diranak batez ere. Euskera zaarrak zabalkunde aundia du zeinbait olako lurraldeetako izen-estratoetan. Estrato sakon eta ondotoxo-lurperatueta, ori bai; bañan antxe daude, ezkutu-ezkutuan, guk noiz egoizatuko zai. Ez ditzagun ezetsi ta zokoratu, gaur erdalerrian bete-betea arkitzen dirala-ta beste gabe. Begira, adibidez, oietako izen bat edo beste. Araba'n *Bernedo* ta *Pinsedo* bezela, an dago Rioxa'n *Arnedo*. Arnedo oni, latiñezko antziñako paperetan, *Arenetum* zioten; eta orren antzeko zeinbait *Araneta* ta *Araeta* ementxe dauzkagu gure artean gaurko Euskalerrri-euskalerrian. Eta, lengo ariari jarraituz, antxe daukagu Errioxa'n bertan *Cornago*; ta Errioxa-tik Burgos-aldera *Ortega* (antziña *Vrtega*); ta Aragoaldean, berriz —antziñako Saldubatarren lurraldean— beste askoren artean, *Sastaigo* ta *Litago* ta *Sabiñanigo*; eta berdin Soria-aldean *Buitrago* ta *Sarnaigo*, gure zenbait -aga'ren antz aundia dutenak. Bañan ez bait-diot izen osoagatik, atze-eraxkun -ago orreatik baizik.

Ez dakit nik zer gertatzen dan -ago ta -aga oiekin. Ba'dirudi Gaztelerrrian femeninotzat artu-ta, zenbait -aga, maskulino itxurako -ago biurtu izan dituztena. Beste itz askorekin egin izan bait-dute olako aldakuntzarik. *Orbega* bat *Orbigo* biurtzea, adibidez (16). Eta askotan entzun izan bait-degu, baita, "los Ugarte" bezela, emakumeak diranean, "las Ugartas", erdaldunen agotan. Ala berean "la Iriarta" eta "la Okona" etab. Eta, oraindik gogortxuago dana, *Larraona* maskulinotu-ta "el Raon". Nunbait ortarako, gure Toponimiak berak eman dezake "itxurazko" biderik. Ar-emetze oietarako, alegia. Bai bait-ditugu gure Toponimian orren antzeko zenbait itz-kerak: adibidez *Artazo* ta *Artaza*, *Otazu* ta *Otaza*, *Ereño* ta *Ereña*, *Gereñu* ta *Gereña*, etab., ar eta eme bait-lirean.

Beraz ez da bidegabekeri aundi, *-ego* ta *-ago* oiek, erdaldunen agotan gure *-aga*'ren senideak ez ote-diran galdetzea; eta beragatik, gure Etimologiak aztertzeoan, oiek ere gogoan euki bear ez ote-genituzkean.

Berdin nioke, baita, antziñako zenbait izen-keraz ere. Batez ere izenen bukaerari gagozkiola. Adibidez, len aipatu degun *Ergavica*, eta berdin *Asturika* ta *Flaviobriga*. Euskal-kutsurik ez ote-daukaten, alegia, izen oien bukaerak. Zer edo zer esan izan zuan, gai onixe buruz, Cejador zanak ere, *-briga* orri buruz batez ere, *-uriaga* dala alegia. Keltarra ba-da, ibertarra ba-da, *-briga* ori gure *uri* ta *-aga* dala (*uriaga*, *uriga*, *brigá*).

Bañan jarrai dezaiogun asitako bideari. Oraindik ez degu zearo azaldu nola galtzen dan *-aga*'ren lenengo *-a-* ori. *-e-* biurtzen dala besterik ez degu azaldu oraindaño. Berriz ere adibidez egingo degu egiteke gelditzen zaigun bidea. Adi-bidez, (adibide argi-argi ta bete-bete-korik ez ba-daukagu ere), lentxuagoko *Zeniga* ta *Zenika*'rekin bezela. Alde-aldean ibilli bearra daukagu. Ez bete-betea.

-foriga'ren *uri-aga* ori, Cejador'ek uste bezela, tesis jator ta sendo balitz, orixe genduke naiko adibidea. Ez genduke besteren bearrik. Bañan hipótesis baizik ez bait-da. Bañan ala ere, beste bideren batetik alde-alde ibilliko gerala uste det.

Len aipatutako *Zenika* ta *Zenigm* bezelaxe, or daukagu Bizkaia'n baita *Zenita* ere. *Zenita* au, *Zenieta* danik ez du ukatuko iñork *ZeniEta*, tarteko *-e-* gabe. Tarteko *-e-* ori galdu egiten da zenbait aldiz. Begira bestela, *Lazpita*, *LazpiEta*'ven ordez; eta berdin *Batarr'ta*, *BatarrEta*'ren ordez. Eta ez Bizkaia'n bakarrik; baita Gipuzkoa'n ere : adibidez *Munita*, *Munieta*'ren ordez...

Ez dakit zergatik, bañan, gai ontan gertatzen dana, auxe da : itz radicala *-i'*z bukatzen danean, *i*'ren ondoren gertatzen dala *-e-* galtze ori. *Lazpi*, *Batarr*, *Muni*, *Zeni*...

Ez ote-da beste orrenbeste gertatu *-aga*'rekin ere? *-i* baten ondoren datorrenean galdu zaiola, alegia, lenengo *-a-* ori? ez ote-da *Zeni-Aga*'ren bat (*-a-* ori galduta) gaur *Zeniga* bihurturik ikusten deguna? eta *Alboniga*? eta *Estuñiga*? ez ote-ziran izan iñoiz *AlboniAga* ta *EstuñiAga*?

Eta orain zer-ikusi aundiko beste galde txiki bat: ikusi degunez, *-i'*z bukatzen diran itzakin gertatzen da *-etai*'ren *-e-*, ta *-aga*'ren *-a-* galtze

ori : bukaerako *-i* orri zor zaio galtze ori. Ez ote-zaio zor beste zer-edo-zer geiago ere? *-aga*'ren *-ga* ori *-ka* biurtzea alegia (17).

Nik dakidala ba'da Bizkaia'n ZUBIKARAI bat *-feo*'rekin, *berez* *-ga*'rekin ZUBIGARAI izan bear zukean lekuan. Bear ba-da, *ZubVren* *-i* orrek biurtu digu *-ga*- ura *-ka*-. Ez ote-du beste orrenbeste egin *-ka* biurtutako *-ga* guztiakin? ez ote-da bera *-ga* oien *-ka*- biurtzalle? Arri-tzeko gauza bait-da, izan ere, orrenbeste *-ika* gure Toponimian arkitzea, ta orren *-iga* gutxi. Ez ote-da *-iga* oiek (guztiak ez ba-dira ere, geien-geienak beintzat) *-ikai* biurtu zaizkigulako? obeto esateko, *-ga* aiek *-i*- orren egitez *-ka* biurtu zazkigulako?

Nolanai dala, guk dakiguna auxe da : nolapait sortu zala, Bizkaia'n batez ere, ainbesteko *-ifcoi*-endana ura : *Gernika*, *Muxika*, *Gerrika*, *Barrrika*, *Sondika*, *Gatika*, *Fika*, *Menika*, *Metxika*, *Lezika*, *Pertika*, *Legendika*, *Ordorika*, *Barandika*, *Baztarrika*, *Zabaldika*, *Amarika*... eta guzti oien artean gure asierako GOROZIKA.

* * *

19.—Eta uste det onenbestez azaldu dizutedala, aizkenik agindu nituzena : *-ka* bukaerak, *-aga*'rekin duan antz, artu-eman ta zer-ikusi aundia. Neretzat biok atze-eraxkun edo sufijo bat ber-bera bait-dira.

20.—Eta olaxe, eldu zait nere itzaldi oni bukaera emateko ta nere iritzia laburki ta osoki azaltzeko ordua. Ona, beraz, nere iritzia itz gutxitan :

1) Neretzat Gurutzearen izen Santua gure toki-izendegian bi ke-

(Í7) *-ga*'ren *-ha* biurtzea diot; itzaldi onen gairako berdin litzake azpikoz go-ra esatea ere, *-fea*'ren *-ga* biurtzea alegia. Len ere esan det, bear ba-da *-ka* lenagoko estratoetan dagola; eta ola izanik, bera da gero *-ga* biurtu izan zaiguna. Besterik da orain esan nai deguna: *-i*- orri zor zaiola, naiz dala *-ga*'ren *-ka* biurtzea, naiz *-ka* orren, *-ga* biurtzeke, *-ka* irautea: *-i*- orri zor zaiola. Berdin esan dezakegu, baita, *•ago*'ren lenengo *-a*- orren galtzeari buruz ere. Bear ba-da, *-a*. ori aglutinante edo eraskun-izki da; eta berdin da guretzat, *-í*'ren indarrez galdu egiten dala esatea, naiz *-i*'ren indarez sortzeke gelditzen dala. *-ka* ta *-aga* berdin izatea da guztia guretzat: biok berdin izatea.

ratan azaltzen da : GOROS, KOROS, GOROZ, KOROZ'keran eta GURUTZ, KURUTZ'keran.

2) Bi kera oiek gure toponimi, gure toki-izendegi osoan daude zabaldurik; bañan ez etnografi-estrato edo malla berean, bi estratotan baikik.

3) Bi estrato oietan sakonena ta zaarrena, GOROS, KOROS, GOROZ, KOROZ'ena da; ta azaleko ta berriena, GURUTZ, KURUTZ'ena.

4) GOROS iparraldetik datorkigu, Prantzi-aldetik; GURUTZ, berriz, ego-aldetik, Gaztelerrri-aldetik.

5) Neretzat Gernika, *Gerniaga* dan bezelaxe, GOROZIKA ere *Goroziaga* da; eta Goroziaga, berriz, GURUTZEAGA ("solar de la Cruz"). Berdin, baita GOROSARRI ta GOROZARRI ta GOLTZARRI ere, *Gurutze* dira ("piedra de la Cruz"). GOROSKARATE ere guztiok igarri dezakezute neurri ontan, *Guruzkarate* dana ("puerto alto de la Cruz"); eta berdintsu, baita, GOROSKARAI ere, *Guruzkarai* ("alto de la Cruz" edo "Cruz alta" —*garai* sustantivo, *garai* adjetivo); eta GOROSPE, *Gurjuzpe* ("solar debajo de la Cruz"); eta GOROSMENDI, *Guruz-mendi* ("montaña de la Cruz"); eta GOROSTEGI, ("casa de Cruz")—Cruz giza-izena—etab.

6) Goros'én senide da, *rr* latz-dun GORROTXATEGI ("casa de Cruz"); eta *Koros*en senide, berriz, *rr* latz-dun KORROZA, eta, bear bá-da, baita KORROTXANO ere, abizenak biok : *Korroza* "Cruz", *Korrotxano*, "predio o casa de Cruz".

7) Axaleko estratoko GURUTZE-kerak, bi edo iru keratxo azaltzen ditu gañera gure izendegian : KURUTZE ta KURTZE, Bizkaian batez ere; eta KRUTX (aga), Napparroan; eta *rr* latz-dun GURRUTX (aga) berriz Gipuzkoan.

8) Malla sakoneko o-kerak, Bizkaian eta Gipuzkoan eta Napparroan ezik, berdin arkitzen degu, baita, Errioxan ere, éta bereizeko eratxo askotan arkitu ere: *kroz*, *koroz*, *grozi*, *gorotx*, *goroz*, *gortz*...

9) Moro-arogan edo Reconquistan asi giñan nunbait euskaldunok, goroz'en orde *gurutz* esaten, gazteldarrai ikasita, moro-jendeak inguru oietatik bota bearez gazteldarrekin artu- emanetan asi giñanean.

10) *Goroz* lenengo kristautzearekin batean sartua genduan; lenengo Jesus'en Berrion-zabaltzalleak ekarria, iparraldetik, Toulouse alde-tik; angoxeak bait-ziran gure lenengo kristautzalleak, Saturdi Done bat

eta, Honestus bat eta; eta antxe ibilli izan bait-zan gure Fermin Donea ere... eta, bizi ere, Aquitania'ko Dukeen babesean-edo bizi izaten bait-giñan euskaldunok garai aietan eta gero ere...

11) Naparroa ta Gipuzkoa ta Bizkaia bezela —ta Araba zer-esanik ez—, Errioxa Goia ere iparraldeko kristautzalleak kristautu zuten; an ere, orren agergarri, berdin azaltzen bait-da o-ker.

12) Errioxa Bea'rentzat ez dezakegu esan beste onenbesterik, toki-izendegi edo toponimiari bagagozkio beintzat.

21.—Orra, bada, nere iritzia, nere gain artu dedan itzaldi-gai oni buruz: "GOROZIKATIK GURUTZEAGA'RA EDO GURUTZEAREN ÍZENA GURE TOKI-IZENDEGI EDO TOPONIMIAN".

...ETA AGUR

22.—Atsegin izan ba-zaizute nere iritzitxo au, eta asperregi egin ez ba-zaituzte ner.e itzaldi motel onek, eskerrik asko zueri.

Eta nere motelkeriz aspertu ba-zaituzte, barka!

H« * *

23.—Eta barka onezkero, baita azkeneko itz bat geiago ere.

Asi bezela buka nai dizutet nere itzaldi au. Pillotarien Agurra aipatuz asi nauzute. Eta berdin bukatu ere bukatu nai dut. Eta Oyartzun'go Euskaraz; Urtxalle zenaren kanta esanaz... beste Manuel Lekuona zaar are kanta aotan artuaz nik ere:

Agur, yaunak!
yaunak, agur!
agur t'erdi!

Oro Yinkuak
iñak gire
—zuek eta
bai gu ere— .

Agur, yaunak!
yaunak, ~~agur~~!
emen gire!

Agur, yaunak!
yaunak, agur!
emen gira!

Alkarrentzat
anai, beti,
orai eta
lenagoti..

Agur, yaunak!
yaunak, iagur!
agur t'erdi!

Agur, jaunak!
 jaunak, agur!
 agur t'erdi!

Auzo leyal
 eta aurride,
 Euskara'ren
 adiskide,
 oro Yinkok
 ñak gire...

Agur, jaunak!
 jaunak, agur!
 Euskaldun on
 atzo ta gaur...
 EMEN GIRE! !

RESUMEN

Señoras:

Señores :

24.—En pocas palabras resumiré el contenido de mi disertación.

Traigo, desde luego, el deber de dos saludos : una para la Academia de la Lengua Vasca, saludo de gratitud por recibirme en su seno; y otro para Pamplona, por ser en Pamplona mi recepción.

No extrañaréis, por lo demás, que este acto se deslice en lengua vasca. La Lengua Vasca no es extraña a los antiguos Vascones, los Navarros de hoy. Vuestro Sancho el Sabio llamó LINGUA NAVARRORUM en solemne Documento Real que se conserva en vuestro Archivo Catedral No extrañaréis tampoco que el disertante de este acto sea un oyartzuarra Oyarzun en los tiempos romanos fue una población de los Vascones. Plinio nos habla de VASCONUM SALTUS OLARSO. Aun en la Edad Media, cuando Guipúzcoa andaba, ahora con el *Naparroa'ko Erreges Jaun* ahora buscando más bien la sombra de *Gaztela'ko etxea*, Oyarzun inmutable giró siempre alrededor de Pamplona. Y, aun después de realizada una más estrecha incorporación de nuestro Valle nativo a la Provincia, aun entonces nuestra Parroquia, perteneciente y todo al Obispado de Bayona, enviaba sin embargo sus mesnadas estudiantiles a Pamplona; —y son entre nosotros hasta proverbiales las hazañas iruñesas de aquellos nuestros buenos *Ixturiantes*, que lo mismo pudo Uamárseles así por sus *ixturiyuak* (= estudios) en el viejo Seminario de la Dormitalería, como por sus *isturiyak* (= historias) en las rúas pamplonesas. A Ituña

arribaron también, como embajada oyartzuarra en pasados tiempos, aqúipos pelotarísticos capitaneados por nuestros Indart y Urtxalle; —equipos que dieron más de dos sustos en las canchas iruñesas del pasado siglo. Embajada de más alta calidad trajo un día a Pamplona nuestro eminente escritor euskaldun del siglo XVIII, mi paisano P. Sebastián de Mendiburu, de la Compañía de Jesús, que planeó y escribió sus egregias obras en el caserón aun hoy en pie de la Calle de la Compañía... Yo no puedo ostentar credenciales tan destacados en mi embajada de hoy. Pero si recordaré que también esta mi embajada es de letras vascas como la del P. Sebastián; y, que, aunque no me llamo Mendiburu, sí me llamo con el mismo nombre y apellido del famoso capitán del equipo pelotarístico, Urtxalle : Manuel de Lekuona; y que el buen Urtxalle no es tan de recordación para nosotros por sus habilidades de *sakalari* en las *Pilota-plazak* del siglo XIX, cuanto por haber sido él quien llevó a Guipúzcoa, desde fuentes suletinas, eso sí, pero a través de Pamplona, el precioso toque de clarmes *Agur*, *Yaunak* que hoy acompaña a la Diputación guipuzcoana en los actos de gran gala... Quizás no estaba mal el remozar estos recuerdos como explicación de mi presencia en este acto...

La tesis de mi disertación, "DE GOROZIKA A GURUTZEAGA O EL NOMBRE DE LA CRUZ EN LA TOPONIMIA VASCA". Mi postura sobre el particular, centrada en esta ecuación : GOROZIKA = GURUTZEAGA. Dos formas adopta el nombre de la Cruz en nuestra Toponimia : GOROZ y GURUTZ. *Goroz* o *Goros*, anterior; *Gurutz* posterior. *Goros*, precedente del Norte; *Gurutz*, del Sur. *Goros*, incrustado como nn fósil en el fondo de nuestra Toponimia; *Gurutz*, forma viviente. Ambas de origen latino. Como es natural. Como lo son también multitud de nombres de tipo religioso con que se enriqueció nuestro acervo lexical merced a la predicación del Cristianismo en nuestro País. EL GOROS de *Gorosarri*, *Goroskarai*, *Goroskarate*, *Gorosmendi*, *Gorospe*, *Gorostegi*, no puede explicarse por el *gorosti* de los casos *Gorostiaga*, *Gorostidi*, *Gorostartzu*, *Gorostola*. Desde luego al *goros* del primer caso le falta la sílaba final *-ti* de los segundos; adopta además una gama de variantes en completo desacuerdo con las de *gorosti*: de acuerdo, en cambio, con los de *gurutz* : GOROZ en *Gorozarri*, *Goltzarri*, *Gorozika*; GOROTZ en *Gorotzene*; KOROTZ en *Ko(r)otzmendi*; KOROS en *Koroso*; KORROZ en *Korroza*; KORROTX en *Korrotxano*; GORROTX en *Gorrotxategi*; añádase además que esta forma de denominación halla

un espléndido eco en las lenguas europeas : CROCE en ital., CROTZ en provenz., CROIX en franc, CROSS en ingl., KREUZ (*Kroit*z) en alem., formas eminentemente en -c-, en contraposición al Cruz del castellano. La forma actual *Gurutz* procede entre nosotros quizás de la interferencia de una necesidad de tipo eufemístico (*gorotz* y sus similares podían resultar expresiones malsonantes para la Señal de nuestra Redención —desde luego *gorotz* en guip. es sinónimo de "fiemo"—) y de una mayor influencia castellana en los medios vascos posteriores, en contraposición a una influencia anterior, mayor, de la parte aquitánica...

Este extremo, de la doble influencia, castellana posterior (*gurutz*), y norteña, aquitánica, anterior (*goros*) nos aboca a un doble problema íntimamente relacionable con nuestra cuestión fundamental. Los primitivos Predicadores que nos enseñaron el nombre de la Cruz, fueron, sin duda, los mismos que asegura la Historia : los tolosanos Saturnino, Honestus... ^Hasta dónde se extendió el área de su predicación? No sólo a Navarra, Guipúzcoa y Vizcaya con Alava, sino hasta la Rioja Alta. En la Rioja Alta priva la forma *goros* del nombre de la Cruz, tanto como en las actuales Provincias vascas (*Krozia*, —*Krozera*, *Kroziba*, *Krozibirio*, *Kroziga*, reflejos, estos dos últimos, de nuestros *Gurutzebide* y *Gorozika*— *Korozia*, *Grozio*, *Gorotxa* *Gorozeiza*, *Gortazalaia*...). ^Y de cuándo data en las Provincias y Navarra la forma *gurutz*? Probablemente desde la Reconquista, de cuando los vascones, dejada la influencia aquitánica, empiezan a aliarse con los peninsulares para la nueva comiún empresa de expulsar al moro. Por lo que hace a otro problema referente a la Rioja Alta, esta interesante zona es eminentemente vasca de lengua ya de antes de la Reconquista. Si su euskerización fuese de después —como alguien ha querido— no tendría en su Toponimia tantos nombres de la Cruz en la forma primitiva de *Goros*, anterior, como decimos, a la Reconquista.

Aún el nombre de Navarra —no ya sólo su historia— aparece íntimamente ligado a esta parte de la Rioja, como se evidencia por nombres toponímicos como *Navarrete* (que tanto recuerda al *Nafarrate* de Alava) (18), y *Nahárruri* (antiguo nombre de Casalarreina) íntimamente

(18) *Nafar* es la forma vasca del nombre *navarra*: *nafar* (adjetivo) = "navarro"; *Nafarro*, *Nafarroa* (sustantivo) = "Navarra" (país). *Napar* es forma resultante de una tendencia típicamente vasca, de conversión de ciertas // originarias, en *pp*: *na-far*, *napar*.

relacionado con *Nájara*, nombres estos dos últimos, *Nahárruri* y *Nájara* (hoy Nájera) (19), que como *Nafar* y *Navarra*, tantísimo tienen que ver con la voz semítica *nahar* en significación de "río", dándonos todo ello como resultado la equivalencia de la voz "navarro" —de origen semítico o moruno— con la voz castellana "rivero" de perfecto acuerdo con el origen del nombre de Navarra, nombre que nació precisamente en la zona no montañosa del antiguo Reino, y en la época precisamente de la Reconquista y no antes.

La segunda parte de mi disertación está dedicada a esta otra ecuación: -IKA = AGA. Para mí *Guernika* es Gerniaga, como *Mentxaka* es *Mentziaga*, y *Meñaka* es *Meniaga*. La ecuación, con todo, más bien que *-ika = aga*, es esta otra: *-ga = -ka*. La *-i-* del aparente *-ika*, es final de la primera parte de la palabra, *Gerni-* v. gr. Así como la *-a-* primera de *-aga*, es un elemento aglutinante. Los sufijos propiamente son *-ga* y *-ka*. Y ambos equivalentes, como decimos. Un doble ejemplo asegura mi posición; un doble apellido vizcaíno: ZENIKA-zelaia, ZENIGA-onaindia. *Zenika* y *Zeniga* son, sin duda, un mismo apellido.

«Asko» itzaren sintaxisa

(LIBURU BATEN UTSUNEAK)

I

Aste batzuek ba dira, "*Sustrai-billa*" deritzan liburutxo bat argitaldu dala. Egillea, ez-izenez "Larresoro"; beste ez-izen batez, "Txillardegi"; eta bere izen jatorrez, N. Alvarez Enparantza.

A. Enparantza euskaldunberri izan arren, zenbait libururen egille degu; liburu aipatuak... Eskerrik asko zor diogu euskaldun jator gero, A. Enparantza euskaldunberriari, gure Euskeraren alde egiten ari dan lan aundiarentzat.

Gaurko "*Sustrai-billa*" au, benetan estimagarria da. Sakona.

Bañan —eta ez da bat-ere arritzeko, euskaldunberri bategan— guk utsune batzuek arkitzen dizkiogu; eta, iñori beaztopa izan ez dakizkion, utsuné oietako batzuek —ez guztiok— betetzera, berdintzera gator gaur.

Puntutxo bat ikutuko degu bakarrik : "Asko" itzaren sintaxisari dagokion puntua.

* * *

Liburuaren amasei orri-aldetan ukitzen du Laresoro'k puntu au —naiko luze ta zabal, gauzari dagokion bezela...; eta amasei orri-alde oien artean, (58'gnean) sail bat dakar, onela diona : "Mugagabea eta aditza" ("mugagabea", ots! indefinidoa). Eta gero onela dio: "Mugagabeak, SINGULARRA BEAR DU ADITZEAN *BETF*. Eta ondoren dakartzian exenploetan, beste mugagabeen artean, "asko" itza mugagabetzat artzen du, mugagabeekin naasten du.

Eta bere texitaren sendogarri bezela, 50 bat exenplo dakartzi, "asko ta anitzdun"; eta guztiak, ain xuxen, beren aditza singularrean.

Ona, adibidez, exenplo oietako batzuek :

1) "Zer propositu oi *darama* askok konfesatzera? (*darama*, singularrean); (*daramate'ren* ordezt);

2) "Langille asko nekean / *ari da* jornal merkean" (*ari da*, singularrean); (*ari dira'ren* ordezt);

3) "Hanitx jende *baduzu* mahanin" (*baduzu*, singularrean); (*badi-tuzu'ren* ordezt);

4) "Anhitzi *gertatzern zaikana*" (*zaikana*, singularrean); (*zaiemt'ien* ordezt);

Exenplo guzti oiek —eta berdin baita gañerako 50 arterañokoak pre— aditza singularrean *daramate*. Bañan oar bat: diran guztiok irugarren pertsonakoak *dira*; ale bat bakarrik ere ez, lenengo ta bigarren pertsonakorik.

Eta orain galdera bat: —Zer gertatuko litzake irugarren pertsonatik lenengora edo bigarrenera aldatuko bagenitu— aldatu bait ditezke —zer gertatuko litzake?— *Automatikoki* singularretikan pluralera igaroko lirakela. Ikustagun.

* * *

1) "Zer propositu *darama askok* konfesatzera?". *Darama*, irugarren pertsonaduna da; biur dezagun lenengo pertsonadun (gii'dun): "Zer propositu *daramagu askok* konfesatzera?". "Askok" orain aditza plurallean artu du : *daramagu...*

2) "Langille *asko* nekean / *ari da* jornal merkean". *Ari da*, irugarren pertsonaduna da bera ere; egin dezagun bigarren pertsonadun (zuefc'dun): "Langille asko nekean / *ari zerate* jornal merkean". "Asko" orain aditzpluraldun egin zaigu.

3) "*Hanitx* jende *baduzu* mahanin". *Baduzu*, irugarren pertsonadun bera ere; egin dezagun lenengodun (gfit'dun): "*Hanitx* jende *bagaituzu* mahanin". "Hanitx'ek" orain aditz-zerki-pluralduna *darama*.

4) "Anhitzi *gertatzen zaikana*". "*Gertatzen zaika* (zaio)"; bera ere irugarren pertsonadun; egin dezagun bigarren pertsonadun (zitefe'dun): "Anhitzi *gertatzen zaizute*". "Anhitzi" orrek ere orain aditz noriki pluralduna *darama*.

* « *

Azterketa onen ondoren, ezin esan diteke, "askok" edo "anitzek" bere aditza BETI singularrean daramanik liburuak dion bezela. Eta uste bait degu lege ori berdin izango dana, emen bezela, Zuberoan bertan ere.

Itz bitan: "askok" edo "anitz'ek", lenengo ta bigarren pertsonari dagokionean, aditza pluralean eraman oi du. Irugarrenari dagokionean, gauza ikuskizun da. Ori, ordea, beste Batzar batean ikusteko utziko degu.

* sjs H<

Bañan, bein ontara geran ezkeru, Larresoro'ren oker bat zuzendu ere nai nuke emen. Larresoro'k Gipuzkoerarentzat eman duan iritzi mendratzaille, beeratzaillea, alegia.

Bere liburuan ezik, Bilbao'ko Batzarrean ere entzunerazi bait zingun iritzi mendratzaille ori: "Euskalkietan AHULENA Gipuzkoera da la".

Euskalkiak orla alkar laidotzen asteari, ez derizkiot oso bide elegantea; ez elengante, ez, gaur arkitzen geran bidagurutzean biziro egoia ere.

Larresoro'k, orla mintzatzeko, bere ortarako eskubidetzat-edo, bere donostiartasuna aipatzen du. Bera donostiar danik, ez diogu ukatuko; baiñan Donostia'n jaio izana ez da naikoa, gipuzkoar jatorrak —txikitandik gipuzkoeraz mintzatu diranak, alegia— beren euskalkiarentzako duten maitasun jatorra sentitzeko; naikoa ez dan bezela, gipuzkoerarentzako laidoak eta mendradurak aieri aiña min berari emateko.

Gaiñerakoan, gipuzkoerak ere ba ditu bere alderki onak; eta ez nolanaikoak. Ez bait det uste, Gipuzkoeraren AHULERIAZ izango danik, naiz Bizkaierak, naiz Laburdierak, naiz Manexerak, naiz Xuberorak berak —beren aditz— jokuan, noriki edo *régimen indirecto* dalako ortan danok, gutxi edo geiago, gipuzkoeraren elementu -i-ri egin izan dioten omen eta aitormena.

Bizkaitarrak, beren *deutsaŕen* ondoan, *neuskio* esaten duten bezela, Etxaun xuberotarrak berak ere bai bait daki, beren jatorrizko elementu -ra-*ren* ordez gure -i- artuaz, beren *deraue* utzita, gure *deie* esaten ("Jos-

lei *deie* gomendatzen"); eta, beren *deraukozu* utzita, gure *diozu* esaten ("Eman ukhen *diozu* zerbutxu sarila"); eta, oien antzera, itzetik ortzera, "*deio* hitz emaiten", "hek eni gorantziak igortzen *deiztade*", "Jinkuak egun hunik hanixki *deizula*"; eta " juan *zeion* zenbaiten galthetz" etab. etab. denak gipuzkoera - kutsu.

& * *

Eta ez noa geiago esatera. Naikoa degu gaurkoz.

Eta barka dezaizkidala gaizki esanak, liburuaren egille adiskideak.

II

"Askori" buruzko, geroneko artikuluan, ondoren ontara irixi giñan : "asko" ta "hanitzi" dagokion aditza, ez dala BETI singularrean egoten, "Larresoro'ren" "Sustrai-billa" Liburuan irakurtzen degun bezela; auzi ontan, lenengo, ta bigarren ta irugarren pertsonak alkarrengandik bereizi bearra dagola : gure itz asko ainitz ori lenengo ta bigarren pertsonari dagokionean, aditza singularrean ez baño, pluralean egoten dala. Adibidez : "Gizon asko etorri gera" esaten degula; eta berdin "Gizon asko etorri zerate": *gera*, *zerate*, pluralean.

Irugarren pertsonari dagokionean, ba dakigu "Gizon asko *etorri da*" singularrean esan oi dana ("Askok *egiten dio* San Antonio'ri / egun batean jua, bestean etorri" dio ederkitxo koplak errikoiak; eta berdin, baita, ipui errikoiak ere "Askotxok *egiten du* lapurreta"). Bañan "Gizon asko etorri da" bezela, ez al diteke *iñoiz ere* esan, ez al da *iñoiz ere* ondo esaten, "Gizon asko *etorri dira*"? Ori da gaurko galdera.

Egin dezagun bereizkuntza bat. Bereizi ditzagun bi aditz-mueta: izare-aditza (izan=*ser*) eta beste edozein aditz (*etorri*, *egiiv*, *ikus*). Eta orra orain lege bat:

1) "Ask" ta "hanitz", iz»ra-aditzaren *praedicatum* danean, aditza *pluraiean* ipiñi oi degu, naiz lenengo ta bigarren, naiz irugarren pertsonan; ots! ez *gu* ta *zuek* geranean bakanik, baita *aiek* diranean ere. "Gu asko *gera*" ta "Zuek asko *zerale*" bezela, baita "Aiek ere asko *dira*". Adibidez : "Europarrok asko *gera*; bañan baita txinarrak ere, asko *dira*",

Aditza *izan* danean, eta "asko" *praedicatum* danean gertatzen da ori. Bañan aditza *izanen* ordez "etorri" edo "egin" edo "ikusi" balitz, zer gertatuko litzake? "Asko *etorri da*", "Askok *egiten du*" esango al genduke BETI? Ez al genduke *noizpait*, "Asko *etorri dira*", "Askok *egiten dute*" esango? Ori da galdera.

2) Gauzaren lojikari bagagozkio, gauzak onela bear lukela dirudi : "Asko *etorri gera*" ta "Asko *etorri zerate*" esaten degun bezela, "Asko *etorri dira*" ere esan litekeala. Berdin, "Askok *egiten degu*" ta "Askok *egiten dezute*" bezela, "Askok *egiten dute*" ere esan litekeala. Ots! lenengo ta bigarrengo j>ertsonatan aditza pluralean ondo baldin badago, zergatik ez irugarren pertsonan?.. Ez det esan nai, BETI pluralean izan bear lukeanik; *noizpait* izan ez ote litekean baizik... Gauza beraren bi forma izaki, alegia, eta biok forma jatorrak : zergatik ez? Logikaz alegia.

3) Eta emen orain beste galdera bat, lenaren osagarri : Ez al liteke egon tarte ortan —bi forma oien artean— matiz bereziren bat ezkutaturik? Erderaz *cantidad continua* ta *cantidad discreta* esan oi dan matizen bat-edo, alegia? ots! euskeraz "saillean" eta "banaka" -edo esango gendukeana. Bai bait dirudi, adibidez, "Bele asko *ikusi degu*" esaten degunean, *bele-sailla* edo *beleak saillean* esan nai degula; eta, aitzitik, "Be-Je asko *etorri ziran*" edo "Bele asko *il ditugu*" esatean, *beleak banaka*-edo, *bakoizka*-edo esan nai degula. Bi matiz, alegia : *cantidad continua* lenengoan, eta *cantidad discreta* bigarreanean; *ogi asko jan det*, *cantidad continua*; *opillasko jan ditut*, *cantidad discreta*; ots! erderaz *mucho* ta *muchos* esaten dana bezelatsa. Guzti ori kontuan eukitzekoa bait da olakoetan.

Dana-dala, auxe da egia : guk gipuzkeraz "Ogi asko *jan det*". "Gizon asko *ikusi degu*" eta Opil asko *jau ditugu*. "Gizon asko *ikusi ditugu*", forma biok irabiltzen ditugula.

Larresoro'k bere Liburuan, bitasun onen sustraia ez-jatortasun batean arkitu nai du. Singularrena dala era jatorra —dio—; pluralarena, erderatikoa. Bai ote?.. Plural-forma, erderazkoaren antzekoagoa dala? Bai, noski: "antzekoagoa"; bañan "erderatikoa" orregatik? Eta zergatik ez alderantzira? Gurearen antzeko singular-formarik ba da erderaz ere; ots! "fray un hombre" eta "*Hay* cuatro hombres" esan oi da : "hay" ori beti berdin, beti singularrean erabiltzen da, naiz lau gizon izan.

Dana-dala, eta bukatzeko, ezin esan ditekeala, "asko" edo "hantien" aditza, BETI singularrean bear danik.

ITZ BITAN

Sustrai-bills asita, Txillardegi'k lurra gutxitxo, axalegi, atxurtu du, kasu bat bakarrik. Sakonago atxurtu balu, iru kasu arkituko zituan; eta irutatik bi pluraldunak, eta bakarrik —eta ura ere ez beti— singularduna.

Berak, berriz, beti pluralduna ez baño singularduna dala esaten bait digu...

Aditzaren Sintaxisa

SOLEZISMO BATZUEK

Aditzaren Sintaxis txarrezko esaera batzuek ikusiko ditugu.

Olako Sintaxis txarra, "solezismo" esaten zaie.

Ikusi ditzagun, gure artean inoiz arkitu oi ditugun solezismo batzuek.

#

Sintaxis jatorrak aditza bere inguruarekin egokitu (*concertar*) egiten du. Aditza bere inguruarekin egokiturik ez egotea da solezismoa bere baitan.

Solezismoak, gure inguruan ditugun erderetatik sortzen zaizkigu; dala latinetik, dala gaztel-erderatik, dala prantzes-erderatik: euskerazko esaerak erderazkoen berdin-berdin egitetik.

Euskerazko aditzak, bere jokaeran, erderazkoak baño askotaz ere zati geiago erabiltzen ditu.

Erderazkoak, aditzaren zutarrari egillearen zatia erasten dio: *-(e)mos*, *-(e)is*, *-(e)n* (*traemos*, *traeis*, *traen*): ots, aditzaren norkia: *da-kargu*, *dakartzute*, *dakarte*.

Bañan euskerazko aditzak bere zutarrari erasten dio, ez norkia (sujetoa) bakarrik; baita zerkia (objetoa) ere: *NAkar* (me trae), *ZAKar* (te trae), *DAkar* (lo trae).

Geiago oraindik : erasten dio, baita, zerkiaren zenbakia ere : *dáhar* (lo trae), *dakarZKI* (los trae).

Geiago oraindik: erasten dio, baita, norikia (complemento indirecto) ere: *dakarzkiDAzu* (tú me los traes): aditzaren zutarraz gañera, lau zati: *da-kar-zki-da-zu*; erderaz baño iru zati geiago. Orregatik gure

esaera bat, erderazko esaeraren berdin-berdin egiten badegu, gertatu ditekete, gertatu, iru solezismoz itsusitutako esaera.

1. Ola gertatu ditekete, gaur Goierri-aldean sartzen ari dan onako solezismo au: "Gezurak esan *diot* amari", "Gezurak esan *dizkiot*" esan bearrean.

Esaera orrek, a) ondo dauka norkia (ni'ren norkia), bukaerako -t ori; b) ondo dauka zerkia (gezurraren zerkia, irugarren partsonakoa) asierako *d-* ori; d) ondo dauka norikia ere (amaren norikia, irugarren pertsonakoa) erdiko -*i-* ori. Iru zati oiek ondo dauzka. Bañan zenbakia falta du, askozko zenbakia: erdian, -*zki-* bat "esan dizkiot". Ortan dago esaera onen solezismoa.

2. Ari berean dago baita, Laburdi-aldean noizean bein arkitzen degun solezismodun esaera au edo onen antzeko zerbait ere: "Ama: emazu titia aurrari", "emaiozu" esan bearrean.

Esaera orrek, a) ondo dauka norkiaren zatia, egillearen zatia, bigarren pertsonakoa: bukaerako -*zu* ori; b) ondo dauka zerkiaren zatia (zatiaren ordeztutsunea; agindu-jokaeran (imperativoan) irugarren malazko zatia utsune bait da; d) ondo dauka baita zenbakiaren -zatia ere (zatiaren utsunea, askozko zenbakia ez baño, bakarkakoa dualako); e) falta du, ordea, norikiari dagokion zatia, aurrari dagokiona, irugarren pertsonako noriki -*io-*. Ortan dago esaera onen solezismoa. Bear bada, esaera au kantatzean, "emazu"ren ordezt "emOzu" esan oi zan leen; "emaiozu"ren laburpen "emozu", alegia.

Laburdi-aldean ba dirudi ezarian-ezarian aditzaren noriki-jokaera zerbait galtzen ari dala, aditzaren agindu-jokaera batez ere.

3. Beste solezismo bat ere ba da, eta ez orain-oraingoa: Iparragire'ren garaian ere sartzen asitakoa, orain gizaldi ta erdi-aditzaren norikia (dativoa) zerki (acusativo) biurtzen duana; ots, latinezko *mihi*, *me* biurtzen duana; izan ere, erderaz, *mihi* ta *me*, beti *me* egiten bait da...

Gogora dezagun Iparragirre'ren kanta ezagun-ezaguna :

Zibilak esan NAUTE
bizi-egoki...

".. esan DIDATE..." esan bearrean, "esan naute"...

"Solecismo de costa" esaten dio norbaitek solezismo orri. Dirudianez, gure kostaldean sortu bide zan, Donosti-kostan ezik, Biarritz-aldean ere sobera zabaldua bait da.

Solezismo au, garbi-garbi, erderatik etorria degu: erderak gai ontan "norikia" eta "zerkia" berdin esaten bait ditu, beti ere *me* ta *te*; euskerak bi eratarata, *ni* ta *neri* eta *zu* ta *zuri* esaten dituanak —latiñak ere, guk bezela, bi eratarata esaten bait ditu, *me* ta *mihi*, *te* ta *tibi*—; eta aditz-jokaeran ere berdin: *ikusitu nau ni*, eta *esan dit neri*; *nau* ta *dit*... Iparragirre'k bere kantuan "esan ekin" ere "esan naute" —bertsoak ala eskaturik, inolaz ere— kantatu zuala, ezik.

Erderaren bide beretik dator, baita, lengo orren alderantzira, "jo nau"ren ordeza, "jo dit" esaten duan solezismoa ere.

Ain xuxen, gai ontan bertan oso ezaguna da, beste kantatxo bat, gañerakoan ez ain itsusia:

Gure aitak amari
gona gorria ekarri.
Berriz ere maiteko DIO
gura amak aitari...

Euskeraren Sintaxis jatorrak, maiteko "dio"ren ordeza, maiteko "du" eskatzen bait du; eta ezta "aitari" ere, "aita" baizik: *zerki*, alegia, ez *norikia*.

Ipiñi ditugun eredu biotan gauza au oso argi agiri da. Bañan ba dira esaera illunagoak, leen inoiz aipatu izan ditugun *lagundu* eta *entzun* etab. adibidez: *lagun iguzu?* *lagun gaitzazu?*; *entzun iguzu?* *entzun gaitzazu?* Eredu oietan ez bait da ain argi ageri, *gu* zer geran : *zerki* (gu) ala *noriki* (guri).

* * #

4. Leku berezi bat merezi du, gai ontan, "eragin-formadun" aditzak: *-azi*, *-erazi* batez osatzen diran aditzak: *egiñazi*, *egiñerazi*; eta berdin *eragin*; eta *ekarriazi*, *ekamerazi* eta berdin *erakarri*; *ibilliazi*, *ibillierazi* (eta berdin *erabilli* (?); *mugiazi*, *mugierazi*; *ixillazi*, *ixillierazi*... "Factitivo" esaten bait zaie erderaz olako adtzai, edo-ta "forma iphil" hebreoz; eta erderaz bi itzekin osatzen bait dira "hacer traer"), euskeraz, ordea, itz bakarrarekin, aditzari atzizki *-azi* edo *-erazi* erantsiaz (edo-ta aditzari aurre-izki *era-*; *egin*, *eragin*).

"Erazidun" aditz oietan ere gertatu oi dira zalantzazko esaera batzuek, zerdun ala norikidun ote diran zalantzazkoak, alegia: aditza *nau* ote dan, ala *dit*; *zaitut*, ala *dizut*; *du*, ala *dio*...

Gauza au zerbait argitzeko, orra arau batzuek :

a) *-azi*, *-erazi* ezartzen zaion aditza, zerduna baldin bada (transitivo, alegia), orduan aditzaren jokaera norikidun azaltzen da: *jane-razi diot ogia aurrari*; *kantaerazi diozu kanta berria bertsolariari*; *orrek adieraziko dizu dana ederki*... Berdin: *negar eragin dio aurrari*...

b) *-azi*, *-erazi* erasten zaion aditza zerkiduna ez bada (intransitivo bada, alegia) orduan aditza ez da agertzen norikidun, zerkidun baizik, eta egiñerazten zaion pertsona izango du bere zerki: *sarrerazi ezazu beia ikulluan*; *ixillierazi ezazute mesedez aur ori*; *ark erorierazi zuan lurrera*; *mugiaziko aut, ba* ; *ark erorierazi zuan*...

* * #

"Erazidun" aditzen ari berean ibilli oi da beste aditz bat ere: *utzi*, beti ere mendean beste aditz bat duala.

"Utzi" orrek bi esan-nai ditu: a) bata erderaz "abandonar" esaten dana; eta b) bestea "permitir".

"Permitir" danean, jokaera norikiduna du: *utzi dio artzen*. "Abandonar" danean, jokaera zerkiduna du: *iltzen ta usteltzen utzi zuan*. Beti ere mendeko aditzari *-ten*, *-tzen* atzizkia erasten zaiola.

Reflexivum - Reciprocum

Reflexivum erderaz, 3'gn pertsonan "se" batekin egiten da: "*Se mira en el espejo*". Bañan 1'go, 2'gn pertsona danean, *me, te, nos, os'*-ekin: "*Me veo, te ves (se ve); nos vemos, os véis (se ven)*".

"Se" ori, ordea, erderaz beste batzuetan ere erabiltzen da:

1) pasiva-impersonal danean: "*Esto se dice, esto se estila, esto se lleva*";

2) recíproco danean: "*Se ven los dos en la calle*";

3) zenbait aditz intransitivotan: "*Se murió, se marchó, se cayó*".

Benetako reflexivoa, beste iru oietatik berezi bearra dago.

Reflexivoa da, "nork bere buruari" esan nai- duanean. Eta, esan ere, reflexivoa euskeraz jator ola esan oi da: "*Nik nere burua, ikusten det; zuk zeure burua ikusten dezu; ark bere burua ikusten du; guk geure burua ikusten dezu; zuek zeuren burua ikusten dezute; aiek beren burua ikusten dute*".

Guzti au, orren gauza garbia dan arren, erdal-reflexivoaren indarrez, batzuren batzuek ola esan oi dute: "*Ni ikusten naiz; zu ikusten zera etab.*". Erdal-reflexivoa ala bait da: "*Me veo; te ves; se ve*", etc, intransitivo "*se murió, se marchó*", etab. bezela: "*¡I zan; joan zan*" etab.; "*yo me vi = ni ikusi nintzan*"...

Euskera jatorrean reflexivoa ez da egiten aditzaren intransitivo-jokoaren bitartez; transitivoaren bitartez baizik: ez "*naiz, zera, da*"ren bitartez; "*det, dezu, du*"ren bitartez baizik; bañan ez "*Nik ni ikusten det*" esanaz, "*Nik nere burua ikusten det*" baizik, ikusten dedana *neroni* ez banintz bezela (lenengo pertsona), irugarren pertsona bat bezela baizik: "*nere burua...* Eta berdin, zuk zurea, eta ark berea... (1).

(1) Olakoetan guk, euskaldunok, "nik neroni" ean bearrean, sinekdokez (*pars*

Irugarren pertsona-kontu ortan, gauza bera gertatzen da baita, relexivoan ezik, baita *reziprokoan* ere.

Reciprokoaren izaera, gauza jakiña da: alkarri zerbait egitea. Eta esan ere, reziprokoa euskeraz jator ola esan oi da: "Guk *alkar* egunoro ikusten degu; zuek *alkar* egunoro ikusten dezute; aiek *alkar* egunoro ikusten dute".

Ikusten danez, reziprocoak euskeraz, relexivoaren beraren egitura du. Gauza bat du relexivoarengandik bestelakoa : aditz-jokua beti ere *askozkoa* duala, eta ez bakarrezkoa: *gu, zuek, aiek*. Eta beti ere *transitiboan*, eta ez intransitiboan: "*Alkar* ikusi *degu*" eta ez "*Alkar* ikusi *gera*"; ikusi deguna beti ere beste norbait balitz bezela... (2).

PKAXIS

Reciprocum.—"Alkar ikusi degu; alkarren berri ba degu; alkarri esan genion; elkarrentzat ez degu gorrotorik; alkarrekin bizi gera; alkarrengandik partitu giñenean...; alkarrengana bilduko dira; alkarrengan ez dute konpianza aundirik".

Reflexivum.—"Nere burua ezagutzen det nik; nere guruaren kaltean nabil; nere buruari esan nion; nere buruarentzat lotsagarri...; nere *baitan* esan nuan; bere baitara (onetara) etorri zanean...; nere baitatik (onetatik) atera nintzan; nere buruarekin aserre nago".

pro toto) "nik nere burua" esan oi degu, Bibliak "nere anima, nere biotza, nere espiritua, nere guntzurrunak" esan oi duan bezela.

(2) Reciprocoa, Biblian perifrasis baten bidez egin oi da; adibidez: "Esan genion, batek (gizonak) bere lagunari, bere anaiari". Guk, edota perifrasis-bidez: "Esan igenion *batak besteari*"; edota isintesis-eran: "Esan genion *alkarri*"; beti ere aditza askozko eran ipiñiaz, ieta aren zerkia, alkartasun zerbait adierazten duan formula baten bidez, dala *alkar*, dala "batak beste"; Bibliak "lagun" edo "anai" esanaz bezela.

EQUIVALENCIAS VASCAS DEL *SE* CASTELLANO

1) Como reflexivo, v. gr., "El *se* ve a sí mismo", el vasco hace esta frase por medio de un circunlaquio similar al hebreo: "Ark *bere burua* ikusten du" (1). El hebreo diría "su alma, su espíritu, su carne", etc, el vasco emplea este otro elemento: "cabeza" con su correspondiente posesivo *bere* = "su".

2) Como elemento de oración indefinida, v. gr., "Aquí se come bien". Este verbo "comer" es verbo transitivo; y como tal, en vasco tiene un auxiliar transitivo, distinto de cuando el verbo es intransitivo. Auxiliar transitivo *det, dezu, du, degu, dezute, dute*; intransitivo *naiz, zera, da, gera, zerate, dira*. Al verbo *jan* corresponden los auxiliares *det, dezu*, etc, normalmente; pero si la frase es indefinida, el auxiliar transitivo se sustituye por el correspondiente intransitivo: el *du* por el *da*. "Aquí se come bien" = "Emen ondo jaten *da*". Normalmente el verbo *jan* se conjuga: jaten *det, jaten dezu, jaten du*" = "Yo como, tú comes, él come", pero en la forma indefinida, se dirá "jaten *da*": naturalmente la forma indefinida no tiene más que la tercera persona. Si el verbo en cuestión es intransitivo, permanece igual: "Aquí se vive bien" = "Emen ondo bizitzen *da*".

3) En vasco normalmente no hay pasivas. "Abel fue matado por Caín" se dice "Caín mató a Abel" = "Kain'ek il zuan Abel".

•(1) "El ve su cabeza".

Apostrofoa

Apostrofoa, berez, letraren bat galtzen danean ipiñi oi da: "iru *t/erdi*".

Bañan, ortaz gañera, berrogei ta amar urte otan erabilli izan degu apostrofoa, baita, bakoitz-izenaren eta bere atzizkiaren artean ere: "Pekin'dik Donostia'ra"... eta numeral baten eta aren atzizkiaren artean : "40'tik 50'era".

Orain, olakoetan, apostrofo orde z gioia (—) erabilli oi da.

Gioia, orain arte, izen "osotuetan" erabilli izan da : "buru-ezurra, belaun-katillua"; "etxe-aurrea, mendi-tontorra"...; eta izen elkardun, *correlativoetan* : "ezker-eskubi, senar-emazte, anai-arreba"...; eta aditz "osotuetan" : "antz-eman, eder-etsi"...

Orain beste balio bat geiago eman zaio gioiari: leen apostrofoak zuan balioa : "Pekin-dik Donostia-ra".. Olakoetan apostrofoa baztartua gelditu da.

*F *F *F

Ez bait dakigu, zergatik aldatzen ibilli bear genduan, berrogei ta amar urtean izan degun oitura: bakoitz-izenen ondorengo apostrofoa kendu, eta gioia ipiñi, alegia.

-ki, gerundio-atzizki?

Gure Azkue aundi zanaren Iztegia birrargitara bear dala-ta, Euskal-tzaindiak Iztegi eder orren inguruan berritze edo obetze zerbait egiteko asmoa duala, guztiok dakizute. Iztegiak ukitze zenbait bear duala, egunoro agiri da. Gure Aldizkari EUSKERA'n ikusirik gaude, geroneko zenbakian bertan, Rene Lafon'en lan bat, zenbait olako ukitu-bear aipatuaz.

Beste ukitu-bear bat aipatu nai nuke nik gaur. Eta nere ustez garrantzi ta zer-ikusi aundi samarrekoa. *-ki* atzizkiari dagokiona.

Urte asko-samarrez onuztik, onelako esaunda zenbait, "lepoan *ekar-fci*" (*trayéndolo en hombros* esan nayeana), eta "aren billa *ibilki*"[▷] (*andando en busca de él*), ta oien antzeko beste esaundak, idatzita ikusten oituak gaude. Ots, *ekarki* = *trayendo*; *ibilki* = *andando*... gerundio bezela, alegia; "al-izate aundia *izakV* = (*teniendo gran poder*); *izaki*, *izan'en* gerundio bezela (*izan* infinitivo, *izaki* gerundio).

Noiztandik dator gure artean, *izaki* ori izaw'en gerundio-ordez erabiltzeko oitura? Nik ez dakit. Bañan bai bait-liteke, oitura onen zuztarra gure Azkue zanaren Iztegian egotea. Orregatik aipatu nai izan det arazo au, Azkue'ren Iztegia berritu-bearrez gabiltzan ereti ta egokitasun ontan.

Azkue zanaren Iztegia berritzea, lan astuna da. Aztarrenak ondotox aterata egin bear dan lana. Norbaitek ez uste arren, egun asko bear dituan lana. Bañan batez ere guztion laguntza bear duan lan luze ta aztuna.

Nik, nere utsean, uste bait-det, gerundio oiei argi pixka emateko zer-edo-zer esan bearrik ba'dedana. Orregatik nator gaur txosten onekin zertxo ori esatera.

Azkue zanak bere Iztegian *-ki* atzizkiari zortzi esan-nai egozten

flizkio; eta zortzietan irugarrena, auxe: "-KI 3.º (AN, BN, L, G) aplícase también a infinitivos, formando cierto gerundio... *izaki* = habiendo sido... *ihilki* = habiendo andado... *egoki* = habiendo estado...".

Ori dio Azkue'ren Iztegiak.

Ni, oyartzuar bezela mintzatuko natzaizute gaur. Oyartzun, erriz giputz dan arren, Oyartzun'go euskera Goi-Napar da. Oyartzuar bezela, beraz, Goi-Napar-euskeraren lekuko ta testigo bezela mintzatuko natzaizute gaur.

Oyartzun'en *izaki* ta *ibilki* ta *egoki* erabiltzen ditugu —itzetik ortzera erabili, gañera— bañan ez gerundio bezela, infinitivo bezela baizik. *Izaki* erabiltzen degu *izan* bezela-bezelaxe; eta berdin *ihilki* ta *egoki* ere, *ibilli* ta *egon* bezelaxe. Eta berdin baita *ariki*, *etorki*, *ekarki*, *eramaki*, *erabilki*, *biziki*, ta baita *eukiki* ere... Oyartzun'go euskerak bi infinitivo ditu bere aditzetan bere berboetan. Bata Gipuzkoan erabiltzen dana: *izan*, *ihilli*, *etorri*, *ari*, *egon*, *ekarri*, *euki* etab., eta bestea, beste -/ci'dun ori: *izaki*, *ibilki*, *etorki*, *ariki*, *egoki*, *ekarki*, *eukiki* etab.

Ez det esango, ordea, -Zci'dun au, bestea bezain ugari erabiltzen degunik (1); bañan au bai, gipuzkoeraz -fei-gabeak duan esan-nai ber-bera ematen diogula guk, erabiltzen degun guztietan. Adibidez :

"Aurrian *izaki*, ta ekusten ez" = "aurrean *izan* eta ikusten ez"; "Egiten *ariki*, ta bukatu arteko onik ez" = "Egiten *ari*, ta"... "Azkenetan *egoki*, ta ongi zegola" = "Azkenetan *egon*, ta"... "Auzuan *biziki*, ta izagutzen ez" = "Auzoan *bizi*, ta"... "Dirua *izaki*, biño bera burugabia *izak'*C = "Dirua *izan*, baña... gabea *izan*". "Itxera zijuala uste, ta mendira *juaki*" = "Mendira *juan*, eta"... (2).

Olakoxeak dira Oyartzun'go *izaki*, *etorki* ta *egokVak*. Eta, egia esan,

(1) Gure -fci-atzizki onek, adversativa-kutsu pizarren bat ote-duan zenbait susmo det nik. Pero-kutsu pizarren bat, oaña-kutsu apurren bat. Gero dakuskegunez, ondotiko *ta* batekin erabiltzen dan arren, eta berdin baita *baña* batekin, onen kutsu geiago ote-duan, *izan*, gure barrunberako, oyartzuarren barrunberako. Gero datozen adibideetan ikus lezake irakurleak. Ez degu, beraz, bestelako infinitivoak bezain ausarki ta bezela-bezela erabiltzen, ondoren 6aña-kutsuko zerbait datorrenean baizik.

(2) Egia da, azkeneko adibide ontan *mendira joan* baño obeto legokela *mendira joaten* edo *mendira joanean joan*; izandakoa *izan*, alegia; ta *joaten edo joanean*, dagoneko, presente. Ba dirudi gure euskerak -*ki* orretan dagon presente garbiagoko bat billa nai lukeala, *izan* baño garbiagoko presente bat alegia; *izan'ek* joandako antzsi bait-du *izan* ere; *izaki*, dagoneko garbiago.

dauden bezela, gerundio-antzarik ere ba'dute. Bañan ikusi dezutenez, bai bait-dago or *-ki-ez*, gañerako beste zer bat ere; auxe: *-ki* ori ez dabillela bera bakarrik, ondotik *ta* edo *baña* bat gabe; beti ere *ta* copulativa batekin edo *baña* adversativa batekin dabillela ibilli; *izaki ta; izaki, baña; ariki, ta; ariki, baña; egoki ta; egoki, baña; joaki ta; joaki, baña...* Eta, izan ere, *ta* ta *baña* oiekin batzen danean du artzen gerundio-usaia. Bestela, ez. *Azkenetan egoki, ta ongi zegola = Estando en las últimas* (creer), *que estaba bien* (lit.: *Estar en las últimas y* (creer) *que estaba bien*); *Aurrean izaki baña ikusten ez = "Teniendo delante, no ver"* (lit. : *"Tener delante pero no ver"*).

ji-	4/	ji
TP	IP	"j"

Ala ere ba'da, *ta* edo *baña* gabe azaltzen dan *-ki* zenbait, eta itxuraz gerundio-antzean. Adibidez : *Ba'dijuaz juahi*. Goi-Naparroan erabili oi dan esakuna. Eta norbaitek esan bait-dezake, *juaki* au ta'rik gabe ta *baña'nk* gabe gerundio jator dana (3). Latiñezko *euntes ibant = yendo iban* bezela, alegia.

Bañan euskeraz *euntes* ori ez bait-da gerundio, ez participio presente, infinitivo baizik, *joan zijoazen...* hebreoz bezela. *Euntes* ori, izan ere, hebreotik artua dago; eta hebreoan ez da *euntes ibant* (yendo iban), *ire ibant* (ir iban) baizik... euskeraz bezela-bezelaxe (4). Goi-Naparra esaunda ori (*Ba'dijuez juaki* ori) gipuzkoaren *Ba'dijoaz joan*, edota *Joan ba'dijoaz* litzake... *jakin ba'daki* bezela, edo *ibilli ba'dabil* eta *ekarri ba'dakar* etab.

(3) Izan ere, ain gauza logieadun litzake, *-fçf-atzizki* ori adjetivo batekin adverbio modal dan bezela (*eder, ederki; on, ongi; txar, txarki, aundi, aundiki, aundikiro; izendatu, izendatúki*, ots, *nominatim*), aditzarekin ere berdin, "modal" izatea, ots, gerundio alegia. Izan ere, orixe da gerundio, beste aditz baten adverbio "modal"... Rañan izkuntzetan ez bait-dira gauzak ain logicadun izaten beti-beti.

(4) *Euntes ibant* bezela, ba'dira Vulgatan beste olako liebraismo batzuek ere. *Gaudens gaudebo*, adibidez, edo *praeicipiendo praecepimus vobis* etab. "Aditz-birresateak" dira. Eta ba'dute zer-ikusi gure euskerazko beste zenbait birresateekin, *eder-ederra*, adibidez, eta *mendi-mendian* etab. Ez, bear bada, esan-naiez, significadoz, gure *joan dijoaz'ein* eta *jakin ba'dakitevekin*; esan-naiez ez, bañan bai esateko-eraz, ots, biok infinitivoa erabiltzen dutela, alegia, eta ez gerundiorik edota participiorik, latiñak oi duan bezela.

#

Goi-Naparreraren lekuko ta testigu bezela mintzatu natzaizute orain arte. Bañan beste Euskalki zenbaitetan ere ez bait-det gauza ain garbi ikusten, *-ki* gerundioren alde.

Azkue jaunak dionez, Laburdieran eta Gipuzkoeran ere erabiltzen da *-ki* ori.

Gipuzkoari gagozkiola, nik ez det entzuten Gipuzkoan —Naparroako muga izan ezik— olako *-ci'rik*, ez gerundio-antzera, ez bestela.

Eta Laburdierari gatxizkiola, berriz, auxe det esan bearrik: Axular'en GERO gutia irakurri dedala bein, beste egiteko gabe; eta ez dedala arkitu olako *-fi'rik*, ez baterako ez besterako.

Orixe zan, nik gaur esan nai nizutena; Oyartzun'go Goi-Naparreran beintzat, *-fci-atzizkia* ez dala gerundio-atzizki, infinitivo baizik; gerundio izateko, *ta* edo *baña* baten bearra duala... bestelako infinitivo guztiak bezelaxe. Eta, ez era batera ez bestera, ez dala Gipuzkoeran *-ki-atzizkirik*. Eta ezta Azular guztian ere.

Eta orren ondoren auxe dala nere eskabidea: Azkue zanaren Iztegia aztertzeoan, euki dedilla gogoan Goi-Naparroa'ko euskerari ta Gipuzkoerari ta Laburdierari dagokion zer txiki au; *-Zei-atzizkiaren* irugarren esan-naiari dagokion ikutu-bear txiki au.

Andoain, Urrila'ren 31, 1956.

«bait-» aurre-izkia

N. JAUNAREN KRITIKARI BURUZ

Ba'dirudi, *crítica negativa* egin nai izan duala. Besterena kritikatzten du, eta ez da ageri, berak nai, zer nai lukean. Izkuntza bera ere itzal gutxitxokoa izan duala esango nuke: besteren gauzak umekeri ta zorakeri jotzen ditu bi edo iru aldiz.

Kritika naastua gañera; geiegi naasten ditu alkarrekin, esatea ta idaztea.

BAIT DA ezin esan ditekeala dio ("Ori orrela oguziko duan euskaldunik, ezta oraindik azaldu. Gure apaiz gizagajoak naiko lan badude meza ematerakoan orrelakoak ezin esanik!").

Nik galdera bat egin nai nuke orain: BAIT DA ezin esan baliteke, "Gizon BAT DAtor" esan al-liteke? edo "AingeruAK DAtoz"? Idatzi egiten da "Gizon bat dator": gaizki idatzia al-dago? Esan, "Gizon BAITATOR" esan oi-degu noski, eta "AingeruATAtoz": esan bezela idatzi bear al-degu? Ori da, N. Jaunak *garbi* esaten *ez* diguna. Eta esango ere ez diguna.

Idazkerak, esateko erari jarraitu bear al-dio beti? Idazkerak, beti, esateko erari jarraitu bear balio, ez genduke batasunik idazkeran. Gauzak esan, *cambio fonético* askorekin esan oi-ditugu; eta *cambio* oiek, danok ez ditugu berdin egiten: batzuek geiago baizik, eta besteak gutxiago. Idazkeran batasunikan nai badegu, nai-ta-ez, *esakera* ez baño beste arau sendoagoak bear ditugu jarraitu; eta arau oiek Izkuntzaren Morfologian billatu bear ditugu. BAIT DA idazten dutenak, nik uste, ala egiten dutela : Morfologiara jo.

N. Jaunak, beraz-besteok parragarri utzi nairik nunbait, ironia apur batekin, beste oiek "betiko zorigaiztoko Etimologikerietara" jotzen dutela dio Euskalerrri osoan Lafitte Jaunak, eta Mitxelena Jaunak eta Lekuona Jauna irugarren, beste iñork ez dakizkian etimologikerietara jotzen dutela .. N. Jaunak dio ori; bañan BAIT DA idazten

dutenak, ez dute iñungo Etimologietara jo bearrik; Gramatikaren Morfologia naikoa dute ortarako. Etimologia luzeetara, iñork bada-ta, berak jotzen du, BAIT DA'ren kontrarako egin digun bi foliazko estudio jakintsu, sakonean.

— Eta zer dio, bada, Morfologiak, gauza oni buruz?

— *Bait*, *bait* dala; eta *da* ere, *da* dala. *Bait* ez dala *bai*; *bai* balitz, elituzke sortuko bere inguruan sortzen dituan kanbioak: *zera*, *baitzera*; *gera*, *baikera*; *dira*, *baitira*. Agirian edo ezkutuan, or *t* bat dabil tartean, kanbio oiek egiten. Gaur beintzat. Len-leen, eztakigu. Gaur *bait*, *bait* da, eta ez *bai*.

Beste problema da, orain deguna : *t* ori nola ipiñi bear dan idaztean : ezkutuan? (*baikera*, *baitzera*, *baitira*)? ala agirian? (*bait gera*, *bait zera*, *bait dira*)? gioi batekin, ala gioirikan gabe?

Axular'ek *t* ori, beti ezkutuan uzten du: *baikera*, *baitzera*, *baitira*.

Mitxelena Jaunak agirian naiago du; praktikoago derizkio. Axular'en eran, idazleak iru forma jakin bear ditu, ondo idazteko, iru kanbio egin bear ditu: *ker*a, *tzera*, *tira*; Mitxelena'ren eran, ez legoke iñungo kanbiorik : *bait* beti *bait* izango litzake, eta ondotik datorkion aditza, beti berdín izango litzake (*gera*, *zera*, *dira*).

Eta orain, bukatzeko, N. Jaunak *bait-da* irakurtzeko ain estu ikusten dituan "apaiz gizagajoak" *bait da* ori nola irakurri dezaketen ikusi dezagun; gogora dezagun leen adibidez ipiñi degun arako *Gizon bat dator* ura. Esaera au, danok bi eratara esaten degu: a) bata, arrapaladan, arnas batean, kanbio fonetikoak egiñaz; *Gizon baTator*; eta b) bigarrena, bi itzen bitartean arnastxo bat artuaz: *Gizon bal dator*.

Orain bada, *bat* orrekin egiten deguna, egin dezakegu ederkitxo foait-ekin ere : *baikera*, *baitgera*; *baitira*, *bai dira*.

Bait zerarekin, bear bada, danok berdín egiten degu: *baitzera*, kanbio fonetiko egiñaz.

Eta onenbestez naikoa izango da.

Orain zuek ikusi, Mitxelena'ren era ontzat ematen dezuten: *bait* ori —ez bezela— bereiz idaztea alegia.

Euskerazko errelatiboa

HISTORI-APUR

Leen, iñoz —Irazustabarrenaren "Doctrina cristianan", adibidez— erderazko "relatibo" *que*, euskeraz "zeña" baten bidez egin izan zan: "zeña'ren", edota "zeña bait'en" bidez: "(Gizon egin zan) bigarrena, ZEÑA DAN Semea": "(Se hizo hombre) la segunda (persona), que es el Hijo"; "*Zeña*, gizon egiñik deitzen *dan* Jesukristo".

Idazteko era oni, *zeñismo* esaten zitzaion; eta, ain arlote ta lotsagarri zanez, ez da arritzeko, aspalditxo baztartua izatea.

Ikus dezagun, beraz, errelatiboa nola egiten dan jator.

A K A U A

Esaera "relatiboa", erderaz izenorde pronombre relatiboaren bitartez egiten da : "El hombre QUE ha venido, es mi padre".

a) QUE izenorde orren aurrean dagon izenari (A-o/nbre'ri), relatiboaren "aurrelaria", *antecedente*, esaten zaio; eta, naiz erderaz, naiz latiñez, izen ori beti ere relatiboaren aurrean egon oi da;

b) izenorde *que* ori, erderaz naiz latiñez, deklinagarria da: ba du bere nominativo, genitivo, dativo etab; (*qui, cuius, cui, quem...*).

Euskeraz, esaera relatiboa, aditzaren atzizki-sufijo -n baten bitartez egiten degu : "Etorri DAN gizona, nere aita da".

a) "aurrelaria" euskeraz beti ere -N atzizkiaren ondoren dago; ez da aurrelari jatorra, atzelaria baizik;

b) gure -N relatiboa, aditzaren atzizki danez, ez da deklinagarria.

* *

Euskerazko relatiboa, deklinagarri ez izate orrek, ezberdintasun aundi bat sortzen du gai ontan Euskeraren eta Erderaren artean. Zenbait aldiz, erderazko esaera bat, zuzenean ezin itzuli ditekete euskerara, eta itzulpena perifrasis edo circumloquio baten bitartez egin bear izaten da.

"Zenbait aldiz", ez beti.

Ba dira iru aldi, itzulpena "zuzenean" egin ditezkenak: relatiboa erderaz nominatiboan edo akusatiboan edo datiboan dagonean (*caso recto* esaten baitzaia *nominativo-acusativoa* dagonean, eta *caso oblicuo dativoan* dagonean). Olakoetan itzulpena zuzenean ederki egiten da: "El hombre que (*qui*) ha venido, es mi padre" = "Etorri *dan* gizona, nere aita da"; "El hombre que (*quem*) has visto, es mi padre" = "Ikusi *dezun* gizona, nere aita da"; "El hombre a quien (*cui*) has dicho eso, es mi padre" = "Ori esan *diozun* gizona, nere aita da".

Iru esaera oietan, atzizki -n'k aditzarekin duan relazioa, errex asmatzen da, deklinabiderik gabe ere: azkeneko esaeran, aditzak berak (*diozun* ortan) bere datibo-relazioa argi adierazten dualako; eta lengo ta bigarren esaeran, relazio zuzena dalako, nominatibo-akusatibo-relazioa.

^f ^p ^JF

Relazioa bestelakoa danean —*de-desde*, adibidez, edo *en, a-hacia, por* etab.— orduan sortzen dira itzulpenaren zailtasunak. Olakoetan, naitaez, esaeraren kontextuaz baliatu bearra dago, edo, bestela, perifrasis bat egin.

Ipiñi ditzagun adibide batzuek: "La casa *en que* vives, es grande"; "en que" ori ezin esan ditekete itzez-itzez euskeraz; "Bizi *zeran* etxea" esaten badegu, "La casa *que* vives" esaten degu; *en* bat falta zaio *que* orri... Ala ere, kontextotik errex *asmatzen* degu, or falta dana, *en* bat dala; bizi izatearen eta etxearen artean dagon relazioa, jakiña bait da, ere'ezkoa dala.

Berdin esan dezakegu beste ontan ere: "El camino *por donde* vas, es estrecho"; *por donde* orrek ere euskeraz ez du itzez-itzezko itzulpenik; "*Zatozen* bidea, bide estua da" esaten badegu, "El camino *que*

vienes" esaten degu; *por* bat falta zaio esaera orri... Ala ere, esaeraren beraren kontextotik errex asmatzen degu, or falta dana, *por* bat dala. Izan ere, *etorri* eta *bidearen* artean dagon relazioa, jakiña da, *por* dala.

Berdin esan bait liteke, beste adibide ontaz ere: "Au da, gure aita il *zan* etxea"; esaera ankabakarra dan arren (*en* bat falta duan arren), ederki asmatzen zaio, esan nai duana; *il* eta *etxearen* artean dagon zer-ikusia, gauza garbia bait da, *en* dala.

* * *

Ba dira, ordea, oiek baño zallagoko esaerak. Adibidez: "Este es mi Hijo, *en quien* tengo mis complacencias". Beste oien bidetik, "Au da, nere atsegiñak *ditudan* nere Semea" esaten badegu, esaera ez da argia; *en quien* arren relazioa, ez da argi agiri, eta esaera, illun gelditzen da. Kontextoak ez digu argitasunik ematen.

Berdin izango litzake beste au ere: "Este es el hombre *con quien* he venido", "Au da ni *etorri naizen* gizona". *Con* relazioa faltako litzake; kontexto geiago gabe, relazio ori ezin *asma* liteke errex *etorri*'ren eta *gizonaren* artean...

Olakoetan, biderik egokiena, auxe da: perifrasis bat-edo egitea, *bait* batez eta izen-orde pronombre batez baliatuaz; adibidez: "Au da nere Seme maitea; *onengan bait* ditut Nik nere atsegiñak".

Beste adibide bat: "Jacob engendró a José, el esposo de María, *de quien* nació Jesús, que se Uama Cristo" = "Jakob'ek sortu zuen Jose, Maria'ren senarra, *arengadik* sortu *bait* zan Jesus, Kristo deritzana".

*

Beste perifrasis geiago ta geiago egin litezke; aietan bat, esaeraren ordez, aren reziprokoa ipintzea; adibidez: "Este es el hombre *con quien* he venido" esan bearrean, esan beste au: "Este es el hombre que ha venido *conmigo*" = "Au da, *nerekin* *etorri* dan gizona". Eta olako asko ta asko beste perifrasis eta circumloquio...

Nolanai ere, iñolaz ere ez, Irazustabarrenaren "zeñarik".

1. (Venit homo) *cuius* filius infirmabatur Capharnaum.
(Gizon bat) *aren* semea Kafarnaumen gaxo *bait* zegon.
Perifr. Semea Kafarnaumen gaxo zeukan gizon bat.
2. Lignum pomiferum, *cuius* semen in semetipso sit.
Perifr. *Bere* azia bere baitan *duan* zugatza.
3. Convivium *in que* Christus sumitur...
Ex context. Kristo artzen *dan* afaria.
4. (Filius meus dilectus) *in quo* mihi bene complacui.
(Seme maitea) *onengan bait* det Nik nere atsegiña.
Berarengan nere atsegiña *dedan* Seme maitea.
5. Lignum *de quo* Christus pependit...
Ex context. Jesus zintzillik *egon dan* zugatza.
6. Maria Magdalena, *de qua* eiecerat septem daemonia...
Maria Magdalena, *arengandik* zazpi etsai bota *bait* zituan.
Perifr. Zazpi etsai kendu *zizkion* Maria Magdalena.
7. Ex context. Jesus il zan Gurutzea.
8. Ex contex. Etorri zeran erria (ad quem). Joan ziñan erria (a quo).

Noiz «bere»? Noiz «aren»?

STATUS QUAESTIONIS

Erderazko "su" posesiboa, latinez, batzutan *suus* da; bestetan, *eius* (*eiusdem*, *ipsius*).

Adibidez: a) "Oportebat Christum pati, et ita intrare in gloriam suam"; "Verbum caro factum est... et vidimus gloriam eius".

Erderaz bi forma oiek beti *su* esaten dira: a) "entrar en su gloria"; b) "hemos visto su gloria".

Euskeraz, zer?

HISTORIA APUR

Latiñaren bide beretik ibilli izan dira beti laburditar, be-nafar, eta zuberotar idazleak. Batzutan BERE erabiltzen dute, eta bestetan AREN edo BERAREN. Gero ikusiko degu noiz bata, ta noiz bestea.

Bizkaitarrak gai ontan erderaren bideari jarraiki zaizkio: posesiboa beti ere BERE egitera jo izan dute. A. Lino'k, leengoan esan zigunez, A. Añibarro'k, Axular'en "Gero" bizkaieratu zuanean, AREN guztiak BERE itzuli zizkion.

Gai ontan oso otsaundikoa izan zan aspaldi batean, Orixe'k, Bilbao'n, "Euzkadi'n" zegola, bizkaitar batzuekin, Bizkai'ko oituraren aurka izan zuan polemika. Beti BERE erabiltze ori, erderakada zala, zion, ots! erderaren kutsu txar bat, *solecismo* bat, alegia.

Gipuzkoar klasikoak ondotxo jarraiki zaizkio Laburdi-aldeko ta latiñaren legeari. Eta guk ere, Liturgi-lanetan, bide oni beroni jarraitzen diogu.

Dana dala, ikusi dezagun orain, nola dan latiñaren eta beste aldekoen legea.

"BERE" TA "AREN"-EN LEGEA

Gauza argitzeko, ipiñi dezagun eskema bat:

Nik, nere;

Zuk, zure;

Ark, bere?

— Batzutan bai, bestetan ez.

— Noiz bai, ta noiz ez?

Erantzun baño leenago, oartxo bat: Posesivo baten barruan (su baten barruan) beti ere pertsonal bat (*ura* bat) dabillela.

Orra orain legea : "Posesivoaren barruko pertsonala, eta esaeraren pertsonala bat-bera diranean, BERE izango da; beste bat danean, AREN, BERAREN. Eta guzti ori esaera bat-beraren barruan danean; posesivoa urrengo esaeran-edo baldin badago, berriz ere AREN izango da". "Pedro BERE etxean bizi da"; "Gu, AREN etxean bizi gera". Ori da legea.

Orain, esaera beraren barruko bi pertsonalak bat-bera izatea, lau eratarata gertatu diteke:

1) Esaeraren pertsonala, *nominativo* danean: "Ura (Pedro) BERE etxean bizi da"; ("Petrus in SUA domo habitat"); "Ark (Pedro'k) BERE etxean lan-egiten du"; ("Petris in SUA domo laborat").

2) Esaeraren pertsonala, *acusativo paciente* danean: "Ura (Pedro) guk BERE etxean ikusi degu"; ("Vidimus Petrum in domo SUA").

3) Esaeraren pertsonala, *dativo* danean: "Arri (Pedro'ri) guk BERE etxean itz-egingo diogu"; ("Tn domo SUA loquemur Petro").

4) Esaeraren pertsonala, *áblativoa* danean: "Arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egon giñan"; ("Cum Petro in domo SUA commorati sumus").

l'gn. erako *nominativoa* (*ura*, Pedro) alda dezagun, eta leengo BERE ori, orain AREN biurtuko zaigu :

Ni, AREN etxean bizi naiz;

Zu, AREN etxean bizi zera;

(Beste) Ura, AREN etxean bizi da;

Gu, AREN etxean bizi gera;
 Zuek, AREN etxean bizi zerate;
 Aiek, AREN etxean bizi dira.

Ala ere, 2'gn., 3'gn., ta 4'gn. erakoetan, aurreko *nominatiboa* aldatu arren, posesiboa BERE izango da ta ez AREN :

Nik, ura (Pedro) BERE etxean ikusi det;
 Zuk, arri (Pedro'ri) BERE etxean itz-egin diozu;
 Gu, arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egongo gera.

Erderaz, berriz, guzti oietan beti SU esango dute : "Yo vivo en SU casa"; "Tú vives en SU casa" etab.

Bizkai'ko, gai ontako oituraren adibidetzat, ikus arako olerki bizkaitar ezagun-ezagun ura: "Azkatasun - eguzkia / basotik urtenda // BERE ergia edonun / arin zabaltzen da". Gure legetan, "BERE argiaren" ordez, AREN (eguzkiaren) argia" bearke luke izan; edo-ta bestela, (eguzkiak) "BERE argia edonun arin zabaltzen DU", olerkiaren rima urratuaz.

PRAXIS

I.—2'gn., 3'gn. eta 4'gn. eraetan, esaeraren *nominatiboa*, *ura* danean, esaera naasiak gertatu oi dira: "Ark (Joan'ek) Pedro BERE etxean ikusi du". Ez dakigu zeñena dan etxe ori, Joan'ena ala Pedro'rena. Dagon bezela, ba dirudi Joan'ena dala. Orregatik, Joan'ena ez baño, Pedro'rena balitz, BERE orren ordez beste formaren bat bearke litzake ipiñi: ONEN, BERONEN, BERAREN, alegia: "Juan'ek Pedro ONEN etxean.

II.—Ildakoen eskelaetan azaltzen diran "BERE emazte I. ta I. eta BERE seme-alaba I. ta I." oiek, Gipuzkoa'ko legearen barruan ez daude ondo. Eskelaetan ez dago esaera bat bakarrik: bi esaera datoz, bata bestearen ondotik: (aitaren eriotza, eta etxeko eskabidea). Bigarren esaeran dagon posesivak, legez, AREN izan bear luke. Bañan AREN orrek, esaerari zerbait urrutiko edo aspaldiko kutsu ematen bait dip, AREN ori ez dator or ain ondo. Beragatik, edo-ta emen ere BERAREN «do BERONEN esan bearke litzake (BERONEN emazte I. ta I. k...~)

edo-ta, obeto, ezer ez: soil-soillik "Emazte I. ta I. k eta seme-alaba I.tal.k"...

III.—BERAREN ori, ederkitxo ageri da Eguerri-kanta batean:

"Kantatu dezaiozun / Aurtxo Jainkoari,
poz aundi bat emanaz / BERAREN Amari".

Egoki dago or BERAREN ori; bañan ez legoke itsuski BERAREN orren lekuan AURRAREN ipintzea; ots! izen-ordekoaren lekuan, izena bera alegia.

Estilistikaz, izen-ordekoak oso zallak dira egoki erabiltzen.

Beste arau praktiku, beraz: "izen-ordekoen ordez, izenak berak erabiltzea".

«On» itzaren peripeziak eta gora-beerak

"On" itza, bere izate orokarrez, erderazko "bueno" eta letiñezko "bonus" da. Ori du bere esan-nai jatorra.

Bañan bere biziaren bidetxiorretan dabillega, beste esan-nai batzuek ere artzen ditu. Guk ez ditugu emen, esan-nai guzti oiek aipatuko, ale batzuek baizik; zerbait gauza jakingarri.

ONDU

"Ondu" aditza.— Eta lenengo-lenego auxe esango degu: "on" adjectivum'dik "ondu" aditza sortzen dala: "hacerse bueno". "Gaiztoa zan; bañan *ondu da*".

Bañan "ondu" orrek, "hacerse bueno"z gañera, artzen bait ditu beste esan-nai batzuek ere. Eta oien artean bat, au :

1) "Mejorar una marca"; adibidez, "leengo markak *ondu*".

Eta beste bat, au: 2) pelota-jokuan "pelota *ondu*"; "hacer *buena* la pelota"; tantoa ez galdu, alegia.

Eta beste au gañera: 3) fruta-ale bat elduaz gañera, oraindik areago egin nai danean esaten deguna: olakoetan ere "ondu" esaten bait degu; eta ola aipatzen ditugu "sagar *onduak*, mizpira *onduak*". Arako kanta zaar arek esaten duana, alegia :

Baxakaran beltza, *ondurik* ondo,
ondo ondu-eta arana.

ON-EGIN

Beste aditz batzuek ere sortzen dira "on" itzetik, "aditz osotuak" alegia, "verbos compuestos".

Eta 1) *egin* aditzarekin; "on-egin" = "aprovechar"; adibidez, "ez dizu *onik* egingo"...

Eta 2) *izan* aditzarekin; "on-izan" = "ser útil, provechoso"; adibidez "on-izango dezu"...

Eta 3) *artu* aditzarekin; "n-artu" = "acoger, aceptar"; adibidez "on-ar dezazula"...

4) *iritzi* aditzarekin; "on-iritzi" = "aprobar"; adibidez "on-iritzi zuan, on-iritzi zion"...

5) "etsi" aditzarekin; "on-etsi" = "amar"; adibidez "onets dezagun Jauna"...

ONDO

"*Ondo*" *adverbium*.— "Ondo adverbium ere "on"-en ari ortakoa da. *Ondo* eta *ongi* — "bien"; leengo kanta zaarrean ikusi deguna:

Baxakaran beltza, ondurik *ondo*
ondo ondu-eta arana.

ONDO

"*Ondo*" *izena*.— "Ondo" onek, berriz, beste "ondo" batera bait garamatzi ("on" itzarekin zer-ikusirik ez duan beste itz batera).

"Ondo" izena; "ondo" = "cercanía"; bere ondorengo guztiakin: "ondoko, ondoan, ondotik, ondora, ondoraño, ondoren, ondorengo"... Adibidez, "agurea *sutodoan* zegola, txakurra *ondora* etorri zitzaion". Bañan "cercaniaz" gañera beste zerbait ere esan nai bait du "ondo" itz orrek zugatzaz mintzatzean: "zugatz-ale bakoitza" alegia; adibidez, "milla sagar-ondoko sagastia"...

ONDO = FONDO

Baiñan ba da gai ontan beste *ondo* bat ere, "cercanía"-rekin zer-ikusirik ez duana, erderazko "fondo"-rekin areago baizik. Ikustagun.

"Txakurra *ondora* etorri zitzaion" esatean, ba dakigu "cercanía" esan nai dala; bañan "batela *ondora* joan zan" esatean, beste *ondo* bat esan nai degu.

Eta onela, *ondo* orren inguruan iruxki-xorta bat, triptiko bat sortzen zaigu.

Bigarren "ondo" au ere sustantivum da, eta "fondo" esan nai du, edo-ta "hondo", latinez *profundum*; adibidez "batela *ondora* joan zan" = la embarcación se fue al *fondo*""; edo "katilloak *ondoan* du azukrea"...

ONDA

Bañan triptikoaren osagarri ipiñi degun "onda" ori, beste kontu bat da. "Inutilizar" dala esan degu. Eta "ondu"-ren kontra izan diteken etsairik txarrena da: "ondu" = "hacerse bueno"; ⁱ*onda(tu)* = "inutilizarse, echarse a perder"; beragatik ez bait dirudi "on", "bueno"-rekin zer ikusirik duanik...

APLIK LABUK

Gaiñerakoan, *ondo* "cercanía"-tik datoz *ondoren(a)*, *ondokoa* etab. Eta *ondo* "fondotik", berriz, *ondar*, *ondazillegi*, *ondiatu*, *ondi-aitzur* etab.

Onda'tik, berriz, *ondamendi*, *ondakin* etab.

ONAKO (ATJ, ONEN)

Au, *onen*, *onako*, *demonstrativoak*.— Beste "on" bat ere ba da, emen ikutu bear deguna: "*Onen* ederra" eta "onafco au" esaten degunekoa, alegia. "On" orrek, ezik, ez bait du zer-ikusirik gure "on" oueno'rekin.

"Onako au, orrako ori, arako ura" demostrativoak dira; "onako"-ren asierako "on" ori ez da adjectivum; "au" demostrativoaren posesivo-forma da: ⁱ*aunako* au" = "*onako* au" (*au* = o). Demonstrativo pleonástico esan ditekeana; erderazko "aquesto"-ren antzeko zerbait; arabarrak beren erderan, euskeraren urratsai jarraikiz, gaur oraindik "esto d'ahi'nesto" esaten dutena: "onako au"...; "eso d'ahi'neso": "orrako ori"...

Gauza bera esan bear bait da, "oraere ederra!" dalako orretaz ere: *au* demostrativoaren posesivo-forma dala: demostrativo pleonástico: "qué tan hermoso *de éste*", "qué tonto *de hombre*" eta "qué hermoso *de niño*" bezela; "aurraren ederra!"; "sagardoaren gozoa!" etab. bezela; "onen ederra! onen gozoa!".

NAASKILLO TA EQUIVOCO BATZUEK

Aipagarri dira, baita, gai ontan, beste zenbait itz ere, "on"-otsa dutenak, eta orregatik zenbait naaskillo sortzen dutenak. Oien artean:

- 1) "ona" = *hueno*; alde batetik adibidez "egun *ona*" = *buen día*; "ona" = *acá* beste aldetik adibidez, "atoz *ona*" = *ven acá*.
- 2) "onena" = *de este* batetik adibidez, "jostallu au aur *onena* da" = "*este juguete es de este niño*"; "onena" = *el mejor* bestetik adibidez, "au da emen aurrrik *onena*" = "*este es aquí el niño mejor*".
- 3) "obena, oberena" = "el mejor" batetik adibidez "au da aurrrik obena, oberena"; "obena" = *pecado* bestetik adibidez, "zer da obena?" = "*¿qué es el pecado?*".
- 4) "oneratu" = "acercarse a esto" batetik adibidez; "oneratu zaitetz" = "*acércate*"; "oneratu" (bide oneratu) bestetik = "acogerse al bien"; adibidez "bide oneratu zaitetz" = "acógete al buen camino".

KRISIS

Asiera-orde praktika orde esan dezagun, itz-forma oiek naas-antxe-koak, ekibokoak dirala; bañan, ala ere, errez-errez ondo ulertu ditezkeanak, inguruari, kontextuari begiratu ezker; "atoz ona"-ren "atoz" orri begiratu ezker.

1. Nolanai dala, Gipuzkoa'ko zenbait erritan, "atoz ona"-ren ordez, "atoz onera (onea, onia)" esan oi da; eta pentsatu ere pentsa diteke, "atoz ona" ori leen-leen esaera lasai (*pronunciación relajada*) izan zala, naiz-ta gaur, Bizkai-aldean duan zabalkundeagatik, "legezko" formatzat artu bear izan; bañan, ori bai, beti ere esaeraren naskillo-arraiskua "inguruaren bitartez" garbitzekotan.

2. Gauza bera esan bear da "onena"-rentzat ere; inguruak argitu bear duala, alegia, "on" *bueno*'*ven* adjectivum dan, ala "au" esie'ren posesiboa; adibidez "auxe da munduan dan aurrrik *onena*"; "jostullu ori aur *onena* da".

3) Berdin esan bear da "oneratu"-ri buruz ere: ingurutik igerri bear zaio; eta nolana dala "onera" ori "on"-etik datorrenean ondo-xamarrean izango du gauz-izenen bat, sustantivoren bat, "bide" adibidez;

"*bide oneratu* zan aizkenean"; "au"-ren demonstrativo danean ez bait du izango ondoan olako apiorik; adibidez, "urruti bazan-da, *oneratu* zan aizkenean"...

4) Gañerakoan "oben" = *pekatuaren* "obe" orrek ez du zer-ikusirik "on"-en "obe"-rekin; "oben-egitea" "uts-egitea" da (erderaz "*ceder*"); eta bide ortatik sortu da, "pekatu-egin" esateko, "oben-egin" esatea; eta "pekatu" esateko berriz, "oben" eta "obena".

Itz bitan: olako itz naasi-antzekoak izkuntza guztietan izan oi dirala; eta inguruaren bitartez argitzen zaiela beren esan-nai jatorra, batez-beste artu ez ditezten.

AZENTOA

Nolanai dala, berriz ere, beste gauza bat esan bearrik ba degu gai ontan, naas-arraixku-gai ontan; idaztean ez baño, itz-egitean, azentoak argitzen dituala naas-arraisku ta illuntasunak; azentoak; orren gutxi aztertua daukagun Prosodiako "Azentoak". Itz-egitean, ez da iñor, "jostallu au aur *onena* da" esaten duanean, eta "au da munduan dan aurrik *onena*" esatean, bi "onena" oiek berdin —azento berdiñez— esango dituanik; euskaldun jaio giñanok, ederkitxo bereizten ditugu bi "onena" oiek. Prosodiaz diot; Ortografiaz ez arren.

Det = zait Habeo = «est mihi»

La equivalencia de "habeo" = "est mihi" es conocida de todos cuantos conocen la Lengua Latina.

Una equivalencia parecida existe también en el euskera sobre todo en los dialectos ultra-pirenaicos.

Pongamos algunos ejemplos.

Desde luego hay locuciones como esta en el euskera : *Au guk anaia degu*; cuya traducción directa no se da al castellano, sino la indirecta siguiente: "Este es *nuestro* hermano". Ese *nuestro* denota posesión; posesión que en euskera se expresa en el caso presente por el verbo *izan* = tener. Esta misma frase (*Au guk anaia degu*), en latín podría expresarse de las dos maneras : *Nos hunc habemus fratrem* y *Hic nobis est jrater* (recuérdense las frases bíblicas *Ego ero ei in patrem*, *Nos Deum habemus Patrem*).

Claro, que este ejemplo no nos sirve para probar la equivalencia del *det* y *zait* o *degu* y *zaigu*. Nadie dice *Au guri anaia zaigu* como se dice *Au guk anaia degu*. Pero tampoco faltan ejemplos de otro género que confirman o prueban esta equivalencia en nuestra lengua. Así, v. gr., en los verbos de conveniencia y provecho : *Konbeni ba-zaizu, artu zazu*; *Konbeni ba-dezu, artu zazu*.

Hay en euskera algunos verbos compuestos del tipo de los siguientes: *bear izan, on izan, min izan, damu izan*... La técnica constructiva de estos verbos en una oración es la siguiente :

1) Ejemplo : el sujeto de la necesidad, va en nominativo, *nik*; el objeto en acusativo, *etxea*; y el verbo *izan* en transitivo con su componente adjunto *bear*: v. gr., *nik etxea bear det*. Esta oración en latín sería así: *Domus opus est mihi*; donde el sujeto de la necesidad va en dativo *mihi*, como si fuese un complemento indirecto; y el objeto de la necesidad en nominativo, *domus* (en otra fórmula en ablativo, *domó*) y el verbo *esse* en intransitivo, como *ser* y no como *haber*. En castellano

esta misma oración puede tener una traducción exactamente igual a la vasca : *Yo he menester casa, una casa*; pero también esta otra : *A mí me es necesaria una casa*. Donde todo queda cambiado: El verbo ya no es *haber* sino *ser*, y el sujeto va en dativo, y el objeto pasa a nominativo : *la casa, una casa...*

2) Ejemplo: *Nik on det ibiltzea*. La técnica de su construcción es la misma de la anterior. En latín: *Mihi bonum est ambulare*, donde el sujeto del euskera se convierte en régimen indirecto, dativo, *mihi* y el objeto en nominativo, *ambulare* ("el pasear"); y el verbo es intransitivo, *esse*. En castellano la construcción es similar a la del latín: "Me está bien el pasear".

3) Ejemplo: *Nik min det iñor miñez ikustea*. Su construcción es igual a la de la anterior.

4) Ejemplo: *Nik damu det, zuri miñ emana*. Con idéntica construcción. Su correspondiente en latín: *Paenitet me tibi laesisse*. En castellano: *A mí me pesa de haberte dañado*; quizás también *A mí me pesa el haberte dañado*.

Otro tanto ocurre con verbos como *ajola izan*: *Eztet ajola orrengatik*. Pero ya en esta oración se ve una mudanza; ya no es *ori*, sino *orrengatik*. Quizás antes era puramente lo primero, *ori* y no *orrengatik*. De la misma manera se inicia una corriente en el sentido de invertir la construcción en el sentido del castellano o latín: *No me importa por ese* ; *Non interest mea... Etzait ajola, etzait inporta...*

De re stilistika

Ba dira esaera otzak, eta ba dira esaera beroak.

Esaera beroetan, itzak berez esan nai duanaz gañera, beste esan-nai, beste bultzada barrukoi zerbait izan oi dute.

Adibidez : "Auxe ere ba dek, orratik!". "Begira, gero!".

Balio barrukoi ori esaerari, itz berezi batzuek eman oi diote. *Orratife ! eta gero !* itz oietakoak dira : "itz beroak".

Zer esan-nai barrukoi dute •—besteak beste— bi itz oiek?

Ipiñi ditzagun adibide batzuek :

- 1) "Au ez dek broma, *orratik!*".
- 2) "Ekarri dek, *orratik!*".
- 3) "Ixillik ez baago, *orratik!*".
- 4) "Orratik!".

(Oarra : "Orratik" orrek ba ditu bestelako formak ere : "orratio!", "orrationkan!").

- 1) "Au ez dek broma, *gero!*".
- 2) "Baigaiztoa, *gero!*".

"Orratik" eta "gero!" itz oiek *choc* b'at adierazten dute: ortan dago itz oien indarra, indar barrukoia. Norbaitek uste zuanaren eta gauza bera danaren arteko *chok* bat. "Orretik'ek" nik uste nuanaren eta gauzaren arteko *choc*; eta "Gero'k" zuk uste zendunaren eta gauzaren arteko *e/ioc*'a.

- 1) "Au, *orratik*, ez dek nik uste nuan broma" (*Nik*, edota *guk*).
- 2) "Au ez dek, *gero*, ik uste uan broma" (*Ik* edo-ta *zuek*).

* * *

Itzaren etimologiak berak sendotzen du itzaren balore ori: *choc* balorea, alegia.

Itzaren etimologia, nik uste, *orregatik* dala; *orratik*, *orregatik* laburtutakoa. *Orregatik* orrek gure kasu ontan *advertsativo-halorea*. du; erderaz "sin embargo", "con todo", "a pesar de ello" edo olako zerbait.

* * *

Atzizti *-gatik*, batzuetan erderazko "por" da: "nik ori *zugatik* pozik egingo det" : "*por ti* lo haré con mucho gusto".

Bañan beste batzuetan "a pesar de" esan nai du: "*zugatik* etzait neri bat ere ajolarik; *zugatik* nik ori berdin-berdin egingo det": "*o pesar de ti* lo haré"...

Gure *Orratiko* ori, bigarren bide ontatik dabil: *advertsativa-hideúí*, *choc-hidetík*.

Santo ala Santu?

Gutxi-gora-beera, gauza bera esan bear det, beste norbaitek, lengoan, egin zigun beste esaera arentzat ere : erabaki dezagula bein-betikiko, *santu* esan bear degun ala *santo*, *Pazku* ala *Pazko*, *Apostolu* ala *Apostolo* etab.

Gauza ori ain errexa balitz, berealaxe egin diteke; bañan ontan ere dogmatismotik urruti ibilli bearra dago. Eta ez bait det uste gauza orren errex erabaki ditekeanik.

* * *

Guztiok dakigun gauza da, Euskeran —eta baita beste Izkuntzetan ere— *u* ta *o* nolako elkarren auzo diran; eta ez *cambio fonético* bezela bakarrik, ez fonetika-lurrean bakarrik, baita goragorako lurrean ere; Ikus bestela; *Azkoaga* bezela ba dala *Azkuenaga* bat ere; *Goenaga* bezela, ba dala *Olaguena* bat, eta baita *Olague* bat ere; *Etxegoien* bezela, ba dala *Etxaguen* bat ere; *Ibargoien* bat bezela ba dala *Ibarguen* bat ere; eta *Ergoien* bezela *Erguin* bat. Eta *Zaragueta*, berez *Zaragoeta* dala. Berdin baita *juan* bezela *joan*. Ots! zein *o*, zein *u*... *Peru* bezela *Pero*...

Erabaki al dezakegu, izen oiek nola idatzi bear diran? Erregistratu ta estudiatu, bai; bañan erabaki ezer praktikoko gai ontan? Bi formak ondotxo aitortuak eta autorizatuak bait daude usadioan eta baita Toponimian bertan ere...

Guztiok gogoan euki bear degun gauza da, baita, atzerritik artuak ditugun zenbait itz, latiñetik datozeela, eta erderaz -o- duten bezela, latiñez -u- zutela. Adibidez, *pecado*, *peccatum*. Eta gure Euskerak itz oietatik batzuek letiñetik zuzenean artuak dituala gañera... *pekatu* orixe ain zuzen. Eta zeñek daki, ori bezela *mundu* ere ola ez ote dan, lati-

ñetik zuzenean jaso, alegia? eta berdin *modu* eta *Apostolu, talentu, joku, kontu, kantu, zeru, Abuztu...* Zeñek daki, zenbat geiago?

Nik gogoan det, Azkue Jaunak bein esan zidana: itz asko ditugula, Latinietik zuzenean artuak, eta oietan *-u-* ori errespetatuta bear degula. Eta *Santu* itzari buruz esaten zidan: *Santu* itza, *Santi* ta Done'rekin batean Latinietik zuzenean jaso genduala, erderazko Saraío'rekin kutsatu gabe, alegia, erdera sortu baño leenago, alegia... Zeñek erabaki ditzazke gauza oiek ain zeatz eta garbi?

*

Guri dagokiguna, gauzak aztertzea da; enkuetaen bidez aurkitu ta ikusi, euskalki guztietan nola esaten diran, idazle zaarrak nola esaten zituzten. Ori bai, ori egin diteke, eta egin bear ere degu. Inkesta, inkesta. Bildu. Bañan erabaki? Ori, kontuz.

* # #

Itz asko ditugu euskeraz, artikuloarekin esaten ditugunean, bukaera *-ua* dutenak, eta artikuloa kentzean, zalantzan gelditzen geranak, bukaera *-u* ete duten, ala *-o*. Adibidez: *santua'ri* bukaerako *-a* kentzen badiogu, zer gelditzen da? *santu* ala *santol*

Argigarri bezela ikus ditzagun beste itz batzuek. *Besua* adibidez, eta *burua*. *Burucfii* artikulo *-a* ori kentzen badiogu, *buru* gelditzen da; bañan fcesua'ri kentzen badiogu, ez da gelditzen *besu*, *beso* baizik.

Adigarri au, errexa da. Bañan gerta liteke zerbait zailtasun beste itzen batzuetan. Asieran aipatu degun "santua"n adibidez; edo-ta "Pazfca"n; *Pazkua* eta *santua* izan bait litezke bi fonetismo —idaztean baztatu bear ditugun bi fonetismo— *ardua ardoaren* fonetismos dan bezela, eta *gozua*, gozua'ren fonetismoa; bañan gerta bait diteke fonetismo ez izatea ere, *urtua* adibidez urtu'ren fonetismo ez dan bezela, ezta *biurritu* ere, *biurrito* baten fonetismoa, berezko esaera baizik.

Nola baliatu giñezke olakoetan?

Oar bat: bukaera *-u'dun* esaten ditugun itz asko, prestamozko itzak ditugu; *Sakramentu, santu* etab. Eta norbaitek pentsa lezake, itz oiek erderaz *-o'dunak* baldin badira, euskeraz ere *-o'dunak* izango dirala. Bañan beti-beti ez da orla gertatzen. Olako prestamozko itzetan ba dira

batzuek, erderatik ez baño, latiñetik zuzenean artuak. Olakoak, bukaera ez dute -o, -u baizik.

Adibidez:

pekatu	tellatu
santu	gaztelu
Sakramentu	mallu
aingeru	kisu
deabru	taratulu
zeru	gobernu
mundu	sentimentu
apostolu	puldamentu
	gertu...

Ala ere, pagus'tik datorren arren, *pagua*, *pago* da, ez da *pagu*; berdin, baita, latiñezko insertus'tik datorren arren, *txertua*, *txerto* da, ez da *txertu*... Hebreozko *Pascha*'tik datorrelarik, berriz, gure *Pazkua*, batzuentzat *Pazku* da, eta besteentzat *Pazko*.

* # *

Orra or, beraz, irizpide-kriterio bat, -o dan ala -u dan jakiteko: goiko izen-errenkada ori dana, -u'duna da; eta oien antzeko beste zenbait ere, berdin. Latiñetik zuzenean artuak dira itz oiek, erdera sortu baño leenago Euskerak Latiñetik artuak —Elizaren bidez batez ere—.

* # #

Beste irizpide-kriterioa: Latiñaren prestamozko itzetatik kanpora, duda-mudatakoan, kendu itzari artikuloa, eta erantsi ondotik numeral "bat" edo "bi". Adibidez, *besua*, *burua*; *beso bat*, *buru bat*.

Ala berean, itza adjetiboa baldin bada, bikotu, duplikatu itza: *gozo-gozua*; *bero-berua*; *itxu-itxua*, *pisu-pisua*... *estu-estua*.

Gañerakoan, itza, aditzaren partizipio pasibotik sortutako adjetiboa baldin bada, beti ere bukaera -u'duna izango da: *ostua*, *ustua*, *gertatua*...

Onart dezagun

Beste aldeko Klasikoak erabiltzen dute formula ori: *onart dezagun*.

Onartu dezagun'en ordez, erabiltzen dute. Bukaerako -fu'ri, u kentzen zaio.

•U kentze ori, noiz egin oi dute? Inperativoan eta Subjuntivoan.

Gauza jakiña da, naiz Inperativoan, naiz Subjuntiboan, formak laburtzera jotzen degula guztiok: aditz-joku luzetik, aditz-joku sintetikora, alegia. *Ikusi dezagun'en* ordez, *ikus dezagun*; *etorri adVven* ordez, *etor adi*; *bildu dezagun'en* ordez, *bil dezagun*, *garbitu ezazu'ten* ordez, *garbi zazu*...

Bide orri jarraituaz, esan oi da beste aldean *onart dezagun*; berdin esan bait liteke *onart ezazu* etab. ere.

Beste kasu bat aditzaren -tu'ri u kentzen zaiona, gure artean ere ba da: adibidez *sinist-erraza*, *sinistu-erraza*'ren ordez. Aditz batekin adjectibum berri bat egiten danean, aditzari olako itz bat erantsiaz: erantzi-bidez egindako adjectibum bat: *siniskaitza*. Berdin baita aditz berri bat, eraxkun-bidez egiten degunean: *berant-etsi*... *etor-berri*, *sarpide*, *etorri-berri*"ren eta sortu-&iáe'ren ordez...

«Noski» Azkue'ren Iztegian

NOSKI'ri Azkue'ren Iztegiak bi esan-nai ezartzen dizkio : *sin duda* bata, eta *tal vez* bestea. Eta *sin duda* dalakoa, AN'ri, ots, Napar Garai'ko euskalgiari egozten dio; eta euskalgi ontako Lizarraga'ren zatitxo bat dakar adibidez : "Joanen ote giñake gu? —Ez noski" = *llríamos nosotros?* —*No, sin duda*. Eta bigarren esan-naia, *tal vez*, Bizkaierari egozten dio, eta zalantzan bezela baita Laburdierari ere.

NASKI ere ba'dakar, *probablemente* esan nai, alegia, eta Napar, Baxe Napar, Laburditar eta Erronkaritar bezela (AN, BN, L, R) Jotzen du.

Ni ez naiz sartuko Bizkaierari eta Laburdierari eta Erronkarierari eta Baxenaparrerari dagokion auzian. Bañan gure Oyartzun'go Naparrerari buruz, badet nik zer-edo-zer esan bearrik.

Izan ere, Oyartzun'go euskeran, NOSKI ez da, ez *sin duda*, ez *tal vez*; bion bitarteko baizik.

la alkar aditzen degun garbi.

NOSKI guretzat, Oyartzun'en, iritzi-itza da, opinio-itza. Eta bakoi-tzaren nor-bere barruko iritzia adierazten du, iritzi sendoa gañera; bañan, ori bai, *subjective* sendoa, ots, norbere-baitako iritzi zalantza-gabea; bañan, au ere bai, *certitudo* ofejección'rik gabea, ez, alegia, berez argi dagon gauzatik datorrena; norbaiten iritzian, *subjective* ala dana baizik.

Itz bitan: guretzat NOSKI beti ere iritzi-bidean dabil, opiniobidean. Opinioa, berriz, guztiok dakigu zer dan: gure adimenaren atxikitasun bat gauza bati, bañan berez ta bere baitan argi ez dan gauza bati; orre-gatik *cum formidine oppositi*, aurkakoaren bildurrez, kontraren bildurduna. Eta *formido* au, bildur au, zalantza-edo, duda-edo da. Ezin esan diteke, beraz, Azkue'k dion bezela, NOSKI *sin duda* garbi-garbi danik, zalantza-gabea, alegia. NOSKI'k beti ere berekin du zalantza zerbait, berezko argitasun-gabetik datorren zalantza.

Bañan, zalantzadun ta guzti, ez da *tal vez* ere bete-betean. *Tal vez* orrek norbere-baitako zalantza esan nai badu batik-bat, ots, *duda sub-*

jetiva esan nai badu. Gure NOSKI'k ez bait-du norbere- baitako zalantzarik; bere baitan sendo dagon iritzia adierazten bait-du baizik... gauzaen aldetik alako argi geiegirik ez daukan arren. Iritzia bera, opinioa, adimenaren atxikitasuna, sendoa da...

Gauza mehetxuak dirala guzti oiek? Bai, alaxe dira. Bañan izkuntzak olakoxe mehetasun eta philosophiak izan oi dituzte. Ederkitxo mugatuak, gañera, izan ere.

Adigarri batzuek argituko digute gure auzi au pixka bat.

Gauza bera berez argi dagonean, ez da erabiltzen NOSKI'rik (*ironice* izan ezik). Ez da esan oi "Bi ta bi, lau dira noski"; ezta "Bigar eguzkia aterako da noski" ere. Ortan ez dago noskirik. Ori gauza jakiña da, gauza argi-argia. Eta iñor ola mintzatzan danean, edonork daki *ironice*-edo ari dana.

Gauza argietan ez bañan, iritzi-gauzetan, ordea, oso ondo ematen du gure belarrietan olako *noski* batek. Adibidez: "—Bigar aita etorriko da, noski? —Bai, noski. Ala uste degu beintzat". "Uste" ori dago esaten, zer esan nai duan NOSKI orrek leku ortan: iritzia, ustea. Naitaezko gauza balitz (eguzkiaren bigarko irteera bezela), orduan ez legoke NOSKI ipintzerik. Bañan naitaezkoa ez danean (iritzi-gauza danean), orduan bai.

Beste adibide bat: "—Gaur zer egun da? —Astelena noski"; esango balu bezela: "Seguru, seguru ez nago, bañan astelena *izan bear du*". Bañan norberak ondo dakianean, orduan ez da NOSKI'rik erabiltzen; orduan "—Gaur? Astelena" esan oi degu bete-betean.

Ala ere, egia da. NOSKI'k *sin duda*^*Ten* antzeko *zerbait* esan nai duana ere. Lizarraga'ren zati artan adibidez: "Joanen otegiñake gu?... Ez noski" = *Sin duda que no*. Bañan olakoetan erderaz ere *sin duda* orrek berak, *opinio subjective certa* esan nai du, ots, norbere-baitan zalantzarik gabea, bañan ala ere *berezko* sendotasunik gabea, okerrerako bildurduna obeki, *cum formidine errandi*. Erderaz *sin duda* bezela, askotan esan oi bait-da, *seguramente que sí, seguramente que no* ere (*hipérbole* apur bat erabilliaz); esandakoaren gaiak berak erabaki bear bait-du, ordea, olakoetan, segurantzi ori nolakoa dan,, gauzarena bera-rena, ala norberarena; askotan norberarena bakarrik izango bait-da; eta orixe da *seguramente* oiek esan nai dutena.

Esan dezagun, berriz ere, laburki: Gure NOSKI, Oyartzun'go NOS-

KI, ez da *sin duda* sollik, ez eta *tal vez* ere; "bai bien arteko", "bieta-rik": *Subjective*, norbere-baitan, *sin duda* da; *objective*, berriz, eta gauzaren aldetik, *tal vez*. Ortan dago gauza onen muña.

Bukatzeko: guretzat, gure NOSKI, etorkizunaz diardugunean, erde-razko *me figuro* edo olako zerbait da: "—Etorriko al-da? etorriko ote-da? —Bai noski" = *Me figuro que sí, es de suponer que sí... Me figuro, es de suponer*, beti ere iritzi-erara; bañan etorkizunaz ez baño, "dago-nez" danean, *parece que* edo olako zerbait izan oi da obeki: "Etorri da noski" = *Parece ser que ha venido... Parece que*, iritzi-erara berriz ere...

Bizkaieraz ba'da gure NOSKI'ren berdintsuko beste itz bat: "antza". "Etorriko da, antza" = "Etorriko da, noski" = *Me figuro que vendrá*. (Azkue'k ez dakar "antza" au).

Goierrri-goierrian ere (Gipuzkoa'n) ba'da oien antzeko zerbait, nik oso ondo ez dakidan arren: *koanto!*: "—Etorriko otedek? —Koanto" = *Es de suponer l...*

Laburdieraz-eta ere ba'da beste itz bat, NASKI'z gañera, olako zerbait esan nai duanik: *-bide*: "Etorri bide-da" = *Ha debido venir, parece que ha venido...*

Laburditarren-eta NASKI'k, berriz, ez dakit nik zer esan nai izan-go duan zeatz-zeatz; bañan, Azkue'k dion bezela, *probablemente* esan nai badu, ez du gure NOSKI'ren antzarik; gurea ez da *probablemente, opinativamente* baizik; eta opinativo, gañera, berriz esanda ere, *subjective* sendoa, norbere-baitan sendoa, ots *probable* baño areagoa, sendoagoa. *Probáble*, gañera gauzari dagokio; *noski*, iritziari.

Andoain'en 1957'gn Abendua'n.

«-di» botanika-atzizki?

Galdera onekin berarekin, orain illabete batzuek, banatu nituan zuen artean, zenbait orri, al zuanak al zuan saio-egin zezala eskatuaz, -di-bukaeradun itzik geienak biltzeko. Biltze ori zertarako zan, galdeak berak zion: auxe jakiteko: ea -di-dun itz guztiak botanika-itzak diran, ala ez : *Elordi*, ta *Zumardi*, ta *Arantzadi*, ta *Zugasti* ta *Intxausti-ta* bezela...

GAUZARREN GARRANTZI ..

Iñori bada-ta, euskaltzañoi dagokigu, gauza au bear bezela jakitea. Ba'dakizute, gure Bazkun onen izena, *-di*-atzizkiduna dala: *Euskaltzain-di*; olaxe asiera-asieratik, 1918'gn. urtetik bertatik. (Laister bait-ditugu gauzaren "urrezko eztaiak"). Eta esan izan da, izen orretan *-di*, oker dagola; *-di* ori, landare-itzakin bakarrik erabiltzen dala... eta euskaltzañak (gu alegia) ez gerala landare...

Gu-geuron artean ere izan da, "Euskaltzaindiaren" izena gaizki eratu dala esan duanik. "Zeruko Argian" ere, sortu-berri zanean, izan zan norbait, Asteoroko ortan orren antzeko zerbait esan zuanik.

Orain, bada: egia al-da, *-di*-atzizkia, "landare-atzizkia" dana? beti landareekin bakarrik erabilli izan dana? Ez al-da gure Toponimian, *-di*-atzizkidun izenik, landare-izena ez danik?

Orixe zan nere galde aren xede ta elburua: azterketa on bat eratzea gaurko euskaltzañen artean, auzi au bear bezela erabakitzeke: "Euskaltzaindi-izena gaizki al-dago?".

Nere orria jaso zutenen artean, batzuren batzuek erantzun dute: Garmendia'taf Juan "Zeletak"-eta. Bañan batez ere Satrustegi Jaunak. Lengo Batzarrean entzun zenduten aren txosten bikaña gauza oni buruz. Bañan, bidezko zan bezela, nik ere ba'neukan izen-errenkadatxo bat gertaturik, gai ontantxe. Eta izen oietxek ezagunerazi nai dizkitzu-

tet gaur. Izenak irakurri, eta irizpide batzuek ezarri, gauza au bear bezela aztertzeke eta auzia erabakitzeke.

EUSKALTZAINDIAZ EESTE...

Guretzat bezela —euskaltzañontzat bezela— gauza onek ba'du garrantzi, Tseste asko ta askorentzat ere, bestelako alde batetik: *Euzkadi*-izenaren aldetik, alegia. "Euskaltzaindik" eta "Euzkadik" izaera berdiña bait-dute gai oneta.

Ba'dakizute —guztiok dakizute— Unamuno'k kritika gogorra egin izan ziona bein "Euzkadi" izenari, gaizki eraturako izen bat bait-litzan. Ark ere gauza bera esan zuan: -c/i-atzizkia, botanika-atzizkia zala; eta neurri ortan, Euzkadi'k, ezer bada-ta, "arboleda de vascos" esan naiko zuala, eta ez "País Vasco" edo "País de los vascos". Eta dirudianez, iritzi orri jarraiki zaizkio zenbaitzuek gure artean ere. Bañan, gauza bear bezela aztertu-ta? izen-bilduma on bat egin-da?

HISTORI-APUR...

Aurrera jarraitu baño leenago, Euzkadi-izenaren histori-apur bat emen berritzea, ez deritzot, iñori alperrikako izango zaionik.

Izen au, ba' dakizute sabindarrak sortua dana —eskola sabindarrak, alegia— "Euskalerriaren" ordezt erabiltzeke, "País Vasco" esan nai danean.

"Euskalerria" izen luzetxoa zeritzoen askori nunbait, eta laburrago-ko izen berri bat asmatu-naia sortu zan baztarretan... XX Gizaldi onen asierako urteak ziran. "Cuestión foral" zalakoa, txitian-pitian mai-gañera ateratzen zan. Eta olakoetan, itzetik-ortzera erabiltzeke izen labur bat asmatu bearra zegoen iñolaz ere. Eta berealaxe asi ziran ortarako saioak. Eta lenengo-lenengotik, "Euskaria" sortu zan: *Euskaria* edo *Euskeria*. Orduantxe ain zuzen, asi-berriak ziran sabindarren lenengo politika-urratsak. Eta guk geurok gogoan degu, nola urte aietan, aldian bein entzuten genduan zenbait donostiarren aotik, oiur au: "Viva Euskaria libre!".

Orra, beraz, saio aietan lenengo-lenengo sortu zan izen berria: "Euskaria" edo "Euskeria". Eta sabindarrak eta sabindar etziranak ere

izen au erabiltzen zuten. "Orfeón Euskeria" bat ere sortu zan urte aietan Bilbao'n.

Egia esan, *Euskeria* izen orrek, askorentzat bi gauza esan. nai zituana: Izkuntza ta Erria. Itz naastu-antzekoa zan, beraz. Eta, zala orregatik, zala beste arrazoi-bide batzuegatik, sabindarrak orduan beste itz bat, beste izen bat, aizatzen asi ziran; obeto esateko, izen beraren beste forma bat: "Euskadi" edo "Euzkadi", gaur oraindik zenbait zaarren ezpañetan "Euskari" irauten duana. Aldaketa, itxuraz, etzan aundia: -ri-atzizkiaren ordez -di ezartzea. (Gaurko *Euzkadi'ren* tarteko -z-orren kontua, beste kontu bat da, emen ikutzea guri ez dagokiguna).

ITURRIETAN GORA .

Bañan gure arirako, jo dezagun gorago.

Dirudianez, sabindarrak baño urte-mordo bat leenago, izan zan beste norbait ere, "forma-ri"ren ordez, "forma-di" erabilli zuana.

Urte batzuek ba'dira, "Euskal-esnalean"-edo, artikulotxo bat azaldu zala —A.. Basilio Gerra frantziskotarrak idatzia, oker ez bagaude— esanaz, A. Uriarte frantziskotarrak, sabindarrak baño gizaldi-erdi leenago erabilli izan zuala "Euskadia" izena bere lanen batean —Zarauz'ko Konbentuan dagon libururen batean—.

Beraz —berriro ere gure arira etorriaz— ikusten danez, sabindarrentzat ezik, A. Uriarte'rentzat ere -tíi-atzizkia ez da botanikakoa bakarrik; "eusko"-izenarekin ere erabilli diteke *Euskadia*.

NERE IZENDEGIA

Digresio onen ondoren, guazen orain, nik pillatu dizutedan -di-bu-kaeradun izen-errenkada ikustera. Berrogeitamar bat dira guzitara, Napparroa'ko, Araba'ko, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko Geografian bildutakoak.

Bañan oar batzuek lenengo.

Errenkada ontan, nik botanika-kutsua duten izen guztiak, baztartu egin ditut. Beraz, nik dakartzidan izenak, botanikaz-bestelakoak dira: batzuek garbi-garbi, eta besteak ez ain garbi, bañan ez botanika-kutsu garbidun ere.

Ala berean baztartu ditut baita •*di'ren* aurretik, -ara-bat daukate-

nak, -tzi'rekin baño -antii'rekin zer-ikusi geiago ote-duten bildurrez; adibidez, Erandio, Arandia, Belandia, Barandi(aran) etab.

-Di'ren berdin egiten ditut, ordea, -dio, ta -dui ta -doi; adibidez Zamudio, Bustindui etab.

Bañan -dio'ren errenkadatik kendu bearra dago *Gomendia*, erderazko *Encomiendai*"rekin daukan zer-ikusiatatik; eta baita *Rokandio* ere, -cii'ren aurretik -am- daukalako; bañan ez *Zamudio* ta *Gojendio*. Ala berean leku-ematen diet zenbait -eie'ri, -cí'ren variante izan ditezkeanez: adibidez *Ozkoide* (Ozkoidi), *Markaide* (Markaidi?), *Etxaide* (Etxaidi?), *Luzaide* (Luzaidi?)...

Atari ta goz'eri'ren atzizkia -di ez ote-dan bildur diranai, iru izen eskeñiko dizkiegu, eredu-bezela, bada-ezpada : *Gortari* Naparroan, *Kortadi* Gipuzkoa'n; *Urkiri* Bizkaya'n, *Urkidi* Gipuzkoa'n; *Gabari* ta *Garbadi* Naparroa'n.

Ona orain nere izen erreskada :

Loidi	Lizundia
Bustindui	Goiri (ikus Goiti)
Arbeldi (var. Alberdi, Albertia)	Bikendi
Arbildi	Emaldi (var. Emaldia)
Guridi	Berridi
Mikeldi	Gabadi (var. Gabari)
Gortadi (var. Gortari, Kortadi)	Ozkoidi (var. Ozkoide)
Zabaldi (Zabaldika)	Laburdi
Goyendi (var. Gojendio)	Anbulodi
Kapildui	Yoldi
Barrundia	Bedia
Ubarrundia	Ziordia (var. Zuordia)
Orbeldi	
Abodi	Ezkaldi
Zamudio	Berrendi
Alkerdi	Txapardia
Asurdi	Txarkadia
Ayerdi (ikus Ayertza, Ayartza)	Txukandia
Bagardi	Erradi
Balardi	Illurdi

Intzakardi	Ayastui
Jakoizti	Ollasti
Zandi (var. Zandio)	Sarduia
Laufiti	Satuya (var. Zatoya, Zatia)
Loití.	Surtadia
Loizati (var. Loizate)	Tautadi
Ausidi	Belendia
Udi	Bezaide (ikus Ozkoide, Ozkoidi)
Izardio	Mereludi
Lendia (ikus Lendoño)	Merdelledi
Okaiztia (var. Okoizta, Akosta)	Trakamaldi
Undio	Urdaide (ikus Ozkoide, Ozkoidi)
Beldio	Luzaide (?)
Pikandi	Etxaide (?)
Aulestia	

Ez ditugu izendagi ontan sartzen, landareak ez izan arren, botanika-kutsu zerbait izan dezaketen zenbait itz : adibidez *Txaradi*, *Txaraduyai*, *Txarákadia* ta *Berazadi*.

BUKATZEKO...

Egia esan: nere izendegi ontakoak baño askotaz ere geiago dira gure Toponimian -tii'dun landare izenak; bañan "geiago" badira ere, ez "guztiak"; saio txiki baten bitartez berrogeitamar izen arkitu ditugu beintzat landareai ez dagozkienak edo gaur Botanikaz expikatzen ez diranak. Eta saio aundiagoko baten bitartez, ez jakin, zenbat geiago pillatu litezkean.

Orain galdera bat, bukatzeko: ikusten dituzuten oiek ez al-dira naikoak eta aski, -tii'atzizkiari botanika bakar kutsua kentzeko?

Andoain'en 1967'gn. Dagonilla'k 25.

Franziskua, Jesusa

La nota publicada por L. M. en la Miscelanea del último número de nuestro Boletín (Año XI, núm. 1.º), nos ha servido a nosotros para remozar el recuerdo de cierto antiguo cantar euskérico, que conocíamos, y donde aparecen pi-ecisamente dos de las formas de nombre propio, que alega L. M. como una singular curiosidad de nuestra antroponimia : los nombres de Francisco y Jesús con artículo *Franziskua* y *Jesusa*.

El cantar en cuestión, es de la vida de Santa Clara; y aún hoy se conserva su texto —si bien un tanto retocado— en Ondarroa, en cuya Ermita de Santa Clara se canta todos los años en forma enormemente emotiva y patética, la víspera y el día de la Santa franciscana, 11 y 12 de Agosto.

El cantar —que, por cierto tiene una muy típica música— comienza de este modo :

Bieta (1) Santa Clara,
euskeraz argija!
zeu zara zeruetan
dontzella garbija,
zeu zara zeraetan
dontzella garbija.

Y en una de sus coplas siguientes dice :

Aita San *Prantziskua*
padriño arturik,
esposa izan ziñan
aitamen ixilik...

Y en otra:

Eskuetan dakazun
gauzaren aundija :

Kustorijo batian
/esiísabizija...

El curioso cantar tiene además estrofas tan expresivas, como las siguientes, tomadas a salto de mata :

Alkargana baturik
arri koskortxuak,
erreza oi zenduzan
Errosarijuak...

«Segura» euskerazko abizen?

Segura, 27 de abril de 1966.

Sr. Dn. Manuel Lecuona, Pbro.

Andoain.

Muy estimado D. Manuel: Llevo ya una larga temporada ausente de ese grupo de traductores. Es por motivos de salud.

Otra cosa : un Señor, oriundo de Navarra, que se llama D. Nicolás de Segura, Berastegui, Lazcotz y Arbizu, que actualmente vive en Asturias, tiene sumo empeño en averiguar si el apellido *Segura* es vasco o no, porque ha oído que sí y que no, porque este nombre aparece también en algunas regiones de España. De todos modos quisiera dar una contestación lo más satisfactoria posible a este Señor. El quisiera que ese apellido fuese vasco. Según parece debe ser muy vascófilo. Debe existir algún impreso que habla de las etimologías de los apellidos vascos. Pero yo no lo poseo. Le agradeceré si Vd. me pudiera dar una explicación la más clara posible de este apellido. Quizá los nombres de los tres pueblos conlindantes: Cegama, Cerain y Segura vengan de una misma raíz.

Muy agradecido le saluda atentamente s. s. y hermano en el Sacerdocio.

Vicente Aramburu

Andoain'dik, 1966'gn. Apirilla'ren 29'an.

Aranburu'tar Bizente Jaunari.

Segura'ra.

Gaur goizean artu det zurea. Asko sentitzen det zu makal arkitzea. Ia lenbailen sendatuta ikusten zaitugun gure Liturgi-Batzarretan.

Paso a la segunda parte de tu carta, referente al apellido *Segura*, para satisfacer a ese Señor tan amigo de nuestras cosas.

No iré por el camino de la etimología, pretendiendo buscársela euskérica a la forma del apellido. La forma, es erdérica; no cabe duda. El apellido, por tanto, no es vasco; pero, aunque no "vasco", es "apellido de vascos". Es decir, ha habido entre los vascos costumbre de tomar el apellido no de forma vasca, sino castellana, por lo que sea; y estos son los apellidos "de vascos" aunque no "vascos por su forma". Y ocurre frecuentemente con nombres de poblaciones, como Toledo, Zamora, etc. Otras veces con nombres de oficios, como Escudero, Pellejero. Otras veces vienen a ser traducciones de un nombre primitivamente vasco, como Bermejo, traducción de un primitivo Gorritxo. Por lo que fuere; pero ha ocurrido esto. Y este hecho nos da una existencia de apellidos de forma no vasca, pero "apellidos de vascos", de gente vasca. Naturalmente esto origina el que haya esos mismos apellidos en otras latitudes, fuera del País Vasco, ya que aquellos nombres han podido ser aprovechados en aquellas latitudes espontáneamente para la función de apellidos; pero eso no quita lo que digo, de que entre nosotros ha habido también la misma costumbre, y por tanto que aquellos apellidos pueden ser y son verdaderamente *de vascos*. Y sin duda es el caso del Señor de quien se trata: sus demás tres apellidos revelan un ambiente completamente vasco: Lazkotez y Arbizu, navarros, y Berastegui guipuzcoano-alavés. El Segura está completamente ambientado en lo vasco al hallarse rodeado de esos tres, de arraigo y forma tan vascas.

Ahora, si aquello de "por lo que fuere" quisiéramos aclarar, tendríamos en nuestro caso una explicación posible en lo siguiente: un segurano —natural de Segura— trasladado a fuera de su pueblo, aun llevando un apellido vasco, está expuesto a que en el pueblo de su residencia nueva, se le Uegue a llamar —apellidar— con el nombre de "Segura". Es lo que ha debido de ocurrir, pongo por caso con individuos procedentes de Vergara, trasladados a Castilla, que han recibido en el pueblo de su nueva residencia el apellido Vergara: lo que empezó por ser una especie de mote, se convierte en apellido. Otras explicaciones puede haber también. Pero esta es suficiente para explicar el caso.

Ahora, el pretender explicar el nombre *Segura* por el euskera, no me parece viable. El nombre *Segura*, procede de una institución social de la Edad Media, de Villas amuralladas, fronterizas de dos reinos, que,

para las luchas entre ellos, constituían verdaderos "seguros" o ciudades de refugio. Segura es fronterizo de dos Reinos: Castilla y Navarra; Castilla a través de Guipúzcoa... O si se prefiere, entre Guipúzcoa y Navarra, en la época en que la raya entre ambos constituía lo que se llamó "frontera de malhechores", por los latrocinios que se cometían entre ambas jurisdicciones. Todo esto es cuestión de instituciones sociales de aquellas remotas épocas. En esa raya están los castillos de Gaztelu zar y Gaztelu berri sobre Otzaurte Echegárate y Gentil-baratza de Atáun o Atavit, y Ausa sobre Zaldibia, y Gaztelu en la zona de Tolosa, .etc, etc. Y entre ellos la población de refugio de *Segura* con su tan expresivo nombre, de recurso para la población civil en caso de guerras... En fin, cosa muy interesante desde el punto de vista de la historia del País...

Ez diot besterik. Ez daukat geiagotarako betarik ere-ta. Eta diodana, barkatu uskutitz au ain asti-gabe egiña izatea.

Zure adiskide.

Ijituen erdera

eaxi = gizon

eaxo = emakume

erromitzel = ijitu

balitxo = txerri

zitzai = katu

kani = ollo

mola = ardo

bokalu = gose

mati = moskorra; matitu = moskortu

mautu = il; mautua = illa

mangatu = eskatu (eskean ibilli)

xaotu = lapurtu

latximur = illargi; latximurtan = illargi-argitan

gutti = pixka; kutiño = pixkatxo bat: "eaxo oni mola kuttiño" = emakume oni ardo pixka bat

kanta melali = moskor partittua

bokaluak iya mautuan gabiltza = goseak iya illean gabiltza.

Métrica Vasca

LA METRICA DEL "CANTAR DE PERUCHO" Y DE "NERE ANDREA" O "KAIKU"

En un artículo publicado en el número Octubre-Diciembrp-1925 de REV. I. DE EE. VV. nos ocupábamos de la recta transcripción e interpretación del "cantar de Perucho de la tercera Celestina".

Al recorrer la bibliografía referente a dicho cantar, nos encontramos con un trabajo de Mr. Julien Vinson, publicado en "Rev. I. de EE. VV." en el tomo correspondiente a 1923, en el cual el sabio filólogo hace un análisis métrico del famoso cantar entre otros.

Desde luego (¿por qué ocultarlo?) el análisis nos pareció un poco arbitrario. Diríase que el Sr. Vinson tiene especial empeño en reducir los cantares con que tropieza, a un par de tipos más o menos acertadamente observados, forzándolos para ello quizás un poco demasiado y complicando algo más de lo justo la trama métrica tan sencilla de casi toda la inspiración (más o menos copiosa, original e interesante, que de eso habría mucho que hablar) de la musa vasca.

He ahí los motivos que nos impulsan a enjaretar estas líneas.

Para la parte positiva de nuestra labor nos remitimos a un discursito de apertura de curso (1) que hace algunos años en una de las solemnes de este Seminario leyera el autor de estas líneas, harto novicio aún en estos empeños. Trátase en él de fijar las reglas métricas a las que el poeta vasco neto (el *bertsolari*), consciente o inconscientemente somete la palabra, cuando pugna por brotar de sus labios en los momentos de inspiración.

(1) "La Métrica Vasca". Discurso de apertura (1918). Seminario de Vitoria.

La musa vasca conserva todavía en su presentación modales de musa primitiva: el *bertsolari* nunca recita sus versos; nuestro poeta improvisa siempre cantando.

Por ello es muy expuesto a error (como muy atinadamente anotó el malogrado Cronista de las Provincias Vascongadas, don Carmelo de Echegaray), el pretender hacer un análisis métrico del verso vasco haciendo caso omiso de su música.

Quizás se debe a este olvido la desorientación que se nota en el Sr. Vinson, cuando analiza la métrica de *Kaiku*.

El Sr. Vinson se fija en el número de sílabas de cada verso, y al hallarlas desiguales queda desconcertado y achaca esto que a él se le antoja defecto, a corrupciones e interpolaciones o a deficiencias de oído en el poeta: no de otro modo que si un principiante en música al examinar dos frases melódicas paralelas se hallase con la para él desagradable sorpresa de que no constaban del mismo número de notas, aun cuando tuviesen idéntica medida de tiempo e idéntico número de compases.

En el verso vasco (y en esto se parece al verso clásico) el número de sílabas puede variar, como en música puede ser varío el número de notas de dos frases pareadas. Ningún defecto hay en ello. Lo que importa que no varíe es el valor total de las sílabas, la suma de todos los tiempos parciales. Aun cuando el número de sílabas sea desigual, si en el número de pies y de metros (unidades métricas) los versos se corresponden, ellos serán tan perfectos como en música lo son dos frases paralelas de distinto número de notas; pero idéntico número de compases.

Se nos dirá que para que esto pudiera ser verdad y para que en Euskera pudieran hacerse combinaciones de sílabas y formar diversos pies, sería menester que en ella las sílabas fuesen capaces de diversas cantidades como lo eran en las lenguas clásicas.

A lo cual contestamos: 1), que ni es cierto que en todo el tiempo que en las lenguas clásicas se versificó por pies y metros, gozaran sus sílabas del accidente de la cantidad tan a la perfección como en los tiempos clásicos; y 2), que tampoco es cierto que el Euskera no tenga, y bien aprovechable, alguno siquiera de los elementos que dan origen a la diversidad de cantidades en las sílabas, cual es, por ejemplo, la acumulación de letras consonantes que en toda lengua retardan la pro-

nunciación de una sílaba, haciéndola más larga que otra en que las vocales se suceden sin tales estorbos.

Reconozco de grado que el *bertsolari* al cantar sus coplas no obedece ordinariamente a tal pauta y que Uegado el caso, trata del mismo modo una sílaba de vocal ante vocal (breve) que otra de vocal ante dos consonantes (larga por posición).

Pero, aun con todo, es que hay algo que nos impida alargar una sílaba sencilla, y llenar con ella el tiempo que de por sí corresponde a dos breves, sobre todo si se pronuncian cantando? Por ventura no estamos acostumbrados a observar tales hechos a cada paso en el canto, sin que proteste de ello el oído más fino?

* * *

Mas bajemos ya de la región de las teorías al campo de la práctica. Empezaremos por analizar, según estas normas, los versos del "cantar de Perucho".

Nuestros lectores conocen el texto original, por lo cual nos creemos dispensados de reproducirlo.

He aquí ahora su medición :

Lélo li/rélo / záraí le/róba...
 Yáz zoe/gia / nántzan;
 áurten e/róa.
 Ai! joat / gábi/ráia;
 ástor u/sóa!

Lélo li/rélo / záraí le/róba.
 Ai! joaat / gábi/ráia
 Astobi/zára;
 é sok a/morari
 gáxo na/tzála,
 pénaz na/tzála;
 dátorke/dála.

Lélo li/rélo / záraí le/róba...

El estribillo *lelo*, etc, tiene ritmo de *zortziko* corriente y regular. Las coplas propiamente dichas (*Yaz zoegia*, etc), nos vienen a resultar *zortzikos* de ritmo quebrado, roto. Queremos decir que en ellas

la sucesión de las combinaciones 3 y 2, 3 y 2 o 2 y 3 propias del *zortziko* corriente o del cinco por ocho, se ve interrumpida después del primer compás (*Yaz zoegia... ai joat gabi...*) por un dos por ocho (*nintzan.., raya*) en los versos 1.º, 3.º, 5.º, 7.º. El 9.º, sin embargo, es igual a los pares y hace que la copla termine con tres versos de ritmo regular y reposado, empalmando de esa manera hermosamente con el ritmo del estribillo que también es de *zortziko* regular.

La machaconería propia del ritmo constantemente continuado del 5/8 de los *zortzikos* corrientes, queda perfectamente neutralizada por el inciso 2/8 que se intercala, según hemos dicho, al fin de los versos impares, sin borrar por ello el carácter de *zortziko* propio del conjunto, lo cual se consigue, a su vez, por un procedimiento bellísimo y muy natural en los últimos versos, en los que queda el oído gratamente sorprendido por una nueva combinación que viene a deshacer la monotonía que podía causar la continua alternancia del *zortziko* quebrado del impar y el regular del par, dándonos una serie de tres versos regulares que nos devuelven al cauce rítmico del estribillo inicial *Lelo li-relo*, etc.

El conjunto, como se ve, no puede ser más bello, variado, artístico y armonioso.

Si quisiéramos emplear la nomenclatura clásica, diríamos que el conjunto pertenece a la serie dactílica, y que el estribillo viene a ser un doble *adónico* o sea, dos dímetros o dipodios dactílicos.

De las coplas los versos pares son otros tantos *adónicos*; los impares pudieran reducirse al tipo *simonidium* si ya el sonsonete de adónico iniciado en el estribillo y sostenido por los versos pares no nos obligase a ordenar los pies en tal forma que el dáctilo ocupe no el centro del tripodio, sino el principio del mismo, dándonos así una combinación de dáctilo y dos espondeos no registrado, que nosotros sepamos, en la métrica clásica.

Pero la necesidad de no prescindir de la música en el examen métrico de una composición vasca se hace más palpable en las que tienen un número de sílabas más irregular: tal es, por ejemplo, la popular "*Nere Andrea*" o "*Kaiku*", que el Sr. Vinson examina en el trabajo a que al principio aludíamos.

De nuestro examen resulta que se tratat de un ejemplar dactílico, donde con cierta irregularidad alternan en cada metro el dáctilo y el espondeo, siendo algunas veces aquél el primero y éste el segundo, y otras, viceversa, y teniendo siempre el último pie del verso par, a saber, el pie del consonante de la rima, cataléctico o de una sílaba aguda equivalente a dos o tres. Cada verso consta, indefectiblemente de dos metros dactílicos, en cada uno de los cuales en los versos impares alternan dos pies, dáctilos o espondeos siendo en total cuatro pies dactílicos los de que el verso consta. En los pares el primer metro es regular (de la alternancia susodicha) pero no así el segundo, en el cual el primer pie es completo (ordinariamente espondeo) mas no el siguiente que según se dijo, es recortado, cataléctico, de una sola sílaba.

En la última estrofa se muda algún tanto la disposición de los versos (no su composición, métrica) intercalando uti pie quebrado ("*Aizazul —Zer naizu?*") de dos dipodios espondeicos que consueñan en *u* con los dos últimos versos, y que viene a ser, como lo confirma la música, una especie de paréntesis introducido para iniciar el diálogo que sigue en el resto de la tercera estrofa y en el estribillo o coro.

La alternancia de acataléctico y cataléctico queda interrumpida en la tercera estrofa que empieza por dos pies quebrados, catalécticos los dos, para seguir con un tercero acataléctico al cual siguen, sin embargo, dos catalécticos regulares que riman en *u* como los dos quebrados iniciales.

El estribillo o coro viene a ser una serie de tripodios dactílicos, acatalécticos los 1, 3 y 9 y catalécticos o agudos todos los demás.

De nuestro análisis (que creemos el único racional para la medición del verso popular y musical) resulta según esto que todos los versos de esta pieza, aun los del estribillo o coro y estrofa tercera, son perfectamente regulares y rítmicos, sin quitar ni poner una tilde, y sin que para ello sea obstáculo el número desigual de las sílabas de los mismos. Véase :

Nére / ándrea // ándre / óna da,
 góbernu / óna du /// auzoa/án;
 ártzen du/élarik // bére / álaba
 Mári / Kátalin // áltzo/án.
 Sán Blas / álderat // nindo/álarik
 mákiltxo / báten // gáñe/án,

árantza / béltza // sártu / zítzaidan
 óspela / núen // óñe/án

— Aiza/zú!

— Zér nai/zú?

Géro're / órrela // múndu / ónetan
 biok / bíziko // gérade / gú,
 báldin / bázera // kónten/tú.

Ník beti / frésku/txórik.

táber/nákoa,
 sótotxo/án de/ráukat
 árdo / góxo/a.

Ai! zer / kóntentu!

ái! zer / álegre!

éskeintzen / dízut,

nére / máitea,

árrautza/txúak / éta

káiku/-ésne/a.

Káiku / káiku // káiku / káiku

káiku / káiku/-ésne/a;

árrautza/txuak / éta

káiku/-ésne/a.

Seminario Conciliar. Vitoria, Noviembre 1927.

Detxepare'ren Bertsifikamena

(AITA ALTUNA'REN LIBURU BAT)

A. Patxi Altuna'k liburu mardul bat egin du, Detxepare'ren bertsifikamenaz : "Versificación de Dechepare" ("Mensajero", Bilbao, 1979).

Gai berari buruzko nere teoria batzuek liburuan txartzat baztartzten diran arren, luzaroan ez det izan nik, liburuia bera irakurtzeko betarik. Bañan, irakurri dedanean, zenbait akats arkitu dizkiot, an egiten dan bertzoen analisisari.

SILABAZ? OIÑEZ?

A. Altuna'k silabaz neurtzen ditu bertsoak; nik, silabaz ez baño, oiñez, pausuz.

Neretzat, Detxepare'ren liburuiko Poema bakoitza, dantza bat da, "ballet" bat. Eta dantzan ez dira neurtzen Poemaren silabak, pausuk baizik, oin-kolpeak, "oiñak".

Dantza bakoitzak, bere barru-barruan eraman oi du bere ritmoa (*ritmio hinario*, *ritmo ternario*) kanta bakoitzak bere barru-barruan bere konpasa eraman oi duan bezela. Kanta bakoitzak bere konpasa, dantza bakoitzak bere ritmoa.

Nik ritmoari jarraituaz, ez ditut Poemaren silabak kontatzen, Poemaren ritmo-oinkadak baizik, Poemaren oiñak. Oin oiek Poemaren barruan arkitu egin bear dirala ezik.

Bañan, gure Jaunak, asiera-asieratik eman bait dio gizonari, bost zentzuez gañera, beste seigarren zentzu bat ere, "ritmoaren zentzua", "ritmoaren sena" psan ditekeana. Zentzu orrek arkierazten dizkigu, dantzaren oin eta pausu oiek (praktikan areago, teorian baño). Edozein neska koskorrek, soñu baten konpas-pare bat entzun orduko, berealaxe ematen dio traza, egin bear duan dantzari. Ori da "ritmoaren sena".

* * *

Latin klasikoaren garaian Latin izkuntzak ba zituan bokal luzeak eta bokal laburrak, eta ala berean baita silaba luzeak eta silaba laburrak ere; eta, neurri ortan, erromatarren bertsogintzan bi silaba luzek oin "espondaiko" bat egiten zuten —guk espondaikoren ordez "bikote" esango diogu—' eta silaba luze bat eta bi laburrek, oin "daktiiko" bat—guk "daktiliko"ren ordez, "irukote" esango diogu—. Eta ola espondaikoak eta daktilikoak elkarrekin egoki josiaz, egiten zuten Poeta latinoak beren bertsoa, beren "poema"; eta neurtu ere, orduko Metrikak ola neuritzen zituan orduko bertsolarien lanak. Oiñez.

Bañan Latin Klasikoaren ondoren, Inperioaren garaian, silabaen luze-laburtasuna galdu egin zan; bañan galduta ere, latin-bertsolariak berdin jarraitu zuten, beren. bertsoak oiñez egiten, espondaikoz eta daktilikoz; luze-laburtasunik gabe, bañan itzen azentoaz baliaturik batez ere éta rimaz bertsoa apaindurik eta aberasturik; orduan eta orla sortu bait zan Erdi Aroko Literatura ain interesgarria. Ordukoak dira, izian ere, besteak beste, Liturjiako Literatura aberatsaren kanta ain entzunak; dala *Parvge lingua*, dala *Lauda, Sion*, dala *Sacris colemráis*, dala *Dies irae*, dala *Stabat Mater*, eta beste giro batean, *Meum est propositum* etab.

* * *

Bertso-giro ortan eta ari orri jarraituaz, egin zituan gure Detxepare'k bere "Linguae Vasconum primitiae" diralakoak, eta, egin ere aipátutako *Pange, lingua*^*rea* neurri-neurrian —*Paivge, lingua* rimaz, aberatsagoa dala, ezik; bañan ritmoan berdin-berdin—. Bertso bakoitza, bi Tetrapodio, bi lau oñeko bait da, oin bikoteak geienak; eta ortaz gañera, bertso akatalektiko amutsa lenengoa, eta katalektikoa "zorrotza" bigarrena.

* * *

Ikus, argigarri, konparagai xume au :

Pange / lingua / glori/osi // Corpo/ris Mys/teri/um.

Mundu/yan den / gizon / orok // behar / luke / pensa/tu.

Bi kantik ritmoz berdiñak dira. Bertso bakoitza, bi Tetrapodio;

akatalektikoa, amutsa, lenengoa; katalektikoa, zorrotza bigarrena. Ark silaba bat geiago; onek ark baño silaba bat gutxiago. Dana "amuts-zorrotz", "katalektiko-akatalektiko"-joko garbian.

RITMOAREN MISTERIOAK

Ritmoak —Hitmoaren munduak— misteriozko mundua dalarik, bera bezelako misteriozko gauzak sortzen ditu bere inguruan : 1) Iru silabako oiñaren misterioa; eta 2) katalektiko-akatalektiko oiñaren misterioa.

Lenengoari gagozkiola, guztiok dakiten gauza da ritmoz bertsoaren oiñak bi eratakoak dirala : oin binarioak eta oin temarioak; bata bi silabakoa eta bestea, iru silabakoa; eta au da misterioa : biok balio bera dutela; bat besain beste erabiltzen dirala biok; estetikaz izan ditezke diferente —irukoa ariñagoa, bikoa astunagoa—> bañan metrikaz, biok balio bera dutela; iruak bi balio, alegia, eta biak iru; itxuraz Matematikaren kontrako gauza, bañan ritmoarjen munduan ala dana...

Adigarri batek adieraziko bait digu gauza garbi.

"Atso ttuntun // gaur ttuntun" deritzan kantu ezagunean, bi silabako lenengo *ttuntun* orrek iru silabako *DIRJJAK* aña balio duala, alegia. Ola

Atso / *ttuntun* // gaur / ttuntun...

Gure / DIRUAK // aittun/ eta...

Olaxe garbi-garbi : oin binario batek aña balio, oin ternario batek.

Beste adigarri bat "San Ignazio'ren martxan". Buka.erako "Ignazio or dago" dioten tresillo famatu auetan :

Ignazio / or dago / beti er/nai dago...

Gure / Patroi / aundi-/a...

armetan / jarria / dauka Kon-/pañia...

Jesus-/en kon-/pañi-/a...

Bi errenkada, orren diferenteak, ritmoz balio bera dutela : bik iruk aña, eta iruk bik aña...

Latinoak beste itz batzuten esaten zutena: bi silaba luzeko espondeo batek luze bat eta bi laburreko daktilo batek aña balio duala ..

* * *

Deprepare'ren liburuan arki ditezke olako konparagaiak naiko au-sarki. Ikus bizpairu "Emazten fabore" dion Poeman.

Adibidez, noiz-edo-noiz *Goiko Jaunaren* ordez, Jaungoikoa, edo *Busturi'ko Madalen'en* ordez, Madalen Busturiko'ren bat arkitzen badegu ere, askotaz ere ugariago arkitzen bait-degu guztion aotan "Goiko Jaun" eta "Busturi'ko Madalen"; orregatik guk gaur nai ta ez, *Goiko Jauna*, Jaun goikoa baño legezkoago dala usteko degu beti; eta berdin *Busturi'ko Madalen*, "Madalen Busturi'ko" baño (1). *Madalen Busturi'ko* Busturiko'ko Madalen'entzat, *De María las grandezas* "Las grandezas de María"-rentzat bezela da: bereixkuntza bat legearentzat bezela. Auxe da gure iritzia.

* * *

Altube Jaunak Euskeran arkitu duan —"arkitu" diot, eta ez "sortu"— arkitu duan legerik ederrena joskerari buruz, auxe da: Erantzunak, bere galdearen beraren joskera duala: "Nun dago Jaungoikoa?" galdeari, "Zeruan dago Jaungoikoa" erantzun bear zaiola; eta "Jaungoikoa dago zeruan" esatea, erderakada dala. Izketan ari geranean, beti ere galdera ezkuturen bati —an barruan darabilkigun galdera ezkuturen bati— erantzuten ari bait-gera.

Lege ederra benetan auxe, lege bizia, euskerazko esakun bakoitzari esan-nai bereizi bat, itzak berez ez duten esan-nai ta intentzio bereizi bat ematen dion legea: (ez bait-da euskaldun batentzat berdin "Aita etorri da gaur goizean menditik" esatea, ta "Menditik etorri da aita gaur goizean" eta "Gaur goizean etorri da aita menditik"... galdera bezain bigun erantzuna egiten duan legea; esan-naiak eta intentzioak eskatzen cluan neurrian esakuna makurtzen duan legea: lege bizia, euskal-belarriidun euskaldun orok aitortuko dizuten lege bizi-bizia...

"Lege onetaz bestela ere esakunak esan oi dirala"? Bai; ta sobera gañera, zoritxarrez; eta zoritxarrez gero ta geiago; eta errietan, baserrietan baño geiago, areago. Bañan, zer nai dezute? Olako esakuneri kale-usaia —erdel-usaia— ez ote-darion, euskera-usaia baífo areago... Bi

(1) Ba'dirudi *Madalen Busturi'ho* ta *Josetxo Oluberri'ko* etab. *antroponimo* bezela daudelako, ola josten dirana; bafian ortaz kanpora beti *Busturi'ko Madálen* eta *Olaberri'ko Josetxo*, da inólaz ere, legezkoa.

euskera-mueta bait-ditugu gure artean: baserritarra ta kaletarra, Donostierra ta Astigarragararra, esate baterako. Kaletarrak, Donostiarrak —ez da oraingo kontua— beti ere baserritarrak baño geiago kalkatzen dituzte beren esakunak erderan. Ortik dator *Sagar bat emango zaitut* eta *Askonai dio, asko maite dio* esatea. Aspaldidanik asi bait-ziran Donpstian olako esakunak. Eta gaur (Donostiarrak bezela itz egin-bearrez-edo) erri txikietaño ere eltzen ari bait-zaizkigu olako solescismoak.

Bañan datu oiek, çasu oiek jaso bear al ditugu ta kontuan euki, oietatik gero legeak ateratzeko euskal-gaietan? Esango ote-du iñork baieztzik? Orra bada: olako asko dago, zoritxarrez, ta gero ta geiago, baztarretan. Beraz, kontuz ibilli bearra dago dato-bilketan, kaso-azterketan... "Altube'ren" lege oietaz bestela ere euskeraz esakunak esan pi dirala? Nun, ordea? Baserrietan ere baietz? Noiztandik, ordea?...

Uki dezagun, azkenik, beste argumentu bat, Mitxelena Jaunak dantzatu oi digun beste arrazoi-bide bat. Klasikoak, gure klasikoak... Oihenart, Axular...

"Axular'ek eta Oihenart'ek ez dituzte josten beren esakunak, Altube Jaunak erakusten duan bezela. Edo-ta obeto: Ba'dakite beste era batera josten ere... Eta oiek dira gure klasikoak, oien liburuak dira leengo Euskeraren dokumental"... Auxe da Mitxelena'ren argumentua.

Gure Mitxelena Jauna —esango al-det?— gure Mitxelena Jauna, izkuntza gaietan jardutean ere, ikusten danez, criterio-historico-zalea egiten ari zaigu. "Dokumentua, guztien gañetik". Ortan biltzen ari da gure lagun on onen kriterioa. Gu, berriz, ez izan criterio-historico-zaleak; criterio-historico-cultural-zaleak, baizik. Dokumentuak ondo daude Historian, Edestian. Beste zenbait disziplina ta ikasbidetan, ordea, beste biderik ere kontuan eduki bear da. Historian bertan ere, dokumentuak bear bezela aditzeko ta interpretatzeko, beste zenbait criterio ere erabilli bear izaten da *errores de perspectiva* deritzanak baztartzeko. Itz batek bederak, bi Kronologi ta bi Geographitan, bi edo iru interpretamen izan bait-litzake. Historiatik landa, berriz, Historiatik kanpora oraindik leku geiago dute beste criterio oiek, criterio culturalak, alegia. Etnologian, adibidez, eta Etnografian; eta berdin, baita, guk uste, Filologian eta Lingüistikan ere. Eta criterio oiek gure arloari ezarriaz, guk

auxe arkitzen degu: klasikoak, zenbait gauzetarako dokumental bikain izan arren ere, ez digutela zuzen-zuzen erakusten beren denborako izkuntzaren izaerarik (2). Ez dirala orduko izkuntzaren benetako testigu, ixpillu ta errañu. Zergatik ez? Beste izkuntza batzuek "eredu" erabilliaz, beren izkuntzari ezetsi egiten ziotelako, beren izkuntzari ikuturen batzuk egin-naiean, beren izkuntza jatorra edertu, obetu-naiean jarduten bait-zuten beren euskal-lanetan. Eta ikutu oiek, erretorke oiek, gezurti biurtzen dute olako dokumental bat.

Gure klasikoen euskerak gugandik bestelako joskera izateak, beraz, ba'du bere zergati ta explikazio. Ez da, ez, erriak orduan bere esakunak ola josten zitalako. Orduko apeta, orduko xedea, orduko klasikoen legea, erderaren antzera josi-bearra zan, konturatu gabe. Ez da, beraz, zergatik jorik gure klasiko zaharretara, gure esakunak nola josi bear ditugun jakiteko; eta klasikoak ola ta ala egiten dutela gai onetan, ez deritzat arrazoi-bide sendo Altube Jaunaren kontra.

Orra nere iritzia.

** * *

Eta gañerakoan, len esan dedana: Altube Jaunaren idazkiak merezi duala gure Boletiniñean argitaratzea, len Mitxelena Jaunaren iritzia Euskaltzaindiaren izenean argitara izan zan bezela.

(2) Ikus nere Euskal-idazleentzako ituni, baserriko enekera bizia.

Altube'tar Seber

(LEKUONA JAUNAREKIN ALKAR-IZKETAN)

Altube'tar Seber'i aurten omenaldi ondo merezi bat egiteko asmoa dabilela-ta, Lekuona Zaarraren iritzia jakin nai izan degu.

— Zer derizkiozu, Don Manuel, omenaldi oni?

— Euskal-Gramatika-alorrean iñork, omenaldi bat ezik, monumentu bat ere merezi badu, gure Altube zana dala, eta aundienetako; baina bildur naizela, omenaldi orretan monumentu bat egin bearrean, Altube'k leendik Erriaren iritzian daukan monumentua, dana desegingo ote duten.

— Zeñek, gero, desegin?

— Omenaldiaren eratzalleak berak: Euskaltzaindikoak.

Bai; Euskaltzaindiko batzuek —gaur nagusienak diranak— Altube'k bere "Erderismos" deritzan liburu bikañean ezartzen dituan arauak, poliki-poliki baztartzan ari zaizkigu, ez praktikan bakarrik, baita teoriar ere.

— Zer diozu?

— Bai. Nik nere denboran, Altube'ren teorien kontra lenengo entzun izan dedan ostikada, Euskaltzain baten aotik entzun izan det, Arantzazu'ko "ixturietako" Batzarrean. Ostikada bat, oso nekez aztuko dedana.

— Lexikoaren alorrean garbizalekeri arbuigarri bat iñoiz izan dan bezela, Altube'k sortu zuala beste garbizalekeria berri bat, Sintaxisaren alorrean: "Joskerazko garbizalekeria"... Olakoan eskuetatik espero al dezakegu ezer, Altube'ren teorien alde?

Au da nere bildurra, nere kezka.

* * *

— Edatuko al zenduke gauza au apur bat geiago?

— Gauza jakiña da, aspaldidanik, Larramendi'ren egunak ezkeru, Euskeraren Lexiko erdal-kutsuzkoa garbi bearrez, saio asko ta asko egin izan dirala gure artean. Eta, azken-aldera, garbi-lantegi ortan sabindarrak batez ere saiatu dirala. Eta lantegi neketsua zanez, denboraren buruan aizkenean erdi-bidezko beste teoria bat sortu izan da gure artean: Lexikoa baño bearragoa dala, alegia, Sintaxisa; eta, Lexikoa ain garbia ez izan arren, etzala ainbeste jolarik; Sintaxisean alegindu bear dala batez ere —joskera jatortzen, alegia...

Tolosa'ko Artzipreste Jaun Don Patrizio Orkaiztegi izan zan, iritzi orren alde bere garaian geiena mintzatu zana. Eta, egia esan, zentzu oneko iritzizat jotzen genduan danok iritzi ori. Eta, Lexikoarengatik ainbeste ajolarik gabe, bide ortatik jarraitu izan degu, buru-belarri, geroztik. Esaeraren joskera lantzen batez ere.

ff

Bide ortan poz berria sortu zan gure artean, Euskaltzaindiaren barruan Sebero Altube bat bere "Erderismos" liburuarekin azaldu zitzaigunean.

Bañan, bide ortan, teori ta praktika, zero sartu-sarturik genbiltzan garaian, or sortzen da bat-batean, leen esan degun beste iritzi ori, *slogan* berri ori: "Lexikozko garbizalekeria bezain garbizalekeri arbuia-garria dala Sebero Altube'ren teoria". Orregatik diot, giro ortan zer espero dezakegun gaurko Batzar oietatik, Altube'ren Teorien alde.

— Don Manuel: bear bada, gaur ez da olakorik gertatuko.

— Gaur ez dala olakorik gertatuko? Obe. Bañan bildur naiz. Gero ta zabarrago biurtzen ari bait gera, naiz Lexikoaren, naiz Sintaxisaren alorrean.

— Esaiguzu, ordea, itz bitan, zertan datzan Altube'ren Teoria? ("Etzan" "datzan" au gaur oso itz atsegiña egin zaigu).

— Altube'ren Teoriari, "Galdekizun-teoria" esaten zaio: *Teoría del elemento inquirido*. Eta ez da Altube'k sortua. Azkue'k sortu zuan, eta, aspaldi batean, bere "Euskal izkinde" Gramatikan agertu.

Diogun bezela, Izkuntzaren Joskerari dagokion Teoria da, Joskerari dagokion arau bat, oñarri-araua. Eta arauaren muña, nik esango nukeanez, auxe da: "Esaera baten joskera, aren galderarena bera da".

Izan ere, esaten ari geran gauza guztietan, beti ere, galdera bati erantzuten ari gera; eta erantzun orrek bere galderaren joskera bera du. Eta Lege orren arauera, esaten ari geran gauza guztietan ba da itz bat "galdekizun" dana. Eta gure Sintaxisaren lege jatorra, auxe da: "galdekizun" dan itza, aditzaren aurrean, berboaren aurrean, ipintzea. Lege ori da gure Joskera jatorraren oñarri-legea. Jator izketan ari geranean, beti ere galdikizun-itza aditzaren aurrean ipintzen degu. Ariera orrek guretzat "lege-egiten du".

— Ipiñi ezazu esaera adigarri bat edo beste.

— Aita menditik dator esaterakoan, nundik datorren esan nai badegu, —galdekizuna "menditik" bada— ola esaten degu: "Aita, *menditik* dator" edo-ta "*Menditik* dator aita". Bañan zein datorren esan nai badegu, beste onela esaten degu: "*Aita* dator menditik" edo-ta "Menditik, *aita* dator". Azkar datorrela esan nai badegu, berriz, onela esaten degu: "*Azkar* dator aita menditik" edo-ta, "Aita menditik, *azkar* dator".

Itz bitan, Galdekizuna, beti ere, aditzaren aurrean. Eta gañerako puskak, naiz aurrean, naiz atzean.

Ori degu, oitura, ori degu Lege, Joskera-gai ontan.

— Lege garbia. Lege erreza.

— Eta Lge ederra benetan. Eta izketan jator ari geranean, zeatz betetzen degun Legea: pentsatzeke —*sponte*— betetzen deguna. Gure pentsamentuaren beraren biguntasuna duan Legea. Or ez bait da, Latin klasikoan eta Erdera klasikoan aipatzen dan joskera-lege zurrun ezur-gogorrik: "Sujeto, verbo, complemento" dion lege gogorrik, alegia; "*construcción natural*" dalako legerik, *corsé* gorontz estuzko legerik; pentsamena bera bezain biguna dan Legea baizik.

— Azkue'k aurkitua?

— Bai; aurkitu eta bere "Euskal Izkindea" deritzan Gramatikan ezarria. Erderaz "Ley del elemento inquirido" esaten bait zaio, eta euskeraz "Galdekizunaren Legea".

Bañan Azkue'k aurkitutako Lege ederra, azkeneko ondorenetaraño gure Altube'k luza ta zabaldu bait zuan gero; eta ain argi ta ederki luza ta zabaldu ere bere "Erderismos" deritzan liburu bikañean, lan

ortan ari danean, matematiko jator bat bait dirudi Altube'k bere teoremak edatzen.

Bañan, ain zuzen —edo ain oker— gu mondragotarraren teoriaren buruki bigun gozoan lo geundalarik, or etortzen zaigu Arantzazu'ko Bartzarrean Euskaltzaindiko jaun ori, Lege eder ori arbuiatuaz : "ez dala olako Legerik", "ez dala beti-beti betetzen, Lege bat bete bear dan bezela".

— Zuk zer derizkiozu iritzi orri?

— "Orixe" zanak esan oi zuan zerbait dakarkidala neri gogora: gauza oiek ao-gozatzeko ta neurtzeko, belarria —euskal-belarria— bear dala: gauza oietan euskal-belarria dala juez, ez beste belarri muetarik; lege orren kontrako joskerak euskaldun jator bati belárrian min ematen diola; eta belarriaren kontrola dala gai ontan kontrolik onena : belarri baserritarra edo baserritar-belarria. Gai oietarako, Jaungoikoaren doai aundia bait da, baserrian jaioa izatea, garanti-gabezi aundia dan bezela, baserrian ez baño beste girotan —kale bilinguetan-edo— sortua iztea... Baserria bera ere gaur erdal-kutsuz naikoa kutsatzen ari dalarik.

— Zer geiago?

— Ez al da naikoa?

Itz bitan : bildur naizela ni, bildur, zer gertatuko.

* * *

Eta ortan, agur-esan diogu alkarri.

Euskal-idazleentzako iturria- baserriko euskera bizia

OARRA.—"Euskal-idazleentzat bi euskal-iturri: idazle zaarak eta aozko Euskera bizia "ipiñi genion izen-buru gaurko ikasgai oni; bañan, ala bearrez, bi iturri oietan neretzat ederrena dana bakarrik aipatuko degu gaur emen : Baserriko Euskera bizia.

Eta beste gabe, asi nadin.

IDAZLE-ESKOLA, NUN?

Gure kolejiyuak
sagardotegiyak.

Ala kantatu zuan bertsolariak.
Ernani'ko plazan izan zan. Bertsolariak ziran Ernani'n.
Lenengoak onela kantatu zuan:

Asitzera dijoaz
predikadoriak,
sekula ixtudiatzen
ibilli gabiak.

Eta bigarrenak:

Batek ainbat deretxo
daukagu guk biyak :
gure kalejiyuak
sagardotegiyak.

Gauza, ez-irudia, alegia; bertsolari ona izateko, kolejioak baño sagardotegiko gizartea maiteago bear.

* * *

Gauza beretsua esan zuan Juan Antonio Mogel Apaizak ere, bere pertsonaje "Peru Abarka"ren aoz: Euskal-kulturaren Ikastola Nagusia, "Basarte" dala, baserria, alegia. Euskal-gauzak sakon-sakon jakin nai dituanak, baserrira jo beariko duala: baserrian daudela benetako "Peru Abarka" k: euskal-kultura-gaietan benetako jakintsu, benetako akademiko diranak.

* # *

Guk ere, gaurko galderari erantzunaz, gauza bera edo beratsua esan dezakegu.

Nora jo bear degu, euskera jator batean parra-parra idazten ikas-teko? Klasikoetara?...

Euskeraren benetako klasikoak, Basarte'n, baserrian bizi dira, eta Euskeraren zirkillu guztiak benetan ikasi nai dituanak, bestelako Klasi-koetara baño areago, baserriarretara jo beariko dute, baserrietako amonaxoetara, ferietako baserriar tratalarietara...

* • *

Izan ere, izkuntza batean ondo idazten ikasteko, erderetan beti ere ori agindu oi da: gau ta egun —*diu noctuque*— aspertzeke jarduteko Klasikoak irakurtzen ta irakurtzen...

Arau arrunt-arrunta bait da ori, erderazko idaz-ikaskizunetan.

Euskeraz, ordea, gauzak sobera bestela gertatzen dira. "Idazle" klasikoak ere bai, bañan, "iztun" klasikoak batez ere, gure "Peru Abarkak", baserriarrak, baserrietako amonaxoak eta ferietako baserriar tratalariak. Baserria da benetako gure Euskeraren Santutegia, benetako gure Euskeraren Ikastola Nagusia.

* * *

Gauza onen arrazoibidea, oso arrazoibide garbia da.

Erderak —dala gaztel-erdera, dala frantzes-erdera— erderak ba dute beren Literatura naiko aberatsa: bai berak urteen buruan oratutakoa,

bai Letiñetik eta Grekotik erentziz artua. Gure Literatura, ordea, ez da orren aberatsa, ezta gutxiagorik ere. Gure Literatura egiten ari gera; oraindño egiña dagona ez dago osotua. Gure Literaturak ez ditu jaso oraindik, Euskerak —Euskeña jatorrak— bere baitan, bere kolkoan gorderik dauzkan izketako edergarri guztiak, ezta gutxiagorik ere. Edergarri bitxi oietako asko, aotik aora dabilta, gure baserrietan mintzatzen dan izketaren baitan, bañan gure Klasikoen Liburuetara jaso gabe. Asko ta asko dago oraindik Klasikoak berentzakotu gabe. Eta ez Izkuntzaren "edergarri" diranak bakarrik, ezta zenbait Gramatika-gai jator diranak ere...

* * *

Ez da oraingo au, lenengo aldia, gauza au esan izan dedana : gure A. Mendiburu'k berak, nafar-euskaldun izan arren, ez duala bein ere aurre-izki *bait* bere Liburuetan erabili, dan. bezain aurre-izki nafarra izan arren. Ezta A. Kardaberaz'ek berak ere. Geiago oraindik, A. Larramendik berak ere ez du aipatzen bere Gramatika famatu-famatuan.

Izan ere, erderazko *particula* causal'en errenkadan ez bait da arkitzen, gure *causal* txiki onen matiz mei-meia duan *particula* cawsaZ'ik.

* * *

Gauza bera gertatzen záie gure Klasiko guztiak beste gramatiká-gai bitxi batekin : euskera jator-jatorrezko *deiki-vocativo* jatorrarekin : "Maria, nora zoaz"en ondotiko "eder galant ORI"rekin ere. Ez Larramendi'k aipatzen du bere Gramatikan; ez Axular'ek berak ere erabiltzen bere Liburu eder bikañean. Aozko gure Literaturak txitian-pitian erabiltzen dualarik. Gure Klasikoak ez dute ezagutu ere, Euskerak duan bitxi berezi-berezi ori : bere *deiki-vocativo* aberats-aberatsa.

Izan ere, Erderaeen *vocativoa* ez da gure orren antzekoa, ez da orren aberatsa; *vocativoak* erderatan deklinabidearen forma bakarra du, kasu bakarra; gure Euskerarena, berriz, deklinabide guztian trabatua bizi da : ba degu deiki egillea, ba degu deiki "egiña" *complemento directo*, ba degu deiki "norikia", *complemento indirecto* etab. etab. erderaz ezin ulertu ditekean era arrigarrian... eta gure Klasikoak ere ulertu ez duten eran.

Egia da, bai, Bayona-aldeko Euskeran ere deiki ori ezgutzen pz!

dana; bañan emengo Klasikoak ere ez bait dute erabili beren idaztietan, ez giputz, ez bizkaitarrak. Orregatik esaten degu Euskera guztia ez dagoa Klasikoetan; ba dirala, Klasikoai ulertzeke "pasa" zaizkien gramatika-gaiak ere.,.

Gauza ber-bera esan bear bait degu, Azkue aundia ezkerro, gure Sintaxisean "elemento inquirido" esaten zaion Sintaxis-arauari buruz ere. Ez dute ezagutzen gure Sintaxisaren urrezko arau bizi-bizi ori, esaeraren joskerari dagokion arau bikain ori. Egia da, geienean esaeraren itzak ondo ta zuzen josten difuztela praktikan, bañan joskeraren teoria bear bezela ezagutzeke, eta orrela, aldian bein txirrixtada nabarmenak gai ortan egiñaz.

* * *

Klasikoetan Euskera dana arkitzen ez dala diogu; bañan ba dago zerbait okerragorik ere gure Klasikoetan : zenbait gauza oker ere erakusten digutela : *zeren*, adibidez, eta *zergatik-eze*, eta *zeña* eta *ain ederra*, *ze...* etab. etab.

Gure Klasikoak, handikap aundi bat izan dute gai ontan beren bizian: erderari loturik —sobera loturik— ari izan dira beren euskel-lanean: erderean eta latiñean kalkatu izan dituzte sobra ere beren esae-rak. Konturatu gabe. Eta egiazki barkakizun dute beren errua. Aien idazle-giroa izan zan alakoa.

Neronek Axular'en GERO'ri orain urte batzuek ipiñi nion Aitzinso-lasean salatu lasean salatu nituan olako oker batzuek.

Garbizaletasuna

HISTORI-APUR

Euskera-garbi-kontuan, gure gogoanean, bi egoera ta iritziera, oso ez-berdiñak, ikusi izan ditugu eta ikusten ere ditugu.

Gure gazte-denboran, Lexikoaren garbitasunari —itz bakoitzaren garbitasunari— garrantzi aundia aitortzen zitzaion. Aita Larramendi'rengandik gauzak ola zetozen.

Eta batzuren batzuek, gai ontan, Lexikoaren garbitasunari bakarrik begiratzen zioten; Sintaxis'en garbitasunari —izkuntzaren joskera j'atorrari— ez ainbeste.

Beste batzuek, Sintaxisa "izkuntzaren anima" dala esaten genduan: Lexikoa, gorputza; Sintaxisa, "anima"; eta Sintaxis'ari Lexikoari baño askoz geiago begiratu bear diogula. Tolosa'ko Artxipreste famatu Orkaiztegi'ren *slogan* ederra da esaera ori. (A. Larramendi andoaindarra eta Orkaiztegi, andoaindarra).

* * *

Euskaltzaleen artean gauza oso jakiña da, izkuntzaren Sintaxis-kontu ori asko astindu eta argitu zuana, gure Altube aundia izan zala. Berak idatzi bait zuan "Ei-derismos" deritzan, gure Sintaxisari buruz iñoiz iñork idatzi duan idaztirik sakonena eta argiena.

Egia da, Altube'k, Sintaxis'ez beste, itzen euskal-jatorri garbiari ainbeste jaramonik egiten etziona; gerra ezkeru batez ere azaldu bait zuan argiago bere iritzia gai ontan: erdal-jatorrizko zenbait itz (*zeru*, adibidez, eta *mundu*, eta *pekatu*, eta *grazia*, eta *barkatu* etab.) Euskera idatzian ere on-artu bear genituzkeala, alegia...

Eta orain, nik ez dakit orregatik ala bestela, gerra ezkeru, Lexikoaren garbitasunean batik-bat, gauzak asko ta asko aldatuak "bilakatu" dira gure artean. Lexikoan...

Bañan, andik laister, ez lexikoan bakarrik; baita Sintaxisean ere aitzitzaizkigun batzuren batzuek, "Altube'ren legeak" kritikatzten... Egia esan, arri-ta-zur egiñik gelditu giñan bein, orain urte batzuek, Euskaltzain bati entzun genionean "Altube'ren legeak estuegiak dirala"...

Egia da, orla mintzatzten diranak ez dirala "jaiotzez euskaldun"; ez dutela nunbait, jaiotzez euskaldun diranai Orixe'k aitortzen dien arako "euskal-belarria" dalakoa gauza auetarako. Gu beintzat arri-ta-zur egiñik gelditu giñan alako esaerak entzutean. Guk beti ala uste izan bait degu, izkuntzak duan gauzarik bearrena ta ederrena, bere Sintaxisa dala; Lexikoa baño areago. Lexikoan barbarismoren batzuek barkakizun dirala, Sintaxis jatorra ondo zaitu ezkeru...

KRITIKA-APUR

Leen, bear bada, lexiko-garbi-kontuan beti ere indarka bezela ari izaten giñan idaztean, itz garbiak buru-belarri nun arkituko indarka. Ariera ori, bear bada, ariera neketsua zan, benetan ezin jarraituzko bide neketsua; bañan, ura zerbait bazan-ta, gaur bide artatik iges-egiteko erortzen ari geran erreka-zuloa, lotsagarria da benetan.

Nekea txarra da idaztean; bañan neke jatorra ez baño alperreria ere izan bait liteke tarte ortan. Alperreria, utzikeria, saiatu-nai-eza.

Gauza ona da errex idaztea eta irakurtzean errextasun ori nabaitzea. Bañan beti ere gogoan euki bear da, izkuntza guztietan izan dala beti, izkuntzaren gaitz txar bat bezela, *barbarismoa* gogor salatzen duan kapitulo bat, Altube'k bere alorrean *erderismo* esango zukeana, bai Sintaxisen, bai Lexikoan.

* * *

Utzikeri orren agergerri, ikusi ditzagun, oraindik "opil erreberri" dan liburu batean arkitzen ditugun troxu arrunt batzuek —bai bait dirudi, euskaltzale jator guztiai bizkarretik far-egiteko idatziak dirala—.

Agergerri bat: "H-ren orriak zabaltzerakoan, *txokantea* egiten da, ez *punturik*, ez *komarik*, ez *minuskularik*, ez *mmuskularik* ez izateak lerroei ematen dien *uniformetasuna*. Baina *puntuazioarenu* edo *narratziok puntuaziorik* ez izatea, ba da *sinbolismo* bat baino zerbait geiago. Sollers'ek egindako *esperientzias narratiboak*, beste *puntuazio* bat (*signoz*

markatu ezin dena) *esijitzen* zion". (...Bost errenkadatan amasei barbarismo).

Beste agerri bat: "Haien *diskurso filosofikoak*, *puntu* eta *komak* eskatzen zituen bezela, filosofia definitu bat barren bizitza bat zuteren *pertsonaia* mamitu batzuen beharrea aurkitzen zen haien nobelagintzaren *desarrolloa*. Azken *finean*, "*historia*" bat asmatu beharrea ikusten ziren, aipatu den *diborzia espresatu* ahal izateko". (...Troxu antan gaia bera illuna ta zalla dan arren, tartean sartu zaizkion amar barbarismoak ez diote egiakzi argitasun ta errextasun aundirik sortu...).

Eta neurri ortan jarraitzen bait du, ondikotz! gure idazleak, arrotz-itzak itzetik-ortzera darizkiola: "giza-kondizioaren literatura", "errebeldia", "abentura", "sentidu", "indeszifralea", "deszifratzeko", "frakasu", "deskribitzen", "deskribitu ezina den deskripzioa deskribitzen nahiaren informea"...

Agerrari oietatik neurri bait diteke, norañoko erreka-zulora erori giñezkean bide ortatik jarraituaz.

Batasuna

Euskeraren batasunari buruz, ez da au lenengo aldiz mintzatzen naizena. Urteak dira. Eta orduan, gauzak bere lekuan ipintzeko, zera esan nuan : Batasuna bearrezkoa baldin bada ere, ez dala "panazea" bat, Euskeraren gaxotasun guztiak berak beste gabe sendatuko dituan panazea.

Gaur bigarren esan bear dedana, beste au da: Batasuna ez dala *bonum in se* dan gauza bat, *bere baitan* ona dan gauza bat, "zerbaitetarako on dan" gauza bat baizik. Zertarako on, alegia? Euskera errexteko, euskera ikasi bear duanari, bere lana errexteko. Ori izan da beti, batasuna eskatzen dutenen apeta, eskea : itz bitan esan : "sinplifika iguzute Euskera, errex ikasi dezagun". Errexte ezaiguzute lana. Laburtu. Errexte...

Eskabide orrek gauza bat gogorazten digu: batasun-bidean zailtasunak kendu, baztatu egin bear ditugula. Eta guk ortara jo nai degu: errextera. Eta ortatik dator, guk h'ri diogun maitasunik-eza. H'k errexte bearrean, zaildu egiten du euskeraren ikasbidea.

Oñarri-oñarrizko arrazoibidea bait da arrazoibide ori. Edozeñek konprendi lezaken arrazoibide argi ta garbia.

Bigarren gauza gai ontan : batasuna, ikasteko bidea errexteko bada, leendik dakianak ez duala noski batasunen bideetara jarri bearrik. Batasunézko legeak ez duala beartzen, leendik euskeraren jabe dana. Euskeraz leendik dakianak, jarraí lezakela bere bidean, indarka ari gabe, euskera berri bat ikasten, bere buraa alperrik nekatzen.

"EZ", "BA" ETA "BAIT" NOLA IDATZI

1) "EZ", bereiz. (Bereizkuntza bat egingo nuke, bi "zeta" elkarrekin topatzen diranean : *ez zerai, etzera; ez ziran, etziran*).

2) "BA" baiezkoa, bereiz; baldintzakoa, erantsia. (BA baiezkoa, BAI baten ordezkari dagolakoan, nik geienetan apostrofoarekin (') idatzi

izan det: BA'DATOR, BAI DATORREN ordez; bañan pozik utziko det nere oitura, eta bereiz, apostroforikan gabe idatzi, geienak ortara jotzen duten ezkerro).

3) "BAIT" beti Bait, eta ez Bai; eta beti bereiz. (ErabiUi izan diran arrazoibidez gañera, neretzat arrazoibiderik asko litzake, idazkera orrek, izkuntzaren batasunari laguntzen diola jakitea. Idazkera *fonetikoak* ez dio batere laguntzen batasunari, bitasunari baizik. *Gramatikazko* idazkera erabilli bearra daukagu, batasuna erreztuko badegu. Gramatikaz *naiko argi dago*, partikula ori BAIT dala, gero fonetikaz, iñoiz, BAI biurtzen bada ere).

Andoain'en 1971'gn Urrillaren 26'an.

El uso de la letra «h» en la Ortografía Vasca

El origen histórico del uso de la letra "h" entre nosotros, es un origen turbio.

En los años de la post-guerra, cuando el Partido Nacionalista Vasco trató de reorganizarse, fue invitado a las reuniones el elemento joven, por los supervivientes del Partido; y entre los jóvenes se hallaba el escritor vasco antiguotarra Sr. Alvarez de Emparanza, que ya para entonces había empezado a usar el seudónimo "Txillardegi".

En las reuniones, el Sr. Alvarez de Emparanza perfiló desde el primer momento para el Partido, una nueva orientación socializante-lai-cista. Desde luego proponía un cambio del lema del Partido "Jaungoikoa eta Lege Zarra", suprimiendo el primer elemento, "Jaungoikoa". El doble cambio propuesto, naturalmente, alarmó a los dirigent.es antiguos, encontrando en ellos una resistencia muy fuerte.

Entre tanto, "Txillardegi", perseguido por la policía a consecuencia de un golpe audaz que dio en la Radio San Sebastián un Día de la Patria, tuvo que ausentarse a Bayona, donde continuó planeando un contrapartido vasco, de signo y orientación opuesta a la tradicional del fundado por Sabino de Arana-Goiri. "Txillardegi" fundó la "Eta".

"Eta" es un anagrama, calcado en el "Jel" de Sabino Arana. "Jel", "Jaungoikoa eta Lege Zarra"; "Eta", "Euskera ta Aberria".

"Txillardegi", al haber de fundar su Eta, había apreciado en el Partido Nacionalista Vasco de Sabino Arana, un detalle muy práctico: además de la orientación y organización política, cierto elemento de pensamiento sabiniano que le ganaba una gran simpatía en el País: una Escuela Vascológica de tendencia a la pureza del léxico, complementado por una reforma de la Ortografía, a base de una escritura muy lógica, adoptando entre otros detalles la letra "x" para el sonido de la "ch" francesa, y consiguientemente la combinación "tx" para el sonido

de la "ch" española. Desde luego repudió el uso de la "h" para la ortografía Vizcaina y Guipuzcoana, adoptando además ciertos modos de expresión nuevas, como el uso del sufijo "-tar" para expresar el valor del "de" de los apellidos vascos, etc, etc.

"Txillardegi", para la propaganda de sus novedades político-literarias, organizó unas reuniones en Bayona, a las que convocó principalmente elementos jóvenes de la parte de acá, y en las que, a imitación de Sabino Arana, expuso, además de sus ideas políticas, ciertos planes de nuevas reglas ortográficas, una de las cuales fue la que luego hubo de convertirse en "el caballo de batalla": el uso, por encima de todo, de la "h", letra repudiada por Sabino Arana, radicalmente para la ortografía vizcaina y guipuzcoana, repudio por cierto en el cual siguió las huellas del P. Cardaveraz, del siglo XVIII, que emplea en su "Eusquerraren berri onac" la frase típicamente repudiativa, "Achea... quen ortic".

"Txillardegi" razonaba esta su novedad "pro h", por la necesidad de unificar la Ortografía de las dos vertientes del Pirineo... Unificación, por cierto, que a cualquiera le parecería más fácil de realizar, desterrando los de la vertiente de allá el uso de aquel signo; pero que "Txillardegi" se empeñó en realizarla por el camino más difícil, de su imposición a los de la vertiente de acá.

Lo violento de la postura txillardeguiana, se manifestaba aún más, por la circunstancia de que hacía medio siglo que la propia Academia de la Lengua Vasca de los Azkue y Orquijo, había dado por buena la Ortografía "sin h", que, en efecto, por espacio de cincuenta años han venido practicando pacíficamente todos los escritores de este lado, con la circunstancia de que se apreciaba que del lado de allá la "h" iba perdiendo terreno cada vez más, calculándose que, pacíficamente, sin imposiciones violentas, al cabo de pocos años la "sin h" sería la ortografía vasca universal.

Tales son los antecedentes históricos, ante los cuales no puede extrañar que la gente vea una relación mutua entre la "h" y la Eta de "Txillardegi", con todas las consecuencias.

* * *

Ahora bien, estando las cosas en ese punto, llego al año cincuentenario de la fundación de la Academia de la Lengua Vasca, fecha que

se proyectó celebrar con sesiones extraordinarias en las capitales de las Vascongadas, Navarra y Bayona.

En la reunión previa que tuvimos en Bilbao por enero del año centenario de 1968, el Académico correspondiente Sr. Aresti —uno de los asistentes a las reuniones de Bayona— lanzó la idea de aprovechar la oportunidad de las celebraciones centenarias, para realizar en ellas la unificación literaria de la Lengua, aspiración de muchos de los estudiosos de ella para una mayor simplificación y facilitación de su estudio.

Inmediatamente se planeó la labor, escogiendo como punto de reunión el Convento de Aránzazu, y encomendando la parte de la Ortografía al Sr. Michelena.

Llegada la fecha convenida •—principios de setiembre— nos reunimos en el Paranimfo del Convento medio centenar de asistentes, académicos y no académicos, muchos de estos íltimos en plan de klak.

Las reuniones, en efecto, tuvieron muy poco de Académicas. Yo las he calificado en alguna ocasión, de verdadero "mitin pro h".

El Sr. Michelena empezó por decir que "suponía que teníamos que partir de las Conclusiones de Bayona" —conclusiones que la mayor parte de los Académicos ignoraba—>. Dada la autoridad del Ponente —y no poco la actitud de los no académicos— nadie se atrevió a hacer ninguna objeción, al principio.

A unas observaciones posteriores que hizo el lexicógrafo P. Plácido Mújica, el propio Sr. Michelena le obligó a callar. El veterano P. Inza, que también se permitió hacer alguna observación sobre la Historia de la "h" en la Literatura navarra, el Sr. Michelena le hizo callar, recordándole su ancianidad para opinar sobre estas cosas. Bien es verdad que en otro inciso el propio Ponente dijo como justificación de su postura, que la postura de los "jóvenes tiene la razón biológica".

Justamente se le escuchó con silencio al Sr. Pierre Laffite, cuando dijo que, por cuestión de unificación con los labortanos y suletinos, no hiciésemos ningún esfuerzo en introducir en nuestra zona la "h"; que ellos en Laburdi y Zuberoa son minoría, y el porvenir de la Lengua está aquí.

El Sr. Chárriton se permitió hacer chistes de mal gusto a costa de los Obispos, chistes que cierto público celebró con aplausos.

A pesar del mal sabor de boca de todo ello, la formulación de las

conclusiones en lo referente a la "h", en el sentido de que su uso era de recomendación y consejo, aquietó a los opositores. Más aún, cuando el propio Sr. Michelena hizo una excepción con respecto a las traducciones litúrgicas, a las que expresa y claramente eximió del uso de la discutida letra.

Circunstancias Políticas adversas, ocurridas en el País el día mismo de las lecciones de Aránzazu, desaeonsejaron la celebración proyectada para la tarde, de una solemne Sesión de Clausura, que habría de celebrarse en la Universidad de Oñate, para la aprobación formal de las Conclusiones derivadas de las Lecciones matutinas, quedando por tanto, dichas Conclusiones sin el requisito de su aprobación formal, de la totalidad de la Academia.

En tales circunstancias nos despedimos todos, cuando, a pesar del carácter de recomendación y consejo del uso de la letra en cuestión, la Secretaría de la Academia empezó a usar la discutida letra, sin tino, en las Actas de las Sesiones de la Corporación. Naturalmente esto ha causado serio disgusto y una reacción violenta en la opinión general.

Desde luego a partir de estas actitudes, se puede decir, que, por unos procedimientos tan poco académicos, se ha abandonado la Ortografía tradicional de la Academia de los Azkue, Urquijo, Eguzquiza, Altube, Eleizalde, etc.

Tal fue, pues, el carácter de las famosas Sesiones de Aránzazu, en las que se quiere apoyar la obligatoriedad de la "h" sesiones de la mínima cantidad de Academia por las cosas que se dijeron, pero sobre todo por la forma agresiva de las Sesiones en que se dijeron.

* • *

Por lo demás y por lo que hace a nuestro equipo de Traductores, no hace falta recordar que él está actuando de muy antes que las asambleas de Aránzazu, actuando dentro de la Escuela euskerista tradicional de la Academia de los Azkue, Urquijo, etc, con una producción literaria de varios tomos en folio, superior a la de cualquier otro grupo literario que haya actuado durante este tiempo en el País, habiendo sido incluso galardonado con un premio internacional de mil dólares.

Es cosa que nadie niega la gran contribución de nuestra reforma litúrgica a la vida de la Lengua.

Aparte de .ello, es de reconocer igualmente la labor de unificación del lenguaje literario que, sin proponérselo, y desde los primeros momentos, ha realizado nuestro equipo, buscando de intento la máxima sencillez gramatical en toda su producción, labor realizada en el máximo empeño y escrupulosidad. Aparte de esto, el trabajo realizado en equipo por traductores de todos los dialectos, juntos, es un procedimiento de los más eficaces, no sólo para lograr un texto lo más unificado posible, sino también para la unificación por selección de formas, en la propia Lengua.

Respecto a admitir reformas que vemos propugnadas por la Academia, la única que no admitimos es la de la "h"; por lo demás hemos admitido en la práctica de las ediciones, las dos o tres que son las más novedosas, como el uso del *dut*, *duzu* por *det*, *dezu*; *derm* por *dana*; el dativo plural en "-eri" por el tradicional "-ai"; el agente plural "-efc" en lugar del tradicional en los dialectos de aquende "-a/c"... pero para los fanáticos , lo esencial es la "h"; letra que no admitimos nosotros por las razones que van expuestas, y además por otra razón de vida práctica, y es porque su admisión en nuestros trabajos nos acarearía más impopularidad que popularidad, y con su admisión nos apuntaríamos más tantos negativos que positivos, exponiéndonos además a que muchos sacerdotes que hoy leen el texto vasco, al hallarse con dificultades como la del "h" —las cosas, como son— dejarían la lectura vasca por la castellana, perdiendo con ello tantos muy importantes la vida de la Liturgia Vasca y la propia vida de la Lengua.

Tolosa'ko Euskera

i

Jaun-andreok :

Tolosa'ko Euskera gai duan itz-alditxo bat eskatu didate. Itzalditxo arin-arin bat egingo dizutet. Guztiontzako neurrikoa.

Nolakoa da Tolosa'ko Euskera, tolosarren Euskera?, nola itz egiten dute tolosarrak?

DIALECTOLOGIA

Gai au, Dialectologiari dagokion gai bat da, Euskeraren Dialectologiari dagokion gai bat.

Euskerak —izkera bakarra dan arren— ba'ditu bere dialectoak, bere bereizkuntzak nunean-nuneango bereizkuntzak. Ez bait-da Euskal-erri guztian berdin mintzatzen euskeraz. Bizkay'ak ba'du bere euskera-mueta; baita Gipuzkoa'k ere berea; berdin baita Naparroa'k ere; eta zer esanik ez, Laburdi'k eta Zuberoa'k.

Gezurra dirudian gauza; bañan alaxe da : Galizia'ko edozein Provintzi bat aña ez gera izango euskaldun guztiok lurrez; eta, ala ere, Galizia'ko lau Provintzietan galiziera bat besterik mintzatzen ez dalarik, gure Euskal-erri txikian bost Izelgi, bost dialecto ditugu. Bost izelgi ain elkarrengandik bestelakoak, desberdiñak, diferenteak... Zenbat urtetzar bear izan ote-dira Euskera bakarrean bost Euskalgi oiek sortzeko ta eratzeko. Ez baitdira nolanaiko bestelakotasunak, gure Euskalgi bat besteagandik bestelakotzen dutenak.

"Ekarri diot" esaten degu gipuzkoarrok; "ekarri deutzat" bizkaitarrak ("ekarri diot": "ekarri deutzat"). Eta berdin "ekai-ri dizkiot", guk; "ekarri deutzadaz", aiek ("ekarri dizkiot": "ekarri deutzadaz"). "Ekarri nituan", guk; "ekarri nebazan", aiek. "Ekarri dit", guk; "ekarri dost", aiek. "Ekarri dizkigu", guk; "ekarri doskuz", aiek...

Aiek eta guk, guztiok, euskeraz diardugularik ere, nolako era berezitara jotzen degun! Orrixe esaten diogu, bada, oietako era bereiz bakoitzari esaten diogu Euskalgi edo Dialectoa.

EUSKALGIAK ETA EUSKALGITXOAK

Eta zer? Tolosa'k ere bai al-du bere Euskalgi?

Tolosa, bete-betean, Gipuzkoa'ren Izelgi-barruan dago.

Esan dezagun, ori-atik, beste itztxo bat ere gai oni buruz, gauzak oraindik obeto txeatzeko.

Euskalgi bakoitzak, dialecto bakoitzak —berdin baita gure Gipuzkoerak ere— ba'ditu bere barruan zenbait Euskalgitxo (ots, *variantes dialectales*) zenbait Euskalgitxo, Izelgi txiki. Gipuzkoa'k dituan ballada bakoitzak ba'du bere Euskalgitxo, bere izketako era berezi. Guztiok, Gipuzko-era dira; bañan bakoitza apur bat bestelakoa, beste balladaetako Gipuzko-eraren aldean bestelakoa.

Tolosa'k bai al-du olako bereizkuntzarik bere itz egiteko eran?

Orra or gaurko nere itzalditxo onen gaia.

TOLOSA, GIPUZKOA'REJV ERDIAN

Gipuzkoa'n Euskalgitxo asko (*sub-dialecto* asko) bizi dira : Beterriko ta Goierriko; kostaldeko ta Azpeiti-aldeko ta Bergara-aldeko, Oyarzun-aldekoz gañera.

Tolosa, Gipuzkoa'ren erdian dago. Ez da, ez Goierri, ez Beterri, ez kostalde, ez Azpeiti-alde, ez Bergara-alde, ez Oyarzun. Guztion erdian dago... Napparroa'ko mugondoan ezik. Napparroatik urrean. Alde ontatik, Azpeitia Gipuzkoa'ren erdirago dago : erdi-erdian. Ala ere, guztion iritzian, beti Tolosa izan-bide-da Gipuzkoa'ren "erdi-alde", Gipuzkoa'ren biotz .

Eta Gipuzkoa'ren erdi-alde izate onek, Tolosa'ko euskerari alako zerbait eman izan dio beti. "Tolosa'ko euskera, euskera ederra" askotan esan izan da, eta oraindik ere askotan entzuten da. Madrid'tar baten aotik entzun nuan neronek oraindikan berriro. Ura ere zer-edo-zer entzuna zan nunbait. "Tolosarrak euskera ederra"...

Zer dakar, ordea, esakun onek?

Begira. Bizkai'an zear bazabiltzate, eta giputzak zeratela jakiten badute, bereala entzungo dezute onako beste esakun au ere : "Geuk Bis-kaixa'n satar berba eitxen dou. Seuek bai, seuek giputzok ederto eitxen dosue". Eta ola, Bizkai'an pozik entzuten diote sermoilari gipuzkoar bati. Berdin, baita bertsolari gipuzkoar bati ere. Eta uste ere Bizkai-aldean ala uste da, bertsolari izateko, gipuzkoeraz kantatu bear dirala bertsuak.

Nundik dator uste izate ta iritzi ori?, nundik Gipuzkoeraren aldeko iritzi obe ori?

Besteak beste, Gipuzkoa'ren "erditasunetik". Bi erditasun dituala, ezik, Gipuzkoa'k gai onetan : lurrez erdi izatea, eta izkuntza bera ere erdi-erakoa izatea. Lurrez erdi, Geographiaz erdi (Bizkai, Naparroa eta Laburdi'ren erdi); eta izkuntzaz ere erdierako : laburditarrentzat adierrez, eta berdin baita Bizkaitarrentzat ere adierrez; iñundik urruti ez; guztiongandik alde-antxa... Ibai-baztar biren arteko zubi bezela : nola geographiz, ala izkeraz. Era guztietara erdi, erdiko ardatz, arteko zubi... "lengua puente, lengua centro".

DIPLOMATIKO-ERRI

Genioz ere berdin gertatzen bait-da. Genioz ere gipuzkoarra, erdi-antzeko da. Bizkaitarra "ausarta eta kaskagogor" esan oi da —aragoitarrara oraindik areago dala esan oi bada ere—. Baztandarra, berriz, ba'dakizute zer esan oi dan dala : "Baztandarra, ttuku-ttuku"... Ezpañetan irri, eta aurrera jarrai, alegia. Berdin bait-da Laburditarra ta Zuberotarra ere... Gipuzkoarrentzat zer esan oi dan, Tolosa'gatik esan oi danak erakusten digu ederki: "Tolosarrak, zuri ederrak" (Ez det bukatu nai esakuna. Ez diot erantsi nai ondotik esan oi dana. Gero ikusiko bait-degu zergatik erantsi oi zaion beste eraxkuntza ura). "Tolosarrak, zuri ederrak" diralako onek, "Tolosarrak, diplomatikoak" esan nai du iñolaz ere.

Tolosarrak, diplomatikoak... Iru Provintzitako apaizgaiak, arabar, bizkaitar ta gipuzkoarrak batzen giñan gu Gazteiz'ko Seminarioan; eta, jakiña, elkarrekin bizi-bear artan, berealaxe sortzen zan gure artean bakoitzari bere etiketa ta izen-goitia ipiñi-bearra ere. Orra bada; bai arabarrak, bai bizkaitarrak, beti ere gipuzkoarrentzat zuten iritzia, auxe izaten zan : "Gipuzkoarrak, diplomatikoak". Ez bizkaitarra bezain asmo-

aundi ta menderatzalle; ez arabarra bezain bildurti ta apal ere; bion arteko : naiko ameslari, bañan naiko esna; naiko bero, bañan naiko otz; naiko biotz, bañan baita naiko adimen otz ere... diplomatiko. Eta olaxe, Seminarioan ixkimillaren bat sortzen zanean, giputzok izaten giñan beti ango asarreak otxantzeko ta itzaltzeko. Ori, betikoa zan. Diplomático, gipuzkoarrok. Nunbait oraindik ere jarraitzen du gure artean, aldi batego Domenjon de Andia'ren genioak. Bañan Domenjon aundi ura tolosarra bait-zan. Eta aren beraren arikoak izan bait-ziran beste arako Tolosa'ko Idiakaiz'tarrak eta ere... Orregatik diot "Tolosarrak, zuri ederrak" diralako esakuntza orrek, "Tolosarrak, diplomatikoak" esan nai duala iñundikan.

Ondotik erasten zaion *paltsu* orrek zer dakarren, zeurok igarriko dezute, gogora ekartzen badezute nolako iritzi txarra izan oi dan beti ta beti, asarre batean "gizon on" eta bitarteko ta diplomatiko sartzen danarentzat. Asarre ziranetatik iñor erg ez bait-da pozik gelditzen bitartekoak, "gizon onak", diplomatikoak egindako "konpontzioarekin". Aientzat diplomatikoa beti ere saldu bat da, saldua, *paltsua*. Ori ola gertatzen da beti, pakea ta konpontzioa egin-berritan batez ere. *Paltsuak* eta *paltsikeria* dira orduko ao guztietako itzak. Domenjon bat, eta Idiakaiz bat eta, askotan izan izanak izango ziran olako *pultso* ta "zuri eder". Ez eskui, ez ezker; ez ganboa, ez oñez; ez txuri, ez beltz; "bai bien arteko"...

Bada, gure genioa, gipuzkoarren genioa erdi-artekoa dan bezelaxe, gure euskera ere, gipuzkoarren euskera ere, berdin da, bien arteko. Baztan ta lapurditarren goxo geiegirik gabe goxo; bizkaitarren laztasun geiegirik gabe garratz... Eta ori gustatzen nunbait guztioi : Gipuzkoa'ko euskera; Tolosa'ko euskera... "Euskera ederra, Tolosa'koa". Euskera ederra Gipuzkoa'n... Euskera cerafralet; euskera "zubia"; guztiontzako euskera... Euskera diplomatikoa.

TOLOSARRAK EUSKERA EDERRA

Jarrai dezaiogun apur bat geiago gure gai oni.

Tolosarren euskerari arkitzen diot nik beste zergati bat ere, euskerarik ederrentzat eukia izateko. Batez ere gipuzkoarren artean... Ez bait-dago Tolosa'ren fama on au Bizkaia'n-eta, bakarrik. Gipuzkoa'n —Tolosa'z besteko Gipuzkoa guztian ere— olaxe uste izan oi bait-da : "Eus-

kera ederra, Tolosa'n". Goierrian batez ere, ala uste oi da. Berdin baita Azpeiti-aldean-eta ere...

Zer du Tolosa'ko euskerak, gipuzkoarrentzat ere ederrago ta ederrera izateko?

Itz batean esango det: ebaite ohea, oguzte ohea, *pronunciacio* ohea—Tolosarrak itza ondo ta astiro ebaiten dute. Patxara obean. Osoroago...

Esan ditzagun gai oni buruz ere itz bi geiago.

PATXARAKO ITZA

Izkuntzaren ebaikerak, oguzkerak, pronw./iciacio-erak, asko dira. Batek aopean esaten ditu itzak; besteak ats-aundiz; batek eztarri-etzarrin, besteak ezpañetan; batek goxo, besteak latz; batek irritsu, besteak illun... Bañan guzti oien artean beste ebaikera bat da jakingarri : ebaikera "utzia" lagia, eta ebaikera "jasoa", txukuna. Erderaz *pronunciación relajada* ta *pronunciación correcta* esan oi dana.

Gipuzkoa'ko beste erri guztiai, ontan daramaio aurre ta bentaja aundia Tolosa'k: tolosarrak itza ondo ebaiten dute. *Pronuncian con mucha corrección y limpieza* esango luke erdaldun batek. Ondo ta garbi ta patxaran itza ebaitea. Sermoilariak kulpituan-ta bezela. Orra or tolosarren bentaja itz-egite-kontuan. Tolosarrak itza ondo ebaki...

MERKATARI, DENDARIAK

Bi iturritatik datorkio Tolosa'ri itza ondo ebaite ori, patxaran itz egite ori. Goierritik, eta bere bizieratik.

Ez dakit zergatik dan, bañan beti ere egia da gure goierriarrak patxarasuagoak dirana beterritarrak baño. Berdin gertatzen da Gipuzkoa'n nola Bizkaia'n. Bermeo ez da Zeanuri Bizkaia'n. Ezta Ondarribi ere ez da Segura edo Zegama Gipuzkoa'n. Beterrian beti ere azkarrago itz egiten da. Goierrian astiroago. Bizi ere, bear bada, alaxe egiten da. Itxas-erriak batez ere, azkarrago bizi bearra izaten dute. Baserrietan patxara ohea izan oi da. Neguan batikbat. Lantegi-erriak ere itxas-erriak bezela, bizikera lasterragoa dute. Gaur dan egunean batez ere. Ibilli, eta jan... eta bizi : dana, azkar eta lasterka —zinean bezela—. Baserrietan bestelako asti bat artu oi da guztitarako... Goierri degu, berriz, Gipuz-

koa'n itxasotik urrutien dagon, eta lantegi gutxiago duan erri-alde, baserri-bizitzak garbiago irauten duan errialde jator: Goierri.

Orregatik da Goierri, astiro itz egiten dan erri.

Orregatik uste det nik baita Goierri dala Tolosa'ko patxaraz itz egitearen iturri : iturri bat. Goierrian ez dagolarik ere, Goierriren mugamugan bait-dago Tolosa.

Bañan ba'du beste iturririk ere; eta au bere baitan, bere barruan. Tolosa, merkatu-erri da. Eta merkatuak ba'du doai ori. Merkatariak, dendariak, beti ere iztun onak oi dira. Merkatariak itza erreza, itza garbia, itza leuna, itza gozoa... Erroma'ko Foroan ere leku berean bildu oi ziran merkatariak eta abogaduak, ots, saltzalleak eta iztunak, retoriakoak. Tolosa'n bertan askok izango dituzute gogoan zenbait dendari, zenbait merkatari, itzjario sonatuak izandakoak, patxara ederrean itz egiñez beren saldu bearrak ederkitxo zuritzen ta zurikatzen zekitenak. "Zuriak". Eta geienez baita "ederrak" ere. Andre eder ta zabalak.

(Tolosarra ez naizelarik, neroni ere entzunik nago olako baten ize-na : Bello'neko Andre Justa. Ain emakume patxaratsua eta ondo ta gozo itz egiña, askok, baserritar askok esaten bait-dute oraindik ere, emakume aren erretaulika gozoa, itz-jario gozoa entzuteagatik beragatik, asko ta asko joaten zirala Bello'neko dendan beren eroskizunak egitera. Neronek Berrobi'ko baserritar bati entzuna).

Andre eder ta zabalak; ain patxaratsu ta euskera ondo ebakian itz egiten entzuteagatik bakarrik, asko ta asko pozik dendara joaten zitzaizkien andre eder zabalak... Zeurok izango dituzute gogoan Tolosa'koak. Beste errietako dendarietan ere izan oi bait-dira olakoak. Bañan, merkatu-erri ezagun-ezaguna danez, Tolosa'n areago ta geiago.

Orra bada, Tolosa'ren beste doaia, gai oni buruz. Patxaran itza ebaitea.

Eta orra, berriz ere, nundik ateratzen dan arako lengo itz ura: Tolosarrak, "zuriak", "ederrak". Merbatariak izan, dendariak izan tolosarrak. Eunka urtez onuztik dendariak, merkatariak. Tolosa dan ezker, dendariak... Orain zazpireun urte ezker dendariak...

II

TOLOSA'KO GRAMATIKA

Villafranca ere, Ordizia ere, dendari-erri, merkatu-erri dala esango zenduten onuzkero zeron barruan : dendari-erri dala Tolosa bezelaxe. Zergatik, bada, ez da esaten Villafranca'rentzat, gure Tolosa'rentzat esan oi dan bezela : "Euskera ederra Villafranca'n"?

Geroxeago erantzungo diot itz orri.

Sakon dezagun lenago, len asitako gaia pixkatxo bat geiago.

Tolosa lurrez Gipuzko-erdian dagon bezela, tolosarren euskera ere erdi-erakoa dala esan degu lentxuago; bañan ez baitdegu, esan besterik egin. Ikus dezagun orain nola dan eta zer dan Tolosa'ko euskeraren erdi-erako izate ori.

Gipuzkoa'n bi euskalgitxo dira oso nabarmen, Gipuzkoa'ko *Dialectoan* bi *sub-dialecto*: Goierrikoa pta Beterrikoa. Bakoitzak ba'ditu bere bereizkuntzak, guztiok ondo ezagutzen ditugun bereizkuntzak. Itz egiteko tankeratik guztiok ezagutzen degu zein nungoa dan. Goierrikoa dan ala Beterrikoa dan batez ere.

Gramatika aundirik ikasi ez arren, guztiok dakigu, *sagar* ta *-a*, *sagarra* dan bezela, *etxe* ta *-a*, *etxea* dala; eta berdin baita *begia* ta *besoa* ta *burua*, olaxe bukaeran *-a*-dun dirala. Bañan Goierrian, *etxea* esaten dan arren, *begia* ez baño *begie* esan oi da; eta *besoa* esaten dan arren, *burua* ez baño *burue* esan oi da. Ots, *i-* ta *u-* baten ondoren, *-a* artikulua *-e* biurtzen da Goierrian : *begie*, *burue*. Berdin baita *i-* ta *w-*ren ordez *in-* ta *un-* danean ere: *sorgiña* ta *laguna* ez baño *sorgiñe*, *lagune*. Eta asko diranean, *etxeek* etxeafe'en ordez, eta *begiik*, *besook*, *buruuk...* olaxe bi e, bi *i* bi *o* ta bi it'rekin. Berdin baita *etxeen*, *begiin*, *besoon*, *buruun...* Beterrian, berriz, efcee«'ren ordez *etxiai* esaten da; eta *begia'ren* ordez *begiya*; eta fcesoaren ordez *besua*; eta zenbait lekutan *burua'vea!* ordez *buruba...* *Casmbio fonético* edo "soñu-aldaketa" esaten zaio alda-keta oni.

Eta Tolosa'n zer?

Tolosa —len ere esan degu ta—' Tolosa ez da Goierri; ezta Beterri ere. Tolosarra etzaie atsegin goierriaren atzeko *-e* ori. Bañan len iñoiz etztzaien atsegin beterritarren *etxia* ta *begiya* ta *besua* ta *buruba* ere.

Nunbait orduan tolosarrak, gauzak Gramatikak eskatzen duan bezela esaten zituzten : *etxea begia, besoa, burua; sorgiña, laguna; etxeak, begiak, besoak, buruak, eta etxean ,begian, besoan, buruan...* Gramatikak eskatzen duan bezela. Eta ontatik etorri zan nunbait berriz ere, arako esakun ura : "Tolosarrak euskera ederra". Ez goierriar, ez beterriko; "bai bien arteko". Gramatikak dakarren bezela, klasikoak —Agirre batek, Lardizabal batek, Mendiburu batek— idazten zuten bezela, kulpitoetan itz egiten dan bezela-bezelaxe... Euskera ederra : ez goiko, ez beko; erdi-aldeko... Orixe da Tolosa'ko euskeraren "erdiko" izatea... Villafranca'koak ez duana. Villafranca Goierri-goierrian bait-dago; eta ango euskera goierriar jatorra bait-da.

ETA GAUR?

Bañan esan dezagun beste zerbait ere Tolosa'ren klasikotasunari buruz.

Euskera klasiko au, len nozpait erabiliko zan Tolosa'n. Gaur, ordea, ez dabilta gauzak bide ortatik. Gaur Tolosa'ko euskera beterrikaldera aldatua arkitzen degu. Donosti-aldera. Nunbait tolosarrai ere kategori geiagokoa irudi zitzairen, noizpait ezkeroztik, beterriko euskera; *etxea'ven* ordez *etxia* esatea alegia, eta *begia'ien* ordez *begiya*, eta *besoa'*ren ordez *besua*... Kategori geiagokoa iritzi, eta berak ere gauzak ola, donostiarrak bezela esaten asi ziran.

Bañan "asi" diot. Asi bakarrik. Eta alaxe da. Oraindik ez bait-dute tolosarrak bear bezela bukatu ta burutu beren joera ori. Oraindik ez dira oitu *burúba* esaten. Eta *begiya* esaten duten arren, ez dizute esango "eman efiyot-ik". *Diyot'en* ordez, *diot* esan oi da gaur oraindik Tolosa'n. Abiadura artuta dago *diyo* ori —eta berdin baita *niyon* eta *rázkiyon* etab.— bañan eldu ez da eldu; *-ya* bai, eldu da; bañan *-yo* ez. Bidean da, orratik; eta urte batzuek barru elduko da *-ya* bezela *-yo*¹ ere, *begiya* bezela *diyot* ere.

Berdin gertatzen da, baita, beste zenbait esaerakin ere, beterriko beste zenbait esaerakin ere. Adibidez, *ditut*, *ikusi ditut*. Beterrian tar-teko *t* ori "busti" egin oi da (*dittut*, *dittu*). Bañan Tolosa'n eta Tolosa'ko inguruetan oraindik ez da bustitzen; *ikusi ditut* da oraindik. Izkuntzaren *evoluioa* esan oi zaio guzti oni. Izkuntza ez "dago" egon : joanean dijoa, aldatzen dijoa. Ori olaxe izaten da. Izkuntza beti ta beti "joanean"...

...

Beste zerbait ere esan dezagun.

Beterriari jarraitu-bearrez, ots, Donostia'ri jarraitu-bearrez— Tolosa'k arturik daukan abiadura, ez da Tolosa'n kokatzen, ez da Tolosa'raño bakarrik eltzen; goierriraño ere eldu da zenbait gauzetan. Eta, arritzeko gauza : abiadura ori Beterrian bertan baño aurrerago eraman izan dute Tolosa'n eta Goierrian.

Begira adigarri bat. *Etxea* Donostia'ko modara *etxia* esaten asita, zenbait lekutan, Tolosa inguruan, txakur bati "Pasa *etxera*" esateko ere "Pasa *etxia*" esan oi zaio; eta berdin baita ganaduari ere "Aida *onera*" ("Aida *onea*") esan bearrean, "Aida *onia*" esaten entzuten da. Bear baño aurrerago joatea bait-da ori artutako abiaduran. Erderaz *^pasarse de losca* esango lizakena. Beterritar batek iñoiz ere egingo ez duana. Utzi-antzean itz egitean ere; "Guazen eta;era"-ren ordez "Guazen *etxea*" esango dizute beterritar batek; bañan ez iñolaz ere, ez ustegabeen ere "Guazen *etxia*".

BUKATZEKO

Eta bukatzeko, beste zerbait ere esan nai dizutet Tolosa'ko euskera-ren inguruan. Nere ustez Tolosa'ko euskerak duan gauzarik bereziena, apartekoena, ezagungarriena, benetan tolosarra.

Beterrian "oraindik" esan oi dana, zenbait aldiz Beterrian bertan esan oi bait-da "oraindikan" ere ("oraindik", "oraindikan"). Goyerrian, berriz, danok dakizute "oraindio" ("oaindio") esan oi dana, Bizkaya'n "oraindiño" ("ondiño") bezela... Bada Tolosa'n, bi erak bat eginda, bion arteko izan bearrez, "bi eskutako" izan bearrez nunbait, "oraindiokan" esaten dezute; ez "oraindio" bakarrik, ezta "oraindikan" bakarrik ere "oraindiokan" baizik. Auxe da nik Tolosa'ko euskerari arkitzen diodan bereizkuntzarik bereziena. Eta onen antzera, berdin baita "orration" eta beste olako zenbait. Goierrian "orration" ta Bizkaia'n "orration" bezela, eta Beterrian "orration" eta "orration" bezela, Tolosa'n "orration".

Eta bukatzera nijoa.

Ba'dakit —sobera dakit— Tolosa'ko euskeraren inguruan gauza aundirik esan eztizutedana. Bañan orrek ez nau ainbeste estutzen. Nigandik etenezateken geiagorik itxaro... Zer-edo-zer okerrik esan ote-dedan... orrek estutzen nau pixka bat. Eta ala bada edota gutxienez aspergarri izan banatzaizute, barbatu.

El régimen de bilingüismo en una Capilla Pública

La Capilla de Berrospe, es un Oratorio Público, cuyo Capellán, por tanto, no está solo al servicio religioso de la Comunidad, sino también y más principalmente, al del pueblo que asiste a sus liturgias.

El Capellán, pues, en su actuación dentro de su Capilla, tiene que atender a la conveniencia espiritual del público, más que a la de la Comunidad. En todo. Concretamente en cuanto al lenguaje a emplear en la liturgia.

El pueblo de Andoain, en la actualidad es bilingüe —vasco-castellano— con una mayoría aún, de vasco-hablantes. El Capellán debe tener en cuenta este hecho, para ajustar a él el régimen de lengua en las funciones litúrgicas de su Capilla. Y, en efecto, así tiene establecido en sus misas, un riguroso régimen de bilingüismo vasco-castellano, alternando ambas lenguas por domingos, pero de tal manera, que el domingo que corresponde la misa en castellano, el Evangelio vaya en vasco con en su correspondiente homilía; y, viceversa, cuando corresponde en, vasco, el Evangelio y la homilía sean en castellano. En riguroso alternado, de tal manera que nadie se quede sin pasto espiritual en ninguna de las misas.

* * *

El hecho del bilingüismo andoaindarra, es cierto. La lengua materna de la mayoría, es la vasca. Lengua materna, la que hablaron en su infancia y aún conservan, a pesar de que vayan aprendiendo también otras lenguas en la Escuela y el Colegio. La consideración que alguien podría hacer, de que "la mayoría conoce ya el castellano", no es argumento para cambiar el régimen tan estricto de bilingüismo. Desde luego, siempre quedará un sector muy importante y muy necesitado, que desconoce el castellano. Y, por otra parte, la consideración de ser la vasca la "materna", debe pesar en todo régimen razonado mucho para su empleo en la liturgia hasta con preferencia, cuanto más en ri-

gurosa alternancia. Por lo demás, el entender justamente una lengua, no justificaría su imposición a los que, teniendo por "materna" la vasca, justamente alcanzan a "entender" la otra. La "materna" no sólo se entiende, sino que se siente y saborea; y esto es lo que se debe buscar en la liturgia. En el pasado régimen latino, había muchas personas castellanas, que entendían también el *Pater Noster* latino; pero ahora confiesan hallar un sentimiento y sabor mucho mayor cuando lo dicen en castellano. Otro tanto ocurre a los vascos con su lengua: muchos de ellos entenderán justamente el castellano; pero no lo sienten ni pueden saborear como el vasco.

* * *

Claro que, para muchos resulta un poco extraña la cabida que hoy se da al vasco en todas estas manifestaciones. Era que, hasta ahora, presiones ajenas a la religión y aun a la cultura humana, trataban de arrinconar para siempre el uso y cultivo de las lenguas vernáculas. Pero hoy ya las presion.es aquellas van cediendo, y las lenguas vernáculas van volviendo a la categoría que por naturaleza les correspondía. Y este hecho en una comunidad religiosa no debe extrañar. El hecho actual está en la línea del Concilio y la *Pacem in terris*. Las comunidades religiosas no tienen por qué secundar y menos fomentar presiones políticas de ninguna clase; sino más bien moverse dentro del derecho natural de los pueblos, protegido siempre y amparado por la Ley de Dios.

* * *

Para terminar esta exposición, tengo entendido, que el Padre que ha dado los Ejercicios Espirituales a la comunidad el presente año, ha abundado en esta misma postura mía. Ahora bien, esta mi coincidencia con él, no quiere decir que, ni previamente, ni con posterioridad yo haya influido lo más mínimo en aquella postura del Padre. Al Padre no lo conocía yo. Ni he hablado con él nunca en la vida, hasta el cuarto o quinto día de su actuación, cuando le saludé justamente, y departimos sola y exclusivamente acerca de su personalidad, para mí hasta aquel momento completamente desconocida. Debo hacer esta aclaración, para evitar interpretaciones de interferencias e intromisiones que nunca me han gustado nada, y menos en el régimen de las almas.

Andoain a 4 de Octubre de 1966.

Alfabetatzea eta Aozko Literatura

Zuen egitekoa, euskaldunai irakurtzen ta idazten oitueraztea da. Izan ere, euskaldun askok euskeraz irakurtzen "ez dakitela" esaten dute. Ez daude oituak, eta "ez dakitela" esaten dute.

— Zergatik ez daude oituak?— Ikastolatan erakutsi etzaielako, oitu ez dituztelako. Bañan baita beste arrazoi-bide bategatik ere : Euskerarentzako iritzi aundi bat, iritzi eder bat, iritzi on bat izan ez dutelako... Euskeraz ikasi? zertarako? merezi al-du penarik?...

Zuek iritzi txar ori kendu erazi egin bear dezute: Euskeraren alderdi ederrak, edertasunak erakutsi...

Zuen lan au, aspaldikoa da. A. Larramendi'k ere olaxe egin bear izan zuan. A. Marianak esanda, Euskerarentzako iritzi txar bat zebillen aldi artan baztarretan: Euskera izkuntza basatia zala, Arterik gabea, Gramatikarik gabea... eta, izan ere, Gramatikarik ezin izan zezakeala alako izkuntza basatiak... A. Larramendi'ri min ematen zion iritzi txar orrek. Egia zan artean Euskeraren Gramatikarik "etzegona"; bañan etzitekeala izan, gañera? —'Ori nik gezurtatuko det— esan zuen bere-kautan. Eta jota-jo, urte batzuren buruan or sortzen du Euskeraren Gramatika eder-ederra 1729'gn. urtea zan. "Ezin zitekeala? *imposihle* zala?". *El imposible vencido* ipiñi zion izen bere Gramatika arri.

Gauza berdintsua gertatu zitzaion A. Kardaberatz'i. —A. Kardaberatz au ernaniarra zan, eta A. Larramendi Andoain'darra— biok auzoak. Euskera oso maite zuan. Eta min zuan berak ere, Euskerak Gramatika bai, bañan Retorikarik ez izatea. Eta entzuten ere bait-zituan berak ere era artako esaerak: Gramatika bai, bañan Retorikarik etzuala, eta etzezakeala gañera; ain itsusia zala, ain elegantzi gabea... Eta berak ere alako batean an ekiten dio lanari, ta denbora puska baten buruan or ateratzen du Euskeraren Retorika : "Estilo guztiak ba'ditu gure izkuntzak : estilo seriyua, estilo irritsua (ironikua), estilo asarrea, estilo goxoa... Entzun besterik ez dago emakume arrai-zaleak nolako demandak egin oi-dituzten asarretzen diranean! nolako etorri ta itz-jarioa!"...

Ari ontan jarraitu bear dezute zuek ere: jende xumeari Euskeraren

edertasunak ezaguerazi : ba'degula Gramatika; ba'degula Retorika; ba'degula baita Literatura ere. Eta ain xuxen ni gaur zueri Literaturaz mintzatzeraz deitu naute. Literaturaz, Euskerazko Literaturaz.

— Zer Literatura, gero? esango du norbaitek. Esaten ez dute, bada, XVI gizaldira-arte euskeraz ezer eskribitu ez dana? Bernard Dechepare izan zala XVI gizaldian lenengo-lenengo bertso-liburu bat euskeraz argitaratu izan zuana?

— Bai, ori ala da. Bañan orrek ez du esan nai Euskerak Literaturarik izan ez duana XVI gizaldira-arte, XVI gizaldian bertso aiek inprentatu ziran arte. "Ba'da munduan beste Literatura bat" inprentatu gabekoa, eskribitu gabekoa : "Aozko Literatura", "*Literatura oral*" esan oi-zaiona. Eta "Aozko Literatura" Euskerak izan du, Erdera sortu baño ere leenago ere.

Bañan ikusi dezagun, aurrera baño leenago, nola litekean Euskeraz XVI gizaldira-arte idatzi ez izatea. Arritzekoa dirudi; bañan ez da ain arritzeko. Erderari ere gauza beratsua gertatu zitzaion. Erdera ere XIII gizaldira-arte batere-ez edo oso gutxi eskribitzen zan. "Idatzi? latinez". Ori zan XIII gizaldia baño leenagoko oitura; oitura ta iritzia; etzitzaien iruditzen erderaz idatzi zitekeanik. Euskerari ere berdin gertatu zitzaion. Erdjeraz XIII gizaldian asi ziran; euskeraz XVI garrenean... Iru gizaldi... Ez da milla diferentzi...

Beste galdera bat orain : "Aozko Literatura" ba'dala, Idatzitakoaz gañera... Nola etzaigu bada esaten olakorik gure Literaturaren Historietan? A. Villasanteren Historiak ez du aipatu ere egiten... Ala da : ez balitz bezelaxe, edo aitatzea merezi ez balu bezelaxe... Ez dakit ori nola izan dan, nola gertatu zaion utsune ori Aita Villasante jakintsuaren *Historia de la Literatura Vascd'ri*. Bañan Mitxelena'ri etzaio olakorik gertatu. Mitxelena'k jakin du *Literatura Oral* dalakoari bere garrantzia ematen. Arenak dira orain aipatuko dizkitzutedan itz auek : "La literatura popular vasca, esencialmente oral, es probablemente tan rica y tan variada como la de cualquier otro pueblo". Eta beste bein dion bezela, "A diferencia de la literatura escrita, la oral es abundante y variada. Esto puede quedar bien sentado...". Eta bertsolarietaz onela dio beste bein : "Es seguro, que, de la enorme masa de verso vasco se podrá extraer un número suficiente de composiciones que no desmerecerían en absoluto de una antología de la poesía popular europea".

Ola mintzatzen dira, gauza au bear bezela ezagutzen dutenak. Ba-

ñan ikusten danez, ez dute danok ezagutzen bear bezela. Eta mintzatu bear lutekenak aipatzen ez dutelako, asko ta asko bizi dira olakorik jakin-gabe : Eskribitutako Literaturaz gañera ba'degula beste Literatura bat, askotaz zaarragoa eta askotaz ere interesanteagoa, Mitxelena'k dion bezela munduan beste edozeñekin berdinkatzekoa...

Orain berriro gertatutako kaso bat esango dizutet. Etzait neri gertatu; Euskaltzaindiko gure Sekretario San Martin Jaunari gertatu zaio: Bera Bartzelona'ko publicista guztiakin artu-emanen bizi da; eta askotan eskatzen dizkiote, ango Antologietan argitaltzeko, emengo Poesi-gauzak. Eta berak bidaltzen dizkie emen saritzen-ta diranak. Bañan bein angoak izan ziran Poesi-troxu bat berari bidali ziotenak; poesi-troxu bat, galdetuz ea Poesi ura euskerazkoa izan ote-zitekean, berak etziotela antzik ematen-da... Eta, zer izango-ta, berak, gure San Martiñ'ek, bere amari askotan entzuten zion seaska-abesti bat: errikoi-errikioia, bete-betean Literatura oralean sartzen zana; bear bada zeurok ere entzungo zenduten :

Basa-txoritxu mustur-luzea :
ez igan zerura billa;
aingerutxurik bear ezkerero,
orra or nire mutilla.

Larrosatxuak bost orri daukaz;
klabeliñiak amabi;
gure seintxua gura debena
eskatu beio amari...

Arritzekoa: Bartzelona'n, len emendikan bidalitako Poesi guztiai baño garrantzi aundiagoa eman ziotela kopla-pare oni...

Orra bada, nolako arrigarriak eta txalmak ematen dizkigun poesi errikoiak, Literatura aozkoak, Literatura eskribi-gabekoa...

Ikusi dezagun orain zenbat eratan arkitzen degun Literatura klase au gure artean.

Nik dana ez aipatzearren, iru gauza aipatuko dizkitzutet.

- a) Ipui-literatura;
- b) Poesia;
- c) Bertsolariak.

IPUIAK

Norbaitek uste izan lezake, gure Ipuiak, Don Jose Migel Barandiarren'ek erritik jaso ta bildurik argitaltzen diran oiek dirala. Oiek Ipuiaren gaia besterik ez dira : gaia, *gioia*, eskeletoa; aragia bear dute, *ipui-literatura* izateko; eta aragi ori ipui-zaleak eman bear dio ipuiari; ipui-zaleak, ipui-kontariak. Bi gauza oiek osatzen dute ipuia : gaiak (*gioiak*) eta ipui-kontariak: eta beste irugarren bat gañera : ipui-entzulea, edo ipui-entzuleak... Beste gañerako erri-literaturak bezela, ipui-literatura ere *fenómeno social* bat da... Eskeletuari aragia ipiñi bear zaio, ipuia osatzeko; eta ori kontariak egiten du; eta bat-batean egin gañera; gauzak berak dakarkian bezela... [Oñati'ko Apaiz itxua... Tobias'en historia... Mutillak, makilla ta txakurra; aitak, kontseju onak biderako (lagun onak, nola ezagutu, elkarrekin otordu etab.); amak, zakotea biderako... Zer ipiñi otzan, ba? Etxakijau ba : makallaua-edo].

[Kontariak? a) amonak; b) apaizak Testamentu Zaarra; d) bestelako kontariak, tabernatan-da... algara batean eukitzen dituzte entzuleak... betiko ipuiak, bañan modu berri batean... I, Delfino, kontazak "Estudiante tonto"-rena].

Temak, gaiak : ederrenak, mundu guztikoak... Ala ere esan liteke "euskaldunak" dirala; ez euskeraz esaten diralako bakarrik, esaten diran graziagatik ere bai.

Ez da bearrezkoa gaiak "originalak" izatea; moduak bear du originala, bizia, bizigarria...

Autentikoa bear du izan, jatorra; ez dedilla izan beingoa, betikoa baizik, oiturazkoa, errian giroa duana, afizioa... Eta ontatik ba'dute gure ipuiak, gure Ipui-Literaturak; benetako autentikoa da : ba'ditugu gaiak, ba'ditugu kontariak, ba'degu erria, entzuleak...

Originalitate osoa izan ez arren, izan lezakete puska. Esne-saltzallearen ipuiak ba'du puska bat, originala : bere ametsen erdian, auzokoak "Agur, olakotako etxeko-andre" esatean, berak erantzuteko burua makurtzen asi... Eta agur, nere esne-ontzia! Beste izkuntzetan, txirrixatu-edo esan oi-dute...

Iru semeren ipuia osorik original izan diteke : Munduz-mundu joatekoan aitak bati igitaia eman, besteari katua, ta besteari ollarra Zenbait erritan oraindik katua ezagutzen etzan lekua, alegia; ezta ollarra ere; ezta igitaia ere... pre-historiaren oiartzun jatorra...

KOPLARIAK >

Koplak kantatzea ta koplak entzutea, beste *fenómeno social* bat da gure artean. Ba'dira koplak; ba'dira kantariak; ba'da entzuteko oitura ta afizio...

Tabernetan-da esan degu leenago, ipuiak esaten dirala... kontatza-
Ueak, grazidun kontatzalleak...

Berdin baita bertso-kantatzalleak ere; kantatzallearenak berarenak, eta baita besterenak ere : Xenpelar'enak-eta...

Bañan, koplariak :

a) errondatan; b) erromeri eta billeratan; d) antziña baita illetae-
tanere...

Errondak: Gabon, Urtezar, Santa Ageda, San Juan, Iñauteri... Eta kopladi ederrak...

Billeretan: dantzarako, zaldabai edo pandereta-soñuarekin; grazi aundidunak: "Arin-arin eiten dau -soloan erbiek... Utsean eiten dituz-punturik erdiek". "Abarketa txurijak - zinte ta ebilla; ez giñala etorri txotxolo orren billa". "Aputz eta Polañe - ibilli zirian yantzan - Igartuko Landan - Garixume Santan".

Erromeri-lekiiak : Ermitak eta Landak : "Maru-Landa" Leintz'en; "Igartu'ko Landa" Zeanuri'ko Ipiña-burun-edo... Oiturak; kantadun oiturak, literatura-oiturak...

Illetetan : Mondragoe'ko Illetak; Alos-torreko illetak...

Kopla zaarrak gauza jakingarri asko dituzte : beren musika, musika zaarra benetan (Eztaietakoak batez ere; beste gauza berezia ere bai bait-dute : *toberak* eta *txalaparta*... gaur ain gogoz entzuten dan txalaparta).

Kopla zarrak eta beren batasuna; ez bait-dirudite batasundunak di-ranik; bi erditan etenak baizik... Adibidez : "Eder zeruan izarra - erre-kaldean lizarra... Etxe ontako nagusi jaunak - urre gorrizko bizarra". "Goiko mendian edurra dago; errekaldean izotza... Neu zugandik libre nago-ta - pozik daukat biotza". Batasun ezkutu bat daukate... barru-ba-rruan... izotza ta maitasunaren beroa galdu duan biotza... Misterio aundiagoko zer-ikusia "izarraren" eta "bizarraren" artean : *magiazko* zer-ikusia...

BERTSOLARIAK

Gaurko egunean gure Aozko Literaturaren gauzarik ezagunena, Bertsolariak dira. Bertsolaria ta bertsolarien bat-batean bertsoak *botatzeko*

gaitasuna. Ez bait-da munduan, oraintxe, beste leku askotan, olako gaitasunik. Eta beti ere *fenómeno social* bezela. Saiatuaren puruz *norbaitek* bat-batean botatzea, izan liteke. Bañan bertsolari-ekipoak izatea erri batean, iñork ortarako eragin gabe, iñork ortarako eratu ta organizatu gabe, erriaren beraren barruko indarrez... ori emen bestetan ez da gaur ikusten. Oitura bat geiago: literatura-era bat geiago, bañan erriaren erraietatik ura iturritik bezela jario... Orixe da bertsolariaren izaera.

Leen ugariago ziran munduan bertsolariak; gaur oso urri dira... Afrika'n Sahara'n; Asia'n Afganistan'en; Ameriketean, Tierra del Fuego dalakoan eta Kuba-aldean...

Bañan iñun ere ez emengo eran : Orduak eta orduak bertso kantari, edozer gaitan: batek bat esan, eta besteak erantzun, dana koplatan, kantuan...

Ez nijoakizute ezer geiago esatera...

KANTA XAAR POLITAK

1. Mariya : nora zuaz
eder galant ori?
—Iturrira, Bartolo,
nai badezu etorri.
—Iturriyan zer dago?
—Ardotxo txuriya.
Biyok edango degu
nai degun guztiya.
2. Madalen Busturi'ko :
gabian-gabian
errondian dabilta
zure portaian.
Ai! Madalen! Madalen!
Ai! Madalen!
Zure billa nenbillen
orain baño len.
3. Aurtxo txikia negarrez dago ;
ama, emozu titia.
Aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokalaria.
4. Lua, lua, *txuntxurrun-berde*;
lua, lua, masusta...
Aita guria Bitoriya'n da
ama manduan artuta.
Aita guria Bitoriyan da,
ama manduan artuta;
aita guriak diru asko dakar
ama periyen salduta.
5. Uso txuriya, errazu,
norat joaiten zeran zu?
Espainia'ko portuak oro
elurrez beterik dituzu;
gaur gaberako ostatu
gure etxean ba'dezu.
—Ez nau izutzen elurrak
ez-eta-ere illunak;
maiteagatik igan nintzazke
gabak eta egunak...
Gabak eta egunak,
desertuan oianak.

6. Kukuak kantatzen du
 Mayatzian *kuku...*
 Andreak ba'dituzte
 milla matrikula.
 Oyian etzaten dira,
 gaxorik daudela;
 estamuko txulotik
 sentitzen dutela.
 —Eta zergatik? Kuku!
 Txokolatiagatik;
 mama goxuagatik;
 mixtelagatik;
 Kariñenagatik; Bizirik ez al
 jeikiko su-emanda baizik!
7. Donostiya'ko iru damatxo,
 Errenteriya'n dendari;
 josten ere ba'dakite, bañan
 ardo edaten obeki...
 Eta *kriskitin, kraskitin*
 arrosa krabelin...
 Ardo edaten obeki.
 Donostiya'ko neskatxatxuak
 kalera nai dutenian :
 —Ama : piperrik ez dago-eta
 banua salto batian...
 Eta *kriskitin, kraskitin*
 arrosa krabelin...
 Ba'nua salto batian.
8. Baratzako pikua
 iru txorten ditu...
 Neska mutil-zaliak (bis)
 anak arin ditu.
- Ankak ariñak eta
 burua ariñago;
 dantzan obeto daki (bis)
 arta-jorran baño.
 Arta-jorrara nua
 lúberr-berrira;
 artua jorratuta (bis)
 belarra sasira.
9. Abarketa txuriyak,
 zinta ta ebilla...
 Ez giñala etorri
 txitxolo orren billa.
 Ai! Mutill anka-luze,
 txotxo armario...
 galtzontzillo-borlea
 nernatik dario.
 Gaztaña-koloreko
 begitxu baltzakaz,
 ondo engañe nozu
 berba labanakaz.
10. Pikak eguak xuri-ñabar...
 amorantiak ba'ditut amar.
 Ni batek banarama bigar,
 pena duyenak in beza nigar.
 Bortañuan eder giltza...
 Amorantiak badabiltza.
 Nik ba'dizut baten itza;
 zeñek beriak xerkatu bitza.
 Itxasoa laño dago
 Bayona'ko barraraño...
 Nik maite zaitut, maiteago,
 txoriak bere umeak baño.

Usurbil'go alfabetatze-ikastaroaren bukaera

Ikasleok :

Euskeraz, gutxi irakurtzen da; lezateken askok eta askok ez dute euskeraz irakurtzen. Erderaz geiago egiten dute.

— Euskera, izkuntza zalla da —esango dizute.

—• Itz-egin, egiten dezu, ba? —erantzungo diezu zuk.

— Itz-egin, bai; irakurri, ordea, oso zail egiten zait. Euskerazko idazleak, nerretzat, oso zail idazten dute —esango dizu berak.

— Ez da olakorik —erantzungo diozu zuk—•. Zuk oiturarik ez dezu; orixe da guzia. Euskal-kultura falta dezu... *Alfabetatzea* falta dezu.

4c 4e

Alfabetatzearen Histori labur bat esango dizuet gaur. Alfabetatzearen Historia, Euskalerrian eta Euskalerritik kanpora; leen eta orain. Ez bait da oraingo kontua bakarrik; aspaldidanikoa baizik. Ez bait da gure problema bakarrik; leku guzietakoa izan bait da baizik.

TF TF "fr

Alfabetatzeak, problema garratz bat ipintzen digu begien aurrean : nola liteken, Euskalerrriak izkuntza bat izan, izkuntza bizi-bizi bat, eta *idatzia* ez izatea eta *irakurria* ere ez luzaroan, gizaldietan, askoren artean. Ala bait da, izan ere. XVI gizaldira arte etzan euskeraz ezer ere *inprentatu*; eta idatzi ere, gutxi, eskuz idatzi ere, oso gutxi.

Ez al da ori, utzikeri ta ajolakabekeri izugarri bat izan? Gure aurreko aiek ez al ziran, ajolakabe lotsagarriak izan?.. Orra problema.

Gaur, bai, ala esango genduke eta ala izango litzake : utzikeri lotsagarria. Bañan aientzat ezin esan liteke ori, ola, *nolanai*.

Euskeraz gañerako beste izkuntza guztiakin ere berdin gertatzen bait zan. Izkuntza bizi ederrik asko munduan izan arren —millaka ta milla-

ka— etzirala idazten. Idatzi, izkuntza berezi-berezi batzuetan bakarrik egiten zuten leenagoko gizonak. Etzitzaien iduritzen, beren izkuntza arrunt aietan ezer idatzi bear zanik, ezta idatzi zitekeanik ere. Izkuntza arrunt aien gañetik, ba ziran izkuntza kulturadunak; eta izkuntza kulturadun aientzako uzten zuten idazte-arazo ori.

* * *

Izkuntza kulturadun oiek, emen, gure inguruan, grekoa ta latiña, ta aizkenik, gaztel-erdera prantzes-erdera izan ziran.

Gure Erdi-Aroan, baztarretan ainbeste ta ainbeste izkuntza itz-egiten, bañan idatzi, dana latiñez : emen, eta berdin Alemania'n, eta Frantzian, eta Ingalterra'n, eta berdin Espaiña'n. Erdi-Aroan ori.

Erdi-Aroa baño leenago, berriz, dana grekoz, griegoz. Erroma'n bertan, Ciceron'ek zionez, emakume berdura-saltzalleak berak ere, grekoz ba zekiten, eta, ikusten danez, grekoz egiten zituzten beren saldu-erosietako paperak. Erroma'n ori, latiñaren seaskan bertan.

Itz, latiñez; papera, grekoz... Paperak beti izan du itzal ori. Papera beti izkuntza kulturadunean, izkuntza jakintsuan egin bear zan..

Bañan, ez Erroma'n bakarrik; baita Jerusalem'en ere. Antziñako Testamentua bera, Jesus'en denbora baño leenago hebreotik grekora itzuli izan zan. Jesukristo baño 200 urte leenago, Ejipto'ko Errege Tolomeo Filadelfo'k, bere Alejandria'ko Biblioteka ederrerako eskatuta, 70 judeo jakintsuk egin zuten itzulketa otsaundiko ura : *Septuaginta*.

Orain bi milla urte ta geiagoko kontua da ori. Grekoa zan orduko izkuntza kulturaduna, izkuntza jakintsua.

Orain milla urte, berriz, Europa'ko izkuntza jakintsua, latiña zan. Latiñez idazten ziran orduko libruak, asi Germania'tik, eta, Galia'n ta Anglo-Saxonia'n barrena, Hispania'raño guztian. Latiñez Liburuak, eta latiñez baita soro baten saldu-erosi xume bateko paperak ere. Eta olaxe XIII gizaldira arte.

XIII gizaldian asi ziran emen inguruan papera oiek gaztelako erderaz egiten. Gaztela'ko Errege Alfontso "Jakintzu" izan zan, moda zaar ura autsi eta moda berri au ekarri zuana. "Gaztela'ko erderaz" esan det; bañan areago, bear bada, gallegoz; gallegoz bait daude Errege aren "Cantigas del Rey Sabio" esan oi zaien abesti polit txukunak.

* # *

Eta abestiak aipatu ditugun ezkerro, esan dezagun beste au ere.

Erri bakoitzak ba zituan orduan ere, bere abestiak, bere kantuak bere *Literatura Oral*, "Aozko Literatura", eder askoa askotan; bañan beti ere Literatura idatzi gabea, alfabetatu gabea, memoriaz ikasi ta kantatzen zana. Idatzi, ez. Idaztea —diogun berriz ere— izkuntza jakintsuen eskubidea zan, eskubide berezia. Izkuntza *errikoiak* etzuten olako eskubiderik.

XIII gizaldira arte —diot berriz ere— ola izan ziran gauzak emen, gure inguru otan. Lareun, bost-eun urtetan erdera bera ere etzan idazten. Eta, XIII gizaldian gauzak aldatzen asi ziranean ere, izkuntza indartsuak bakarrik izan ziran idazten asi ziranak: izkuntza indartsuak, izkuntza *mayoritariyuak* bakarrik: emen, gaztelania, gallegoa, katalana... Gure Euskera, eder-ta-guzi —iñungo erderarik aberatsena baño ederrago ta aberatsago izan arren—• izkuntza *minoritariyua* izaki-ta, XVI gizaldira arte etzan oraindik idazten asi; idatzi, emen oraindik XIII, XIV ta XV gizaldian, erderaz egiten zan; euskerazko gauzarik etzan idazten.

XVI gizaldian autsi genduan molde lotsagarri ura. Ots aundiz autsi ere: Apaiz baten oiur garratz batez. Ezagutzen dezute, arako Etxepare Apaizaren errepin jator ura : euskeraz inprentatu zan lenengo liburuan.

EUSKAKA : TALGI ADI KAMPOKA...

EUSKARA : TALGI ADI DAMTZARA.

Eta Apaiza aipatu degun ezkerro, esan dezagun beste au ere.

Eliza izan dala, alfabetatze-lan oietan lenengo urratsak eman dituana : izkuntza erriko kulturagabeak alfabetatu izan dituana: a) Biblia izkuntza errikoietara itzuliaz batez ere; eta b) Elizetako Kateketika izkuntza errikoian eratuaz.

Gure Elizaren Ama izan dako, Jerusalem'go Sinagogak ere, bere Libururik geianak, an bertako izkuntzez, hebreoz, idatzi zituan —"geienak", ez danak, ale batzuek grekoz egin bait zituan azken-aldera, orduko giroak eskatzen zuan bezela—.

Gure Elizak ere, Sinagogaren bideari jarraituaz, lenengo Ebanjelioa —San Mateo'rena— hebreo-arameo errikoi.ez idatzi zuan. Beste Ebanjelioak eta gañerako Liburuak —orduko giroari jarraituaz eta Ebanjelioaren zabalkundeari ala zegokiolako— orduko izkuntza kulturaduan, grekoan egin. zituan.

Bañan, azkar-asko, sortu zan —eta Afrika'ko Elizan sortu ere— latin arruntezko *versio itala* zeritzana : latin arruntean egiña, latin errikoi-errikoiean; zenbait utsunez betea, dirudianez, gero, San Damaso'ren aginduz, San Jeronimo'k *grecae fidei* egokitu bear izan bait zion, orain *Vulgata* deritzan itzulpen ura. IV gizaldiko kontuak dira oiek.

IX gizaldian, bi Santuk, San Cirilo'k eta San Metonio'k egin zuten *versio slavica*. Rusi-aldeko izkuntza errikoi, kultura gabekoan.

Gure inguruan ez dizuet esango —luze litzake-ta— noiztu egin ziran, Alemania'ko, ta Frantzia'ko, ta Ingalterra'ko, ta Italia'ko ta Espainia'ko Bibliaren itzulpenak: berandu, nolanai ere : XIV, XV, XVI gizaldietan.

Euskerazko saioa gai ontan XVI gizaldian egin zan, Leizarraga'k egin zuan, Lutero'k Alemania'n egin zuan urteetan gutxi-gora-beera Testamentu Berria euskera zaarrera itzuliaz.

Gauzak orrela gertatu ziran.

* * *

Elizaren Kateketika aipatu degu leptonxeago.

Elizaren Kateketika bi eratara egin izan da gure artean : a) itzez; eta b) idatziz.

Elizak Euskalerrian itzaren bidez egindako Kateketika, beti ere euskeraz izan da, Homiletika —Meza Nagusietako Homiletika— bezelaxe... Bi milla urteko Homiletika bezela, bi milla urteko Kateketika, bai bait da euskeraren aldeko zerbait, alfabetatzearekin zer-ikusi gutxi duan arren, orain esango degun beste onek duan bezela.

Itzez ori; bañan, idatziz ere, idatziaren bidez ere, egin bait du gure Elizak bere euskerazko Kateketika. *Idatziaren bidez*, ots, "Kartillaren" bidez.

Elizak beti izan ditu bere *Kartillatxu* idatziak (Kristau-Ikasbide laburpen txikiak) umeai eta kultura gutxiko kristau xumeai Katekesisa emateko.

Kartillatxu ori, umeak buruz ikasten zuten, berak beren begiz ikusi gabe. Katekistak irakurri, eta umeak buruz ikasi. *De catequizandis rudibus* bait zeritzan katekisis ori. Parroki bakoitzean, Katekistentzako olako Kartillak —guk "Dotriña" esaten genituanak— beti izan ditu Elizak. Eskuz idatziak geienetan.

XVII gizaldiko Lepe, Kalahorra'ko Gotzai famatuak, Euskalerrinari buruz, bere Sinodaletan, agintzen zuana dago aitortzen. Elizetako Kartilla guztiak Kalahorra'ra eraman zitezela agintzen zuan, azterketa on baten bidez ikusteko ea ondo egiñak zeuden, ala zer-edo-zer okerrik ote zeukaten. Eta azterketa ori urteoro egin zedilla gañera; eta geiago oraindik: olako Kartillak Euskalerrian erri-balladarik aña izan zitezela, ez bat bakarrik Euskalerra guzira.

Sinodal oietatik —Don Pedro de Lepe'ren Sinodaletatik— ageri denez, leendik zetorren, betidanik zetorren oitura ori: Parroki bakoitzak Katekistentzako Kartilla idatziak eukitzea, alegia. Ori bai: kartilla oiek eskuz idatziak izaten zirala geienetan; eta bear bada orregatik erregaldu izan dirala. Kartilla euskeratuak beti izan dira, beraz, gure artean; eta ez nola-nai, ballada bakoitzean bere euskeran: Bizkaia'n, Markiña'n bat; Durango'n bestea; Otxandiano'n bestea; Orozko'n bestea; eta Bilbao-inguruan bestea; errietako euskera-modu bakoitzari zegokioenez... Gure alfabetatzearen Historiari buruz ondo gogoan eukitzekoa bait da guzti ori.

* * *

Alfabetatze-kontu ortan Eliza ola ari zan artean, Elizaz besteko, Erdi-Aroko zenbait Bazkun jakintsutan Unibertsidadeetan eta Erregearen Auzitegi-Tribunaletan dana latinez egiten zan. Unibertsidadeetan beintzat bear ere baita, an ematen zan kultura jende guztietara zabal zedin. Unibertsidade aiek europar internacionalak bait ziran.

"Bear ere baita" diot. Izan ere, orduko gizon jakintsuentzat, izkuntza, ideak zabaltzeko bide bat besterik etzan: bide bat, "bitarteko" bat. Bein ere ez, "elburu" *finis in se*. Ideak zabaldu. Ori zan gizon aientzat izkuntzaren egiteko bakarra. Gaur, ordea, ez bait de berdin.

"Eman-da zabaltzazu / munduan frutua"
 esaten zuan gure Iparragirre'k.
 Gaur, ordea, guk.

"Eman-da *sakon zazu* / errian kultura"

esango genduke, areago. *Zahaldu; sakondu*. Bi era. Kultura zabaltzeko, izkuntzarik zabalduena, *mayoritariyuena* —greko ta latin— aukeratu bear zan orduan, Erdi-Aroan. Gaur, ordea, errian kultura sakontzeko, izkuntza errikoiagoak bear ditugu landu. Bi izaera, elkarrengandik oso bestelakoak bait dira izaera oiek : *zabaldu, sakondu*.

Neurri ortan, guk, gaur, izkuntzak berez ikastea merezi duan gauzatat jotzen ditugu. Izkuntza guztiak guretzat kultura-gai dira, ikasgarri dira. Linguistikaren eta Etnologiaren ikasgai. Aientzat, ordea, birtarteko ta bide bakárrik ziran; eta, bide ziranez, izkuntzarik praktikoe-na bakarrik aukeratzen zuten. Besteak, alde batera utzi.

Orregatik, ez da arritzeko, izkuntza *minoritmriyuak* —gure Euskera bezelako izkuntzak— oso nekez ta berandu sartu izana idazte-bideetan, alfabetatze-bideetan.

Gaur, ordea, —leen ere esan dizutet-eta— erriaren kultura sakondu nai degunok, izkuntza errikoietara jotzen degu biotz-biotzez. Ori da gaurko egunari dagokion ariera.

Eta bukatzera noa.

Alfabetatzearen Historiari dagokion zerbait esan dizutet, leenari dagokion zerbait, gaurkoaren zuzengarri.

Gaurko oni buruz, berriz, auxe esan bear dizutet labur-labur: gure Euskaltzaindiko lagun eta langille gotor dan Arregi'tar Rikardo zanari eta aren arreba Begoña'ri eskerrak, gaur bide-rektifikatze eder bat egiten ari gerala gai ontan. Alfabetatze-saioak egin, alegia, erririk-erri, gure Euskera ederrean —gure kultura berezian degun ageririk bikaiien ontan— gero ta geiago irakurri ta idatzi dedin. Danok, euskaldun danok (itz-egiñaz gañera) irakurtzeko oitura artu dezaten, eta berdin baita idazteko gustu gozo bat ere.

Egun oietan ikusi dezuten bezela, ez bait da guzti ori gauza zalla; eta, batez ere, bai bait diogu orrenbeste zor gure gurasoen izkuntza eder maiteari.

Gramatika-formak idaz-lanetan

Idaz-lanetan iru idazte-forma gerta ditezke :

- 1) Gramatika-forma;
- 2) fonetika-forma;
- 3) forma errikoi, lasaitua.

Adibidez, 1) "egin bear det"; 2) "egin biar det"; 3) "ein biet".

Lenengoari "literatur-forma" esan genezaioke; bigarrenari "fonetismoa", eta irugarrenari, "forma lasaitua", erderaz "forma relajada" esan oi zaiona.

— Zein bide aukeratu bear degu idazlanetan?

* * *

Aukera ontan guri bein gertatua esango dizuet; guri, Liturgi-lanetan ari geranoi gertatua.

Gure lanen asieran zan.

Guk egindako lanak, orduan *Vicario General* zanak, Linguista bati bidali zizkion, iritzi-eske : ea zer zerizkion?...

— Ondo ari giñala, bañan "gramatikalkitxo": Gramatika geitxo erabiltzen genduala, alegia.

Ez dakit zergatik esan zuan ori. Bear bada, zenbait *imperativotan* guk formarik "osotuenak" erabiltzen genitualako: "ekarri ezazu", adibidez; "ekarri zazu'ren" edo "ekatzu'ren" orde. Forma osotuak, osotuenak...

* * *

Andik puska batera sortu zan gure artean beste gauza bat idazte-arazoan: literatur-izkuntza "sortu" (?) "egin" (?) "bizkortu" (?) bear zala, alegia, eta ortarako bear-bearrekoa zala batasuna...

Nik gai ontan beti ere gauza bat uste izan det: batasuna egiteko, errexteko, azkartzeko, bide bat —eta ez txarrena— "Gramatikan gora

joatea", "Gramatika-formaetara jotzea" dala; forma osoetara, fonetismoak-eta alde batera utzita.

Gramatika-formak garbi erabiltzen dituana, batasun-bidean dijoa. Ez da izango bide bakarra, bañan bai onenetakoa. Arian-arian, ezarian-ezarian, egiten dan bidea; leendik ere egiten ari giñan bidea. Eta, besteak beste, beti jarraitu bear degun bidea.

*

Ala ere, zenbait aldiz erabilli ditezke forma lasaituak, apur bat laburtuak.

Adibidez: "Esan dizuET", "esan dizuTET'en" ordez. Eufoni-arrazoibidez egiten bait da laburpen ori; eufoniaz, kakofonia bat baztatu bearrez, bi *t* orren elkarren ondoan ez ipintzearren. Izkuntzak berak, aspaldidanik egiñik bait dauzka olako aldakuntza batzuek; adibidez "Esan diET", "Esan dioTET'en" ordez.

Ari bereko laburpenak bait dira beste bi adibide auek ere: "Aiek esango dizuETE, zueri, nola mintza", "Aiek esango dizuTETE'ren" ordez. Eta berdin "Baztatu ditu irten zaizkionak; eta baztartuko, irten leiZKIOKENAK", "leDIZKIOKENAK" esan bearrean...

* *

Olako laburpenak —eta berdin baita zenbait fonetismo ere— gauza legezko dira, ezertan bada-ta, Teatroko alkarrizketaetan. Literatur-alorrean, alkarrizketa, "barruti berezia" bilakatzen da askotan. Alkarrizketak eskatzen duan bizkortasun ta biziari kalte egin lezaioke gramatikalki gramatikalki mintzatu bearrak. Olakoetan legezko gertatzen da, forma errikoi ta kalekoiak ere erabiltzea. Olakoetan Gramatikak baño geiago agintzen du Erretorikak.

*

Gai ontan arraixku bat ere ba degu, aipatu bearrik: Gramatikaren izenean Izkuntzari —Izkuntza jatorrari—> zipoka jardutea : Gramatikaren aitzakitan, Izkuntza "zuzentzen" astea...

Euskal-Geografia guztian zabaldurik dauden formak, naiz-ta Gramati-

karen argitan, itxuraz, ez oso ortodoxoak izan, errespetagarriak dira beti.

Gramatiko bati bein entzun niona: "*Bereala* etorri nintzan" etzala esan bear; "*Nereala* etorri nintzan" esan bear zala; eta berdin "*Zereala* etorri ziñan"; irugarrenean bakarrik esan bear zala *bereala*: "*Bereala* etorri zan"...

Orren antzeko beste zerbait geiago ere entzuten da aldian bein: onako au, adibidez: "Oso iztun ona da, iztun ona dan BAI", "iztun ona DANEZ" esan bearrean: "Oso iztun ona da, iztun ona DANEZ". Rektifikazio ori sortu zuanak uste zuan nunbait, DANEZ orren EZ ori *adverbium negativum* dala, atzizki sufijo modal -Z izanik; "Es un elocuente orador, bien QUE lo es, tanto QUE lo es" edo olako zerbait dalarik, alegia.

Izkuntzak ba dituzte beren legeak, askotan lege ezkutuak, itxuraz Gramatikaren kontrakoak. Itxuraz, ordeak; ez egitaz. Lege errespetagarriak.

* * #

Gramatikaren kontrako zenbait falta, aipatu bearrik ere ez dago.

Atzizki gaian: "etxea joan", "etxeRA" bearrean; "amana", "ama-RENA" bearrean; "amana", "amaGANA" bearrean; aditzaren jokabidean: "etorri zea", "erori zeRA" beafrean; "esan dirazu", "esan di-DAZU" bearrean; "aitak esan ziran", "esan ziDAN" bearrean; "jakin banuan", "jakin baNU" bearrean; "etorri ez banintzan", "etorri ez ba-NINTZ" bearrean; "obe nin", "obe niAN, obe niKAN, obe niÑAN" bearrez; "etortze aizen bakoitzean", "etortzeN aizen" bearrean; "naisun arte", "guk iña" etab. etab.

* * *

Zenbait laburpen, osorik obeto leudekenak: "yaz", "igaz" bearrean; "benik", "bederen edo bederenik" bearrean; "biñipein", "beinik-bein" bearrean; "keixak", "gereziak" bearrean; "patxaranak", "baxakaranak" bearrean; "pagari", "pagadi" bearrean, etab etab.

III

POLEMIKA-APUR

«-A» artikuloa noiz jarri ta noiz ez

Txillardegik, orain berriro, Orixe'ren omenaldiko "Zeruko Ar-gia'n" —Orixe'rentzat "omen" baño laido ta mendra-gai geiago dakarren artikulo luze batean—: beste gauza askoren artean, auxe dio : "-a artikuloa Orixe'k geiegitan kentzen du".

Geiegi ala gutxiegi kentzen duan jakiteko, lenengo- lenengo, norbe-rak jakin bear du, noiz kendu bear dan, eta noiz ez. Orain galdera bat: "Txillardegik berak bai al daki ori, Orixe'k baño obeto?". Neretzat, beintzat, euskal-idazketan degun gauzarik zallenetako ta bitxienetako bat, orixe da, nik neronek nai nukean bezain ondo ez dakidana : artikuloa noiz ken, noiz jar?

I

"-A" ARTIKULOA, "-A" ORGANIKA

Txillardegik eta aren lagunak, izugarrizko ardura artzen dute, "-o organika" dalako orren kontuan; izugarrizko ardura, "-a artikuloa" eta ^h"-a organika" elkarrengandik bereizten eta iñola ere "-a organikarik" be-re itzaren ondotik ez kentzen... eta iñork, dana-dalagatik "Donosti'ra" edo olakoren-bat idazten badu, gauza ori gogor arbuiatzen dute, erejia aundi bat bai-litzan (ba zegok aundiagorik baztarretan!).

Bañan oraingo ontan, Txillardegik Orixe'rengan, organikarena baño areago arbuiatzen du artikuloarena. Orixe'k "-a artikuloari" gorroto omen dio, "euskal-funtsarik ez duan gorrotoa". Txillardegiren beraren itzak dira : "Orixe'k *a* artikuloari zion gorrotoak, ez du euskal-funtsarik".

"Gorrotoa diolako orrek", ez du esan naiko, noski, Orixe'k *a* arti-kulorik iñoiz erabiltzen ez duanik, bear baño gutxiago erabiltzen duala esan naiko du. Bañan, berriz ere, or nere galdera : Txillardegik berak ere bai al daki ondo ta seguru, noiz erabilli bear dan, eta noiz ez? ez

erabiltzea noiz dagon gaizki eta noiz ondo? Ez bait da, ain gauza jakin-erreza.

Errez ez izate ori, zailtasun ori, gauzatxo batek egiten digu oraindik zallago: alde bat.etik, gaur oraindik, Gramatika-kontuan gure auzo egiten dan latiniak ez duala artikulorik, eta, bestetik, gure inguruko gaurko erderak (gaztelaniak eta frantzesak) artikulorik izan. arren, berak, guk ez bezelako beste neurri batean .erabiltzen dutela: geienetan guk baño urriago; itz bitan, auzi ontan *Gramatioa comparadak* argi gutxi ematen digula.

Ala ere, zail-ta-guzti, saia gaitezen gu, gai ontan aal degun ondoen, arau batzuek gure gobernurako erutzen.

ARAU BATZUEK ARTIKULOAKI BURUZ

1) *Morfologiaz*: erd.erazko artikuloa preposicioa dan bezela, euskerazkoa atzizkia, sufijoa dala : *-a* (= el, la, lo) *-ak* (= los, las): "gizona", "etxea/c". (Gero aipatuko ditugu beste forma batzuek : *-ok*, *-ik*: *gizoak*, *etxerik*, etab. Ez degu aipatzen emen, zenbait forma relaxaturik; adibidez, *inauterik* edo *inauteriik*, *inateriakea* ordez).

2) *Sintaxis'ez*: Artikuloa, euskeraz, era-bat, erderaz baño ugariago erabiltzen degula; erderaz ez dala erabiltzen, *ser* aditzaren predikatuetan, sujetoan bakarrik baizik ("La casa es hermosa"); euskeraz, berriz, biotan ("Etxea, ederra da"): "La casa es la hermosa" balitz bezela).

3) Izenari bere inguruan adjetivoak pillatzen zaizkionean, artikuloa aizkenekoari ipintzen diogu : "Itz onafc"; "Euskerazko itzafc"; "Itz on eta ondo neurtuak". Ala ere, adjetivoak nabarmen berezi bear diranean, adjetivo bakoitzari erantsi leikio artikuloa : "Itz onafe eta ondo neurtuafe".

4) Izenari zenbaki bat (adjetivo *numeral* bat) erasten zaionean, bitan bat gerta diteke: edo-ta izena "mugatua", *dejinitua*, ezaguna, leen aipatua-edo dala, eta orduan, beti bezela, azkenekoari erasten zaio artikuloa : "Etorri dira bost gizonafe" = "Han venido los cinco hombres"; edo-ta izena, izen "mugatzakea", indefinitua dala, eta orduan artikuloa kendu egiten da : "Bost gizon etorri dira" = "Han venido cinco hombres".

5) Esaera "ezezkoa" danean, *izan* aditzaren ondorengo predikatuak

ba du artikulo ("Pedro ez da ono¹"). Bañan aditza, "izan" ez baño, beste aditzen bat danean (*jan, etorri*), orduan, aditzaren inguruko elementuakin, bitan bat gertatuko da, berriz ere : edo-ta elementu oiek, mugatuak, *definituak* dirala —eta orduan elementu oiek artikulo "mugatu" *-a, -ak* artuko dute ("Pedro'k, sagarrafe ez ditu jan"); edo-ta elementu oiek, mugatzekeak "indefinituak" dirala; eta orduan elementu oiek, *-a*, afe'en orde, beste artikulo bat artuko dutela, artikulo "mugatzekea", *indefinitua* : *-ik, -rik* : ("Pedro'k ez du jan sagarrifc").

Adibide ontan, aditza "zerduna", *transitiboa* da. Bañan arau ori berdin betetzen da, baita, aditza "zerduna" ez danean, *intransitiboa* danean ere. Aditzaren "egillea", mugatua danean, *-a* artikulo mugatua artuko du ("Gizonak ez dira etorri"); bañan egillea mugatzekea danean, *-ik* artikulo mugatzekea artuko du : "Gizonifc ez da etorri".

(Oarra : Artikulo "mugatzeke" *-ik* orrek, esaerari, alako indar aundiago, estuago, zorrotzago bat ematen dio. Eta, bide orri jarraituaz, aditzaren egillea mugatu-mugatua izan arren ere, iñoiz ezartzen zaio baita *-ik* artikulo mugatzekea ere: "Pedro'rife ez da azaldu gaur emen").

6) Esaera, "galdezkoa" danean ere, 5'gn Arau ori berdin betetzen da : "Jan al du Pedro'k sagarrifc?".

7) Berdin, baita, baldintzakoa, *condicional* danean ere: "Bearthifc badu, aitortu bearko du"; "Munduan ederrife bada-ta, ba zan antxe gauza ederrifc".

8) Orain arte esan deguna, gauza jakiña da. Edozeñek daki, aditza "ezezkoa" danean, aren inguruko elementuak *-ife* artikuloa artzen dutela ("Guk ez degu txanponife"; "Emen ez da gizonife").

Bañan aditza, ezezkoa ez baño, baiezkoa danean, eta baiezkoaren señaile adigarri *ba* bat daramanean, zer egin oi da? inguruko elementuak zer artikulo pintzen zaie? *-a, -ak?* ala *-ife?*

Arestian ikusi degun adibidean, *-ife* bat arkitzen degu, baiezko "ba" dun aditz baten ondoren : "Ba zan antxe gauza ederrife!". Eta orren antzera eta orren antzekorik zerbait esan oi degu iñoiz : "Ba degu aurre-ragoko lanife"; "Ba det nik ,ere zer-esanife"... Ez asko, bañan iñoiz esan oi degu olakorik. Leen, ordea, ba dirudi maizago erabiltzen zirala olako esaerak. Begira, 1448'gn urteko, Mondragoe'ko Kantaetan irakurtzen dçgun au : .

"(Ba eukan) Gomiz'ek asko lagum/c,
zabal arabaarrifc,
giputz sendo ederrifc,
bizkaitar urduri gogorrifc".

Artikulo -ifc oiek, esaerari nolako indarra ematen dioten ikusteko, ken ditzagun -ifc guztiak, eta ipiñi, -ifc'en orde, -ak :

"(Ba eukan) Gomiz'ek lagun asko,
zabal arabaarrak,
giputz sendo ederrak,
bizkaitar urduri gogorrak".

Edozeñek igertzen bait dio, noraño txepeltzen dan ola esaera guzia.

(Oarra : gaur, -ifc'en orde, olakoetan, -tik erabiltzen dala iñoiz : "Ba zan antxe gizoneífic!").

9) Aditza, ezezkoaren orde, "baiezkoa" danean (fea batekin dato-rranean batez ere) ba da, gai ontan, beste lege bat erp : aditzaren inguruko izenari -a artikuloa kendu eta izena soli-soillik uztea : "Ba dek ordu!"; "Aurten ba degu gari".

Esaera oietan, aditzaren konplementuai artikuloa kentzeak ere indar berezi bat ematen dio esaerari —artikuloarekin izango ez lukean indar berezi bat—. Ikus bestela : "Ba degu garia"; "Ba dek ordua". -A artikuloak esaerari indarra kentzen dio; artikulo ori gabe, giarrago ta indartsuago gertatzen dira esaerak. Eta, ezertan bada-ta, nik uste, olako esaeratan zan maisu gure Orixe. Ori, ordea, Orixe'k ez bait zuan ikasi iñungo klasikotan, baserri-baserrian baizik... Artikuloa noiz kendu? noiz ez? Neretzat, ezkutuko jakinduri berezi bat da ori, edozeñek ez duan jakinduria, bañan Uitziko mutillak, umetandik, iñor gutxik bezela ikasia.

10) Aditza inperativoan dagonean ere, berdin kentzen ditugu artikuloak aren ingurutik : "Emaiguzu, Jauna, osasun ta pake".

11) Ala berean kentzen degu -a artikuloa, baita, aditz osatuetan "verbo compuesto" diralakoetan, aditz "osatua" sortzen degunean; adibidez "Gizon-egin zan" (ez bait degu esaten "Gizona egin zan"), "uts-egin zuan"; "min-eman zion"; eta itzetik ortzera sortzen bait degu ain-

beste aditz "osatu" : "bear izan", "nai izan", "ederretsi", "onetsi", "maisuz-izan", "oker-egon", "aundi-egin", "gorroto-izan", "luze-etsi", "amets-egin", "uste-izan", "argi-egin", "arnas-artu"... Olakoetan, lenengo elementuari (dala sustantivum, dala adjectivum) beti artikuloa kendu egiten bait diogu... eta azkeneko adibide ortan, bear bada, baita -a organika ere...

12) Berdin kentzen da, baita, izen bat adverbio biurtu nai degunean: "Gizon portatu zan"; "Gauza garbi dago"; "Mutil dago Usurbil'en".

13) Beste kasu bat, benetan kasu bitxia : artikulokentze ori egiten zaio izenari, baita, izena deikian ipintzen danean ere, vocativoan, alegia. Adibidez, karlistateko Kanta ontan :

Aizazu, txiki! aizazu, maite!
nundik bere dagon Portugalete?

Gañerakoan, deikia jator-jator egiteko, ba dakigu bi bide dituguna auskeraz, bi bide jator: bata, izenari, artikulok -a'ren ordezkimoduko *ori*, *orrek*, *orri*, *orren...* ezartzea; eta bestea, izena artikulorik gabe, bera soil-soilik uztea.

Adibide batzuek:

- 1) Maria. nora zoaz
eder galant *ori*?
- 2) Enkargu egin deusat
ama zeuriari :
gorde zaizala neuzat
prenda eder *ori*.
- 3) Josepe'k esan zion
Ama Birjiñari :
—Ostaturik eman nai
ez digute guri.
Estalpe bat ba dakit,
eta segi neri.
Antxen deskantsatuko
zera, triste *ori*.

Artikulatorik gabeko vocativo-deikiari buruz, Portugalete'ko "Aizazu, txiki! aizazu, maite!" orretaz gañera, beste asko ta asko adibide aipa genezake emen :

—Zer dezu, maite?
maite, zer dezu?

"Zer abil, motell?"; "Nun zera, seme?"...

Bi deiki oiek, Orixe'k ederki asko ezagutzen bait zituan; bañan, berriz esanda ere, ez klasikoetan ikasita, erriaren izkuntzan xurgatuta baizik... Euskera dana ez bait dago klasikotan (1).

14) Arkitzen degu gañera, artikulogabeko izenik, erderaz "/raises *lapidarias*" esan oi diran esaeratan; eta oiekin batean refran-errepeñetan : "Noruntz eguzki, aruntz buruzki"; "Goiz gorri, arrats euri"; "Donostia'n Donosti; gorostian gorosti"; "Pikak eguak xuri-ñabar"; "Okin berriak ogia zuri"; "Zozoak beleari... beltz"...

15) Eta ortaz gañera baita beste esaera asko ta askotan ere, zaku naasi batean bezela bereizten errex ez diranak. Adibidez superlativo "Eder-edarra"; correlativo "Senar-emazteak"; "Zeru-lurrak"; imperativo "Iguzu pazientzi"; eta oien antzeko ainbat: "Berriketa ta komeri, etzan ixildu"; "zuri esker"; "Jainkoa lagun", "Esker Jaunari" etab. etab.

II

"-A" ARTIKULOIA ORIXE'REN IDAZTIETAN

Lenengo Ikasgaian ezarritako *-a* artikuloaaren legeak —asko beintzat— guk, ezarian-ezarian, poliki-poliki, Orixe'ren arieratik atereak ditugu : bera ari, eta guk aren arieran, lege batzuek, constante batzuek ikusi...

(1) Arritzeko gauza: gure klasikoetan, ez deiki oiek bakarrik, ezta beste zenbait detalle bitxi ere ez bait degu arkitzen idatzirik, beurek beren izketan erabiltzen zituzten igauzak ziran arren; oietan bat, *bait- praefixum causale* dalakoa; ez Kardaberaz'ek, ez Larramendi'k, ez Mendiburu'k berak ere ez bait dute iñoiz ere erabiltzen... Larramendi'k ezta bere Gramatikan ere, beste partikula causalen artean ez du sartzen. Berriz esateko ere, egia bait da, Euskera osoa ez dagola klasikoetan; ba dala zenbait gauzatxo, klasikoai igertzeke pasa zaienik...

Gaur, orren ondore bezela, atzera-begiratze bat egingo degu, eta ikusi, ea nola Orixe'ren idaztietan betetzen diran, guk lege bezela lenengo lkasgai artan ezarritakoak.

Ortarako ar dezagun, aren liburuetatik klasikoena : "Meza-Bezperak"; eta liburu ortan "Illekiko Eliz-Otoitza" (1.229'gn. or.).

Eta ikus :

* * *

1) "Zatozte... egiogun txalo". Ez dio "egiogun txaloea", *txalo* baizik, artikulorik gabe, "Txalo-egin" aditz osotu *verbo compuesto* bat bait da. -A'rik gabeko esaera au, gure l'gn legean sartzen da.

2) "Egiogun jai". Ez dio "egiogun jai", *jai* baizik. Berriz ere aditz osotua : "Jai-egin". l'gnlegean sartua.

3) "Jaun aundi baita (bait da) Jainkoa". Esan zezakean "Jaun aundia bait da" (izan'en predicatum bezela); eta beste idazle askok ola idatziko zuan, artikulodun; berak, ordea, kasu au ere aditz osotu egin naiago izan du: ots! "Jaun-izan" aditz osotua, erderaz "señorear"-edo esango litzakeana.

Ortaz gañera, Jaunari "aundi" adjectivum bat erantsi dio ("Jaun aundi bait da"); eta, egia esan, ola Orixe'ren ariera ori naasixeago egiten da; bañan ezin esan bait diteke ariera okerra danik; eta, gañera, bestalde, ariera orrek, esaera, azkarrago, giarrago egiten du, esaera artikulodun balitz baño giarrago, indartsuago. Olako esaera asko arkituko diogu gure Orix.e jatorrari. Au ere l'gn, legean sartzen da.

4) "Itsasoa bere du". Ez dio "berea du", *bere* baizik. Berriz ere, "bere-izan, bere-egin", aditz osotua; erderaz "apropiar" esango litzakeana. Au ere, l'gn. legean sartzen da.

5) "Legorrari, bere eskuz, oñarri eman dio". Ez dio "oñarria eman", *oñarri* baizik. Berriz ere, "oñarri-eman" aditz osotua; erderaz "cimentar" esango litzakeana. Esaera azkarra; l'gn. legean sartzen bait da au ere.

6) "Bera bait dugu Jaun eta Jainko". Ez dio "Jauna eta Jainkoa", lasaiago ta gezaago esan zezakean bezela; bi formak, legezkoak dira; bañan berak bi formatan giarrena ta bizkorrena aukeratu du; erriak ere, itzetik ortzera esaten bait du orren antzera arako "jaun ta jabe" esae-

ra jatorra. Berriz ere, aditz osotua : "jaun-izan", "jabe-izan", erderaz "señorear" esango litzakeana. 11'gn. legean au ere.

7) "Gu, berriz, bere erri gaitu". Bide beretik : 11'gn. legean : erri-izan.

Oarra : Salmoak arruntean irakurriaz arkitu dizkiogu Orixe'ri esaera jator oiek. Eta, nai dena esango da, bañan aitortu bearra dago, Salmoak euskeratzeko, ez dagola estilo egokiagorik: gizenak ken! eta esaera giar!

8) "Ernai, nere Errege ta nere Jainko!". Ez dio "nere Erregea ta nere Jainkoa"; *Errege ta Jaiirvko* baizik: artikulorik gabe. Ez, ordea, beste oien bidetik, 11'gn legetik; 13'gnetik baizik : ots! deikiaren, vocativoaren bidetik : "aizazu, txiki : aizazu, maite"...

9) "Etzera Jainko gaiztozale". Esan zezakean "gaiztozalea"; bañan baita "gaiztozale" ere. Berak "gaiztozale" aukeratu du, esaera giarrago egiteagatik. Sar diteke 11'gn. legean : "gaiztozale-izan" alegia; ots! aditz osotua, berriz ere; bañan sar bait liteke baita 12'gn. legean ere: ots! *zale* adjectivum, adverbio biurtuaz, *adverbium* modale... Ikus arako Xenpelar'en

"Ez naiz ni gerraren zale;
baizik pakearen alde".

"No estoy con ganas de guerras" esango balu bezela. Itz berori, bertsolari berak iñoiz adjectivum bezela ere erabiltzen duan arren. Ikus arako beste ura : "Orren zaldalea / ez da debaldea : / gauz onen zalea, / bizkotxo-jalea...". Bañan, beti ere, aitor bearra bait da, artikulorik gabe, esaera bizkorragoa dala.

10) "Gizon zirtzillik ezin dagoke zure aurrean". Ez bait dio "gizon zirtzillak ezin dagozke". Gauza jakiña da, aditza ezezkoan dagonean, aren egille eta complementuak, -ai'ren ordez, *-ik* artzen dutela : "Eman ez dago gizonik"; "ez degu ikusi gizonik". Guk ori 8'gn. legean jarri degu.

11) "Maltzurra, gorrotagarri zaio Jaunari". Berriz ere, aditz osotua : "gorrotagarri-izan"; erderaz "abominar" esango litzakeana. Berriz ere, 11'gn. legea.

12) "Ni, zure errukiaren zai (nago)". "Zai-egon" aditz osotua, 11'gn legea.

13) "Aiek ez dute aoan egirik". -a'ren ordeaz, artikuloa (*r*)ik : 8'gn. legea.

14) "Aien zintzurra, illobi zabal da". "Illobi zabal" adverbio bezela; 12'gn, legea : ("au argi dago" bezela).

15) "Zugan itxaropide dutenak". "Itxaropide", artikulorik gabe: "itxaropide-izan" berriz ere aditz osotua; 11'gn. legea ("confiar").

16) "Poz eta jai bezate". "Poz-izan; jai-izan": aditz osotua : 11'gn. legea.

17) "Zure odeiez babestu gaituzu; babeskiz inguratu". Ez bait dio "odeiaz, babeskiaz"; "odeiez, babeskiz", artikulorik gabe, indefinituak, mugatzeak diranez.

18) "Alde Nigandik, gaiztagin guztiok". Ez dio "gaiztagin guztiak", *guztiok* baizik; izen ori deikian, vocativoan bait dago. 13'gn. legea.

19) "Olakorik egin badut, Jauna". Ez dio "olakoak egin baditut". Aditzaren complementua, mugatzeke indefinitua da; eta aditza bera esaera baldinkatuan, condicionalean dago. 7'gn. legean sartzen da.

20) "Nere .esketan kutsurik baledi". Au ere 7'gn. legean sartzen da : aditz baldinkatuaren legean, alegia.

21) "Txarkeri egin badut". Esan zezakean "Txarkeriarik egin badut" aditz baldinkatuaren bidetik; bañan naiago izan du, aditz osotuaren bidetik, ezkutuko matizen baten billa ibilli. Ez bait da berdín, *simpliciter* "txarkeri egin badet", edota *absolute* "txarkeriarik egin badet", biok mugatzeke, indefinido; edo-ta, mugatuki, definido; "txarkeria egin badet"; Orixe olako matizen baten billa bait zebillen. Nolanai dala, aditz osotuaren bidetik jo zuan : "txarkeri-egin", 11'gn. legearen barruan.

22) "Nere entzute ona auts biurtu beza". "Auts-biurtu", aditz osotua; 11'gn. legean.

23) "Jeiki zaitte, Jauna, asarre". "Asarre" izenari, artikuloa kendurik, izena adverbio biurtu zaigu. 12'gn. legea.

24) "Jauna da errien ebazle". Berriz ere aditz osotua: "ebazle-izan", erderaz "juzgar" esango litzakeana. 11'gn. legea.

25) "Biotz eta giltzurri, ikertzen dituzun...". "Biotza ta giltzurriñak ikertzen dituzun"-en ordez, "biotz eta giltzurri" dio, artikulogabe. 15'gn. legean sartzen da bete-betean: ots! orrenbeste ta orrenbeste -a gabeko esaera-sallean, alegia: "buru-belarri; ezker-eskubi; aurre ta atze"; "aide ta bote"; esaera correlativoetan ere berdin gertatzen bait da: "senar-emazte; seme-alaba" etab.

26) "Ikertzen dezue, Jaun orrek". Euskerazko deiki vocativo jatorra, -a artikulogaren ordez, "ori, orrek" demonstratiboa ipiñiaz egiten deguna. 13'gn. legea. ("Maria: nora zoaz / eder galant ori?").

27) "Jainkoa, ebazle zuzen, bizkor eta iraunkor". Iru adjectivum, irurak artikulorik gabe, esaera giarrago, indartsuago egin bearrez. 9'gn. legea.

28) "Lezea Berak ideki du sakon". "Sakon" adjectiboa, artikulorik gabe, adverbio biurtu zaigu. 12'gn. legea.

29) "Eresi egingo diot". "Eresi-egin" aditz osotua, erderaz "cantar" esangolitzakeana. 11'gn. legea.

Oar bat.—Artikulorik gabeko 29 esaera oiek, "Illekiko Eliz-Otoitzetako" lenengo "Gau-alditik" artu ditugu.

Orixe'k, olaxe, besteak beste, artikulogak kenduaz, izkuntzari alako giartasun berezi bat ematen dio —leen ere esan degu-ta— "Dabid'en Salmoai" ain egoki dagokion giartasun ta trinkotasun berezi bat.

Guzti ori, ordea, olerki-gauza izanik, egoki legoke emen Orixe'ren prosa-troxuren batzuek ere, gai oni buruz, aztertzea. Bañan ori beste egun baterako utziko degu.

Nolanai dala, nik uste, Orixe'ren trebetasun berezia gai ontan, gure 11'gn. legean aipatu degun "aditz osotuaren" teknikari zor zaio. Ori bai: zenbait aditzi, bere konplementua bereiz eta artikulodun ipiñi bearrean, Orixe'k konplementu ori aditzari berari erantsi egiten diola, bion artean ola "aditz osotu bat" .egiteko; eta ortik —teknika ortatik— dator Orixe'ren esaeraren giartasun ta trinkotasun ta azkartasun berezi ura.

Teknika ori, berak, askatasun aundiz erabiltzen bait du: ezker-eskubi, aide ta bote; adibidez : aditza "txalo-egin" dalarik, aditza inperativoan datorrenean, "egiogun txalo" esango du. Berdin baita aditza "ebasle-izan" ("juzgar") danean, bear bada, gauza onela eratuko du: "Jauna da errien ebazle", aditzaren eta konplementuaren artean beste izen bat —"errien"— sartuaz. Beste orrenbeste egiten bait du, adibidez, beste ontan : aditz osotua "bere-izan" ("apropiar") danean, Orixe'k "gu, berriz, bere erri gaitu" esango du, "bere" ta "gaituren" artean "erri" sartuaz, eta ola beste aditz berri bat sortuaz : "bere erri egin", erderaz "adoptar" esango litzakeana.

Joku oiek —Orixe'k orren maiz egiten dituan joku oiek— oso joku errikoiak bait dira; ortan ez dago dudarik; errikoiak eta eleganteak, esaera, bizkor eta arin egiten dutenak.

Artikuloak urritzea, esaeraren edergari izan oi da askotan; ondo egin bear, ezik. Orixe'k ba daki, bear danean artikuloak sartzen; bañan baita, esaerak giarrago ta biziago egiteko, kentzen ere. Zail dala, ezik, ori ondo egiten; belarri fiña bear dala. Baña Orixe'k, iñork bada-ta, fiña zuan benetan, baserritar jatorra zanez.

* * *

Bukatzeko: Txillardegik Orixe'ri akats au egozten dio: *-a* artikuloa geiegitan kentzen duala.

Guk, gai oni buruz, Orixe'ren Libururik klasikoenean —"Meza-Bezperatakoan", Illetai dagokien zatian, lenengo lau orrietan— ain zuzen, artikulorik gabeko itzak aztertu ditugu; eta lau orri-alde oietan 29 izen, artikulorik gabeko, arkitu ditugu; pta, ikusi degun bezela, danak legezkoak, gure 16 legeen neurri-neurrikoak.

Il'gn. legekoak dira kasurik geienak: aditz osotuari dagozkionak, alegia: "txalo-egin", "jai-egin", "jaun-izan", "bere-egin", "oñarri-eman". Eta, bear bada, oiek dira, Txillardegiren belarrietarako kasurik latzenak. Ez dakigun arren, ori uste degu. Guk, ordea, kasu guzti oiek oso legezkoak arkitzen ditugu. Klasikoetan, bear bada, ez dira ain ugari topatuko, bañan erriaren aotan oso erabilliak bait dira, eta euskal-belarri fiñari ondo eraxten zaizkionetakoak : itz bitan, oso jatorrak.

Eta ez goaz ezer geiago esatera.

Jerundioa euskeraz

POLEMIKA - APUR

Gauza jakina da, erderazko Jerundioak eta Jerundiboak (*diciendo, saltando* etab.) euskeraz, besteak beste, atzizki sufijo batzuen bidez egiten dirala :

- 1) -ía atzizkia;
- 2) -ik atzizkia;
- 3) -z atzizkia;
- 4) -la atzizkia;
- 5) -ten, -tzen atzizkia.

Ipiñi ditzagun adibide batzuek :

- 1) "Ori esanDA, joan egin zan";
- 2) "Guztiok negarrez utziRIK joan zan";
- 3) "Danborra poAZ, umore ona banatzen dijoaz";
- 4) "Aita bizi zaLA, il zan semea";
- 5) "Ari da ikasTEN".

Bost oietatik irugarrena, -Z, jorratuko degu gaur guk emen, orain berriro ikusi degun kritika batengatik.

- Z ATZIZKIA

A. Z. Jaunak, Euskaltzaindian aurkeztu duan txosten batean, -Z atzizki au aztertzen du; eta "Meza Santua" deritzan Liburuxkan atzizkia, amar-amabi aldiz, gaizki dagola dio garbi-garbi.

Orra nola dion :

"Apaizak, erriari begira, besoak zabalduAZ, agur egiten dio; besoak zabalduZ bear luke" dio berak.

"Egin bearrak ez egiñEZ; au ongi dago".

"Eskabide bakoitzari erriak erantzunAZ. ErantzunEZ bear zukean".

"Eriotza ezereztuAZ. Eriotza ezereztuZ idatzi bear zitekean".

"Zure Espiritua ixuriAZ; gaizki dago... Espiritua ixuriZ...".

"Ogia artu eta eskerrak emanAZ, zatitu zuan... esanAZ. Bietan gaizki; emanEZ eta esanEZ bear luke".

"Eskerrak emanAZ... esanAZ. Berriz ere bi aldiz gaizki".

"Zure Semearen eriotza eta Piztuera gogoratuAZ ; gaizki".

"Zuri eskerrak emanAZ. Gaizki".

"Salbatzalleak agindu ta erakutsiari jarraituZ. Ongi".

"Elkarrentzat argi ta bero izanAZ. Gaizki".

Olaxe.

* * *

Z. Jaunaren iritzian, beraz, gaizki dago, jerundioetarako -Z atzizkia, -AZ egitea; beti ta beti -Z soil-soillik izan bear du (*zabalduz, ezereztuZ*) edo-ta aldian bein-(e)Z : (*esanEZ, eman EZ*).

Z. Jaunak ez digu esaten, zer arrazoibide duan, bere iritzi ortarako. Ba dirudi, oituraren arrazoibiderik ez baño, lojikarenak, anajoiarenak, areago gogoan dituala. "Meza Santua" deritzan liburuxkan ikusi du nunbait, lojikaren kontra, batzutan -Z soillik erabiltzen dala, eta bestetan -AZ ("naastean" dio berak, eta "bereiztapenik egiteke"); eta ez du pentsatu, guzti ori oitura-kontua izan litekeanik (oitura, Izkuntzaren Lege nagusi-nagusia, alegia); ez du pentsatu, oiturari buruzko inkesta ta azterketa on batek, ondoren ortara eraman gindezazkeanik: euskaldunen beraen oitura orokarra olaxe dala, alegia: batzutan (ez dakigu zergatik) -Z soil-soillik egitea, eta beste batzutan (ez dakigu zergatik, izango dan arren or "zergati" ezkuturen bat) -AZ...

OITURAREU. LEGEA, LEGE UAGUSI

Guk, estadistika-modura, inkesta-saio bat egiña daukagu gai oni buruz, Gipuzkoa'ko idazle errikoi-errikoi batzuen artean: Errenteria'ko Xenpelar'en eta Zaldibia'ko Iztueta'ren artean. Eta gure Inkestak ondoren ontara ekarri gaitu: bat-bezafn-beste, bi formak erabiltzen dituztela; eta ez berdin-berdiñean, -AZ formak zerbait bentaja daramala baizik : bi edo iru -AZ, -Z soil bakar baten kontra : ain xuxen, gauza Meza Santua deritzan liburuxkan azaltzen dan neurri beretsoan.

Xempelar'ek ola egiten du; Iztueta'k ola egiten du; eta Iztueta'k ez bertsoan ari danean bakarrik, baita itz-lauz ari danean ere; bere "Guipuzcoaco Condaira"-n, sdibidez.

* * *

Xenpelar'engan ("Auspoa"ren bilduman) guk aurkitu ditugunak, auetxek dira :

- 138'gn orrialdean : "egin dek etxe berriya / zurrupatubAZ erriya";
- 196'gn or. : "elkar botiAZ dijoa / jendia igesi";
- 196'gn or. : "jendia ezin eskapatuZ";
- 328'gn or. : "akordatuAZ gu";
- 345'gn or. : "asko onela ekusten dira esanEZ";
- 352'gn or. : "ondo esanAZ";
- 361'gn or. : "mantxa guziyak kenduAZ".

Ageri danez, Xenpelar jatorraren neurria, zazpitatik bi, -Z da; eta zazpitatik bost, -AZ.

* # *

Gauza bera, eta neurri berean gertatzen bait zaigu Iztueta'rekin ere.

Ikus "Obras inéditas de Iztueta" deritzan liburuan gauza nola dato-
rren:

- 58'gn or. : "AzalduAZ".
- 61'gn or. : "Ecin arqituZ".
- 92'gn or. : "EsanAZ".
- 99'gn or. : "EguiñAZ".

Ageri danez, beti ere bi formak, eta neurri berean.

* * *

Iztueta beraren "Condaira"ri gagozkiola, berriz, orra ikusten dana :
Liburuak bosteun orri-alde ditu iragoak; eta bosteunetatik, guk eun bat aztertu ditugu, jakingarri bezela : IX Kapitulutik XIX kapitulora (277-375'gn orrialde arte). Eta, bertsoetan bezelatsa, Kondairako prosan ere, -Z soillezko jerundiotarako naiko atzendua arkitu degu gure Iztue-

ta; eta bertsoetako neurri berean arkitu ere: ogeitaseitatik bost -Z soil-
dun, alegia, eta ogeitaseitatik ogeitabat -AZ'dun. Ikus :

278'gn or.	"quenduAZ".
279'gn or.	"gordeZ, irabaziAZ".
281'gn or.	"ugarituAZ".
301'gn or.	"ausiZ".
304'gn or.	"egiñAZ".
314'gn or.	"ecin asmatuZ".
322'gn or.	"jarraituAZ".
330'gn or.	:"ifiñiAZ".
331'gn or.	"etsiZ".
335'gn or.	"disparatuAZ".
336'gn or.	"alderatuAZ".
338'gn or.	"autsiAZ".
340'gn or.	"urrituAZ, aurreratuAZ, epaquiAZ".
341'gn or.	"illAZ".
345'gn or.	"illAZ".
350'gn or.	"asmatuZ, leunduAZ".
352'gn or.	"irmetuAZ".
355'gn or.	"peleatuAZ".
358'gn or.	"garaituAZ, puscatuAZ eta illAZ".
363'gn or.	"zanpatuAZ".

Guzti orrek au esan nai bait du: gipuzkoeraz bi formak, legezko forma jatorrak dirala, eta neurri ortaraño jatorrak. Eta gauza ola izanik, forma -AZ gaizki dagonik ez dala errez esaten.

GIPUZKOA ERDI-BIDEAN

Z. Jaunaren kritika, Gipuzkoerazko "Meza Santua" deritzan liburuari dagokio; eta orregatik auzi onetan testigu gipuzkoarrak bakarrik ekarri ditugu (Xenpelar eta Iztueta). Eta ikusi degu, ikusi, bi testigu gipuzkoar oiek, "Meza Santuak" bezelatsu erabiltzen dutela -Z jerundio-atzizki ori: batzutan, gutxitan, -Z soillik; geinetan, -AZ.

Zer gertatzen da, ordea, beste euskalkietako Idazleekin? nola egiten dute jerundio ori ifarraldekoak (Axular'ek, adibidez, eta Dechepare'k)?

Itz bitan, ifarraldekoak -Z soillaren alderago azaltzen zaizkigu; eta kontrara, bizkaitarrak, -AZ'en alderago. Gipuzkoarrok, berriz, bion erdian, -Z soillaren baño -AZ'en alderatxeago...

* * *

Ikus dezagun Dechepare. Oso jerundio gutxi arkitzen dizkiogu bere "Linguae Vasconum primitiae" deritzan bertso-liburuan; lautxoren bat bakarrik, eta danok -Z soillezkoak. Ara : (Ikus "Ediciones EDILI") :

82'gn or. : "Ezin benturatuZ".

86'gn or. : "Zurekin ezin bathuZ".

122'gn or. : "Gaitz sofrituZ".

124 gn or. : "DesiratuZ".

Lau eredu oiez beste jerandiorik ez du Dechepare'k; eta, ageri denez, laurak -Z soildunak.

Ikustagun Axular. Bere "Gero" liburu ederretik, guk berrogeitamar orrialde bakarrik aztertuko dizkiogu; eta ikusiko degu, zenbat erabiltzen dituan -Z formazko, eta zenbat -AZ formazko (biok erabiltzen bait ditu, Dechepare'k ez bezela). Ikus: ("Gero" 1954'gn urteko argitalmena).

3'gn or. : "TiratuZ eta edoskiZ".

6'gn or. : "Erantzute eginEZ".

11'gn or. : "TrabailatuZ".

31'gn or. : "AldatuAZ... beti aldatuAZ eta mutatuAZ".

47'gn or. : "Bekatu eginAZ eta bekatuan egonAZ; ihes eginAZ eta urrunduz".

43'gn or. : "LuzatuZ".

34'gn or. : "TkusiZ".

28'gn or. : "PrometatuZ".

23'gn or. : "Ezin etenduZ, ezin partituZ... ezin deliberatuZ".

Berrogeitamar orrialdptan, amazapi jerundio; eta amazapitatik, zazpi -AZ formazkoak; eta amar, -Z soillezkoak.

Axular'ek berak ere, beraz, "bat-bezain-beste" erabiltzen ditu bi formak : areago -Z soillezkoak.

Ikustagun orain bizkaitarren ariera gai ontan.

Bi idazle ikusiko ditugu, biok naiko jatorrak: Mogel eta Prai Bartolome: Mogel, bizkaitar gipuzko-mugakoa, eibartarra; eta Prai Bartolome, Bizkai-barrukoa.

Ikus ditzagun.

Mogel, "Peru Abarka"n ("Elosua Argitaldaria") :

Erabiltzen dituan jerundio guztiak -AZ formazkoak ditu; guk, eredu bezela, iru auek aukeratu dizkiogu erreskadan:

43'gn or. : "Bizarra quendubAZ".

45'gn or. : "AguindubAZ".

46'gn or. : "Min emonAZ eta ateriAZ".

Prai Bartolome'k lasai-antzean erabiltzen ditu jerundio-formak; eta danak, ez -AZ forman bakarrik, oraindik osotuago, -AGAZ forman baizik.

Ikus "Jaungoicuaren amar Aguindubeetaco... icasiquizunac" (Iruñean-1816):

5gn or. : "Ondo icasijAGAZ".

7'gn or.: "LagundubAGAZ".

9'gn or. : "Dotrinia icasijAGAZ".

12'gn or. : "EsanAGAZ".

15'gn or. : "Gaisqui eguinAGAZ".

16'gn or. : "Aituten emonAGAZ".

107'gn or. : "Gauza bat aguindub AGAZ... eragotzijAGAZ".

107'gn or. : "Oracinoe eguinAGAZ".

107'gn or. : "Sarri esanAGAZ".

107'gn r. : "AlabaubAGAZ".

Neurri beretsuan egiten du baita Betolaza'ren "Dorina"k ere.

Ikus: (Mitxelena'ren argitalmena, "Amigos del País" en Boletín):

19'gn or. : "Meza enzunACAZ... Jaungoicoen berbea enzunACAZ... bularretan golpe emonACAZ".

* * *

Berriz ere gauza oso argi azaltzen da. Bi fonnak bat-bezain-beste erabiltzen dirala Euskalerrri guziaren Geografian; biak gauza bat-bederaren bi "variante" bezela. Zubero-aldean beti -Z soilla; Laburdi-aldean, geienean -Z, aldian bein -AZ; Gipuzkoan, bat-bezain-beste, berdintsu, -AZ apur bat geiago; Bizkaian, Gipuzkoako mugan, beti -AZ; Bizkai-Bizkaian, berriz, ez -AZ bakarrik, -AGAZ...

Gauzak orrela dirala, ez bait liteke psan, jerundio jatorra -Z soilla bakarrik danik, -AZ gaizki dagonik.

ESTETIKA-KONTU ZERBAIT

Leentxuago esanik daukagu, gai ontan, batzutan -Z soillik eta bestetan -AZ egiteko, arrazoiren bat izan litekeala. Eta, izan ere, bein baño geiagotan egon izan naiz ni nere baitan pentsatzen, eufoni-arrazoiren bat tarte ortan ibiltzen ez ote dan, eufoni-arrazoiren bat, estetika-arrazoiren bat; ots-konturen bat, bear bada, edo-ta (naiz itz-neurtuzko, naiz itz Jauzko) ritmo-konturen bat. Ez beintzat semantika-konturik ezer, Prosodia-kontuzko zerbait baizik...

Dana dala, bein batean, orain urte batzuek dirala, alako topadizu bat eginda, gauza orrixe buruzko bere iritzia galdetu nion gure Base-ri'ri; eta berak ere erantzun bera eman zidan: bere ustez, gauza ori ots-kontuzko zerbait zala, belarri-kontuzkoa; batzutan belarrirako -AZ obeto etortzen, alegia, eta bestetan, -Z soilla obeto...

Orain, ordea, gauza ori pixka bat sakondu nai izan ezker, ots-kontuaren ariari jarraikiaz, aditzaren bukaerari begiratu bearko genioke besteak beste, bukaera orri -Z soilla, ala -AZ erastea egokiago ditoken ikusteko. Eta, gai ortan gauza jakiña da, aditzaren bukaera oiek era askotakoak arkitzen ditugula: dala-tii, adibidez "ederTU"; dala -rt, adibidez "jaN", "edaN", "egoN", "esaN"; dala -i, adibidez "ikusI", "ibilH", "erorI"; dala -a, adibidez "botA", "aterA"; dala -e, adibidez "betE"; dala -o, adibidez, "jO", "erasO"; dala -l, adibidez, "iL",..

Eta, ez dakigun arren, gure auzi ontan arrazoi oiek beti-beti kontuan eukitzen diran ala ez, au da gai ontan egia : iñoren belarriri ez liokela on aundirik .egingo, "jo" aditzaren jerundioa egiterakoan "joZ" esateak, "joAZ" baizik... kantak dion bezela

"kalerik-kale, danborra joAZ
umore ona banatzen dijoaz";

eta berdin "bota" aditzarekin ere, iñork ez duala "botaz" esango, "boteAZ" baizik; eta berdin baita "atera" aditzarekin ere, "ateraZ" ez baño "atereAZ" obeto baizik... Bañan beti ere zerbait eufoni-kontu bezela, zerbait egoki-kontu.

Nolanai, beintzat, dirudianez, semantika-konturik ez (forma batek gauza bat esan nai, alegia, eta besteak beste bat; beti gauza bera baizik); gauze bera esan nai duten bi "varianté" dirala, alegia...

ITZ BITAN

Jerundioa euskeraz -Z atzizkiaren bidez egiten dala esan degu: -Z atzizkia aditzari erantsiaz, -Z atzizki benetan'abefats ófi.

Atzizki ori izenari ere erasten zaio, zerbait "modal-instrumental" adierazteko; eta izenari arasten zaionean, -Z soillaren forman erasten zaio. Ikus "Meza Santuan", "biotzeZ", "egiteZ", "bideZ", "aintzaZ", "bitarteZ", "biotz bateZ", "gogoZ", "PiztueraZ", "guztiZ" (1).

Bañan, jerundio bat egiteko, izenari ez baño aditzari erasten zaionean, Euskeraren oiturak tratu berezi bat ematen dio atzizki bitxi orri : batzutan -Z soillaren forman erasten dio, eta bestetan -AZ forman: "jarraituZ", "gogoratuAZ". Lojikaren kontra, bañan oitura orokar-orokar baten aginduz : Izkuntzaren Lege jatorra dan oituraren aginduz. Bat-bezain-beste.

Gauzak ola dira. Itxuraz lojikaren kontra; bañan ola. Eta ondo. Izkuntza-gaietan, erromatarren Oratio'k zion bezela, oiturak agintzen bait du.

(1) Vid. pág. siguiente.

MEZA SANTUA (-Z atzizkia)

7'gn or.	:	"gogo-biotzeZ".
11'gn or.	:	"egiteZ".
23'gn or.	:	"Aren bideZ dira egiñak...".
23'gn or.	:	"Espiritu Santuaren egiteZ".
25'gn or.	:	"aintzaZ etorriko da".
31'gn or.	•	"guztiZ Santu".
31'gn or.	:	"bitarteZ".
31'gn or.	:	"bidpZ".
31'gn or.	:	"egiteZ".
33'gn or.	:	"biotz bateZ kantari".
35'gn or.	:	"gogoZ".
35'gn or.	:	"berriZ ere".
37'gn or.	:	"Zure PiztueraZ".
39'gn or.	:	"bitarteZ (biz)".
47'gn or.	:	"Onen bideZ".

Oñati'ko kale-izenak dirala-ta

Azkeneko Batzarrean, Oñati'ko kale-izenak dirala-ta ezta-baida bero xamar bat pizku zan. Izendegi ura nik ontzat eman nuan. Bañan gero, izendegiaren detalle bati oraturik, ezta-baida sortu zan. Nik ez iman nere iritziaren defentsarik egin Batzar artan. Gaur bete nai det orduko nere utsuneura.

* * *

Izendegi artan izenen batzuek —apellidoren batzuek, obeto— atzizki sufijo -ár'ez bukatzen ziran. Eta ontatik sortu zan ezta-baida. Eta norbaitek -tar ori galerazi bear gendukeala esan zuan.

Egia esan, ez derizkiot galerazte ori Euskaltzaindiaren egitekoa danik.

Gauza bat usadioaren lurrean sartzan danean, ez dago iñungo Akademiaren ez iñungo akademikoren eskuan, gauza ura kentzea edo galeraztea. Alperrikan litzake lan ortan saiatzea. Usadioaren eremuan sartzan dan gauza, erriari dagokio —[^]Gizarteari dagokio, Soziedadeari dagokio, *hecho social*, *fenómemo social* da— eta ortan Gizarteak bakarrik du esku ta eskubide. Beste edozeiñen alegiñak alperrikakoak izan oi dira. Eta (esan dezagun) apeliuaren ondoren -tar atzizkia jartzea, gaur *fenómervo social da*, *usadioa da*, *oitura da...* *usus quem penes jus est et norma loquendi...*

* * *

Irurogei urte ba dira, Arana ta Goiri'tar Sabin'en eskolak oitura ori asi zuala; eta irurogei urte otan millakak eta millakak erabilli dute -tar ori; uste bait det euskeraz idatzi degun geienok erabilli izan degula. Euskaltzaindiak berak ere bere diplomaetan -tar ori txitian-pitian erabilli izan du. Nere Euskaltzaindian sarrerako diplomak, Askue zanaren eta Nazario Oleaga zanaren izenpekoarekin olaxe dio: "Lekuona ta Etxabeguren'dar Manuel".

Olako usadio baten aurrean, Euskaltzaindiaren egitekoa, oiturari men-egitea da. Ez ezartzea, bañan ezta galerazi ere; nai-ta-ez ezarri, ez; bañan nai duanari galerazi, eragotzi ere ez.

Euskaltzaindiak egin bear duana, beste gauza bat da : estudio ondo osotu baten bitartez erabaki oitura ori —apelliduen ondoren— *-tar* atzizkia erabiltze ori— oitura arrazoizkoa dan ala ez, ea *-tar* ori or bere lekuan dagon ala ez. Eta orixe da Euskaltzaindiak beste ezer baño lenago egin bear duana, bañan ez anatemarik jaurti, oitura orren aurka.

Eta, ain xuxen, bigarren gauza au da, gaur nik zer-edo-zer ikutu nai nukeana. Arrazobidezkoa al da, *-tar* atzizkia apelliduen ondotik ipintzea, ala ez da arrazoi-bidezkoa? Bere lekuan al dago, ala bere lekutikan kanpora?

*S w w

Batzar artan San Martin Jaunak, arrazoi bezela, berari Eibar'en —bere jaiot-errian— gertatzen zaiona aipatu zigun. Bera, apelliduz "San Martin" dan arren, Eguren-etxean jaio zalako, "Egurendarra" esaten diotela.

Ori ola izango da Eibar'en, bañan nik beste orrenbeste esan dezaket gertatu izan zaidala neri Oyai'tzun'en —nere jaiot-errian—; kontrara ezik. Ondo gogoan det, urteak dira baño. Neretzat aide etzan gizon bäserritar bat zan Koxme Lekuona, Yerobi baserrikoa. Eta, ikusten niuduan bakoitzean, onela erasoten zidan : "Apaiza : gu, "lekuonatarrak" gera, gero!" eta, diodan bezela, ez giñan etxe berekoak. Apellido berekoak giñan: Lekuona ura, eta Lekuona ni; eta arentzat "Lekuonatarrak" biok.

San Martin Jaunaren arrazoiak balio badu, nereak ere balio bear du...

Bañan ikustagun gauza sakontxeago. Eta bere istori-apurrean.

HISTORI-APUR

Euskaldunok apelliduak erabiltzeko oitura sortu genduan ezkerro, ize-naren eta apelliduen artean lokarri bezela erderazko *de* eraballi izan degu. Larramendi Aitak berak, XVIII gizaldian, euskeraz ari zalarik ere, "Manuel de Larramendi" idazten zuan. Ikusi besterik ez dezute,

Mendiburu Aitari, bere "Jesus'en Biotzaren debozioa'rentzako" egin zion gomendiozko karta. "Zure serbitzaria biotzetik —IHS— "Manuel de Larramendi". Eta berdin egin oi zuan Axular'ek ere : "Pedro de Axular". Eta berdin orduko Gotzai "Bertran de Etchhaus'ek" ere, etab.

Edozeñek daki "de" orrek zer esan nai zuan euskaldun aientzat. Asieran, familaren jatorria; apelliduak nor-beraren jaiot-etxetik artzen bait ziran, eta nor-beraren jatorria esan nai zuten. Bañan, gerora, tarte ortan beste elementu bat ere sartu zan : "de" ori noblezi-señale bezela erabiltzea; ez jaiot-etxearen ezaugarri bezela, —edozein jaiot-etxeren ezaugarri—> etxe "ezagunaren", etxe "leñargiaren" noblezi-etxearen ezaugarri, señale bezela... Gauza estimagarria benetan... Bañan tartean erderazko itza : "de"...

Bañan pentsatu bait zitekean, olako euskal-kutsu aundiko gauza baten ezaugarriak, erderazko itz bat •—"de" bat— izan bearrak, alegia, etzuala beti ola iraun bear; euskerazko beste itz-joku bat sortuko zala. Eta alaxe gertatu.

Bañan "de"ren orde z zer sortu zan? Eta noiz?

* * *

Puntu ontan naasten zaigu emen, Euskera-garbi-bearreko saio berezi bat. Euskera garbitu... Aita Larramendi'k, bere "Trilingue'n" asitako saioa zan garbi-saio ori. Bañan Larramendi baño ondotoz beranduago pentsatu zan pentsatu apellidoen "de" ori kendu, eta beste euskera garbizko zerbait, orren orde z ipintzea.

Nik ez dizutet esango noiz, bañan beranduago izan zala, bai. Ezta, ez dizutet esango, zein izan zan, lan ortan lenengo asi zana ere. Bañan bai, emeretzigarr.en gizaldian asi zirala batzuren batzuek, apelliduaren ondotik "de'ren" orde z, -ko> bat ipintzen. Manterola'k sortutako "Euskal-erria" Errebistan idazten zuten idazle asko izan ziran moda ortara jo zutenak. Eta Errebista, bigarren Karlista-gerrate-ondoan sortu zan. Orain gogoan daukalarik, Karmelo Etxegarai batek eta berdin Domingo Agirre batek olaxe izenpetzen zituzten beren idaz-lanak : "Karmelo Eche-garai-koa", "Domingo Eguirre-koa".

Bañan etzuan denbora askorik iraun oitura orrek. Bereala ikusi zuten batzuren batzuek, -ko orrek etzuala "jatorria" esan nai, *vecindad* bakarrik baizik. Ez bait dira berdiñak "jatorria" eta "vencindadea". Eus-

kaldun askok, leen atzerrian bizi ziralarik, onela izenpetzen zituzten beren paperak "*vecino de Valladolid, natural vizcainó*", edo "*vizcaino de nación*".

* * *

Izan ere, norbaitek, bere inguruarekin iru errelazio izan ditzazke : bizi, jaio ta jatorri. Bizi dan lekuarentzat, *-ko* ondo dator; bañan jaio dan lekuarentzat naasten da beste elementu bat, *'tar*: "Au Donostia'koa da, bañan *tolosarra* jaiotzez". Eta, jaiotzez gañera, jatorriz danean, orduan-ta areago : "Au Donostikoa da, tolosarra jaiotzez, bañan afrikatarra jatorriz". Iru malla olako errelazioetarako : bizi (vecindad), jaio (naturaleza) eta jatorri (origen, casta): *-ko*, *'tar* eta berriz ere *'tar...*

* * *

Osberbazio oiek oso bidezkoak eta errezak ziran; eta bereala konaturatu ziran gure idazle zaarrak, gauza oni beste bide bat eman bear zitzaiola : apelliduen *-ko* ori utzi bear zala, alegia. Eta orduan sortu zan —orduan sortu zuten Arana'tar Sabin'en Eskolakoak —apelliduaren ondoren, abizenaren ondoren *-feo'ren* ordezt, *'tar* ipintzea. Ondo? ala gaizki? Ori zuek ikusi. Bañan gauza bat aaztu bear ez deguna : irurogei, larogei urtez onuztik, millaka idazlek erabilli dutela formula ori; *hecho social* jator-jator dala iadanik; eta, onezkero Euskaltzaindiak zer-egin gutxitxo duala gai ontan; eta alperrikako lan aspergarrian eta gorrotagarrian sartzea dala, olako gietan *por decreto* bezela jardun nai izatea. Ez ezarri, ez galerazi. Errespeta. Gauza aztertu; fenomeno erregistratu. Orixe litzake gure egitekoa. Dogmatizatu, ez.

* * *

Galdera bat orain, emen : sortu al du iñork, jatorria adierazteko *'tar* baño itz egokiagorik? Ez da naikoa au edo bestea erabilli ez dala esatea; zer erabilli bear dan ere esan bear litzake. Kritika negativa egitea, ez; kritika constructiva egin bear degu.

Eta bukatzeko, berriz ere, beste au : Irurogei urte ta geiago diraía, Arana ta Goiri'tar Sabin'en Eskolak 'fari'en oitura artua daukala; eta irurogei urte oetan millaka idazlek erabilli dutela formula ori, uste bait det, euskeraz idatzi degun geienok erabilli izan degula.

«Erria» = «lurra»?

Arantzazu'n, geroneko Batzarrean, *Populx* itza ontzat eman-bearez-edo, gauza ausartatxo bat esan zuan norbaitek : "erria", "lurra" dala, alegia; eta "errian bizi diran gizonak" adierazteko, *populua* erabilli bear litzakela. Ori ez dala egia esan bear izan nuan nik: "erria" ez dala "lurra" bakarrik; lurra eta lurrean bizi diran gizonak baizik; dana.

Argi dezagun gauza au pixka bat.

* # #

Lenengo-lenengo, gaur *populu-itzaren* bitartez esan nai dan gauza bera, orain arte ere esan izan dala; eta, ain xuxen, *erj*-itzaren bitartez; eta esan ere oso argi... ez bait-det uste iñor izan danik, izketa arrantean, itz orren esan-naia errex-errex ulertu izan ez duanik; *argi*, beraz... eta *garbi* gañera, populuaren bitartez ez bezela.

Bigarren; populuaren aldeko iritzian, "erria" *geographi-itza* izango litzake bakarrik, *geographi-itza* : *tierra, territorio* bezela-bezelaxe. Bañan ez bait-da ola. Erria ez da lurra; Erriak ba'ditu lurrak; eta beste gauza asko ere bai; lurraren eta beste gauza guzti oyen "jabea" da. Erri-itza, gizarte-itza, soziologi-itza da; obeto, geo-politika-itza. Lurra ere esan nai du; bañan ez bakarrik, ezta lenengo bezela ere; lurrarekin batean esan nai du baita lurraren jabe dan gizartea, bazkuna ere; *ente moral, entidad alegia*.

—Norenak dira lur oyek? —galdetu oi-da. Eta erantzuna : —Erria-renak... Beraz erria ez da lurra; lurra erriarena da; erria lurraren jabea da.

Berdin baita : —JVoren egitekoa da bideak eta ikastolak eta *hospitalak-eta*. egitea? Eta erantzuna: —Erriaren egitekoa... Beraz, Erriak ba-ditu bere egitekoak, bere eginkizunak... eginkizunak eta eskubideak edo jabetasunak.

Erria, *ente moral* bat da... Ori bai, lurraren gañean .eta "bere" lurrarekin... beste zenbait *ente moral* bezela, adibidez, etxea bezela, Eliza bezela.

Etxea ez dira ptxearen lau paretak bakarrik; etxea *ente moral* bat da, bere lau paret eta bere lurrekin. Etxeak ere ba ditu bere eskubide ta bere eginkizunak.

Berdin baita, Eliza ere. Eliza ez da Meza entzuteko etxea bakarrik; Eliza Bazkun bat da, *ente moral* bat, bere eskubide edo jabetasun eta bere eginkizunakin... Ori, bai; Meza entzuteko Etxean "finkatua"; bañan Eliz-etxeaz gañera beste gauza askotxo ere dituana... Erria bezelaxe...'

Erri bat izan zan

dio Orixe'k bere Poeman. Lurra bakarrik esan nai ote-zuan guré Olerkariak, ori esatean? Lurra? ala Euskalerrria oso-osorik, bere lur, eta bere etxe, .eta bere gizon? Zuzenduko bte-genioke Orixe'ri errenkada ori "Populu bat ba'zan", esanaz?

* * *

Bañan beste gauzatxo bat ere ba'da gai onetan : *erriaz* gañera, *uria* edo *iria* ere esan oi-dala (esan oi-zala beintzat). Gauza bera al-da *uria* eta *erria*?

Nere iritzia esango det.

Euskalerrriak bi erri-era ditu: bata erri zabala, eta bestea erri bildua, pillatua, moltsatua. Naparroaz eta Arabaz beste, gure erriak, antziña —artzai-aroan— danak erri., zabalak ziran. Erdi-aroan Erregeak —Naparroa'ko ta Gaztela'ko Erregeak—, sortu ziguten erri-bilduen era eta moda. Naparroan, ordea, eta Araba'n, erriak —nekazari-erriak— beti moltsatuak, pillatuak izan dira.

Uriak, erri bilduak dirala, esango nuke nik; eta erri-izena, erri.zabalai dagokiela.

Antziñako gure erri zabalai, *tierra* d.eitu izan zaye, *tierra*, *valle*, *universidax*; erri bilduai, ordea, *vilhti*...

Ba'liteke orregatik batedonbati otu-zayon "erria" *tierra* dala esatea, erderazko gure paperetan ola azaltzen dalako, alegia : "erria" = *tierra*;

bañan lehenago esan degun bezela, tierra ori ez bait-zan *territorio* bakarrik, gizartea, bazkuna, *persona moral* baizik. Paperetan Astiasu *tierra* zan; berdin, baita, Ernani ere; Oyartzun, berriz, *valle*; Lezo ta Errezil, berriz, *universida*A... Bañan euskeraz danak Erri.

Itz bitan :

Erri, ez da lurra bakarrik; lurra eta gañerako guztia baizik; eta *uri*, berriz, neretzat "erri bildu", *villa*.

Mozambique'ko Aita Zuriak

— Irakurri al dezu, "Zeruko Argiak" azkeneko numeroan, izen orrekin dakarren artikuloa?

— Bai, irakurri det.

— Eta zer derizkiozu?

— ' Zer derizkiodan? Etikari atzea emanda idatzia dirudiala, gutxi matizatua, naasia; irakurlea gezur-bidera eramateko aukerakoa.

i— Zer, bada?

— Zer? Ba dirudiala, Elizaren Mixiolaritza Mozanbiken, eta Mozambique ez dan beste zenbait lekutan ere, "egite okertzat" salatzeko idatzia dagola; ba dirudiala, artikulorortan Eliza, Mixiotegien bitartez, erriaien "morrontzaren laguntzalletzat", konplizetzat salatu nai dala.

— Eta, izan ere, ez al derizkiozu, olako zerbait gertatzen dala? Elizak erri oietan mixionatuaz, errien morrontza orri lagundu egiten diola? eta ortan gauza oker bat egiten duala? Itz bitan : Eliza Portugalgo Gobeuarekin morrontza gaizto baten konplize egiten dala?

—• Poliki, adiskide, poliki! Edozer gauzetan "konplizidatea" aipatu baño leenago, ondo-ondo irakurri bearra dago, Etikak bere erakutsietan "kooperazioa" dalakoari opa izaten dion kapitulua; eta ikusi aldi bakoitzean zer kooperazio-mueta izan liteken; izaten bait dira *cooperación material* esan oi diranak, eta *cooperación formalak*; eta ez bait dira naasi bear bata bestearekin; eta, alaber, izan bait liteke, *cooperación directa* eta *cooperación indirecta*, ots, zuzen-zuzeneko laguntza, eta saietetikako laguntza; eta oiek ere .ez dira naasi bear.

— Zerbait geiago?

— Bai, bai. Olako auzi batean argi ta garbi jokatu nai bada, beste gauza bat ere ba dala Etikan, oso ondo begiratu ta zaitu bearra : "Egite batetik bi ondoren —bata ona, ta bestea txarra— datozeneko kasu ugari-ugariak"; olakoetan bai bait dakigu, oso zur jokatu bearra dagona, iritzia eman baño leenago, gezur-bidean sar ez gaitezen. Ots, ikusi bearra dago:

a) ia, bi ondoren oien iturri dan "egite ura" bere baitan ona dan, ala txarra (Mixiolaritza bera gure kasu ontan);

b) ia, ondoren txarrari (errien morrontzari) zuzeneani, *directe* eta *per se* laguntzen zaion, ala saietsetik eta nai gabe; ez bait da berdin;

d) ia bi ondoren oietan zein dan aunidiena eta zein txikiena (Mixiotegietan erriai ematen zaien, era guztietako kultura, ala baxtarretik eta nai gabe lagundu lezaikion morrontza...).

— Beraz?

— Itz bitan: gauza oiek ez dirala nolana erabiltzekoak, ondo-ondo neurtuta baizik, etika ondo errepasatuta, alegia.

* * *

— Eta Mozanbikeko "Aita Zuriak" zer?

— Ori beste kontu bat da. Berak jakingo dute, zer ta zergatik eta nola egin duten. "Zeruko Argiak" gauza au generalizatu egin du. Eta etzuan egin bear. Beste explikazio gabe "Zeruko Argia" lur labain batean sartu da : "campañã de escãndalo"-edo. Eta ori da, guk gaizki derizkioguna.

Transcripciones y traducciones de viejos textos vascos

Textos como el "tolosano", hallado en los Archivos Eclesiásticos de Pamplona que aireado por la pluma de José María Satrustegui, tienen aspectos tan interesantes, que no es posible pasen sin varios comentarios.

Nosotros vamos a tocar aquí el punto concreto de las traducciones, alguna de las cuales no nos satisface del todo. Concretamente en aquella cuarteta que dice :

Estu egongo aiz oen glosazen.
Ançarac baceaquic deadarr eguiten;
Salamancaco çuloan egondu inçan icasten
Icaragoa aiz oen egu(i)ten,

para cuya traducción se propone lo siguiente: "Estarás glosando con miedo estas cosas / sabe dar graznidos el ganso; / estudiaste en *aulas* de Salamanca / eres más *temible* en estos trabajos".

El *Salamancaco çuloan* no debe ser "en aulas de Salamanca", sino "en la cueva de Salamanca", con una alusión clarísima a las famosas cuevas de la universitaria Ciudad del Toñmes, donde dice la leyenda residía el demonio, de quien, en efecto, algunos estudiantes aprendían muchas artes diabólicas. Entre estos estudiantes se contó, por cierto, nuestro Axular, cuya legendaria personalidad —ya que tuvo dos: una histórica, y legendaria otra— se halló complicada en aprendizajes de aquel género diabólico, precisamente en las referidas cuevas (Vid. nuestro Prólogo a la edición última del GERO, Itxaropena de Zarauz, 1954, p. XIV, nota 10).

El *icaragoa aiz* que sigue, traducido por "eres más temible", tampoco nos satisface. Su traducción debe hacerse a la luz de su contexto, que se halla en *Salamancaco çuloan egondu inçan* y *estu egongo aiz*, que preceden : *estu (egongo aiz)...* *icaragoa (aiz)*, cuya traducción exacta sería

"apurado (estarás)... más (lo estás)", mejor dicho, "más *temhloroso* estás", temblor que se refiere a las temibles lecciones demoníacas de la eueva salamanquina, como si dijera : "ahora tiembblas más que en la diobólica cueva de Salamanca". *Ikara izan* como *hildur izan*, es verbo compuesto; *hildur izan* = temer; *ikara izan* = temblar; *ikarago izan* < = temblar más.

Tr *ir TT

Y ya que estamos revisando transcripciones y traducciones, vamos a revisar también otro texto, de muy reciente citación él (Boletín, año XVII, cuad. 2.º, pág. 139).

El texto se refiere a cierto saludo-petieión dirigido al Emperador Carlos V, por los vecinos de la aldea guipuzcoana de Sorabilla, junto a Andoain. El saludo dirigido al Emperador, de camino para Flandes, por los hijosdalgo sorabillatarras, fue en los siguient.es términos, según lo registra la "Crónica de Ibargúen" :

Cose Erregue, capela gorri,
achul ona, Sorabilan bost eche,
bost echeac bost urre...
Erregue Jauna, eguiezu
alcabalez merchede;

cuya traducción castellana en la misma Crónica aparece así : "Ola, Rey del sombrero colorado. / Aceos acá, en Sorabilla hay cinco casas / y ellas cinco como cinco oros. / Señor Rey, aceldes / merced a las alcabalas" (1).

Desde luego y contra lo que dice esta traducción, los cinco oros no deben de referirse al valor de las casas (por lo cual sobra la *como* de *como*

(1) Me permito hacer aquí una observación para rectificar un error en el cual no le cabe culpa alguna al Sr. Lecuona. La primera palabra del ms., sin duda, es *Cosc* y no *Cose*, como «e dice: la letra es grande y muy clara. Se tiene por ello la certeza de que *Cose* en el *Informe* de Lezama Leguizamón, fuente común de los autores posteriores, es una errata de imprenta y no un error de lectura. A mi pareoer, además, la hoja en que se cuenta esta anécdota, encabezada "Sorabila", como otras hoy unidas a Is cuadernos de la cfónica Ibargiien-Cachopin, son muy probablemente adiciones de una mano posterior (una dice: "Balthasar dechabe escribió el origen de la lengua Ba[scon]:gada"), acaso la de Francisco de Hita (L. M.).

cinco oros), sino que deben de referirse al importe de la alcabala —exagerada alcabala—> cuya exoneración se pide al fin de la copla.

Por lo demás, en esta traducción hay un paso muy chocante : el de *achul ona*, que la Crónica traduce por "aceos acá". Traducción chocante en sí, y tanto más cuanto que en el caso ocurre una circunstancia que hace posible otra interpretación, bastante más obvia; y es que en la jurisdicción precisamente de Sorabilla había por entonces un punto muy interesante —una ferrería— conocida por *Achulondo* circunstancia que posiblemente no conocía el cronista vizcaíno, por lo cual él, por su propia cuenta, se lanzó a la interpretación, posible también, aunque un poco chocante, de "haceos acá", como si se tratase de un *atoz onm* (en Sorabilla más bien *otoz onerá*). No sería nada extraño que los hidalgos suplicantes quisieran primero señalar los menguados límites de la jurisdicción sorabillatarra, que precisamente empieza en el referido punto de *Achulondo* —donde Sorabilla confina con Zubieta, la regata de la ferrería de por medio—> para, después de señalar también los límites opuestos del cercano Aduna, exponer su petición de dispensa de las alcabalas.

El carácter toponímico de ciertos elementos de textos de este género, no es nada extraño. En algún otro texto ocurre cosa parecida. Tal, v. gr., en el "Cantar de Perucho" de la "Tercera Celestina" (2), donde hay un inciso, *joat... asto bizarra*, cuya interpretación dio en su día muchos quebraderos de cabeza, hasta que una sencilla intuición nuestra apuntó la posible presencia en el texto, de un topónimo (*Astobiza'ra=joa(M)t*; *Astobiza'ra* = "véteme a Astobiza"), desechándose luego las disparatadas traducciones a base de problemáticos *astos* y *bizarros*, que se venían ensayando hasta entonces.

Una tradición local de Sorabilla podría reforzar aún más esta nuestra interpretación de tipo toponímico. Hay una tradición, desde luego desplazada en cuanto a ciertas circunstancias, pero fundamentalmente igual, según la cual en cierto paso de un Rey por la aldea, le salió a saludar y hacer su homenaje el dueño de la Casa de Azelain —magnífica finca dp Sorabilla—, el cual, señalando con la mano las extensas pertenencias de su casa, dicen que dijo así: "Todos los campos son míos, y Allurralde también". Allurralde es otra finca cercana, también muy

(2) Rlev. 1925, tomo XVI, pág. 470, "Viejos textos", Lecuona.

lucida, de Sorabilla. Quizás esta tradición sea un reflejo popular del episodio de la Crónica, con un carácter más pronunciado de señalamiento de jurisdicciones... "Todo esto, y además Allurralde".

•ff ir tF

A propósito de topónimos en textos antiguos, no podemos menos de señalar aquí otro caso idéntico y del propio autor de la "Crónica de Igarriien". Nos referimos al pasaje de la Crónica donde se relata el incendio de Mondragón a manos de los gamboínos la víspera de San Juan de 1448. Es cosa sabida que la Crónica ilustra el relato con fragmentos en verso vasco, que describen algunos episodios dramáticos de aquella terrible gesta. Uno de los episodios es la desesperada huída del hijo de la Casa de Ozaeta de Vergara, perseguido de cerca en las afueras de la Villa en llamas, por un gamboíno, Abendañuje Motela. En las coplas que cuentan el episodio, se hace referencia a la intercesión de Santa Marina en favor del muchacho fugitivo; intercesión que se manifestó en que la Santa de la próxima Iglesia hoy caserío de labranza— invocada por él, hizo que se despistase completamente su perseguidor, que le iba ya a los alcances. El modo del despiste se halla en el texto expresado de un modo un tanto confuso. Dice así:

Esquerric asco emayten deusat
Andra Santa Mañ(a'ri)...
Bera axeyzat sartu-eta,
esera bidaldu nau ni.

Luis Michelena, que un día comentó estos textos en un competentísimo trabajo (3), confesaba la imposibilidad en que se hallaba de interpretar convenientemente ese *axeyzat*, del *bera axeyzat sartu eta*. Una pura casualidad nos puso a nosotros cierto día en la pista de una interpretación aceptable del oscuro pasaje. A la entrada de Mondragón, yendo de Vergara, junto a la Fábrica de Musakola, en un recodo de la carretera, a la vista frente a frente del caserío Santa Marina, hay un antiguo caserío, cuyo nombre actual *Axerixa* (quizás un tiempo

↳(3) Boletín, Año XY, cuad. 4.º, pág. 881. "Los eantares de la quema de Mondragón", Luis Michelena y Angel Rodríguez-Herrero.

Axeritza) nos da la clave del enigma. El caserío está junto al río, la calzada antigua cruzaba allí la corriente, como hoy lo hace la carretera en pronunciado zig-zag... El favor de la Santa invocada consistió, sin duda, en provocar en aquellas circunstancias un despiste, nada difícil, del perseguidor, haciendo que entrase en el caserío *Axeritza*, pudiendo de esa manera ponerse a salvo el fugitivo y llegarse a su casa de Vergara :

Bera Axeitzan sartu-eta
etsera bidaldu nau ni.

Como se ve, una vez más, un topónimo nos da la clave para una interpretación laboriosa (4).

* * *

Y por fin un caso más, de antiguo texto deficientemente aplicado. Lo hallamos en la reciente notabilísima obra de Ciriquiain-Gaiztarro sobre los Vascos en la pesca de la Ballena.

El texto está tomado del *Manual Devotionezcoa* de Joannes de Etcheberry; y concretamente se trata de la oración que trae el Devocionario para la acción de gracias después de la muerte de la Ballena.

No es que la oración esté mal transcrita, sino que a la transcripción le falta una línea, un verso. Es cosa sabida que el curiosísimo Devocionario del Vicario de Ziburu está concebido en lenguaje versificado, todo ello en idéntico metro, de dísticos pareados de quince sílabas, con cesura en la octava...

La oración de referencia consta de siete dísticos pareados, consonantes, faltando al dístico sexto su segundo verso; o, en otros términos, la oración tiene catorce versos, de los cuales falta en el texto el verso duodécimo.

El dístico completo viene a ser :

Lehorrera dakharquegu / eguiñic sarrasquia,
bici cela aztaparraz / cebillan ihicia,

(4) Como se observará, la sustitución de *axeritza* por *axeitzan* está exigida por el verbo *sartu* (=entrar) que sigue en el texto, aparte del carácter toponímico de la palabra em cuestión.

faltando en la transcripción que comentamos, este último verso, cuya traducción castellana —nn tanto libre— se incluye, sin embargo, en el libro: "Lo hemos traído a tierra, *cubierto de heridas*, hecho un despojo, cuando antes era una fiera que se agitaba *indomable*".

*77 TP *80

Alguna otra observación cabe hacer sobre esta misma oración, y es en lo referente a la traducción del cuarto dístico, que dice así :

Ecen çure baithan / tturroñ batec etsajac
Urrutic ici deçan / nahiz dela hangaja,

pasaje cuya traducción falta en el libro. Cosa que, por cierto, nada nos extraña. El pasaje es verdaderamente difícil de traducir, tal como está. Hay en él desde luego dos términos de no fácil inteligencia : el *hangaja* del final, y el *urrutic* anterior, ambos del segundo verso del dístico en cuestión. El *hangaja* es palabra que no se halla registrada, tal como suena, en ningún vocabulario; y el *urrutic* no tiene en el caso ninguna aplicación obvia.

Aparte de esto, nosotros hallamos otra particularidad en este dístico, y es que sus versos "no constan" : al *Ecen çure baithan* del primer miembro, le falta una palabra de dos sílabas, que debe ser un *nola*, principio de una comparación que en efecto está completada y exigida más abajo por un *hala* en el dístico siguiente (*nola... hala*). Con lo cual el primer verso queda completo e inteligible : *Ecen nola cure baithan / tturoñ batec etsaja* = Porque, *así como* por tu poder un ratoncito a su enemigo (puede espantar...).

Otro tanto debe decirse del segundo verso, al cual le falta otra palabra, de una sola sílaba ella, que posiblemente es un *hal* ante *deçam* (*ici hal deçan* = "puede espantar"), con cuya adición queda el verso completo y el texto bastante claro.

Sólo quedan por aclarar los dos términos *urrutic* y *hangaja* del siguiente verso; sobre los cuales, sin embargo, puede aún hacerse alguna conjetura.

Urrutic debe ser *urruric*, cuya significación de *gratuitamente*, *sin motivo*, justifica perfectamente su presencia en una escena de susto, dado

por un ratoncito a un ser mayor que él. Lo que falta aquí es, precisamente, dar con ese "ser mayor", que se oculta tras del último término del dístico, *hangaja o hangaya* y a cuya averiguación habremos de renunciar por hoy.

El texto corregido queda así :

Ecen *nola* çure baithan / tturroñ batec etsaya
 urruric ici *hai* deçan / nahiz dela hangaya,
 hala guri ere eguin / darocuçu dohaña
 ventçuteco Itsasoan / den sendoen arraña,

cuya traducción sería : "Porque, así como en tu poder, un ratoncito a su enemigo puede gratuitamente espantar, aunque éste sea... (^gigante? ^kankallu?); así también a nosotros nos has hecho el don de vencer al pez más fuerte que hay en el mar".

IV

KRITIKA

Xenpelar eta «humorismoa»

XENPELAR'EN URTEA

(*Erreteriam' n.*)

Jaun, andreak :

Urte aundi, aurtengo urtea Erreteriarrentzat: Xenpelar bertsolaria Erreteria'k aintzatu bear duan urtea, aren eriotzaren eun urte-betetzea dalata. Xenpelar aintzatuaz, Erreteria aintzatuako bait-dezute erreteriarrok. Erreteria'ren izena, zuen erriaren izena.

Xenpelar'ek etzuan bein ere ukatu bere erreteriar izatea; bañan ezta geiegi aitortu ere; orregatik jendeak, jende askok ez daki Xenpelar aundia erreteriarra zanik. Aurtengo urtean ezaguerazi, jakinerazi bear diezute guztioi, bertsolari sonatu arren jatorri erreteriar ori. Xenpelar'en beraren ohorerako, eta Erreteriararen ohorerako.

* * *

Xenpelar zer zan adierazteko, bertsolaritza zer dan adierazi bear litzake lehenago. Gure artean Xenpelar esatea bertsolaritza esatea bait-da. Guztion ahotan dagon errepiña bait-da arako esaunda hura :

bertso berriak,
Xenpelar'ek jarriak,

bertso berri guztiak Xenpelar'enak balira bezela. Eta, izan ere, gutxi edo geiago ala bait-da. Xenpelar etzan izango bertsolaritza sortu zuana; bañan, nolanai dala bai, Xenpelar bertsolari ixpillua dala, bertsolaritzaren: sinbola, gaur esango litzaken. bezela : bertsolaritzaren mendi-mendiaren erpiñean dagola, alegia. Eta orrek asko ta asko esan nai bait-du gaur Euskalerriaren biotz-biotzean eta errai-erraietan.

Euskaldun bakoitzak biotz-biotzean eta muin-muñetan, bere izaeraren barrunbean, bertsolari bat daramaki.

Ori esan izan du norbaitek. Nik geiago esango nuke. Euskaldun ba-koitzak geren barra-barruan iru euskaldun daramazkigula : pelotaria, dantzaria eta bertsolaria...

* * *

Barru-barruan guztiok zenbait gauza daramazkigu, "amaren sabeletik" olerkariak donostiarrentzako esan zuan bezela :

*Festarik bear bada,
bego Donostiym:
amaren sabeletik
dago ikasiya.*

Nik bertsolariarentzat geiago esango nuke; ez amaren sabeletik, goragotik oraindik, *atavismo* bat bezela, gurasoengandik, antziñako asabaengandik : odolarekin nahasirik, arbasoengandik dakarkigula bertsolaritza : beren bizitza guztian, gizaldiz gizaldi bertsolarien etorri ederra xurga-xurgatuaz bizi izan ziran gure arbasoengandik.

Atavismoa aipatu dizuet arestian. Izan ere, ba'da, atavismoz gure barrumbean gure, *sub-conscientean* ezkuterik daramakigun zenbait gauza. Zeñek erakutsita daki, bestela, illabete gutxiko ume euskaldun batek, amaren edo iñudearen besoan, bere besotxoak zabaldua, bere gorputz txikiarekin dantza-imintzioak egiten astea, danbolinsoñua entzun-bezin laister? Gutako zeñek ez dauka gogoan, txikitxikitandik nolako zárradako gozoa egiten zigun gure belarrietan, pillotaren klaketeko garbiak, erriko pillota-plazako aurre-paretean, pillotariak bergn saioak egiten ari izaten ziranean?

Deporte oietan zenbat atavismo dagon, ez bait-da errez esaten. Ikusi al-dezute iñoiz euskaldun ume bat, pelotan egiten duan.ean, besabez jokatzen, erdaldunak berenez egin oi-duten bezela? Atavismoa da guzti ori : asabaengandiko herentzi bat. Gauza bera esan baitliteke, pelotari-entzat bezela, baita dantzaentzat ere... eta bertsolaritzaentzat.

Pelotaritza, deporte da; dantza, artea; bertsolaritza, irugarrena, artea au ere, arterik ederrenetakoa, espirituzko artea; eta oso euskaldunentzat gogokoa.

Gure aita zanak ziona daukat nik orain gogoan: "Neretzako erriko festarik ederrenak, Meza Nagusia, Pelota-partidua —berak pillota esan

oi-zuan—? eta Bertsolariak". Egia benetan: euskaldun orok gure barrun-bean iru gauza oiek: pelotaren klaketakoa, danbolin-soñua eta bertsolarien doñu goitiarra dramazkigula, gure belarrietan zear gure animaren ondo-ondoraño sarturik, "amaren sabeletik"? Goragotik oraindik.

Bear bada, Erretereria'ko erriak Xenpelar bati urte beteko jaiak egi-teak, arritu egingo ditu batzuren-batzuek. Erri industri-zale aurreratu batek, bertsolari bati olako omen-aldia egitea! Ots-aundiko olerkari bati balitz, oraindik : Lope de Vega, edo Zorrilla, edo Machado, edo Garcia de Lorca'ren mallako bati... Bañan, idazten oxta-oxta zekian bertsolari bati...

Ipiñi ditzagun gauzak bere lekuan.

Erretereria'ko erriak, gaur industri-erri dalarik, ba'daki —ez dauka ahazturik, ezta ahaztuzeko ere-^ nun daukan bere jatorria : baserrian, bordaetan, artzantzako saletxeetan daukala, alegia. Jatorri ori ez bait-da mendratzeko, ez ahazteko ere; gutxiago lotsatzeko. Baserrietatik behera jatsitako mutillak izan dira, gure errietako "enpresarik" sendoenak gero sortu ta indartu izan dituztenak. Baserritar jaio izanak ez dio eragotzi gizon gipuzkoarrari, industriarik bikañenak sortzea; lagundu baizik.

Xenpelar bera ere baserritarra zan, borda-itxurako baserri txiki batean jaioa, eta gero langille Fabrika Aundian sartua, eta ango sala bateko "enkargatu" izatera iritxia; ez baitzion arri bere jaiotzako baserritartasunak kalterik egin, enkargatu izátera iristeko bidean.

Erreteriarrek orregatik maite dute baserria : baserria bere kultura-rekin; eta kultura oietan bat, orixe da: bertsolaritza... Erretereriak maite ditu bertsolariak, bere seaska duan baserria maite duan bezelaxe.

* * *

Eta zer erantzun bear diegu orain, "Zorrillari-edo bai, bañan bertsolari bati olako omenaldiak..." diotenai?

Erantzun bat bakarrik: Bertsolariak ez dirala iñoiz ere olerkariekin nahastu bear, konparatu bear. Konparazio orrek ez duala zentzurik, gaur esan oi-dan bezela.

Bi arte-estadio oso berdinezak bait-dira, bertsolaria ta olerkaria bizi diran estadioak; ez, goragoko edo beheragoko mallak bakarrik, bestelako estadioak baizik. Olerkaria artista "letradua" da; bertsolaria letra-gabea, ahozkoa, aho utzekoa. Bi mallatan baño areago esan bear

litzake, bi neurritan, bi girotan bizi dirala. Ondotxo explikatuko zaizkitzue gai oiek, urtearen buruan emango zaizkitzuen itzaldietan. Ez di-teke bata bestearekin konpara, diot, zein gorago ta zein beherago dan erabakitzeke. Bertsolari bat konpara liteke beste bertsolari batekin; bañan ez olerkari batekin. Bi girotan bizi dira. Ori, eskuzko pelotarietaz izketan ari generala, Abrego aipatzea bezela litzake. Eskuzko jokua eta xextozko jokua, bi joku-modalidade baitdira... Bertsolaria ta olerkaria bezela.

Orregatik, bertsolariak buruz ari generala, ez liteke aipatu, ez Zorrilla'rik, ez Machado'rik. Bertsolariak eta olerkariak, bakoitzak bere mundua du. Bakoitzaren mundu ortan, bai, esan diteke, zein dan go-rena, zein dan onena, zein dan aundiena... eta gureztat, bertsolaritza-aren munduan ta giroan, Xenpelar da aundiena, eta orregatik opa diogú, eskubide ta zuzen-bide guztiaz, urte ontan egiten diogun omenaldi eder au.

Zer geiago nai dezute esan dezagun?

Fabrika Aundian langille, eule, izan zala esan dizuet. Guztiok dakizute zer Fabrika Aundi dan au. Beko Kalearen eta Zumardiaren artean, kamio-baztarrean dagon eun-fabrika, alegia. Ori guztiok dakizute.

Bañan, bear bada, ez dezute jakingo, eundegi orren asiera Oyartzun'en izan zala. Oyartzun'en, Ugaldetxe deritzan barriuan, ibai-bazterrean, gaur Matione deritzan etxean. Antxe sortu zan, orain Erreterria'n dezuten Fabrika Aundia.

— Oyartzun'dik Erreterria'ra Fabrika ekartzea zergatik izan zan?

— Norteko burni-bidea, Oyartzun'dik ez baño, Erreterrian barrena zetorrelako. Ba dirudi, Nortereztat lehenago asmatu zan bidea, Oyartzun'en barrena asmatu zala; bañan orduko Oyartzun'go Nagusijendeak, trena andik igarotzeko lurak garestitxo eskeiñi zituztelako-edo, Norteko Konpañiak Gaintxurizketa'n barrena egitea erabaki zuan. Ala da esana.

Dana dala, burni-bidea Gaintxurizketa'tik egin zan, eta ez Ugalde-tetik. Eta orregatik Fabrika Aundia ere etzan Oyartzun'en gelditu; Erreterria'ra etorri zan.

— Noiz ziran gauza auek? Nolanai ere, ez gure Xenpelar'en egune-tatik urruti. Ba'liteke Xenpelar'ek Ugaldetxe'ko Euntegia ezagutu izana, berak an lanik egin ez hazuan ere. Aditzea izango zuan, eta ezagutu ere bai, gaztetxo zala, bear bada, Egurrola baserrian morroi-zegola.

* * #

Eta Oyartzun aipatu degun ezkeru, esan dezagun zerbait geiago, Xenpelar'ek Oyartzun'i zion iritzi-on, lege-on eta sinpatiaz.

Errenteria'ren eta Oyartzun'en artean, esan diteke —beti-beti ez bada ere, luzaroetan beñik-bein bai—> bere aserretxuak izan dirala.

Erdi-Aroan, Pasaya'ko Portua zala-ta, Donostia'rekin izan oi-ziran demandaetan, errenteriarak eta oyartzuarrak ederki alkar-artzen zuten : bi-bion etsaiaren aurka, oso bat-etortzen ziran.

Bañan, XIV gizaldian, Gaztela'k Errege batek, Errenteria "erri bildu" egin, eta Oyartzun Errenteriaren mende jarri nai izan zuan artan, Oyartzun Errenteriarentzat oso aserre azaldu zan.

Bañan XVI gizaldian, Errege Katolikuen esku diplomatikoak itzali-edo zuan aserre ura.

Gero ta gero ,ere, ordea, aserre zerbait —ika-mika zerbait— izan bide zan, XIX gizaldian batez ere... Orain betiko adiskide geran ezkeru, esan dezagun dana: errenteriarrok Oyartzun'entzat burloso xamarrak izanak zerate : erri atzeratua izaki, noski, Oyartzun, XIX gizaldiko Errenteria'ren aldean.

Bañan ori gora-beera, bai omen-zan-beti alako puntutxo bat, Errenteriak Oyartzun'i aitormen bat egin ziona —aitormeni praktiko bat— nola esango degu?... andregai-kontuan, alegia. Errenteriar askok eta askok, andrea artu bear zutenean, Oyartzun'a jotzen emaztebilla... Aitormen ori egiten bait du gure Xenpelar'ek ere bere kanta batean: "Oyartzun'go neskatxai" ain apainki ta galante opa zien kanta ezagun-ezagun artan :

*Neskatxa eder, balientiak
gustatzen bazahizkitzu
etorri zaitez Oyartzun'era,
emen ikusiko-tuzu.
Kale eta baserri,
kolore zuri-gorri,
ederra pranko badezu,
San Esteban'ez erromerian,
ala desio-badezu.*

Olakoxe aitormen jatorra egin zion Xenpelar aundiak Oyartzun'i, Oyartzun'go alabaen izenean.

#

Eta ontan bukatu bear genduke nere itzaldi nekagarri au. Alde batetik luze dijoalako; eta, bestetik, aurtengo urte guztian itzaldiak egin bear dizkitzutenai gaia lardaskatzea ondo ez dagolako; geroko ere zerbait utzi bear dalako. Nolanai-dala, ez ditut emen ukitu nai zenbait gai gozo asko: "Xenpelar ta humorismoa" adibidez; eta Xenpelar'en gizatasuna", "Xenpelar'en euskalduntasuna", "Xenpelar'en social-iriztiak", "Xenpelar eta gerra"...

Nik, orratik, gai bat bederenik ukitu nai nuke emen, orain arteko ariari jarraituaz : Xenpelar b.ertsolari-eskola baten sortzalle izan zala, alegia. Bertsolaritza etzuan berak sortu; bañan —berak ustekabe, bear bada— bertsolaritzaren eskola bat sortu zuan: Gipuzkoa'ko bertsolari-eskola. Eskola onek bai bait ditu bere ezagungarriak, bere legeak, bertsolaritzaren *teknikari* buruz. Argi dezagun pixka bat gai au. Eta orrekin bukatuko det nik nere saioa.

* # #

Ez det azaleko gauzatxo bat besterik esango.

—Zer ezagungarri du Xenpelar'en eskolak?

— Puntuaren txukuntasuna, *rimaren* argia, xeetasuna, detallea : punturik zallenetan ere —bederatzi puntukoetan ere— Xenpelar beti garbi, txukun, beti puntu edjer.

Xenpelar'ek ez du alkartuko bein ere *-ean* puntu bat, *-an* uts batekin; *-ean* beti *-ean*.ekin. Xenpelar'entzat puntua ez da osatzen azken.eko silabarekin, azken-aurrekotik etorri du, batik-bat puntu erretxetan; eta orrek ematen dio puntuari, *rimuri* alako apaintasun bat; geiago oraindik, azkeneko silabaren kontsonantea erantsiko dio puntuari, puntua errezetakoa danean. Adibidez, "Betroyarenekoan" bezela.

*Gure betroyak ez du auko loaiia,
egunero nai-ezik ogi-alia.
Alare ezin jaso lepoko joalia,
burua makurtuta zerbaiten galdia...*

*Orren zaldalia
ez da debaldia:
gauz onen zalia,
bizkotxo jalia:
Malezi asko duen arrantzalia.*

Ikusten dezuten bezela, Xenpelar'en puntua, bertso ontan ez da *-ea ea* soilik, *-lea, -lea* baizik. Puntu erreza danean ori. Ikustagun orain, malla ortako beste batean nola aberasten duan olako puntu errez bat. Ikus "Iparragirrena" deritzan ezagun-ezagun ura :

*Iparragire abilla delai
askori diyot aditzen;
eskola ona eta musika...
ori orrekin serbitzen.
Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komeriante-moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.*

Ikusten dezuten bezela, emen puntua ez da *-tzen, -tzen* bakarrik; *-itzen -itzen* baizik: *aditzen, serbitzen, biltzen, ibiltzen; moduan, orduan.*

Bafian ikustagun orain, nola baliatzen dan puntu zalletan. Betroyaren beste ezagun bat ikusiko degu: aren puntua, *-otzak, -otzák.*

*Begi bat itsua du, adar biyak motzak :
krisellua dirudi aren kokotztk.
Burlaka ari zaizka Elizatik ontzak;
sano dauzka ortzak,
agiñak zorrotzak,
trixtura biyotzak,
dantzan dabil otzak...
Ez diyo onik egin leku arrotzak.*

Orixe da, Xenpelar'en eskolaren ezaugarri berezia bertsolaritzan: Xenpelar'en edo Gipuzkoa'ko eskolaren ezaugarria.

Bidasoaz beste aldekoak, Etxaun batek, adibidez, ez du olako xeeta-

sunik bere bertsoetan. Elizanburu'k bai; Elizanbura gai ontan gure Xenpelar'en ari berekoa da. Ikus aren "Nere etxea" adibidez :

*Ikusten duzu goizean,
eguna hasten denean,
menditto baten gainean
etxe ttipitto aitzin-xuri bat
bi aitz andiren artean,
iturriño bat aldean,
txakur xuri bat atean?
An bizi nuzu pakean.*

Bañan Etxaun bat ez da ain txukuna gai ontan. Begira bere "Bortian Ahuzkiren" lenengo bertsoa :

*Bortian Ahuzki,
ur hunák osoki;
neskatilla ederrak
han dira ageri;
irur ba dirade
oil benaxarmantikl
Baxenar orotan
ez beita parerik.*

Ahuzki, osoki, ageri; xarmantik, parerik... Ez diot nik, gaizki dau-denik; betetzen dute beren lege. Bañan Xenpelar'ek etzuala ola egingo.

Eta bukatzeko, ikustagun orain gai ontan, puntu txukun ta aberatsa duan beste bertso bat. Betroyarenekoa au ere. Puntua, *-arrak, -arrak.*

*Burruka ari dala, juan zaizka adarrak,
ezin sujetaturik bere indarrák.
Talentu onak dauzka gure betroi xarrak:
lurrera botatzen du euli baten kargak.
Jendiaren parrak
ez dirade txarrak:
ganadu elbarrak
juntura igarrak...
Burruntziya diruri aren bizkarrak.*

Ainbeste kanta eder kantatu zituana, 34 urterekin il zan. Gaztegazterik. Zenbat geiago ta ederragorik ez ote-zuan kantatuko, beste ainbeste urte bizi izan balitz!

Bañan askotan gertatzen da ori. Igerleak, profetak, gazterik iltzea, alegia. Urtez gazterik, bañan zentzuz zabarrrik. Eta benetako profeta d&nean, an uzten bait-du ark bere oin-atza, betiko oin-arri bezela. Eta orixe gertatu da Xenpelar'ekin. Xenpelar bertsolaritzaren mendian, erpin-erpiñean dago, *sinbolo* bezela. Bere aintzarako; bañan baita Errenteria'ren aintzarako ere.

Asierako itzak berak darabilzkit bukatzean : Xenpelar'en ohorerako eta Errenteria'ren ohorerako asten degula 1968'gn. urteko Abendua'ren 8'tik, 1969'gneko Abendua'ren 8'ra arteko urte berezi-berezi au.

Xenpelar'en bizitzan gauza bat da benetan nabarmen ta arrigarri: romanticismo-garairik miñen-miñenean bizi zalarik, bera etzala romanticismoz bat-ere kutsatu.

Romanticismoak ezaugarri asko ditu, bañan batez ere, bat: negarti izatea, batez-ere maite-gaietan. Olerkari romantikoak bere maiteari kantatzen dio; ez da poeta romantikorik bere maite-kutunik ez duanik; eta bere maite-kutun orrek bere maitetasunari ondo erantzuten ez diolako, beti-ta-beti lantua joaz ari izatea da olerkari romantiko baten *constantea*, orain esan oi-dan bezela. Olerkari romantikoa, negarti.

Olerkari negarti gure artean —Xenpelar'en urteetan ain xuxen— olerkari negarti-negartia, Bilintx izan zan.

Bañan Bilintx bakarrik ez; Iztueta bera ere naiko romantiko azalzen zaigu bere "Maite bat maitatu det maitagarrian".

Xenpelar'ek ezagutzen zituan olerkari oiek; bañan bera, romantiko izatetik gaitz batetik bezela beti igesi dabil. Maite-gairik etzuan ukitu. Oyartzun'go neskatxai opatako bertsuetan bertan etzaio agertzen, neskatxenganako gustua, admirazioa besterik; maite-mifi-itzalik ezta bat-ere. Bere baitan izango zuan maiterik —nork ez du gazte-gaztetan?— bañan "mundu oren ixillik. Jaun bakarrari agerik" beste olerkariak zion bezela.

Xenpelar'ek bere olerkietan ez du negarrik, bañan *farrai* bai.

Farra, ordea, era askotarakoa izan diteke bertsolari baten bertsoetan: a) bertsolariak berak gauzak farrez-farrez esaten ditualako, ots, *ironia*; b) bertsoak berak far eragitekoak diralako; eta ori bi eratan: 1)

bata farra-murritz eragiteko neurrian; eta 2) algara gozoa eragiteko neurrian.

A) Euskalduna —euskaldun jatorra— ironiko da bere izatez (?). Ori, edozeñek igertzen duan gauza da. Gure baserritarrak a) bestek esaten diona, parrez-parrez artzen du, esaten zaionari far-aldetik begiratzen dio, iñor ofendi gabe broma-zale agertzen da : berak esan bear duana ere itz nahasiz nahastuko du, eta aurpegia farra-murritza ageri duala mintzatzten da.

Eta, euskaldun jatorrak duten izaera ori, iñork bada-ta, bertsolariak edozeñek baño areago. Maltxurreria esan oi-zaio izaera orri. Maltxurreia, ez maltxurreria, maltxurreri txikia, *diminutivoan*. Bertsolariak, irria ezpañetan : orla kanta oi-ditu geienetan bere kantakizunak.

RESUMIENDO

Ahora, para los que, por desconocimiento o conocimiento imperfecto de la lengua, no hayan podido seguir bien el hilo de mi disertación, resumiré brevemente su contenido.

He hablado de Xempelar, como de un símbolo del curiosísimo fenómeno de la improvisación poética, que llamamos "bertsolarismo". Xempelar está en la chna-cima de la improvisación versificada. He ponderado el arraigo cuasi atávico del versolarismo en el alma del vasco de todos los tiempos. Arraigo del bertsolarismo, como de todo nuestro folklore, como por ejemplo, del deporte de la pelota y de la riquísima gama de nuestras danzas y nuestra música.

He ponderado el fenómeno social que es el bertsolari en la vida vasca ("Cada vasco lleva dentro de sí un bertsolari" ha dicho acertadamente la película "Ama lur"). He destacado lo que al bertsolari le separa del poeta propiamente dicho. El bertsolari es una institución viviente encajada en el estadio pre-histórico de las culturas orales, no escritas, a diferencia del poeta "poeta", que encaja plenamente en el estadio cultural de la escritura, dos estadios tan distintos entre sí, como, v. gr., muy en pequeño, la pelota a mano y la pelota a cesta; de tal modo que no cabe establecer comparación entre ambas modalidades para formar ningún juicio de valor, sino estudiarlas y apreciarlas separadamente.

Rentería, he dicho, con estar inmerso en la cultura industrial, encaja perfectamente, siente perfectamente el oculto latido del arte del bertsolari, sentimiento que explica, que a la figura simbólica del bertsolarismo vasco, que es Xempelar, haya quiprido dedicar un año entero de sincero homenaje cultural.

He hecho una somera evocación de la Rentería de la época de Xempelar, con su entonces reciente Ferrocarril del Norte y el orgullo entonces, de su Fábrica Grande, de lienzos, fábrica a la que tan íntimamente va unido el recuerdo de Xempelar.

He dado igualmente un toquecito al innegable cariño que el poeta sentía para con nuestro vecino pueblo de Oyarzun. Pese a las rencillas, pequeñas rencillas de pueblos fronterizos, que, como eco de mayores antiguas, hubo de haber en el siglo XIX entre oyartzuarras y errenterriarras, hoy tan hermanados. Xempelar dedicó a las muchachas de Oyarzun un cálido y galante elogio, que aún se canta en todo el ámbito de la Provincia.

Con una brevísima lección sobre la métrica —concretamente sobre la rima xempelariana— he dado fin a mi pequeña conferencia sobre la figura del vate popular renteriano, cuyas fiestas centenarias, con tanto acierto ha organizado Rentería, para el presente año de 1968 a 1969.

San Ignazio'ren «Martxa» berriz ere

Martxaren itzak. "Gure Patroi aundiarenak" alegia. Bai bait dira beste asko ta asko ere, urteen buruan egindako saioak. Guk, saio guztietan ezagunena ukituko degu emen: "Gure Patrii aundia" diona.

Eta lenengo esango deguna, auxe da : kanta onen letrak, oraindikan ere, Paskual Iturriaga'ren lantzat irauten duala, noizpait gai ontan dudu-mudaren batzuek izan diran arren. Duda-mudak, Iturriaga'k berak Iztuetari egindako karta batek bide-emandakoak.

Izan ere, Iturriaga'k karta aren barruan San Ignazio'ren martxaren letra bat bidali zion Iztueta'ri. Letra, ordean, etzan oraingo gurearen berdin-berdiña. Lenengo errenkadatan, batez ere, oso bestelakoa azaltzen zaigu, erdi-aldetik aurrera berdiña dan arren. Eta, ain xuxen, norbaitek, ortikan bide-artuta, uste izan du, Iturriaga'k bere letra artan, oraingo gureari, —garbiago bearrez— zuzenketaren batzuek egin nai izan zizkiola. Beraz, oraingo gure letra au ez dala Iturriaga'rena, leenagokoa baizik. (Norena? Ez dakigu)... Ondorengo ori ateratzera, Iturriaga'ren kartak berak bultzatzen gaituala dirudi. Izan ere, etzitekean Iturriaga, berak egindako karta batean, berak egindako letra bat zuzentzen ari. Ez da itxura... Ez dirudi, beraz, letra Iztueta'rena.

Ala ere, Iturriaga'rena bide da. Ikustagun.

Ikustagun lenengo Iturriaga'k Iztueta'ri bidaldutako letra eta egindako karta, ikusiaren gañean gauza erabaki dezagun.

Orra letra, dana-dan:

Inazio:	jarriko zaikanik
Aiz Jeneral aundia,	armakin aurrean
zerutik etorria,	gaurko egunean,
eta andik	naiz betor
indar ori dakarkik;	Luzifer deabrua,
ez dek, ez, mutillik	utzirik infemua.

Ire soldaduak
dituk Aingeruak;
 ire Gidaria
dek Jesus andia...
 Txautu dizkik
Jesus'en Konpañiak
 etsaiak.
Ez dauka Fedeak,
ez, kristau nereak,
ez dauka perillik
iñungo aldetik.

Inazio or dago,
beti esnai dago,
armetan jarria
dauka Konpañia,
txispak armaturik,
bandera zabalik...
 gau ta egun,
guk guztiok pakea degun
beti gau eta egun.

Egin ditzazkiogun orain oar batzuek letra oni.

1) lenengo-lenengo, asieratik erdiraño, dana, oraingoa ez bestelakoa dala; erdi-aldeetik aurrerakoa, berriz, oraingoarekin berdin.

2) bigarren —«ta au da oarkizunik nabarmenena— asieratik erdiraño, Santuari *ika* mintzatzen zaiola; eta erditik aurrera, *zuka*.

3) irugarren, asierako itzetan ez duala Santua "Fundatzalle bezela" tratatzen, oraingoak egiten duan bezela, "Jeneral bezela" baizik —ontan, erderazko beste letra baten antzeko azaltzen bait zaigu: arako "*Fundador sois, Ignacio y General*" dionaren antzeko alegia—.

Orain zer ondoren aterako degu letra ontatik eta letrarekin batean Iturriaga'k bidali zuan kartatik?

Kartak gauza gutxi zion: osasun-kontu zerbait esan ondoren, onela jarraitzen zuan: "*Va una ezpata dantza, descriptiva de ella y unu marcha de San Ignacio. Siendo este bascongado, la marcha se cantaba en castellano, lo que parecía ridículo*". Eta, esan bezela, bi olerki bidali zituan kartarekin batean: bata, "Gaur" izenekoa, "Bautista Biribil" baten ezpata-dantzarako arintasuna goraiatuaz; eta bigarrena bere "marcha de San Ignacio".

Benetan, berak dion bezela, gauza parragarria zan, Santu euskal-

dunaren doñu zaarra erderazko itzakin kantatzea; bañan, parragarri ta guzti, ala zan nunbait... Eta gure olerkari ernaniarrak, dirudianez, parragarrikeri ura kendu naiez, letra egoki bat asmatu zuan euskeraz. Ori izan bide zan gauzar.en historia. Ala da itxura...

Ori ere bai : nunbait, berak bere lan artan lenengo egindako saioari etziola gero biziro egoki iritzi, eta lenengo zatia dana aldatu egin ziola; bañan bigarrena bere artan utzi. Eta, gaitz-iritzi ziona, batez er.e, Santuari *ika* mintzatzea izan zan, eta orla gero dana *zuka* ipiñi zuan.

Beste gauza aldatu zuana, Santuari Jeneral-tratua ematea izan zan, eta Fundatzalle-konturik ez aipatzea; eta ori ere aldatu zuan, eta era berean "gure Patroitasuna" aitortu; eta orrekin batean, Fundatzalle-kontua pixka bat biribildu gañera, "fundatu eta armatu" esanaz, leen "zerutik etorria" esaten zuan lekuan; eta, orren urren, leengo "mutillik" kendu, eta "etsairik" ipiñi zuala, orla gauza itxuratsuago geldi zedin...

Ortik aurrera, dana orain bezelatsu bait dago, salbo-ta leengo "txautu'ren" orde, "garaitu" sartu zuala, eta "perillik" kendu, eta "bildurrik" sartu; eta, bukarerako gure "dezagun'en" orde, berak "degun" bat ipiñi zuala... bertso-puntuz erren... gramatikaz bitxi.

Santa Teresa'ren «On bidea»

SANTA TERESA DE JESUS. "ON-BIDEA". ("Camino de perfección". Euskeratzalle, Aita J. Onaindia eta Aita L. Ake-solo, Karmeldarrak. Gráficas Ellacuria, Bilbao, 19-63).

"Ba zan ordua", liburuaren itza-aurrean irakurtzen degun bezela. Ba zan, bai, Teresa Deunaren Liburu eder au euskeraturik ikusi gengan ordu. Au eta beste guztiak. Bañan au, batez ere.

Avila'ko emakume aundi aren liburu guztiak dira irakurgarri. Ez bait da errex, aukera egiten. Bañan euskeratzalleak au aukeratu dute, eta, guk uste, ondo aukeratu dutela.

"Camino de perfección" gogozko otoitzerako deia da. Liburu onen bitartez Teresa Deunak, itzezko otoiztunak, gogozko otoiztun egin nai ditu, gogozko otoitzera bultzatu nai ditu. Eta ortarako ematen dituan arauetan, berak esan gabe ere, bere burua egertzen du; bide ortan berari gertatua erakusten du; beste norbaiti gertatua bezela; ori bai; bañan berak nola otoitz-egiten duan, irakurtzallearen xuxpergarri. Orregatik Teresa'ren Liburu au ere, besteak bezelaxe, auto-biografi-kutsuduna da. Eta, besteak beste, orretxegatik da ain gogoz irakurtzen. Bere barru-barruko ezkutuak erakusten dizkigulako.

IF TF *

Eta zer esan euskeratzalle biok egin duten lanaetaz?

Biok, zein-baño- zein, saiatu dira beren egitekoan. Batek kapitulo bat, eta besteak urrengoa, guk dakigunez, eta idazkerak berak ere aditzera ematen duanez. Bizkaiera jator-jatorrean. Euskeratze-lan errexa ez dalarik, naiko errez egiña. "Naiko errez" ots! naiko argi. Ema-

kume bizkor arren irudimena nundik nora dabillen, erderaz bezain errex ta argi aditzeko eran. Ez bait da euskeratze ontan Teresa'ren erdera bat-ere gogora ekarri bearrik, beste zenbait liburutan gertatzen zan bezela, idazlearen esan-naia ulertzeko. Irakurtzalleak ez du emen erderan zear igaro bearrik, Deunaren asmoa ulertzeko. Zuzen-zuzenean darama bere elburura. Ez da "meritu" makala.

^F w ^F

Guk "Camino de perfección" "On dibe" ez baño "Obe-bide" esango genduan; bañan zerbaitegatik ipiñi dute euskeratzalleak dagon bezela, eta ixillik gaude; bear bada "Obera bide" esanda, norbaitek "Ogera bide" adituko ote zuan bildurrez.

Beste akats bat: elipsis askotxo erabiltzen ez ote duten; ots! aditz "auxiliarra" geitxo ixiltzen ote duten. Elipsis oiek, ondo erabilli ezkerro, oso ondo ematen bait dute; bañan, ortarako, neurritz erabilli bear, neurritz : murriz-antzean obeki, geiegi baño... *ne quid nimis*.

Comentando unos Apuntes de Clase

Definición del Verbo en la Gramática castellana

(Instituto de San Sebastián)

OBSERVACION GENERAL

Que todas las definiciones que se dan, pecan de imprecisión y falta de claridad en los conceptos, en parte por cierta excesiva preocupación de abarcar en ellas aun las excepciones de lo definido.

Las excepciones son excepciones en todas las ciencias; y no deben involucrarse en la regla general. Las definiciones revisten también carácter general. No deben, por tanto, pretender abarcar los casos excepcionales, sino contentarse con lo general. Lo verdaderamente general. Bien observado.

No es menester, por tanto, que, al dar la definición del verbo, por ejemplo, se tengan en cuenta todos y cada uno de los verbos. Como ni tampoco todos sus matices. Ni mucho menos se debe definir el verbo por alguno de sus matices, dejando a un lado lo fundamental de él, andando, como suele decirse, por las ramas, abandonando a un lado el tronco y las raíces. Lo cual puede ocurrir fácilmente cuando se extrema la preocupación que hemos señalado.

Algo de esto ocurre con la primera definición con que hemos tropezado en los apuntes. La definición precisamente del verbo.

DEFINICION DEL VERBO (LECCION 1.º)

Dicha definición, siguiendo la pauta de las demás definiciones, debería ser así: El Verbo es una palabra que designa la acción, de igual modo que el sustantivo designa un ser sustancial, y el adjetivo un accidente.

Naturalmente esta definición afectaría a los verbos en general, porque excepcionalmente como quien dice, hay verbos que no significan

sola ni principalmente una acción. Tal es el verbo sustantivo —que por eso lleva precisamente este nombre particular— "ser", el cual, aparte de significar la acción de "existir", tiene además función de verbo-enlace para constituir la "atribución" de que habla la definición de los apuntes. Lo que ocurre en esta materia, es que, en todo verbo conjugado va embebido implícitamente el verbo "ser" —y por tanto una atribución virtual—, de tal modo que siempre que se dice "yo ando", v. gr., o "yo estudio la lección", implícitamente se sobreentiende "yo soy andante" —valga la expresión— y "yo soy estudiante la lección".

Pero esto no quiere decir que la atribución sea esencial al verbo. Porque, v. gr., cuando se formula el verbo en infinitivo o en participio, no existe tal atribución; sino solamente cuando el verbo es conjugado, lo cual es indicio de que la facultad de atribución se le deriva de la conjugación, que es al verbo lo que la declinación al sustantivo, una propiedad emanada de su ser específico, mas no el mismo ser.

Lo verdaderamente constitutivo y esencial al verbo, es sin duda, su significación de "acción" con la correlativa "pasión". La atribución, si por esta palabra se entiende el mismo acto de atribuir —atribución formal—, la atribución es función propiamente del verbo "ser", y de los demás tan solo por razón de la conjugación, o lo que es igual, por la inclusión implícita del verbo sustantivo "ser" dentro del verbo conjugado.

Por lo demás, si la palabra "atribución" se toma en su acepción más que formal, objetiva —es decir, por la cosa atribuida— tal atribución viene a ser el sustantivo y el adjetivo y aún el adverbio, como lo puede ser el verbo. Ahora bien, como quiera que la definición, para que sea buena, tiene que tomarse de lo que es verdaderamente esencial y específico de la cosa definida, creemos que no es acertada la del verbo según la cual esta parte de la oración sería "Palabra que, por sí o con otra, expresa la atribución a un sujeto. Ej. El niño corre. Pedro estudia la lección".

En estos ejemplos, en efecto, el acto de correr se atribuye al niño, pero no precisamente como verbo, sino de igual modo que la bondad, v. gr., —sin ser verbo— se atribuye a Juan cuando se dice "Juan es bueno", sin que por ello se pueda decir que el adjetivo "bueno" *expresa atribución*, sino tan solo que la bondad —accidente— se atribuye a Juan en virtud del verbo "ser", puesto aquí expresamente; como en el caso de "El niño corre" lo está implícitamente ("El niño es corriente").

E igual cabe decir del segundo ejemplo.

Formulado todo esto en otros términos, cabría decir, que en el verbo hay que distinguir, 1.º un *contenido significativo*, que es de "acción-pasión" —contenido esencial—, y 2.º una *función*, que es de "atribución" —función de carácter sintáctico, perteneciente a la formación de las oraciones—. Ahora bien, de cualquier forma que se quiera proceder con respecto a este segundo elemento —sea incluyéndolo o sin incluir en la definición— de todos modos no es posible prescindir del primero (acción) en manera alguna. Como tampoco se suele prescindir de dicho elemento significativo —aunque sí del funcional— en la definición de las demás partes variables de la oración, como son el sustantivo y el adjetivo, en cuyas definiciones entra siempre su contenido significativo, como elemento que predomina en ellos. Otra cosa sería tratándose de la conjunción, v. gr., en la cual predomina más bien la función sintáctica, por lo cual se define más bien por su función ("...sirve para...").

Así que, aun queriendo incluir en la definición del verbo su valor funcional de "atribución", habría que decir que "Verbo es una palabra que significa la acción-pasión atribuyéndosela a un sujeto mediante la conjugación". Definición que tendría la ventaja de ser algo más completa que la clásica, pero también la desventaja de ser más embrollona. También sería más completa la definición del sustantivo, v. gr., si en ella se hiciera mención expresa de la declinación y otros accidentes gramaticales. Y, sin embargo, por exigencias de la claridad y el buen orden, se suele prescindir de tales extremos, dejándolos para ulteriores explicaciones. Y así mejor.

OBSEEVACIONES A LA LECCION 2."

Modo indicativo.—La noción de este modo es tan simple, que apenas cabe dar una definición de él, sino es por vía de comparación con sus modos contrapuestos subjuntivo e imperativo.

El decir que el modo indicativo "expresa el hecho como real y verdadero" —aparte de contradecir a la definición general del verbo según la cual lo que expresa el verbo no es un hecho sino *la atribución*— parece muy poco decir si no se añade algo o se quita algo para aclarar y precisar el concepto que se quiere expresar.

Desde luego, por esta definición pudiera creerse que en indicativo

no se puede ni incurrir en error ni mentir a sabiendas, puesto que los hechos que este modo expresa los expresa *como verdaderos*. Claro que no es eso lo que se quería expresar. Pero, por lo mismo, en el caso sería muy de desear una mayor claridad de expresión. Claridad que, como mejor puede producirse, es, sin duda, por el contraste o comparación, que decimos, con los modos subjuntivo e imperativo.

No creemos que el modo indicativo ni ningún otro esté relacionado precisamente con la verdad o la falsedad de los hechos que expresan. Lo que hay es que el indicativo expresa los hechos de un modo puro, absoluto, objetivo, refiriéndose directamente y principalmente a la realidad del hecho, prescindiendo de los diversos matices subjetivos con que lo expresan los demás modos, como el imperativo y el subjuntivo.

El imperativo, en efecto, expresa no sólo la acción, el hecho, sino también y tan principalmente, el mandato de ejecutarlo. Ej. *"Haz bien"* (vid. *"Hace bien"*).

Igualmente el subjuntivo, además de expresar o hacer referencia a una acción, la expresa como teñida de cierto tinte subjetivo, como sometida, subordinada, *subjuntada* a otro verbo distinto, de voluntad —"quiero, mando, digo (ordeno), deseo, suplico, haz, logra, permite, otorga, es necesario, es bien, es conveniente"—•. Ej. *"Deseo que comas con apetito"* (vid. *"Comes con apetito"*).

El indicativo, por su parte, expresa la acción desligada de estos matices subjetivos, pura y netamente, objetivamente, como una realidad en sí misma. Por eso su forma de presentación en la oración es —a diferencia del subjuntivo— absoluta, exenta, no subordinada a otro verbo; o tal que si lo está, el verbo regente sea de entendimiento, de ciencia —"sé, creo, juzgo, digo (hago constar), veo, estoy cierto, es indudable, etc."— verbos que se refieren a su objeto como a una realidad objetiva. Ej. *"Veo que eres un valiente"*; *"Sé que estudias mucho"*.

Todo esto, naturalmente, como regla general. Porque por excepción nada obsta a que ocurra algo en contra. Así en los verbos de duda o ignorancia —verbos también de entendimiento—> dudo, no sé, me extraña, etc.— el verbo subordinado no siempre irá en indicativo, sino tan solo cuando la conjunción de enlace es la dubitativa o inquisitiva *si*; y por el contrario es subjuntivo cuando la conjunción es *que*. Ej. *"No sé si ha venido el padre"*; *"No sé que haya venido el padre"*. Pero todo esto, como decimos, como que pertenece a la región de los modismos

y locuciones perifrásticas o indirectas, constituye excepción de la regla general.

Definición del modo subjuntivo.—Lo que en esta definición se dice de que "expresa el hecho... como subordinado a otro hecho que pertenezca a *diferente modo*"¹ tiene algo de aquello que se suele decir "prejujgar lá cuestión". ¿Por dónde sabremos, en efecto, que un modo es diferente de otro, cuando precisamente estamos averiguando cómo es este otro?

Y a propósito de esto mismo, iqué decir del siguiente ejemplo: "Cuando *diga* que venga, vendré"? *Venga* (subjuntivo) es subordinado de otro de su mismo modo (*diga*).

Por otra parte, tampoco creemos que el subjuntivo exprese *el hecho como un deseo*, sino más exactamente "como objeto de un deseo" —decir, como complemento de un verbo de deseo, subordinado a un verbo de voluntad—.

Por lo demás, si vamos a hacer un análisis de las aplicaciones del subjuntivo, observaremos que los subjuntivos van siempre en oraciones subordinadas; y que sus conjunciones características son, a) la subordinante *que*, con verbos de voluntad; b) la final *para que* (o sus equivalentes *a fin de que*, etc.) y c) la temporal *cuando* con tiempo futuro. Ejs. "Quiero *que vaya*"; "Te lo doy *para que lo uses*"; "*Cuando vengas*, hablaremos" (vid. "Cuando vino, hablé").

En los tres casos es de notar que la acción significada reviste carácter futuro. Un futuro, sin embargo, completamente distinto del futuro de indicativo. (Vid. ej. "Mañana vendrá", "Sé que vendrá mañana"; "Quiero que venga mañana"). Esta diferencia radica sin duda en el carácter objetivo del indicativo, a diferencia del subjuntivo que es eminentemente subjetivo. No tanto en el estado de subordinación del subjuntivo. También el indicativo sabe estar subordinado a otro verbo. Pero el verbo subordinante regente en este caso, como ya lo tenemos dicho, es de carácter intelectual, de entendimiento, de ciencia, de visión, y como tal mira a la cosa como real, efectiva, como objetivamente existente o existenda —valga la palabra—, a diferencia de los verbos de voluntad que la miran como una aspiración, como una posibilidad, latente aún en la potencia del agente, y cuya realidad prescindimos en el momento de si pasará —como sería nuestro deseo— de la potencia del

agente a la realidad dp un hecho. Ej. "Sé que vendrá"; "Quiero que venga".

Resumiendo : El subjuntivo de un verbo expresa una acción subjuntada a otro verbo, con un carácter eminentemente subjetivo. (Subjuntivo = subjuntado y subjetivo).

Definición del modo infinitivo.—Tampoco parece bien la definición del modo infinitivo, según la cual este modo expresaría "el hecho (por lo visto no ya *la atribucióri*) en abstracto, sin indicación de *tiempo*, número y persona. Ej. "Cantar". No se ve claro que el infinitivo prescindiera de *tiempo*, cuando además de "cantar" pueden clasificarse entre los infinitivos "haber cantado" y "haber de cantar", formas que pertenecen a tiempo pasado y futuro, como el primero pertenece al presente.

Modo potencial.—Con algún nombre hay que Uamar a las cosas; pero este de "potencial" no me parece de lo más apropiado para denominación de formas como "cantaría". Tampoco parece exacto aquello de que este modo tenga solo dos tiempos, uno simple y otro compuesto (^de qué tiempo?). Entre los compuestos al lado de "habría cantado" parece que también podría figurar "habría de cantar".

Desde luego, acerca de esta forma, hallo que reviste dos valores enteramente heterogéneos como se puede patentizar con dos ejemplos: "Dijo que vendría, y vino en efecto"; y "Yo vendría, en efecto, si alguien me acompañase". (En el primer caso se trata de un futuro encajado en un pasado; y en el segundo, de un modo especial, que vamos a analizar luego).

Desde luego no parece que "Yo cantarí" sea solo un hecho posible y no real. Lleva esta forma dentro de sí un contenido significativo más característico que el de "posibilidad" y es su valor condicionado, hipotético. "Yo cantarí", "Yo habría cantado", "Yo habría de cantar" expresan una acción sometida a una condición; condición que se expresa o se sobrentiende en la oración incidental condicional que siempre llevan aneja : "Yo cantarí, *si tuviera* tu voz". Y esta condicionalidad es lo más característico de estas fornas, sin género de duda; no su "posibilidad", que, cierto, también llevan embebida en su significación condicionada, pero sólo incidentalmente o por lo menos no tan principalmente como su hipoteticidad.

Lo que puede suceder en estas formas, es que la correspondiente condicionante no vaya siempre expresa; con lo cual puede desorientarse algún tanto la apreciación de su valor condicionado. Ejemplo : "Estaría bien que me ayudaras". Pero tampoco es difícil al buen sentido suplir la condicional implícita "si pudieras buenamente", etc, etc. Alguna vez puede ocurrir que la condicional sea precisamente la oración condicionada con *que*, que va aneja. Tal quizás en el ejemplo anterior, y más claro aún en el propio ejemplo que traen los apuntes en la Lección 4." : "Sería gracioso *que* lograra engañarnos" = "Sería gracioso *si* llegara a engañarnos".

Por lo que se refiere al ejemplo "Dijo que vendría..." la frase corresponde exactamente a "Dijo que vendrá" ambos futuros de indicativo. La diferencia estriba en que la acción de *vendría* es futura solo con respecto al momento pasado del verbo regente *dijo*, pero no con respecto al momento actual, con respecto al cual más bien es pasado; mientras en el caso de *vendrá* se trata de un futuro puro, que lo es no solo con respecto al verbo regente *dijo*, sino aún con respecto al momento presente en que estamos hablando. Es decir que en el caso de *vendría* se trata de una forma de doble valor temporal: pasado y futuro; pasado con respecto al momento actual, y futuro con respecto al pasado del verbo regente. Pero sin que ello obste lo más mínimo a su carácter indicativo.

En latín, ambos casos : "Dijo que *vendrá*" y "Dijo que *vendría*" se expresan con el mismo nombre verbal futuro: "Dixit se venturum" ("Dixit venturum *esse*", "Dixit venturum *fuisse*"; todo ello en indicativo. Aun en Castellano, si nos fijamos en la morfología, *vendrá* y *vendría* son formas hermanas, ambas de carácter futuro, *vendr-a*, *vendr-ia*, como *caer-a*, *caer-ia*; *caerse ha*, *caerse him*.

Esta es la razón por la que a este *vendría* pusimos en un plano de modo completamente distinto y heterogeneo con respecto al *vendria* de "Vendría si alguien me acompañase". Aquel es de modo indicativo. Este, de modo especial, de carácter condicionado, por lo cual cabría llamarlo modo Condicionado o Hipotético. Corresponde a la forma latina *venirem*; forma, como se ve, completamente distinta del *venturum esse*, *fuisse*, del caso anterior; irreductible, por tanto, a un solo y único modo, con el anterior, llámesele "potencial" o como se quiera llamar.

* * *

En resumen: que los dos *vendría* hay que agruparlos en distintos modos: al uno en Indicativo, llamándolo *tiempo pasado-futuro* o *mixto* de indicativo; y al otro en el Hipotético y Condicionado, con tres tiempos: presente, pasado y futuro (*yendría, habría venido y habría de venir*) y formas simple y compuesta.

Si la denominación de "potencial" parece mal, tampoco parece mejor todo lo que se dice de este tiempo en la Lección 4.^a sobre la coincidencia del potencial simple (*vendría o pasearía*) con otra acción que la condiciona. Lo de condicionar, está bien; no así lo de la coincidencia. Porque puede no haber tales coincidencias; como euando se dice: "Pasearía hoy si ayer no hubiese llovido". El ejemplo de "Anunciaron que el Mesías nacería de una virgen" no pertenece a este modo ni arguye nada que se i-elacione con ninguna necesidad más que accidentalmente (por razón de la Profecía); como se puede ver por el ejemplo siguiente: "Anunció que Uovería, y no llovió". La forma en *-ría* no se emplea precisamente para hechos necesarios. Si hubiera sido de necesidad que lloviese, hubiera llovido. Pero no llovió. El ejemplo pertenece al *pasado-futuro de indicativo*, que decimos arriba. En latín se diría "Annunciaverunt Messiam *nasciturum* de Virgine"; con participio o nombre verbal futuro.

El compuesto de "Afirmó que no se *habría visto* suceso tan extraordinario" no es que exprese el hecho *como terminado* precisamente porque sea compuesto, sino porque es pasado, quizás mejor porque es un Futuro Perfecto, "habrá visto".

El caso de "Me dijo que volviese mañana, que ya me *habría preparado* el encargo" corresponde igualmente al *pasado futuro* de indicativo, correspondiente al *Futuro Perfecto*, del cual se diferencia solo en que se trata de un verbo subordinado a otro de tiempo pasado (*dijo*).

Por lo que se refiere a su significación temporal, ésta tiene la misma complejidad de los diversos puntos de referencia temporal que en la frase intervienen y para con cada uno de los cuales guarda diversas relaciones el verbo.

Desde luego tienen el tiempo presente en que hablamos y el pasado del regente *dijo* y el futuro del *mañana*.

Con respecto a *mañana*, es pasado, como suele serlo todo futuro perfecto con referencia al momento futuro a que hace referencia esencialmente; es futuro, sin embargo, con respecto al pasado de *dijo* y aun con respecto al momento en que estamos hablando.

Por donde se ve que nos hallamos ante un complejo de forma pasada y futura a la vez, si bien en relación a diversos términos de referencia.

Gramática de la Lengua Vasca

(OBSERVACIONES AL CAPITULO V)

Pág. 3. Se aduce como ejemplo de *partícula interrogativa* empleada en función de *no-interrogativa*, un fragmento de la conocida estrofa del "Ogi zerutik": "Sagrarioan *nun* dagoen - lurra zeruaz bat egiten". No es cierto que ese *nun* en este caso sea no-interrogativo; es un verdadero interrogativo, desde luego que depende y es régimen de un precedente "*ara* emen", que efectivamente pide una oración subordinada interrogativa. Es el mismo caso de la conocida estrofa de Iparragirre: "Ara *nun* diran - mendi maiteak". Ese *nun* es esencialmente interrogativo. Y la prueba de ello —además del testimonio del oído vasco— es que no hay otro modo de expresar el pensamiento de que se trata, como le hay en otros casos. Como en el caso de otra estrofa del mismo canto "Ogi zerutik" "Etzaitut begiz nik ikusten; - bañan bai Fedez det sinisten. - Sakramentuan *nola* zauden...". Aquí ese *nola* no se refiere al modo, sino al hecho mismo de la existencia, hecho que cabe expresar y se expresa normalmente por la fórmula *zaudela*... Aquel ejemplo debe de suprimirse; y, si se quiere, adoptar este otro.

También estimo que se debe suprimir la nota crítica que sigue más abajo ("Aunque ciertos gramáticos"), nota en que se reprueba la "preocupación por la lógica de la lengua", lógica de la que se dice desorbitadamente, que "no es propia de las lenguas". Las lenguas se mueven, sobre todo, dentro de dos cauces: la *lógica* (la analogía, que decían las gramáticas antiguas) y el *uso*; uso, que, ciertamente, alguna vez es contra-lógica; pero, eso sí, *alguna vez* y como quien dice por excepción; excepción que precisamente confirma la regla; regla que, en nuestro caso es andar y moverse dentro de lógica o analogía. Esta apreciación, pues, debe desaparecer, por inexacta. Pero también por ser crítica de una postura, preferentemente adoptada por una buena parte de los euskeristas, que por mucho tiempo han cultivado noblemente la Lengua.

Crítica molesta, que, como Corporación que se debe a todos, la Academia no puede emplear.

Está bien por lo demás, que se registre el hecho de que la Lengua, en el correr de su larga existencia ha Uegado a emplear "formas esencialmente interrogativas" (*nola, zergatik, zein, ze*, etc.) como meros "ilativos". Está bien que en la *Gramática de la Academia Vasca* se registre el hecho, y que se haga constar que tal uso está abonado— por los Escritores y por "la práctica cotidiana". Con todo, —y por los mismos motivos de delicadeza para los de escuelas disconformes— creo será mejor abstenerse de calificar de "buenos" ni malos a dichos escritores; así como será conveniente no discriminar y establecer escalas sobre la "amplitud" de la "práctica cotidiana".

Desde luego no es igual el empleo popular (y aún de los Escritores) para cada una de aquellas formas interrogativas, empleadas como meramente ilativas. No cabe decir que el pueblo hace tanto uso del *zein o zeña* como lo hace del *nola* (*nola... bait... -n*) y como tampoco del *zergatik* (*zergatik eze*); como tampoco hace tanto uso —ni muchísimo menos— de la forma *ze* o *nun* precedida de *ain*, fórmula ésta muy indicada para los períodos oratorios propios de tribunas y púlpitos, no tanto de la conversación familiar; como tampoco lo es la fórmula *zergatik* (*zergatik eze*) muy propia para razonamientos a emplear en púlpitos y tribunas. Y, a propósito de Escritores, es muy de notar que el P. Mendiburu nunca emplea la forma relativa *zein o zeña*; hecho que indica que algo le sonaba mal en tales fórmulas.

Por todas las cuales razones, propongo que se suprima el carácter crítico de este párrafo (*ciertos gramáticos, demasiado preocupados, lógica no propia* de las lenguas, *ampliamente* abonado, *buenos* autores, *práctica cotidiana*).

De la pág. 1.^a habrá de eliminarse también la expresión país vasco *español*, por las mismas razones de delicadeza con otros opinantes, diciendo en su lugar "país vasco *peninsular*" u otra expresión que no prejuzgue opiniones políticas de ningún género.

Andoain a 23 de Febrero de 1962.

Ayalde'ren liburu berri bat

ITZ-AURRE

Anthom Valverde —ez-izenez "Ayalde"— izen-eredu bat da gure artean. "Izen-eredu" edo-ta "eredu-izen". Guztiontzako entzungarri dan izena.

Euskeraz, berri-berritik ikasi, eta gaur apainki idaztera ere iritxi dan euskaldun berri degu Ayalde.

Askok dakigu, nola izan diran, Anthom Valverde'ren bide-urratze ta urratsak gai ontan. Nik, Donosti Zaarreko ikastola ixil batean —Ikastola Eredu, bera ~~ere~~→ ixil-ixillik ikasten ziarduanen, izan nuan Valverde'ren aditzea ta ezaguera. Ixil-ixillik, egunik uts-egin gabe, txintxo-itxinxo, barra-pentzakor Ikastolara joaten zanean. Orduan ezagutu nuan. Buru-belarri, zoratuaren gisa, euskal-aditza barru-barrutik ikasten. ziar-duan egun aietan.

Pentsatzen det, pentsatu, nolako pozez joango zan orduan Ikastolatik etxera, gabero, amar-amarterdi-inguan —beste asko Barretik bezela, bera Ikastolatik— bere emazteari, eskolau txikiak amari bezela, bere eguneko poza adieraztera, gero-ta-aurreragoko ikasketak biotzean sortzen zioten poz barrukoia, bere emazte euskaldun jatorraren biotzean ixurtzera. Emaztea izan bait du Ayalde'k bere bigarren —lenengo?— Irakaslea, euskal-ikasbidean, euskal-katiximan. Maria Dolorex... Nola-ko oroitzapen goxoz naasiak, iñolaz ere, gure adiskidearentzako bere euskal-ikasketaen oroitzapen etxekoiak!

Urteen buruan, gure euskaldun berriak bere euskaltzaletasunaren agergarri, esku-erakutsi eder bi eskeiñi izan dizkigu. Garratza lenengoa; goxoagoa bigarrena. Goxoagoa; bañan ez goxo-gexa, garratz-puntta baizik. Gure Ayalde ez da izan bein ere idazle goxo-gexa oietakoa, paper txuria makinan sartu izan duanean. Ayalde'ren kupeletegiko ardoa, ez da ardo goxo, ardo zar garratz baizik. Ayalde'k ez du esku pallakatz-

He, esku-astintzalle baizik, zenbait gauzetan gu lozorroan bizi ez gaitezen...

Beste gauzatxoa. Askotan ezer esatekorik gabe idazten degu. Ayalde'k ez. Esatekorik ez duanean, ixillik egongo zaigu. Idazten badu, zerbait esangarri esateko izango da. Euskeraren gaurko egoera ez bada, gure paisajea izango da; paisajea ez bada, artea; artea ez bada, beste zerbait, bañan beti ere "zerbait", eta "zerbait gure".

Esatekoari buruz, gaiari buruz, ori. Esateko erari bagagozkio, berri, zer esan, Ayalde'ren estiloari buruz? Estilo berria; bañan, ala berean, argia. Berria azalez, estilo laburra, ritmo ondo-neurtu batean. Bañan estilo argia benetan. Estilista fiña degu Ayalde.

Oyartzun'i zor diola, dio berak, izaera ori. "Antze ta Literaturan naizen pittin hau, Oyartzun'eri zor diot". Ezer bada-ta, nik uste gure paisaje oyartzuarrari, Ayalde'k, argitasuna zor dio. Oyartzun'go paisajea, bere lerro garbiz, bait da olakoxe argia.

Itz-lauzko lanez gañera, ba'ditu liburuak olerki batzuek ere. Xorta polita. Olerki berri. Gai ontan ere egin ditu egilleak bere saioak —bere saiotxoak—. Olerki berri, bai mamiz, bai azalez. Bakoitza bere arian, egoki. Bañan neretzat aukeratu bear-ta, nik "Loreskin tantak" deritzana aukeratuko nuke, eta "Urte Berri on".

Bukatzeko : liburu polit, liburu irakurgarri Ayalde'rena. Bein esku-artean artu ezker, eskutik ezin utzi diran aietakoa.

Zuk ikus orain, irakurle.

«Amabost egun Urgain'en»

ITZAURRE

Asko dira, Euskeraren biziari dagozkion problemak: eta auetan bat irakurtzea.

Antziña —iñor gutxik irakurtzen zuan garaian— izkuntzak bizi zitezken itz-egin utsez; bañan gaur dan egunean —izkuntza guztietan ainbeste ta ainbeste irakurtzen dan garai ontan— irakurtzea bearrezkoa da; irakurtzen ez dan izkuntzak bizi makala du. Irakurleak bear ditu, beraz, Euskerak ere sendobizi izateko. Irakurleak eta Irakurgaiak.

Urte auetan ari zaigu gure Euskera alderdi ortatik poliki ornitzen ta jazten. Ba'degu olerki "modernorik"; ba'degu olerki "sozialik"; ba'degu, baita, "nobela poliziakarik" ere. Ezin kexa giñezke alderdi ortatik.

Dana ez dagola egiña oraindik, ori ere bai; bañan asierarako bat ba'degu beintzat-eta : Loidi euskaltzaiñaren "Amabost egun Urgain'en". Loidi Jaunak irakurgai onekin autsi zuan bidea. Orain iru urte. Eskerak zor dizkiogu.

"Amaboste egun Urgain'en" oni irakurleak egin dioten arrera, ona izan da : iru urteren buruan iru argitaltze agortu-ta, gaurkoarekin lau ditu; eta lauretan bat katalaneraz...

Jarraitzalleak, idazle-jarraitzalleak bear zituan ugari gure Loidi Jaunak, arlo ontan, eta oraindik ere bear ditu. Ia poliki-poliki noizpait, norbait berotzen dan lan ortarako.

Eta bitartean, ondo etorria izan dedilla laugarren argitaltze au.

Andoain'en, 1968'gn. Epaillean.

«Deun Ignazio»

JUAN BAXURKO

Ez gaitu bat .ere arritu, Baxurko'ren beste liburu bat ikusteak. Baxurko biotzez da eskribitzalle. Gaia dagoño, Baxurko beti ariko litzake bertsoak egin eta bertsoak egin. Garlopari berez dario txirlora kixkurra. Berdin Baxurko'ri ere bertso berria.

Oraingoan San Ignazio'ren bizitza eman digu, beti bezelako bertso ederretan. Egoki bait-datorkio aurtengo urteari olako liburu bat euskeraz. San Ignazio il zala aurten lareun urte. San Ignazio, auskalduna, Azpeitia'n jaioa. Orra or bi egokitasun liburu baten inguruan. Egoki, oso egoki. Bejondaizula, Baxurko adiskidea!

Bertso, ederki berdindua Baxurko'rena. Aldiz-aldiz biotz-uki-gaiez ondo betea. Edozeñentzat irakurgarri. Orixe da Baxurko'ren liburuaren izaera.

Kritika-antzeria zerbait esatekotan, gaiari dagokion zerbait bearko luke. Santua zauritu zan gerrari buruz, alegia. Ez zala garbi-garbi Prantzia'ren kontrako gerra, Naparraen kontrakoa batez ere baizik. Prantzesak, laguntzalle. San Xabier'en anaiak ere an ziran nunbait gure Santuaren zauritzalleen artean. Gure Loyola'ko Santua ez da santu, gerran ibilli izan zalako. Olako saltsak utzi zituanean, egin zan "San Ignazio*'. Jakiña, akats au ez da Baxurko'rena. Baxurko'k beste nunbait irakurri du prantzes-kontu ori. Izan ere olako liburu asko ta asko dabil baztarretan. Gauzak bear ainbat bereizten ez dituzten liburu asko ta asko. Nahaskillua nagusi leritza orri.

Liburu oni beroni buruz beste gauza aipagarria, Valverde Jaunaren eta Valverde Etxearen lana da. Ayalde'ren edergarriak benetan ederrak, aberatsak, zentzu aundidunak. Irarkola, zer esanik ez. Bejondaiola gure Ibar-uridin Jaun ta Etxeari ere!

«Salmutegia» «Orixe»

ITZAUHREA

Orixe'ren Salmotegiarentzako Itz-aurrea eskatu didate.

Salmoak ez dira Orixe'renak, Dabid'enak baizik. Orixe'rena, Dabid'en lanaren euskerazko itzulpena da.

Ñor ez, ordea, gure Orixe baño egokiagorik, Dabid'en Salmoak euskerara itzultzeko.

Olerkaria zan Dabid; olerkaria gure Orixe ere. Artzai izana zan Dabid; artzai izana Orixe ere. Al-da geiagoren bearrik, biok ondo alkar-artuko zutela jakiteko?

Ez dakit, ipuia dan, ala egia, Santo Tomas eta San Buenaventura'rentzat esan oi-dana. Alakoren batean, juan omen-zitzaiola, alegia, Tomas domingotarra Buenaventura frantziskotarrari ikuste bat egitera; eta, Konbentuko atean diosal-eginda, Fr. Tomas'ek Fr. Buenaventuraren galde egin zuanean, Aita Frantzisko il-berriaren bitzta idazten buru-belarri ari zala, erantzun zioten. Utzaiogun —esan omen-zuan Fr. Tomas'ek— utzaiogun pakean seme serafindarrari, Aita serafindarraren bitzta idazten". Aita serafindar Frantzisko'k nunbait etzezakean izan, seme serafindarra baño bizitz-idazle egokiagorik.

Mutatis mutandis, nik ere gauza bera diot gure Orixe'rentzat: gure egunetan ezin arkitu zitekean Salmoen itzultzalle egokiago ta jatorragorik, Orixe baño.

Salmoak, ezer bada-ta, olerkariro itzuliak bear dute izan. Olerkariro. Salmoak berak dauden neurri berean. Dabid, olerkari bortitza zan. Aren. lana ere, berdin.

Hebertarren olerkiak ba'du bere ritmo. Ritmo au, pentsamentuetan, ideietan dagola esan oi-da : pentsamentuen paralelismoan, ez itzen. neurrian; eta, beragatik, Salmoen itzultzalleak aski duala pentsamentuen

paralelismoa ondo ematea, Salmoen olerki-kutsua guri osorik emateko; eta ori, olerkari ez dan batek ere egin dezakeala, prosista on batek ere egin dezakeala ondotoxo...

Ez det nik uste, ori egi-egia danik.

Hebertarren olerkiak, poesiak, paralelismoaz gañera ba'du beste "zer" bat ere, zer ezkutu bat, poesiari dagokiona, poesiaren mufn-muñetan dagona : izketaren "gore" berezia batik-bat, izkuntzaren goitar-izate bat. Eta poesiaren muin ori ondo ukitzeko, prosistarik onena ere ez bait-da aski; ez du ori bere arlo. Olerkariaren gauzak itzultzeko, nor-berak olerkari bear du izan, bere barrunbean olerki-"oyartzun" gozoa senti-senti duana...

Beste zer bat ere bai : itzen ritmoa. Ez bait-da Salmoetan izketaren gorea eta ideien, pentsamentuen ritmoa bakarrik; Salmoak ba'-zuten hebertarrentzat, beste itzezko, fonetikazko ritmo ezkutu bat ere; guretzat ezkutua dana; azentuetatikan sortzen zan gauza ezkutu bat. Eta azentu ori, iñork baño obeto —izkuntza bakoitzari dagokion eran— olerkari batek eman dezake. Gai ontan, olerkari ez danak, itzulpen-erdi egingo liguke.

"Izkuntza bakoitzari dagokion eran" diot: izkuntza bakoitzaren gaitasunak erabilliaz, alegia. Eta ortarako, guri dagokigunez, Euskeraren gaitasunak —euskal-olerki-gaitasunak— ondo ezagutu bear. Gai ontan berriz, —euskal-poetikaren gaitasunak jakiten ta ezagutzen, alegia— nor Orixe añakorik gure artean? nor, gaitasun oiek beren iturburuan astiroago xurgatu zituanik?... Iturburuan... artzantzian... mendi-mendian... Uitzi'n... Eta astiro, emezortzi urte arte.

Amar-amaika urtetan —oraindik erriaren jakintzan ondo "jantzi" gabe— irten izan gera gu geren etxeetatik, "estudietan" joan izan geranik geienok. Zortzi urteren bentaja atera izan zigun guri Orixe'k gai ortan. Emezortzi urtetan utzi zuan berak Uitzi'ko artzantza, Xabier'era "estudietan" joateko. (Beste ainbeste izango zituan Dabid artzaiak ere, Goliat aundia menderatu zuanean). Denborarik asko izan zuan gure Oreatarrak, emezortzi urte aiek arte, Uitzi'ko errixka ezkutuan, artzai ta ikazkin-artean, besteak beste, euskal-olerki errikoi jatori*aren muin gozoa xurgatzeko —beretzakotzeko— gero bere "Euskaldunak" Poema aundia-ta gure ber-ixurtzeko neurri errikoi-errikoi baten ontzi bikañean.

Orduko xurgamen aiek —bere artarako gaitasun aundiaz gañera—• prestatu bide-zuten gure Uitziko artzai olerkaria, baita Dabid'en Salmoen ixuri gozoa ere euskal-ontzirik ederrenean euskaldunon eskuetaratzeko.

Itz bat geiago oraindik.

Salmoen itzulpen au, ez dala Orixe' ren "gaztearoko lan". Zaarturik egin zuala. Olerkari elduaren lana da, beraz. Zentzu oneko lan. Ontan ere, bera bere lanaren neurriko.

Ez nua geiago luzatzera.

Emen diodan au, ala dan, ala ez, "geroak esan beza" esango det nik ere, gure "Euskaldunak"-en egille jatorraren beraren itzak aotan artuaz. Geroak esan beza; edo-ta esan beza irakurleak; edo-ta obeto, esan bezate, Elizan Jaunari ao-betez salmo-kantari jardun bear duten kristau euskaldunak.

Andoain'en, 1968'gn. Otsaillean.

Zein euskaldun?

"Bizardun" bizarra dúana dan bezela, "euskaldun" euskera duana da.

Berdin baita, "zaldun", zaldiz ibiltzen dana dan bezela, "euskaldun" euskeraz mintztzen dana, euskeraz aritzen dana izango da. Berdin esan bait diteke "iztunarentzat"; iztuna, itz-egiten ari dana, izketan ari dana izango da : izketarako oitura duana, erderaz *elocuente* esango litzakena...

Euskeraz, leen-leen, orain baño lurralde geiagotan itz egiten zan. Angoak, orduan, euskaldunak ziran. Gero lurralde aietan Euskera galdu zanean, angoak erdaldundu egin ziran; bañan, ala ere, leengo Euskerarentzat ezin esan diteke artu-eman guztiak galdu dituztenik. Lurralde artan oraindik Euskera bizi da, Toponimian bederenik; eta beragatik berak ere nolabait "euskaldun" dira : eskubidezko euskaldun, euskaldun *de iure*, naiz-ta ez *de facto*. *De facto*, erdaldun; bañan *de iure* euskaldun. Egoera ortan arkitzen dira gaur, ia Araba guztia; Nafarroaren zatirik aundiena; eta berdin Bizkaian Enkartazio-lurralde.a. Uri aundietan erdaldundurik arkitzen diranak ere ereti ortan bertan arkitzen dira. Euskaldun dira *de iure* eskubidez, naiz-ta ez *de facto*, egotez...

Toponimia aipatu degu; bañan tarte ortan ba dago besterik ere; euskal-kultura, euskeraren Sintaxisa esaten deguna, eta Euskeraren Prosodia, eta euskaldunen mentalitatea... Izkuntza falta, ezik; berriro ere jab.etu-bearreko Euskeraren aberastasun aundi-aundia...

Euskaldunak, beraz, iru edo lau eratakuak gera : "euskaldun-euskaldunak" *de iure* ta *de facto* euskaldun geranok; *de iure* bakarrik diranak; eta *de facto* bakarrik diranak, atzerritik etorrita, edo euskeraz ikasi ta mintzatzen diranak... Ez bait dira txarrenak; *de facto* ezik, biotzez ere euskaldun diranak...

Ba da beste malla bat ere euskaldun-izate-kontu ortan: "euskalgaitz" edo "euskal-gaizto"; euskeraz nekez aritzen diranak, nekez ari eta euskeraren joskeran zenbait erdera-kutsu sartzen dutenak. Oien antzekoak bait dira leen aipatu ditugun euskaldun erdaldundu, erderaz mintzatzean, euskal-sintaxisa eta prosodia erabiltzen dutenak.

Etxaide Yon'en «Tratado de Sintaxis»

Omela dio troxu batean:

Abverbiom.— Abverbioak oraziñoan hartzen dituen posturak aztertuz, ba-dira ere, nere ustez, zenbait esaera, zuzendu beharrak daudenak. Alegia, adverbioak luze jotzen duenean (zenbait itzez osatua dagoelako) *-la* erlativuaz balia liteke, bigarren maillako esaera bati sortzea emanaz, nagusiaren lagungarri. Hots, ene aitaren ustez, "nei-e beste bi seme eder eta yayo, oyengan" esaera luzea, honela tajutu diteke esaldi lagungarriaren bidez (109 hor.):

Nere beste bi semiengan (eder eta yayo dira-la)

Orrela Etxaide ren troxua. Eta ola jarraitzen du:

Nere motzean *-(e)Za* (1) erlativua ezin erabil diteke hemen, erdal-pentsakeraren iraulpen borobilla baita (*que son hermosos y hábiles*). Euskera jatorrak "dira-ta" edo "baitira" eskatzen du honoko ontan.

Huts larri au ber-bera dago Bidasoz alde hontako "Ni pekataria" otoitz ofizialean, eta gure apaizak eztiote igarri, edo-ta igarriarren, ez-tute zuzendu euskal-gaizto mingarri hau: "pekaturik asko egin dedala gogapen, itz eta egitectan", euskera jatorrean honela bear zukeana (Bidaso'z bestekoek diotenez): "bekaturik asko egin baitut (dut-eta) gogapenez, itzez eta egitez" (109). Idazle zahar aunitz erdalkeria hontan jausten da, esate baterako ene begiko Atxahun: "Halere higaturen dila aitzinia beno lehen" ("Hala ere gaztatuko duela aurea baño lenenago"), "Halare higatiiren baitu" ("Hala ere gastatuko, baitu") jarri behar zuelarik euskal-senaren arabera. ("Ofizialenak" 2^{gn}. bertsoa).

(1) Ene ustez erlativuak *-era*, *-ela* dira eta ez *-re*, *-la*.

* * *

NERE KRITIKA

190'gn. orriko "Adverbioak oraziñoan..." asten dan Troxua, oso naasia atera zaizula diot. Orra zergatik.

a) *-la* edo *-ela* atzizkia, "errelativotzat" artzen. dezu zuk (eta dirudianez, zuen aitak ere ala artzen zuan). Nunbait atzizki ori erderaz *que* egiten dalako? Nik, erderazko *que* ori, errelativo ez baño "conjuntivo" dala uste izan det beti (conjuntivo, de oración "complemento directo" del verbo "confesar", "confieso *que* he pecado..."): "aitortzen det, pekatu egin *dedala*...".

Or ez dago neretzat iñolako errelativorik. "Pekatu egini *dedana*" esango balu ere (esan lezakean bezela) ez litzake "errelativo" izango, "conjuntivo" baizik. Erderaz eta Latíñez ere beti ala esan oi da; latíñez oroituko zera "*quia* peccavi nimis" esaten dala.

Aitak, ez dakit nundik pentsa zezakean, guzti ori erralativoa zanik.

Zuek, guk ez bezelako Gramatikaren bat erabilli dezute nunbait.

Puntu auxe pixka bat argituko bazenidake, ixtimatuko nizuke benetan. Zer Gramatikatan ibilli zeraten, alegia.

b) Etxahun gizagajoari erasten diozun txalma da beste puntu naasia. Etzera konturatu, Etxahun'en *dila* ori ("Halere higaturen *dila* aitzinia beno lehen") "errelativo" ez baño "gerundivoa" dala "Habiéndose de romper, con todo, lo trasero, antes que lo delantero".

Ari ontakoak berekoak bait ditu Etxahun'ek bertso oietako beste esaera batzuek ere, garbi-garbi "gerundivoak" diranak, edo, naiago badezu, "gerundioak"; ala, arako "Taharnari fidela"ri botatzen diona: "Haien (igelen) etxe lejitimua guri saltzen deikiaía" = *vendiéndonos*...

Ala ,ere, beste batzutan, Etxahun'en *-la'k* eta *-éice'k* erderazko *que* conjuntivoren arikoak dira, garbi-garbi. Adibidez: "Hariak gaxto *zutiala* fornizalari erraiteko"; edo "Pasta *zela* adarrondotsu, edo beta biurria", ori erran, alegia...

Sospetxeria det, zuek beste bideren batetik ote zabilzaten. Emen diodan au, beintzat, neretzat Gramatika arrunteko ikasgaia da. Atera nazazu ataka ontatik.

* * *

Nolanai dala, eta bukatzeko, oraingo "Ni pekataria" ez da, zuk diozun bezela. Apaizak, "aal izan dutenean", aldatu dute guzti ori.

* * *

210'gn. or.— "Orain egin ditzagun voz transitiva etab." asten dan saillean, naasi xamar atera zaizu gauza.

"Transitiva" itza erabiltzen dezu batzutan, eta "bigarren pertsona *pasivum* danean" esaten dezu bestetan, gauza bera adierazteko, dirudianez. Egia da Azkue'k ere azkeneko esaera au erabiltzen duala, "ejerce funciones de paciente" esaten duala, alegia; bañan bi izketa-modu oiek gauza argitu bearrean, illundu egiten dute.

Berdin baita, "voz transitiva" esaten dezu batean, eta "activum" bestean, bi esaerak gauza bera esan nai dutelarik. Gauza naasi besterik ez du egiten jarduera orrek.

K/n'ri "itzegillearen ezaugarria" esaten diozu; itzegillearena ez bañ "interlocutorearena" dalarik.

Beste gauza : "Hik egingo huke" eta "hik egin hezake" abonatzeko, eta aitaren "ukeK" eta "ezakeK" arbuyatzeko, "aurretik dijoan sujetaoren ezaugarria" aipatzen dezu; eta "Beraz bigarren pertsonaren ezaugarria "h" da .eta ez "k/n", gañeratzen dezu, sujetoaren eta "k/n"ren funtzioak elkarrekin naasten-edo dituzula. Gauza au argixeago ta garbixeago balego, ez luke kalterik.

Nolanai dala, nik onako eskema oni oso bidezko derizkiot: "Nezakek, *ezakek*, lezakek; gen.ezakek, zenezake, zenezateke, lezatekek". Adibide bat:

"Pello : Nik nai banu, ekarri nezakek;
ik ere, nai bau, ekarri *ezakek*;
eta ark ere nai balu, ekarri lezakek;
guk ere nei bagendu, ekarri genezakek;
zuk ere nai bazendu, ekarri zenezake (2);
(zuek ere nai bazendute, ekarri zenezateke);
eta aiek ere nai balute, ekarri lezatekek.

(2) Forma ontan "ikako" jokaera "zukako" biurtzen zaigu.

Ez dakit bizkaitarrak eskema oni zer eritziko dioten. Gure belarrietarako oso eskema leuna ta oztopo gabea da. Edota ni óso naastua nago.

Ikusiko nuon'en saillean beti ere gogoan euki bear da, sail ortako aditz-jokaerak, leen-garaikoak dirala, eta izaera kondizionatuko jokae-rak, kondizio baten mendekoak; geiago oraindik, bete etzan kondizio baten mendekoak; Akino'ko Tomas'en Eskolastikan *futurum contingens conditionatum* esaten zaien oietakoa, beste izen laburragoz *futuribile*...

Egoera orren adigarri, Ebanjelio Santuko, Jaunaren esaera bat aipatzen bait da Eskolastikan : "Ai! zu, Korotzain! Ai! zu, Betsaida! Zugan egin diran mirariak Tiro'n eta Sidon'en egin izan *balira* (kondizioa) segurki surtako autsetan eta zakuki-jantzian penitentzi-egirago *zuten* (kondizionatua)". Gertatu etzan gauza, bañan gerta zitekeana, eta gertatu ere *gertatuko zana*, bete etzan kondizio bat *bete izan balitz*. Ori da aditz-jokaera onen muin jatorra. Itz bitan : *futurum contingens conditionatum*, edo-ta *futuribile*.

* * *

Ala ere, Arrigarai-Ataun'en "futuro conj'etural"ek ba du bere oiña-rrri.

Izan ere "Ecusiko nuan" esaerak bi izaera ditu, elkarrengandik oso bestelako ta diferenteak gaurko euskeran : a) *baldintza-izaera*; aipatu deguna, "Ikusiko nuan, bera etorri balitz"; eta b) *noski-izaera*, conjetur-izaera : "Seguru ez dakit; bañan ikusiko nuan *noski*". Bi izaera oso ez-berdiñak.

Itz bitan : "Ikusiko nuan" esaera bi-eskutako *ambivalente* dala : *baldintza-izaerakoa* eta *mosfei-izaerakoa*.

* * *

Gañerakoan "Ikusiko nuke" —"futuro próximo" dalakoa— neretzat "presente de futuro" da, beti ere "baldintzako" egoeran; eta "Ikusiko nuan" —"futuro remoto" dalakoa— "pretérito de futuro"... Absurdo dirudiana, bañan gauza ala dana; izkuntzak olakoxe kiribillak bait dituzte...

Izan ere, gure asmamenak asma bait lezake zerbait futuro "ikusiko", bai oraiñean ("*Gaur* ikusifco nuke") bai leenean ("*Atzo* ikusiko nuan") beti ere baldintza-egoeran; baldintza *gaur* beteko balitz edo-ta *atzo* bete izan balitz. Olakoxe kiribillafo asmatzen ditu gure asmamenak, eta olakoxe esaera kiribillatuak asmatu bear gure izkuntzak ere.

Absurdo eziñezko iduri; bañan gauzak ala izan.

Olabide lexikolari

Ez dakit nik orain, gai au E. G.'ren Zuzendariaren asmoetan sar-tzen dan. Eta ala balitz, ez dakit ezta besteren batek ukitu duan ere; bear bada, bai; bañan merezi bait-du beste bein ukitzea... Omen-aldi ontako nere eskutadtxoa gai oni buruzkoa izan dedilla ondo eritzi det.

"Olabide lexikolari". Izan ere, gure euskaltzale gotorraren ezagun-garririk ederrenetan bat, auxe derizkiot nik. Aita Olabide, gure lexi-kolaririk jakintsuena genduan. Nere ritzia gai onetan beti auxe izan izan da: Olabide'k Azkue'ren Iztegi aundia oso-osorik bere buruan zeramala... Azkue'k berak baño obeto oraindik. Ez da Azkue'rentzat mendragarri. Azkue biltzalle zan. Eta nolako! Bañan ark bildutako itzen ausnartzalle ta beretzakotzalle, iñor ere ez Olabide añakorik.

Nik ez dakit nolako itz-fitxeroak izango zituam bere lanetarako. Bere Loyola'ko-ta lan-aldietan egindako fitxero oparoak. Etziran izango makalak. (Or ibilliko dira nunbait). Nik dakidana, auxe da: iñoiz berarekin izketan niarduanean, itz ezkuturen bat aipatzen banion, be-reala esango zidala berak Azkue'ren Iztegian itz ura ote-zegon ala ez, eta zer esan-naidun zan ere Iztegi aundi artan, eta aldiz-aldiz baita botako zidala itz aren argigarri Iztegiak zekarren parrafotxua ere.

Bere irakurtze luz.eetan ere uste bait-det itzik asko jasoko zituan zenbait liburutatik Azkue'rengan zeudenez gain. Eta ez liburuetatik ba-karrik; baita Loyola'ko morroien aotik ere jaso zituala ez gutxi esakun jakingarri, gero berak bere idatzietan erabiltzeko. Biltzalle zan bera ere. Bañan, ausnartzalle ta beretzakotzalle zan, besteak beste; bere la-netarako itzen ausnartzalle ta beretzakotzalle bortitz...

Orrela utzi digu, utzi digun lan eder-ederra. Aren liburuak orrela dira diran bezain lexiko aberatsdun.

Zenbait idazlek, zenbait gauza izendatzeko, perifrasis batera jo oi degu, itz berri bat sortzen degu bear bada —gure Euskerak ortarako ematen digun erreztasunaz ondotox baliaturik—; ta ondo egiña deritzot. Aita Olabide'k olakoetan etzuan, guk askotan egin oi degun ori egingo;

zearka ibilli gabe, zuzenean iturrira joko zuan ark, Euskera zaharrera edo Euskera ezkutura; eta, zuzen-zuzenean andik artuko zuan, eskuarte bear zuan itza, eta uraxe ipiñi bere lekuan. Guk, askotan ez-jakiñez, askotan alperrez, eta iñoiz baita bildurrez ere, erabiltzen ez deguna, erabiliko zuan berak lasai asko. Ori zan aren egoera, aren postura, olakoetan.

Baita bear ere, bere gain artu zuan arloan. Biblia euskeraltzeko arlo bereiz eta zail-zallean.

Biblia euskeraltzea. Aldatzea; zear-aldatzea. Itzultzea... Lan zalla benetan. *Traduttore traditore*, esan oi da. Ez bait-da, izan ere, *traduttore* onik... egillearentzat batez ere. Egillearen lanak galera aundia egiten du itzultzallearen eskuetan. Askotan itzultzalle onak, egilleak berak aña jakin bear izaten du. Izkuntza beintzat —*hi* izkuntzak— oso ondo ezagutu bear ditu. Beste aldetik, berriz, itzultze-kontu ortan ez bait-da zillegi perifrasetan ibiltzerik; itzulketa on batean zuzen jokatu bear bait-da; ortatik dator lan orren zailtasuna, lan orren gaitza. Izkuntzaren erabiltzean, bigiuitasun aundia bear du itzultzalleak. Ezaguera aundia, berriz, biguntasun ortarako; izkuntzaren ezaguera... Nik ez dakit zeñek esan zion Olabide'ri, Biblia euskeraltzeko lan ortan asi zedilla. Zana zala, langille bikaña aukeratu zuan. Nekez arkitu zezakean ortarako gaiago zanik iñor ere. Eta ez nagokio, orain lanaren luzeari ta artarako pazientzi-berrari. (Ortarako ere etzan makala gure gizona, baño). Izkuntzaren ezaguera ziatz, eta sakon, eta zabalari nagokio orain. Lexikoaren ezaguerari. Ez bait-zan ortarako beste Olabide'rik.

* *

Lexikoaren erabiltze ontan ba'zuan gure Aitak bere era, bere erabilerakera, bere tankera ezagmi-ezaguna. Ba'zuan —esan dezagun lenengo— ba'zuan bere xede, bere nora-joa.

Gure artean beti ere —aspaldidanik beintzat— lotsa-iritzi bat izan degu gure Izkuntzaren inguruan; lotsa-iritzi ezkutu bat; Euskera zenbait gauzetarako gai ez ote-dan bildur ezkutu bat... Euskera garbi, alegia... Euskera garbian zenbait gauza, zenbait asmo, zenbait idea, ezin

esan ditezkealako iritzi lotsati bat... Iritzi lotsati orren aurka asko ta asko burruka egin bear izan degu guztiok... Eta, gutxi edo geiago, iritzi orrek eraginda .egin izan ditugu gure euskerazko lanak... Gizon, guztien aurrean auxe agertu, auxe egiztatu nai izan degu : "Baietz esan euskeraz, euskera garbian —beste iñungo izkuntzeri zorrik gabeko euskeran— beste edozein izkuntzetan esan oi dan guzti-guztia"... Bañan, jakiña, ortarako egin bear zana beste gauza bat zan : izkuritza aberastu, gai egin, izkuntza jaso, altxa; eta ortarako, iru bide geneduzkan; itz berriak sortzea; perifrasetara jotzea; eta irugarrena, itz zaharrak, itz ezkutua, Iztegiatako kutxa zaharretatik eguzki-argitara ateratzea.

Aita Olabide'k ere senti zuan —bearrik!— problema ori. Bañan etzan itz-berri- sortzalle izan. Aren iritiz, lenagokoa, bidezagokoa zan, itz zaharrak, itz eskutuak argitara ateratzea Perifrasetara jo gabe; zuzen-zuzenean. Eta lan orri ekiñik, egin zan nunbait egin zan bezelakoxe euskal-itzen jakintsu, iñor ez bezelako itz zaharren jakitun; Iztegi oso-osoarean artxibo ta gordairu bizi.

* # *

Egia da bide orretan etzala bera bakarrik ibilli. Izan zuan lagunik; izan zuan, bear bada, "gidaririk" ere... Olabide'ri buruz nik izan dedan beste iritzi bat, auxe izan da : bere bideetan, batipat, Orixe'ri jarraitu izan ziola. Gidari ona. Kontsejatzalle argia. Iritzi-eskatzallearen aurrean uzkurtuko ez dan iritzi-emallea. Orixe.

Euskal-alorrean gure Olabide'k beti ere langille-berri egiten zuan bere buraa. Langille zaharrendik ikasi-bearreko langille berri. Eta beti eta beti, jaiotzetikako euskaldun iñorekin arkitzen zanean, galde ta galde ari bear izaten zuan. Beti ikasten. Eta bide orretan askotan arkituko bait-zan Orixe'rekin. Nik jakin, ez dakit. Bañan geroari bagagozkio, ala ageri da gauza. Orixe'ren otin aundia du, ez dakit nik zerk, Olabide'ren idaztanceran. Bear bada, ortantxe geien-geiena : lexikoaren erabilkeran. Aberastasunean... Lexikoaren ezagueran. Besteak beste. Ortantxe bi-biok elkarren uztar-lagun jator izan bait-dira beti.

Ez noa orain gauza au geiago aztertzeraz. Ez zan ori, nere asmoa, Olabide'ren omenezko lantxo au astein. Zer-edo-zer aipatzea baizik. Eta onenbestez amaia eman dezaiodan nere egiteko arintxo oni.

Urkixo Jaunaren Liburutegia

EU SKAL-LIBURUTEGIA

"Urkixo-Muntegia" k, D. Julio zanari zor dio izena; bañan izana, D. Julio zanarem Liburutegiari. Gauza eder ta aipagarri asko egini ziotuan gizonak bere bizian gure Euskeraren alde. Bañan aipagarrietan bat, bere Liburutegia, bere Biblioteka sonatua.

Urkixotarrak iru anai izan ziran: D. Adolfo, D. Jose Maria eta D. Julio. Eta irurak aundi izateko jaioak zirala esan oi zan. D. Adolfo zaldun bezela, zaldun dotore bezela zan agiri ta aundi. D. Jose Maria, Elizaren aldeko gudari bezela —XIX gizaldiko burruka amorratuetan—. D. Julio, berriz, bere aldetik, Liburutegietako "xagu" bezela esan oi zan zala bera ere, beste anai biak bezela, aundi, agiri ta nabarmen. Bibliofilo, liburu-zale, liburu-eiztari. Bañan ez edozein liburu. Euskal-liburu. Euskerazko edo Euskalerrinari zegozkion liburu. Antziñakoak baziran batez ere. Olakorik iñun arkitu ezkeru, edo-ta jakin ezkeru ba'zala nunbait, an zan gure D. Julio, beti bezela, bere cartera diru-paperez ondo anpatua, nundik liburu uraxe eskuratuko. Eta olaxe, urteak juan eta urteak etorri, azkenetako, bera ber-bera arritzerañoko liburu-pilla ederra bildu zuan arte.

Etzan bakarrik izan munduan olako lanetan. Izan zuan nori parrai. Bonaparte bat eta, Dogson bat eta, Vinson bat eta Lacombe bat... Bañan gure D. Julio'k bildutako sallah ez bait-dio iñori zorrik.

Gure zorionez, Donostia'n daukagu pilla guztia, zan bezelakoxea. Gure Diputazioaren Jauregian; eta ez "eukitzezo euki"; guztion zerbitzurako baizik... Etezakean izan etorkizun ederragorik, guk antziña Centenario-Plazan ainbeste aldiz ikusi ta ikustatu izan genduan Liburutegi bikain, ederrak.

CENTENARIO-PLAZAN

Uraxe zan D. Julio'ren Despatxu. Zetorrena zetorrela aren etxera, antxen egingo zion bere arrera, ta antxen izketatuko ziran. Sala ederra, luzea, zuzenean ez, kurpill-antzean baizik —kurpill-laurden—. Arra betekeko ormarik etzan an agirian; zana-zan, guztia estaate dotorez estalia, eta estantetako txokorik txikienak ere, guztiak liburuz. Eta fitxero egoki egiña, guzti aien errez-erabilgarri... Eta, batez ere, antxe D. Julio bera, Patriarka iduri, bear zan guztia bear zuten guztiei eskura emateko, jakinduria guztiengana zabal zedin. Gure jakinduria, euskal-jakinduria, euskal-kultura. Beste gauza asko ere egin zituan ortarako —bere *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta—. Bañan au batez ere, Biblioteca batez ere, gure esaerarako benetan onuragarri ta emankor. Oraindik ere, eta urte askotarako, iturria bezela jarioz egongo bait-da. Ortxe, gure Gipuzkoa-ren Jauregi ederrean, len bezelatsuko sala eder aukera-koan, guztiontzako zerbitzugarri.

GIPUZKOA'REN JAUREGIRA

Laister dira 5 urte, gure Diputazioak beretzakotu zuala. Ez beste erostunik izan etzalako beretzakotu naiko zuanik. Izan ziran. Bañan gipuzkoarren diplomazia atera zan nagusi. Ala bearko zan, eta.

Milloi ta lareun milla pezeta ordaindu bear izan ziran. Gutxitan obeki eralkiak... Izan ere, lotsagarri izango zan, emendik kampa era-maten ikustea, guztiok irritsez begiratzen zioten gordairu ederra. Donostia'n zegon. Gipuzkoa'ko Aldundiari zegokion eskiñirik oparoena egitea. Egin zitzaion bezela. Ez geiegia ala ere. Bañan bai naikoa, Liburutegi galanta, gure artean, len bezela gero ere jarrai zezan. Eta azkenik iritxi zan guztiok nai genduana. D. Julio zanaren emazte alargun onari eskerrak batez ere, eta aren gipuzkozaletasunari eskerrak.

LIBURUAK, LIBURUAK

Antxe daukazu, irakurle, Gipuzkoa'ren Jauregian. Sarrera Naguritik eskilleratan igo-ta ezkerretara, sala apain batean.

Sala-areto guztia estantez, betik eta goaraño, bi malla edo bizitzetan. Kaobazko estante gorri-illun ditzizariak. Kristal lodi garbi biselatuak. Brontzezko giltza-sarrail labratuak. Alako gordairu bikain bati dago-kion bezela.

D. Julio zanaren beraren adiskide min-min bat da gordetzalle: Arozena'tar D. Fausto. Galde dezaiokezu nai dezun guztia, bere mendeantxukun dauzkan, liburu maiteai buruz.

11.000 (amaika milla) tomo dira guztiak, gutxi gora bera. Milloiti erditan .erosi ziran. Caja de Ahorros Provincial'ek aurreratu zuan ortarako bear zana.

Liburuak, geienak txikiak dira. Kristau-ikasbide ta Elizarako eta olakoak geienak. Ardi-larruzko azaldunak, asko. Larru landuzko, azal-sendoak, beste asko, geienak. Periesagoak, erdi larru ta erdi bestelako, ere ez gutxi. Bizkarralde urreztatudunak eta orri-ertz-gorridunak, batzuek, XVII ta XVIII gizaldikoak. Apalagoak ere bai, bañan beti ere danak apain, Paris ta Bayona'ko kuadernatzalle'rik yayuenen esku-lan. Tomo askodunak, tomo gutxidunak; tomo bakarrekoak. Guztiak kutun-kutunki ta maiteka bezela erabilliak... Kristal biselatuaren beste aldetik guri begira, guri deika, guri beren ezta eskeinka...

— Irakurtzalle asko?

— Bai. Atzerritik eta bertatik. Irakurtzalle ixillak. Itzal aundiz olako liburuai begiratzen ikasiak.

— Eta liburu guztiak emen?

— Ia guztiak, bai. Bañan ba'degu beste ezkuta-leku ere, baliotsuenak ezkutatzeko. Liburutegi guztietan ala egin oi da. Munduam ale bat besterik, edota ale gutxi diranetan, ez dira liburuak edozeiñen eskuetara ezta begietara ere nolanaiz uzten. Olakoetan esku lapurra begiaren ondotik errez joan bait liteke, nai ezean ere. Liburu-gai onetan, iñuni baño *kleiptomano* geiago izaten da. Ots, lapurreta-mani-dutenak, alegia... *Caja fuerte* batean gordetzen ditugu guk bitxirik bitxienak. Bañan, ori bai, beti ere bear duten guztien eskuetara eltzeko eran.

— Eta zeintzu dira bitxi baliotsuenak?

— Guk dauzkagunetan, baliotsuenak, zalantza gabe, Leizarraga ta Axular : bi *editio princeps*. Diruz, salketa on batean, *Gero* batek (1643) ederki egin ditzake .eun milla pezeta; ez derautzut besterik; polliki bait-da... Leizarraga'ri buruz, berriz, auxe esango dizut: gure D. Julio'k Manterola'ren Gero'rentzat 500 pezeta eskiñi zituenerako, Leizarraga'ren

Testamentu Berria, Paris'en 2.000 francotan saldu zala. Ontatik atera, gaur zenbatean salduko litzaken... gure alea arlote xamar dagola ezik, D. Julio'k berak dion bezela.

Egia esan, ez degu Bernard Dechepare'ren *Linguae vasconum primitiae'i-en editio princeps* alerik (1545). Munduan ez bait-da Paris'eko ale bakarra besterik. Bañan, bai, ba'degu —Euskalerrian edonoren eskuetan, gañera— *editio* aren facsimil. RIEV'ek argazkiz aterea.

Oihenart'enik ere, baita, ba'degu *Notitia utriusque Vasconiae* (edit. princ. 1638); bañan, damurik, ez *Proverbes... plus les poesies* (ots, *Atso-titz* eta *Gastaroa*). Ontan ere, ordea, RIEV'ek egiñik, ba'degu 1936 ez-kero beste argazkizko facsimil.

Ba'degu Materre'ren *Dotrina christiana (Bouqueta)* (1617), benetan bakana.

Baita, ba'degu Pouvreau'rn *Philothea* (1644) oso bakana.

Ala berean ba'degu Tartas'en *Arima penitentiaren...* (1672), D. Jolio'k berak dionez, bere Liburutegiko alerik bakanenetan bat...

— Eta guztia, zenbat eskribitzalleren izen azaltzen dira Katalo-goan?

— Zaharrenak bakarrik esango dizkizut, 1545'etik (ots, Dechepare'-gandik) 1800 arte-koak. Guztitara, berroegi dira gutxi-gorabera.

Dechepare	Tartas	Cardaberaz
Leizarraga	D'Arambillaga	Mendiburu
Poza	Gasteluzar	Haraneder
Betolaza	Luzuriaga	Lariz
Echave	Belapeyre	Muinibe
Materre	Ochoa de Arin	Aldazabal
Beriain	Joanes D'Etcheberri	Larreguy
Etcheberri	Churio	Basterrechea
Haramburu	Larramendi	Ubillos
Henao	Arzadun	Etchegoyen
Oihenart	Perocheguy	Imbert
Axular	Suares D'Aulan	Moguel
Pouvreau	Harriet	
Harismendi	Irazusta	

Eta bakoitzak beti ezpada ere, tomo asko osatzen ditu. Eta 18000'etik aurrerakoetan zer esanik ez. 11.000 tomo osatu arte...

— Eta zenbat pausu eman ote-zituan gero, pilla eder ori egiteko?

Jaungoikoak eta berak bestek ez daki. Ori bai, bere ibilli aietan gex-takari jakingarririk eta parregarririk ere gertatu izan zitzaiola. Berak ain gatz aundiz esaten zituan gertakari polit, jakingarri, parragarriak.

GERTAKARI JAKINGARRIAK

Zarzale guztiak izan dituzte alako gertaera parraagarriren batzuek beren zar-billaketetan; eta gure D. Julio'k ere izan zituan, erririk erri ta baserriz baserri, liburu zar billa ibilli zanean. Parragarriak, bañan baita jakingarriak ere. Ona emen aietako batzuek.

* * *

Munduan oso ale gutxi zituan liburu garesti ta ixtimazio aundiko bat zan D'Arambillaga'ren *Jesus Christoren Imitacionea* (1684). Garai artan munduan bi ale besterik etziran, ezagunik beintzat. Eta orra or nun gure D. Julio'k jakiten duan, beste bat ere azaldu zala. Bermeo'n. Baserri batean... Etzuan asko itxedon Bermeo'ko bidea artu gabe. Eta bereala izketatu zan baserritar zori-aundidun arekin. Baserritar giza-gajoak etzekian zenbat eskatu, bere bitxiarera, truka. Etzekiala ta etzekiala. Bañan alako batean, gauza aundi bat bezela, katalejo bat eskatu zuan. Urليا, Bermeo'ko abade Jaun batek zuala alako eder-eder bat; eta aretxen antzekoa nai zukeala bere *Imitacionearen* truka... Etzan gauza zalla. Berealako batean mariñel bat topatu zuten : m-rengo joan-aldian Inlaterra'tik abadearena bezelaoxe beste katalejo bat ekartzeko. Eta ekarri, gure baserritar poztuari eskuetara eman, eta an dijoa pozik asko, gure D. Julio, bere *Imitacionea* boltxikoan, etxera bideam... Ez, ordea, beste zerbait ere egin gabe. Baserritararen emazteak etzion arpegi onik ipintzen katalejo arri. Berak txanpon eder batzuek naiago zituzkean. Eta gure D. Julio 'k ori igarririk, bere poltxikotik duro zillar zar batzuek atera, ta or ematen dizkio gure andre arrituari.

* * #

Eta zenbat olako! Apaiz zarren bat iñoiz bizi izandako etxeetako goiko ganbaretan, ba'zekian olako liburu zar eta bakanik aldiz-aldiz arkitzen zirana kutxa zarren batean, eta askotan ibilli izan zan, ganbararik ganbara, bere eiza kutiziatsuan.

Bein olaxe —beste zeregin batzuek egitera erri batera jua-da— zeregiña ondo beteaz gañera —beste-en eskuz ezik— berak, ibilli ta ibilli, antxe atera zituan etxe bateko solairutik dozena bat liburu zahar eta bakan, bere Bibliotecaren edergarri. Oraindik ere ba'da erri artan D. Julio'ren orduko poza gogoan duanik. Eta ba'zuan zergatirik. *Villafrarf caiko Doctriiia* deritzana (1713) "besterik" etzeraman dozenatxoaren erdian bere eskuartean : liburu bakana, benetan.

* * #

D. Julio'ren ibilli aiek zirala-ta, gizaldi onen asierako urte aietan zabaldu ere egin zan gure errietan gure gizonaren liburu zaharretarako mani ta gogo ixiratsua. Eta izan zan —erdi-parrez-eta— olako liburu zaharren bat edo beste "erregalo" ekarri izan zion nor-edo-nor.

Bein batean olaxe etorri zitzaizkion, Azpentina'n edo, alako liburu zarkitu zarpildu batekin, gazte batzuek (Estudianteren batzuek-edo). Eta : Ia zer eskatzen zuten bada liburuaren truka? eta ezer ezetz. Ia ba, elkarrekin kafe bat bederenik artuko etzutekean? eta kafe bat baietz (Ba'-zeken nunbait nolakoak izan oi ziran D. Julio'ren kafeak). Eta ez kafea bakarrik; kafea, ta kopa bikaña, ta habano eder bana gañera... Etzan, izan ere, txiki-txikia, liburu zarpildu arekin eman zaiten poza gure D. Julio'ri gazte "despistatu" aiek: Peñaflovida Kondearen Opera Comica *El borra'cho burlado* besterik etzan, kafe batzuen truka etxera zerman liburu zar ziztriña...

* * *

Bañan etzuan, sobera ere beti-beti olako arrera onik arkitu izan zenbaitzuren artean. Ba'da Bilbao'n etxe aberats bat, Liburutegi bikain baten jabe dana, euskerazko zenbait liburu bakan-bakan dauzkana; beste asko ta askoren artean, Betolaza bat (1596), oso bakana... Etzuan bere

bendoran D. Julio'k iritxi izan, Liburutegi artan oña sartzerik. Ezta ikuste bat, begiratu xume bat egiteko ere. Beti ta beti aitzakiak aurrera... Egia; jabeak etziran oso jakintsu. *Betolaza'ri*, Ostolaza esaten-edo zioten. Eta D. Julio'k berak zionez, etxeko Jaunak beintzat, beti ere, zezenetarako gogo geiago agertu izan zuan liburuetarako baño. Ala dio berak bere Memorietao idazti batean.

* * *

Leizarraga'ren bi *Testamentu berri* dauzka gure Liburutegiak. Bata, 1571'gn urteko jatorra; eta bestea, Schuchardt'ek 1900'gn. urtean birregindakoa. Bigarren au, etzan zabaldu Euskalerrian. Eta bearrik bazuan, gure D. Julio'k Bordele'm. erosi bear izan zuan, Stempf'en eskue-tatik. Schuchardt'EEK berak etzuan gure artean zabaltzerik nai izan, guk bera protestantetzat artu genezan bildurrez. Alakoxe gizon gizona zan gure Graz-eko Katedratikoa. Nor-naik daki Leizarraga'ren *Testamentu Berria*, protestante-eran eta Erregiña protestante baten aginduz egin izan zana. Eta Schuchardt'ek bere 1900'gনের argitalte berri artan ez bait-zuan Euskeraren ikasbideari erretasun bat ematea besterik nai. Protestantekeriari laguntzerik ez iñolaz ere, Dogson batek eta Borrow batek bezela... bera ere protestante-edo zan arren.

* * *

Jakingarri oietan jakingarri da, baita, D. Julio'ren *Gero'ren* ixturia ere. Axular'en *Gero* da, len esan degun bezela, gure Bibliotekaren apain-garririk aundienetan bat. Liburu benetan bakana eta ixtimatua bibliofilo artean.

1891'gn. urtean oraindik, sei ale besterik etziran ezagun. Ala zion Vinson'ek urte artani bere *Bibliographie'n*. Sei aietako bat Donostia'n omen-zeukan "aficionatu" batek. Vinson'entzako aficionatu bat besterik etzan Jose Manterola, *Euskalerria* Aldizkaria sortu zuana, eta *Cancionero Vasco* bildu zuana. 1884"gn urtean il zan. Eta urte batzuren buruan aren ondorengoak aren Liburutegi polita salgai atera zuten.

D. Julio'k ez al zuan jakin; bereala zan Manterolatarranean. *Gero* liburua bear zuala. Eta 500 pezeta eskiñi zituan. Etzan ba ordurako neurri txiki-txikia re. Bañan etxekoak iñolaz ere liburupilla osoa osorik

saldu nai; eta guztiarentzat bi milla pezeta eskatzen... Beste guztiengatik ajola gutxi zualarik ere, *Gero* uraxe erosteagatik, pilla gutzia antxe erosi zuan bi milla pezetatan, orduko zortzi milla errealetan.

Ba'zeukan esku-artean nai zuana. Bañan, Quijote berri, Naparrua'ko errietan billa zebilela, or topatzen ditu beste iru ale. Eta iruretatik bat —ederrena— berak erosi. Eta gero beste bat Pau'eko errian... Eta orra gure D. Julio iru Gero'ren jabe.

ARGAZKIZKO FACSIMILAK

Bailan gure liburu-zaleak erosi bakarrik etzitian egiten. Saltzen ere ba'zekian. Bein batez, beintzat, egin zuan saltze bat gogoangarria. *Gero* bat —lenengo erosi zuana ‚Manterola'rena— saldu zuan. Zertarako? Artu zituan millaka duroekin Gero'ren argitaltze berri bat egiteko : foto-copia bat, lenengo argitaltzearen argazkizko facsimil eder bat guztion eskurako egiteko. Orririk aña zink-ezko plancha bear izan ziran : guzitara, 623.

Gerrate-aurrea zan; eta gerran galdu ziran, Prantzia'n, plancha aietatik 117. Eta geroztik olaxe dago D. Julio'ren argitaltze berri au bukatzeffe, 117 on-i-alderen peituan... Osatuko al ditugu noizpait, asko luzatzeke.

Ola, D. Julio'ri eskerrak ditugun lemgo foto-facsimil biekín —Dechepare ta Oihenart'efcin— or izango ditugu ederki osaturik, D. Julio'ren gogoangarri, iru foto-facsimiletan, euskerazko iru libururik aipatuena : *Linguae vasconum*, eta *Atsotiz* ta *Gastaroa* eta *Gero*...

D. Julio'ren gogoangarri, eta aren Liburutegiaren edergarri bizi-bizi.

Urkixo'tar Don Julio Euskeralojian

Bizkaitarrok:

Urkixo'tar Don Julio'ren jaiotzako 100 urte betetze ontan, nik, Jaun aundi aren adiskide —adiskide txiki— izan nintzan onek, nere lanengo Don Julio'ren irudia berritu nai dizuet.

Don Julio, neretzat, aspaldi artan, zaldun argi-argi bat zan.

Iru anai ziran urkixotarrok: iru anai, zein-baiño-zein zaldunago : Don Adolfo, Don José María, eta Don Julio, irurok zerbait aundi izateko jaiok. Don Adolfo, Bizkai'aren "zaldun" izango zan; Don José María, Elizaren "zaldun"; eta gure Don Julio, Euskeraren "zaldun".

Don Julio'ren zalduntasuna garai artan, besteak beste, Euskeraren aldeko burruka bizkor batean azaldu zitzaigun. Justa-bumika bat izan zan, "a florete" esan oi zan oietakoa; bañan naiko bizi ta bizkor. Bi gizon burrukalari, bata Euskeraren mendratzalle —Don Pío Baroja— eta bestea, Euskeraren goratzalle—gure Dom Julio—.

.. .bildu ziran
Beotibar'en pelean.

Bilbao'n izandako itzaldi batean, Don Pio'k Euskera mendratu egin zuan. Euskera, kultura-gaitarako "gai" ez izateaz gañera, euskaldunen kulturarako beaztopa, galga, ta estropozo bezela azaldu zigun.

Don Julio, ordurako, Euskeraren alorrean oso sarturik zegan. Eta, ola, bere burua bearturik arkitu zuan, Baroja'ren aurka lantza bat puskatzeko.

Eta, esan-da-egin, egun aietako periodiku batean, Baroja'ren esate mendratzalle aren aurka azaldu zuan bere burua.

Ekintza arraixku aundikoa zan, Don Julio'rena. Don Pio Baroja, orduan erderazko nobelagillerik onenetakotzat jotzen zan —eta, izan, irakurrienetakoa ba zan—. Ala ere, Don Julio'k ausartatsu ekin zion Ba-

roja'ren esaundari... Eta guretzat eta euskaltzale guztiontzat, Don Julio'ren iduria, benetan maitagarri azaldu zan egun. artan.

Orixe da nere gogoamean, Dom Julio'ren, lenengo-lenengo irudi ta imajiña. Imajiña maitagarria; imajiña elegantea. Bere biotzeko "Andereño kutun" zuan Euskeraren alde lantza bikain bat zatitutako zaldun elegantea.

Beste alderdi geiago ere izan ditu geroztik neretzat Don Julio'ren imajiñak. Eta oietako batzuek —nere gogoanekoak, eta ez danak— ikutu n̄ai nituzke gaur, Don Julio'ren gogoangarri egiten degun jai etxekoi ontan. Bañan, bizkaitar maiteok, barkatuko didazute, onez aurrerako nere itzak —itz laburrak— erderaz egiten baditut, gaur gure artean digun erdaldun entzuleak ere gogoangarri zerbait entzun dezaten.

DON JULIO DE URQUIJO EN LA EUSKERALOGIA

Señoras, Señores:

He descrito en breves trazos mi primera impresión a distancia, de la egregia figura del hombre vizcaino, cuyo centenario del nacimiento celebramos en este acto.

Aparte de ella, mis primeras impresiones acerca de su figura arrancan de poco después de la fundación de la Revista Internacional de los Estudios Vascos, allá a principios de siglo. Impresiones de admiración, como es obvio en un muchacho de quince a dieciseis años. Para nosotros Don Julio era una figura inasequible en su puesto de caballero prócer, creador con toda elegancia de ntt movimiento euskerológico serio y solvente. Figura inasequible.

capital de Navarra; y Vicuña está también al pie de las grandes escarpadas de la sierra de Urbasa; y dígase otro tanto de Ogoño, que es un peñón cortado a pico sobre el mar de Vicaya, y Lendoño que está cerca de Orduña e igualmente dominado por la peña de aquella ciudad vizcaína, etc, etc.

Ya que hemos tocado el punto de los sufijos toponímicos, no estará de más que recojamos aquí la teoría (un tanto nueva, si se quiere, pero con posibilidades de aceptación en el futuro), según la cual muchos de tales sufijos locativos corresponden y tienen que ver con los sufijos latinos *-nus*, *-na*, *-num*; *-anus*, *-ana*, *-anum*; *-nius*, *-nia*, *-nium*; sufijos, como se sabe, derivativos de adjetivos posesivos o de pertenencia, a base de un antropónimo {*patemus* = "fundo del padre"; *Marcélianus* = finca de Marcelo; *Licinius* = finca propia de Licio) (1). Esta teoría supone preferentemente que el primer elemento de este tipo de nombres, es un antropónimo o nombre de persona. Según esta teoría, desde luego, los topónimos en *-oña*, *-uña*, *-oño* que hemos registrado, habrían de explicarse por dichos sufijos. Y por lo que afecta concretamente a *Begoña*, su primer elemento, desde luego, habría de ser un antropónimo o nombre de persona, *Bego*, cosa que nos parece muy aceptable; y el conjunto del nombre habría de reducirse a un primitivo *Begonius*, *Begonia*, *Begonium*, mejor dicho a su forma femenina, *Begonia*, en significación de "finca de Bego".

Nosotros por nuestra parte, sin remontarnos por ahora demasiado arriba en esta cuestión, propondríamos, más bien, otra ruta, en la misma dirección general de los posesivos. Nos parecería siempre mejor, más cercano a la realidad, que ese sufijo fuese más bien el sufijo denominial posesivo *-no* o *-en* del euskera, antes que el derivativo de adjetivos posesivos *-nus* o *-amis*, o *-nius* del latín.

Según esto, partiendo de un supuesto nombre propio *Bego*, tendríamos en *Begoña*, un posesivo completamente normal *Begoen* o *Begoena* ("la finca de Bego"), cuya evolución en *Begoin* y *Begoina*, sería también

(1) CABO BAROJA, JULIO, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca, 1945, (59-76).

completamente normal (2), hasta desembocar en *Begoña*; mas no, como se ve, por la vía latina de *Begonia*, sino por la euskérica de *Begoina*.

Como explicación de estas evoluciones, véase el caso alavés de *Andoin* que en otro caso paralelo, geográficamente bien cercano, nos dio *Andoña*, *Argandoña* (de *Arg-andoin*, *Arg-andoina*, *Arg-andoña*), del mismo modo que quizás, en un punto nada lejano de Andóin, un hipotético *Bikuena*, *Bihuina*, nos habría dado el actual *Bíkuña*.

Como espléndida confirmación de esta nuestra teoría, cabe aducir aquí el caso del nombre también alavés *Gojáin*, cuyo antecedente histórico, documentalmente registrado ya para el siglo XI, es *Goyahen* o *Goyaen* (3) con valor, bien de posesivo ("de Goya") bien de superlativo ("lo más alto"), de cuya final *-en*, precedida de *a*, salió luego la actual *-in*, *Gojáin*, que, añadido el artículo *-a*, nos daría un *Gojaña*, de igual modo que suponemos que, de un primitivo *Begoen* salió el precedente *Begoín*, que con el artículo nos dió el actual *Begoña* (4).

Y por este mismo procedimiento cabría explicar —sin salirnos de la teoría del posesivo *-en* o *-n*, pero también sin salir del terreno del euskera, sin salir del contexto de las palabras examinadas—, una larguísima serie de nombres que se han querido explicar por el sufijo *-anus* del Latín. Nombres terminados en *-ana* o *-ano*, y en *-aña*, *-oña*, *-uña* y *-oño*, e incluso toda la larga serie de toponimios navarros terminados en *-ain*, conocidos de todos: nombres como *Lukiano*, *Antoñana*, *Lekánvaña*, *Ar-*

(2) En confirmación de estas evoluciones, véanse las formas vizcaínas *oneik*, *orreik*, *areik*, por *oneek*, *orreek*, *areek*; y las altonavarras occidentales *oik*, *aik*, por *oek*, *aek*; como la guip. corriente *ain*, por *aen* o *aren* (*onen ederral orren ederral ain ederra!*).

(3) Asignación de Rentas a la Mesa Capitular de Calahorra por el Obispo D. Juan (1200) en *Arch. Cal. Cat.* 162. La misma foona *Goiahen* aparece en 1025, en el Cartulario de San Millán, n. 9.

(4) Para apreciar el valor de algunas formas en *-nia*, registradas documentalmente (tal un *Argendonia* por *Argandoña* registrado en el Becerro de San Millán, año de 1025) habría que contar siempre con la posibilidad (facilidad en nuestro caso) de una mala lectura en el lector actual, o de una transcripción demasiado latinizante en el Scriptorium donde se redactó o copió el Documento. Ya desde luego asoma un sospechoso tufillo latino en la forma *argend-* (tan próximo al *argentum*) que se da al nombre. Por lo demás todos reconocen la facilidad con que se distribuyen mal las líneas verticales de las *n*, *m* e *i*, haciendo una *ina* de un *nia*, o viceversa, um *nia* de un *ina*.

gandoña, Iruña, Lendoño, Andoáin, etc., etc. Todos los cuales, como decimos, cabe explicarlos (y resulta mucho más científico hacerlo así) sin salir del ambiente vasco de las palabras en cuestión, por el sufijo desinencial posesivo vasco *-en* o *-n* (hoy, tras de vocal, más bien *-ren*). Nombres cuya forma típica, aparente, sería en *-ena* o *-na*, y que en el caso de un *Lukiena* por masculinización, evolucionaría en *-ano* (*Lukiano*); como, por un cambio de vocales muy corriente, *Lékamaena* habría evolucionado en *Lekámaina*, y por palatización de la *-n* precedida de *-i-*, en *Lekámaña*. Y dígase otro tanto de la forma en *-oña*, como procedente de un precedente *-o-ena*, que pasa a *-oina*, para luego caer en *-oña*. Y lo mismo la forma en *-uña*, que evoluciona, de *-u-ena* a *-uina* y *-uña*. Pudiendo decirse igualmente otro tanto de la forma en *-oño*, cuyo cambio en *-o* a partir de un precedente en *-oña*, ha podido ser ocasionado por la tendencia a la masculinización, por contagio e imitación de ciertos nombres que en castellano han sufrido esta misma evolución por imperativos de diferenciación sexual. Recuérdese, v. gr. el caso del apellido Lacarra convertido en Carro, y de Ocón en "la Ocona", etc.

Por un proceso parecido cabría explicar igualmente la numerosa serie de topónimos en *-ain* o sencillamente en *-in*, como el ya citado *Gojáin* de la toponimia alavesa, que en tiempos pasados, como hemos consignado, fue *Goyaen* o *Goyahen* (5) ("de Goya" o "el más alto"); o como un *Igoróin*, tan fácil de reducir a *Igoroen* ("de Igoro"); o un *Andoín*, reducible a *Andoen* ("de Ando"), como su similar guipuzcoano *Andoúin*, reducible a *Andoaien*; y *Orendain* a *Orendaen*; y *Baliarráin*, a *Baliarraen*; y *Beasáin* a *Beasaen*; y *Zeráim* a *Zeraen*; sin contar con la larguísima serie de topónimos navarros de igual corte, como *Markeláin*, reducible a *Markelaen* (sin recurrir para nada a la forma latina *Marcelianus*) (6) en sig-

(5) Cuya *-h-* intermedia representa quizás la actual *-r-* de *Goya-r-en*.

(6) No es obstáculo a lo que venimos diciendo del carácter vasco de este sufijo, el «arácter latino de los nombres o que se isufija. Los nombres propios de persona en toda lengua son por lo general préstamos de otras lenguas. Por lo que fuere. Todos nos llamamos igualmente con nombres latinos, del Martirologio Romano; lo cual no obsta, «in embargo, lo más mínimo a que todos bablemos nuestra lengua, que no es precisamente la latina. Los nombres propios de persona o los "antropónimos" como se les llama técnicamente, pertenecen a la corriente de la moda. Los sufijos, en cambio, pertenecen a la técnica propia de cada lengua. Aunque el vasco, que formó los topónimos *Genduláin* de *Céntulus*, y *Ciriquíain* de *Çuiricus*, etc., para su formación

nificación de "finca de Marcelo; y *Paternáin*, a *Paternaen* (con su paralelo latino en territorio más romanizado, de igual significación y aun sonido similar (7) *Paternina*); y *Barañáin*, *Badostáin*, *Muniáin*, reducibles a *Barañaen*, *Badogtaen* y *Muniaen*, etc., etc. Todos ellos, repetimos, compuestos, según esta nuestra teoría, a base de antropónimo o nombre propio de persona, más el sufijo desinencial posesivo o de genitivo, *-en* o *-n*.

Una elocuente muestra de la conciencia popular sobre el equivalente valor de las desinencias *-áin* y *-en*, es la pronunciación corriente de los nombres de *Elduayen* y *Labayen*, que el pueblo pronuncia *Elduain* y *Labain*.

La tradición

Como se observará por cuanto hemos expuesto, al sentar esta nuestra teoría, no sólo no nos apartamos lo más mínimo de la morfología

tomó del latín el material, sin embargo, no cabe duda de que obviamente manipuló aquel material según su propia gramática, con sufijos de su propio haber lingüístico. Es natural.

(7) De esta similitud tan notable (que sin duda ha contribuido no poco a querer confundir nuestros *MarkeJáin*, *Domentzáin*, etc., con *Marcelian(us)*, *Domitian(us)*, etc), son varios los factores constitutivos: la coincidencia de significación y la coincidencia del elemento utilizado para ella, y del modo de su utilización. Para expresar la posesión o pertenencia usan ambas lenguas, vasca y latina, tras del nombre del poseedor, un sufijo -e (*aitareN etxea = paterN(a) domus*); con la única diferencia de que en el caso de *aitaren*, el sufijo es desinencial de genitivo de la declinación, mientras en él caso de *patern(a)* es un sufijo derivativo de adjetivos de tres terminaciones -(nus, -na, -num) . Semejanza, por cierto, que no es la única entre ambas lenguas. Es tan sorprendente como ella la que igualmente existe entre el sufijo vasco desinencial de pertenencia local o temporal *-ko*, y el derivativo latino de adjetivos *-cus, -ca, 'Cum*, aunque de aplicación incompleta (*caeliCVM regnum = zeruKO erreinua*). Más sorprendente aún es la semejanza del dativo vasco y el latino, de nombres en tema consonante, tercera declinación, que ambos por igual se expresan con el sufijo *-í* (*aitari = patri; Ximon'i = Simoni; Martzial'i = Martiali*). Dígase otro tanto del sufijo vasco de compañía *-kin*, que tanto parecido tiene con la preposición *cum* (antes sufijo *-cum*) (*aitarekin = cum patre; nerékin = mecum*). Otro tanto cabe decir del elemento pluralizante de sujeto en algunos casos de la conjugación, sufijo *-íe*, común a ambas lenguas $\text{-(venite = atozte)}$... Semejanzas pertenecientes a un estadio muy anterior al de los conocidos préstamos latinos al vasco, *pake, pike, piku, errege, erregiña, akullu, pago, gerezi*, etc., etc., y que además revelan, más aún que un contacto milenario, una pequeña común herencia de ambas lenguas en épocas más antiguas aún.

vasca de las palabras, como se aparta el sistema que impugnamos —que reeurre al latín para explicar un fenómeno de la lengua vasca—, sino que nos mantenemos además dentro estrictamente de la tradición de los topónimos vascos expresivos de pertenencia de casa o finca. Estos topónimos, tan abundantes, se forman hoy, como se recordará, a base del sufijo *-(r)ena*, v. gr. *Garciarena*, *Simonena*, *Hernandorena*, *Frantziñena*, *Petrireña*, *Juanmartiñena*, *Artzaiarena*, *Mitxelena*.

Tal es la técnica que podíamos llamar actual, de este tipo de topónimos. Hoy *Begoña* diríamos *Begoreña*, con una morfología gramatical idéntica en ambos casos, si se quiere, pero de resultado aparente completamente distinto.

Y lo propio cabe decir de todos los demás nombres que hemos analizado anteriormente, a base de sufijo posesivo en todas sus formas y variantes. *Andoña*, diríamos hoy *Andoreña*; y *Bikuña*, *Bikureña*; y *Lendoño*, *Lendoreña*... Y dígase otro tanto, *servatis servandis*, de la gran serie de nombres en *-ain*, aunque con la particularidad de que en estos casos, al hacer la reducción, deberemos suprimir el artículo final *-a*, dándonos esto las formas, también completamente normales, de *Muniaren* o *Muniaren(e)* ("casa de Munia"), *Badostaren* o *Badostaren(e)*, *Paternaren(e)*, *Markelaren(e)*, etc. (8); así, con esa *-e* final epentética, que tan corriente es en la nomenclatura de estos topónimos (*Fermiñene*, *Santusene*, *Santsiñene*, *Baroiane*); *-e* epentética, por cierto, que, seguida del artículo *-a*, nos ha dado toda esa serie de nombres en *-nea* o *-enfa*, que tan profusamente se han aprovechado en nuestros días —y con muy buen acuerdo aunque quizás no tan buena técnica— en la nomenclatura de los edificios un tanto urbanos que se han venido edificando en el País.

Antiguamente, cuando se formaron los topónimos navarros en *-ain*, no se estilaba esa *-e* epentética, sino que la *-n* final de las palabras pendía al aire, sin apoyo; así como tampoco se empleaba la *-r* eufónica in-

(8) Como confirmante de la continuidad de la tradición de topónimos posesivos a base de sufijo desinencial euskérico, véase el doble elocuente caso de *Gartzain* y *Matxain*; el vasco, que en la Edad Media formó el topónimo *Gartzain*, en tiempos más modernos formó otro topónimo de idéntica tónica, *Gartziarena*; así como por *Matxain* formó igualmente un *Matxi(andi)arena* o *Martiarena*, y más modernamente *Martiñena* (*Gartzain*, *Gartziain*, *Gartziaen*, *Gartziaren*, *Gartziarena*; *Matxain*, *Matxiain*, *Matxiaen*, *Matxiaren*, *Matxiarena*).

termedia, lo cual esto último provocó el cambio del *-en* posesivo en *-in*, como tenemos dicho arriba (*Markelarene, Markelaren, Markelaen, Markeláin*).

Conclusión

BEGOÑA, según esto, sería un posesivo más, sobre un antropónimo, *Bego*, más el artículo final; *Bego-en-a* ("la finca de un señor llamado Bego") evolucionado normalmente en *Begoína* y *Begoña*.

Ello en la suposición de que el segundo elemento del nombre (*-ña*) sea el sufijo desinencial posesivo *-en*. Así como, en cambio, en la suposición de que se trate de un nombre *oña* en significación de "escarpado, derrumbadero, sierra", sería "el escarpado o derrumbadero de un lugar conocido por Bego".

Calahorra, 1950.

«Zipitria» abizenaren gora-beerak

"Zipitria" abizenaren etimologia, ez da errezenetakoa. Itzaren itxurari begiratzen badiogu, ez du gure arteko beste abizen askoren antzarik, naiz asierako "zipi" orri begiratzen diogula, naiz bukaerako "tria" orri. Era guztietako "berdiñik gabea" arkitzen degu abizen au.

Ala ere, ezin uka dezaiokegu bere euskal-izaera. Euskalerritik landa ez dago Zapitria'rik. Gure artean erabiltzen da bakarrik. Guk dakigulariik beintzat.

Oraingoa ez bezelako beste itxuraren bat ote-zuan, ba, bere sor-tzean? erabilliz-erabilliz aldatu zaion beste itxuraren bat? Begiratu baterako, ala dirudi. Eta, izan ere, ala ageri da, abizen bezela izan duan bere bizitzan. Beste era eta itxura bat zuan len. Ibillian-ibillian aldatu zaio era ta itxura ori.

Gai ontan dakidana esango det nik.

Beste zerbaitetarako abizen au aztertu bear izan det orain berriro. Eta lenengotik orixe eritzi nion: iñolaz ere *ab initio* etzala "zipitria" izango, beste zerbait baizik. Eta ola, zerbait asmatu bearrez, metatesis bat gogoratu zitzaidan bapatean : itz onek bere baitan, bere silabaetan, metatesisen bat —toki-aldatzeren bat— izan ote-duan : bere silaba-arte-ko aldatzeren bat. Itz batean: ZiPItria ez baño ZiPRItia izana ez ote-dan asieran... Olako metatesisak askotan gertatu bait-dira gure abizene-tan. Edonork daki *Alberro* ta *Alberdi*, *Arbelo(a)* ta *Arbeldi'ren* meta-tesis dirana; berdin baita *Salutregi*, *Salurtegi'rena*, ta *Satrustegi*, *Saturstegi'rena*... Berdin gertatu bait-zitekean baita gure *Zipitria'rekin* ere: metatesis errex baten bitartez, Zipitria'tik *Zipitria'rsL* igaro izatea, alegia...

Zipritiak ba'lituzke euskeraz bere antzeko beste izen asko; *Azpeitia* ta *Azkoitia* urruti gabe adibidez; ta *Arratim* ta *Albertia* ta oien antzeko

beste asko ta asko. Gure abizen batentzako bukaera eroso da bait-da beti ere *-tia* ori; *-tria* bukaerarik, berriz, ez bait-da arkitzen gure izendegietan.

Zipri'vi bagagozkio, berriz, errez izan diteke *Zipriam'en* laburpen bat, *Satur*, adibidez, *Saturnin'en* laburpena dan bezela... *Zipri-tiak* "Ziprian'en etxea" esan nai, alegia... Orra or nere lenengo gogokaldia gai onetan.

Gero, ordea, Bataio-liburuetan-da saiatu bear izan det; eta pozik asko ikusi al izan det, ez nenbillela ain oker nere asmakizun ta gogokaldietan. Liburu aietan oraindik goragoko iturburu ta etimologi bat ere arkitu al izan diodala, ezik, abizen berezi oni. Ara.

Andoain-inguruan dago geien zabaldurik abizen au. Eta Andoain'go Bataio-liburuetara-ta jo nuan orain berriro, zerbait argitasun-billa nere bearerako. Eta ara an arkitu nuana.

1738'gn. urteko Confirmatuen Liburua aztertu nuan lenengo; eta ideki orduko izen auxe arkitu nuan: "Joseph de Zufritia"; eta andik laister beste au: "Manuela de Zufritia". Bañan urte berean, beste au: "Francisca de Zufitria"; bañan andik laister, berriz ere, "Francisco de Zufritia". Guzti ori 1738'gn. urtean.

Oar bat merezi du guzti onek: ikusten danez urte oietan abizen au aldatzen ari da, aldakuntzan sarturik dago bete-betea. Batean *zufri*, bestean *zufi* agiri da. Dana dala *-^eta* au nere lenengo ametsaren aurka—*Zipri'ia* ez baño, *zufi'ra* areago jotzen du; ots, *zubVra* edo-ta *zubiri'ra*, *zit/iri'ra* (*sufri* = *zuf(i)ri*).

Liburu berean aurrera jarraiturik, bañan beste idazkera batean, 1745'gn. urtean izen oietxek agiri dira: "Maria Angela de Zipitria"j eta andik laister "Manuel de Zipritia" (1) (nik amets egin bezelako *Zipritia*); bañan urte berean andik aurrera beti ta beti *Cipitria* agiri zaigu, eta ez, len bezela, zefadun, cedun baizik.

Olakoxe gora-beherak izan dituala azaltzen zaigu abizen au gure Sakramentu-Liburuetan: Zufriti, Zufitri, Zipriti, Zipitri... Zuzen—bidez bai bait-dirudi *Zufiri* abizenetik sortua dala.

Bukaerako *-tia* orri buruz ere zerbait esan dezagun.

(1) XVII gizaldiko Bataio-ÍLiburuan, *Zipritia* agiri oi da bakairik luzarroan, *Zipritia* (ot8, *Zipritegia*), "casa de Ciprian" bailitzan.

Jakiña da, XIII gizaldiko pergaminoetan Armentia'ren izena *Armentegi* (*Armentehi*) asaltzen dana. Beraz *-tegi* bat, ibillian-ibillian, *-tia*, biurtu zaigu. Ala berean, gure artean ikusten degu baita, *InsaustVien* ondoan bizi dala *Insaustegi hat* ere; eta baita *BeiztegVxea*. ondoan *Beizti* bat ere; eta *OllakindegV ren* ondoan *Ollakindia*; *ZumalakarregVxen* ondoan *Zumalikardi* bizi dan bezelaxe... Oyartzun'go antziñako *Auspagin-degi* bat gaur *Espaindi* biurturik ere arkitzen bait-degu... Eta guzti onek auxe dakar: *-tia* ori *-tegi* dala askotan.

Gure *Zufritia* ori ere ez ote-zan izan len, bere asieran, bere sorreran, *Zufiritegi* "casa de los Zufiria"?

Elitzake arritzeko gauza izango.

Amasorrain

(UN CUAKTO A ETIMOLOI&IAS)

En el extraordinario de ANORGA ESCOLAR del pasado año, su Director me aludía, a propósito del nombre del conocidísimo caserío añorgatarra "Amasorrain".

Nuestro querido Director había podido observar al pie del escudo de la fachada principal del caserío, el nombre del Solar en una forma distinta de como ordinariamente se suele escribir. Lo corriente es que se escriba con una sola S; pero en el escudo aparece escrito con doble SS. "¡Qué misterio puede haber en todo esto?" venía a decir. Y, amablemente —como acostumbra— me invitaba a aclarar este pequeño enigma.

Diré lo que se me alcanza sobre el particular. Nada definitivo. Sólo una aproximación a la verdad. Como ocurre muchas veces en estas materias.

* * *

Desde luego el corte del nombre "Amasorrain" es interesantísimo. Los nombres terminados en *-ain*, son nombres de una respetable antigüedad, y sobre cuyo valor significativo, hoy se tiende a darle el de "pertenencia a una persona", la persona significada por la primera parte del nombre, AMASOR en nuestro caso; como si el todo fuese un *AmasorrEN* del vasco de nuestros días, en significación, por tanto, de "(finca) DE Amasor". La explicación parece correcta, y cada día cuenta con más adeptos.

Pero todo esto afecta a nuestra cuestión un poco de lejos. Nuestra cuestión es "¡Qué significa ese misterioso AMASOR?" ¿y por qué algunas veces se transcribe con doble SS?

* * *

Empezando por lo segundo, la transcripción con doble SS, a diferencia de la sencilla, puede obedecer a una pronunciación también diferente, de tal manera que la S sencilla represente el sonido sibilante de la S hoy usual en castellano, y la doble represente un sonido sibilante distinto, que bien puede ser 1) una aproximación al sonido de la Z, o bien 2) una TS explosiva, o bien 3) la sibilante palatizada, hoy expresada por la X, o 4) sencillamente que se trata de una diferencia puramente gráfica, de escritura, sin valor real en la pronunciación —de una manera parecida a la diferenciación en castellano actual entre la B y la V, o de las palabras con H o sin H—...

^A cuál de estas cuatro interpretaciones corresponde la doble SS de *AmaiSSOrrain*?

No tenemos ningún antecedente definitivo para contestar.

El hecho de que el mismo nombre, en una misma época, —aun un tanto antigua— se transcriba de cualquiera de las dos maneras, nos induce a pensar en la cuarta solución, de diferencia puramente de escritura, sin valor de pronunciación.

Hay, sin embargo, un argumento muy aprovechable en favor de la SS=Z (naturalmente una Z vasca, muy cercana a una S), y es que en la zona de dialecto vizcano (Mondragón concretamente) este nuestro nombre empleado como apellido, es *AmoZarrain* (así *Amozarrañ*). Algo significa este caso mondragonés.

Con todo, tampoco debemos olvidar que en Andoain el apellido se presenta en la forma de *AmaSoarain* (así, *AnmSoarairi*). Se ve que la tendencia guipuzcoana va por la S, mientras la vizcaína va, mas bien, por la Z. Pero es que la forma vizcaína ha podido ser trabajada tardíamente por una tendencia de adaptación, de interpretación actual, ha podido ser tardíamente "interferida" por la palabra *zar* (=viejo) (*Amo zar*) cuando en su primitivo origen, a lo mejor, el adjetivo "zar" no tuvo nada que ver...

En definitiva, que la cosa es lo suficientemente oscura, para que no podamos presumir de certezas de ningún género. Como en infinidad de casos sobre materias parecidas.

* * *

Pero, y, dejando la forma a un lado, que puede haber en el fondo de este nombre tan misterioso?

Si no hubiese temor de que una vez más el espíritu de interpretación o adaptación haya "trabajado" la cosa, podríamos decir que la fórmula andoaindarra nos da una bonita clave para una solución: y es, que el primer componente del nombre envuelve dentro de sí el nombre *ama* o mejor aún *amaso* (= abuela), aplicado a un *arairt*, cuya significación una vez más resulta enigmática. Ciertamente, no sería caso único' de presencia de los nombres "padre" y "madre" en la Toponimia; en la Toponimia castellana hay fincas de nombres PATERnina, o VillaPA-DIERna o VillaMADERne o MEDRAno (MADERno) etc. Y en lo vasco hay quien opina que en los nombres de Zegama o Beizama o Amasa puede tener lugar igualmente el elemento *ama*... (Véase "Apellidos Vascos" de Luis de Michelena - Biblioteca "Amigos del País).

Aita Mendiburu'ren urtea

1983

"Aita Mendiburu'ren lenengo Liburua irakurtzen".

Aita Mendiburu'ren lenengo Liburua, "Jesusen Biotzaren Debozioa" izan zan. Eta Liburuaren presentamenean, "bataioan" Aita Larramendi'k egin zuan "aitabitxitza" gomendiozko Karta Eskutitz baten bitartez.

XVI, XVII, XVIII gizaldian, liburu berriren bat azaltzen zanean, liburuak bere sarreran olako Gomendiozko Kartak eramateko oitura aundia zan. Besteak beste, Axular'en "Gerok" ere olako Karta batzuek daramazki bere sarrerako orrialdeetan.

Mendiburu'ren lenengo Liburuak ere, olako Karta bat darama. Eta ez nolanaikoa : Aita Larramendi'rena : Euskeraren lenengo Gramatikaren eta Iztegi mardul baten egillea zan Larramendi Aitaren Karta. Gomendiozko, Gomendiozkoa. Aita Mendiburu, liburuaren egilleari, kezkarik aski eman bide zion Karta.

Alabantzi aundiak ematen zizkion, izan ere, Aita Larramendi'k Mendiburu'ren liburuari. Eta gure Aita Mendiburu kezketan sartu zan. Arrokeria geixko ez ote zan, alegia, bere Liburuaren lenengo orrialdean, oitura ala zan arren, alako alabantziak jartzea. Gure Aita oyartzuarra ez bait zan, bere izatez, alako protagonismo-zalea. Orregatik, aren lenengo asmoa, Karta alabantzioso ura ez argitaltzea izan bide zan.

Bañan, arrazoibide guziak alkartuta, aizkenean burua baiezkorra makurtu bear izan zuan.

TT "tc_ TP*

Izan ere, alde batetik, Liburuaren gaiak ala eskatzen zuan. Gai berria zan: Jesusen Biotzaren Debozioa, XVIII gizaldiko urte aietan,

debozio berria zan oraindik emen oietan. Apio on batzuek bear zituan. Umezurtz azaltzea etzitzaion konbeni.

Bestalde, Aita Larramendi'k berak ere, baldintza-kondizio ortan bidali bide zion bere Karta ura, bere adiskide oyartzuarrari: kezkarik gabe bere Liburuaren sarreran argitaltzeko kondiziotan. Etzegon dudarik. Karta argitaldu bearra zegon, nai bazuan eta ez bazuan.

TF IF JF

Bestalde, Aita Mendiburu'k berak ere etzeukan segurantzi aundirik, bere Liburuaren balioari buruz. Zalantza biziak ere, bai, ba zituan; lenengo aldia zan gure Aita oyartzuarra liburu-argitaltze-kontu artan sartzen zala. Etzekian zer arrera egingo zitzaion irakurtzalleen artean bere lenengo idaz-lanari. Alde ortatik ere kezkek alde batera utzi bearra zeukan.

Aita Larramendi'ren alabantziak gora-beeera, Karta argitaldu bearra zegon. Eta argitaldu ere ala argitaldu zan; eta geroztik argitaltze guztietan beti ere Aita Larramendi'ren Gomendiozko Kartarekin argitaldu izan da gure Aita Mendiburu'ren lenengo "xemea".

•P W. w

Aita Mendiburu'ren lenengo Liburu onen inguruan komentario batzuek egiteko asmoa izan nuan nik iñoiz: *Jesusen Biotzaren Debozioa irakurtzen* izena izan zezakean komentario labur bat.

Kontu egin dezagun, Liburuaren beraren komentarioa egiten ari gerala, Larramendi'ren Karta komentatzen ari geran artean. Esan degu nolako kezkek eman zizkion gure Aitari, Karta bere Liburuan ipiñi bearra. Jarrai dezagun aurrera, Karta bera komentatzen.

* * *

Larramendi'ren Karta kritika bat da: Aita andoaindarrak bere garian ikusten zuan Euskeraren egoeraren kritika bat. Kritika ortan Aita Mendiburu'ren Euskera "Euskera Eredutzat" ipintzen du gure A. Larramendi'k. Euskera garbia. Bañan, bere garbian, erderazko itzik gabe, Jesus'en Biotzaren Debozioaren gauzarik "goi, mee eta ondatsuenak" (sakonenak) garbi explikatzeke gai dan Euskera. Euskeraren balioaren

apolojiarik ederrena izan ziteken Liburu bikaña. Apolojia ori egin bearra bait zegon euskaldunen beraen artean ere ez erdaldunen artean bakarrik; baita zenbait euskaldunen artean ere.

Orixe zan, izan ere, Aita Larramendi'ren apoloji-gai klasikoa, bere bizitza guziko apeta eta ametsa: Euskera gai zala gauza guzi oietarako eta geiagotarako ere; eta gauza orren pruebarik argiena, gure Aita Mendiburu'ren lenengo Liburua zan; berak zion bezela: "Egia onen ikusbidea demostrazioa zure Liburu au izango da".

Ori da, izan ere, asi ta buka, Kartaren mami, muin eta gai guzia. Ez, ordea, Mendiburu'ri loxintxa egiteagatik. Bion artean ba zituzten beren asarretxoak, beste zenbait gauzetan: dantza-gaietan, adibidez. Bañan ez, iñolaz ere, oyartzuarraren euskeraren gai ortan; ortan biok oso "a dos zetozen". Konbeni ere, bai, gai ortan, apologista andoaindarrari, Euskeraren etsaiak eta adiskide txepelak ankapean zapaltzeko.

* * *

Orain, aurrera jarraituaz, Kartaren Kritika egin nai badegu •—Karta irakurri alean, irakurtzeak buruan egiten dizkigun atximurrak agertu nai baditugu— lenengo agertzen zaigun gauza, Larramendi'k duan Euskeraren ezaguera sakona da; ezagun du gramatika-egille dala; arrigarritzko ezaguera, aditz-joku sintetikoan agertzen du batez ere; gaur aditz-joku sintetikoa galdua duten zenbait adiz-berbo, berak sintetiko-eran, "aire ta bote" parra-parra jokatzan bait ditu. Ikus, onako troxu au: "Ark erakusten dizkitzu... debozio oni *dariozkan* ("jario") zeruko ondasunen iturburuak. Itzetatik agiri dezu, nola *dizekan* ("izeki") zure biotzari; ta *eztarauskiola* ("erausi") mingañari, barrunbeari *dirakiena* ("irakin") ta gañez *dariona* ("jario") besterik".

Lau errenkadako paragrafo berean, lau aditz, sintetiko-eran jokatua: *jario*, *izeki*, *erausi*, *irakin*...

* # *

Larramendi'ren Karta famatua, aurten 100 urteko argitalmenean Aita Ignazio Arana batek erderatua azaltzen da. Askatasun apur batean erderatua. Bai bait ditu utsune ta oker batzuek, guk emen, irazean, zuzentzen saiatuko geranak.

Begira nola erderatzen duan, gure troxu ori: "El os muestra... los manantiales de celestiales riquezas que de sí brota esta Devoción... Bien se os ve por las palabras, aquello mismo que en vuestro corazón *sentís, j* que no *habla j* expresa otra cosa la lengua, sino lo que habla y *bulle* en el interior".

Erderak ez bait du emen, Euskerak duan graziaren laurdenik ere.

·II· TT

Bañan, graziaren gabeziak gañera, bai bait dago or beste zerbait ere: aditz-berbo bat gaizki erderatua; euskeraz *nola dizekan zure biotzari* dion troxu ortan, alegia; *dizekan* ori ez bait da "sentir", "arder" baizik: "cómo ARDE vuestro corazón" ("cómo LE ARDE a vuestro corazón" obeto) *izeki* "arder" aditza, sintetikoki (*dizekan*) jokatuaz. "Por las palabras se os conoce cómo se LE ARDE a vuestro corazón...".

Izan ere, Aita Arana'k Larramendi'ren textoa idaztean, ez du idazten "dizekan"ik, beste nunbaitetik sortu duan "ditxekan" bat baizik, eta erderatzekoan, "sentir" bat, "arder" baten ordeaz...

TP TP *J'

Bañan ez bait da ori bakarrik; itzen batzuek galdu ere egin zaizkio gure Aita Ignazio Arana'ri, bere lanean ari dala.

* * *

Aita Ignazio Arana'k, orain eun urte, Tolosa'ko Eusebio Lopez'enean Liburu onen argitalmen berri bat egin zuan bezela, andik urte batzuetara —1900'ganean— Edward Spencer Dodgson batek beste argitalmen berri bat egin zuan, Donostia'n, Del Pozo'renean.

Argitalmen au, lenengo argitalmenaren *fac-simil* bezela egin zan, Liburuaren orri-alde guztiak lenengoaren antz-antzekoak egiñaz.

Guk, ordea, bi argitalmen oien artean zenbait diferentzi arkitzen bait ditugu, irakurleak ere ikustea nai genduke; garrantzi aundiko diferentzi bait derizkiegu.

Begira grafikoki, lenengo orrialdeetan arkitzen ditugun diferentzi oiek.

Ikus.

Dodgson:

"Arc eracusten dizquitzu gai aundi onen sayets guztiac; arc egoqui santuac; *arc ecarrai ezti ezti gozo gozoac*; arc guizonentzat debocio oni dariozcan Ceruco ondasun iturburuac".

A. Arana :

"Ark erakusten dizkitzu gai aundi onen sayets guztiak; ark egoki *zentzuak*, ark gizonentzat debozio oni dariozkan zeruko ondasunen iturburuak".

Argi agiri danez, Aita Arana'ri parrafo ontan troxu bat osorik galdu egin zaio : *arc ecarrai ezti ezti, gozo gozoac*.

•1 * if

Bañan ez bait da ori bakarrik; parrafo ortan bertan, itz batzuek gaizki erderatu ditu; askatasun geixkoz gañera, bi itz auek gaizki aditu ditu: *egoki*, aditz-berbo egin digu; eta aren ondorengo *santuac*, *zentzuak* irakurri.

Egoki ori or ez da aditza; izen substantivo bat baizik; *egoera*, *disposizio-edo*. Eta ondorengo *sentzu* ori, ez da *zentzuac*, *santuac* baizik; *egoki*, *disposizio santuak*; Dodgson'en textoak dakarren bezelaxe. Aita Arana'k askatasun geixko artu du, *santu* oiek, *sentzu* egitean.

Gañerakoan *egoki* ori, naiko garbi, aditz ez baño izen sustantivo bat da, goraxeagoko *sayets* bezéla, eta beeraxeagoko *ekarraiak* eta *iturburuak* bezela : *egoki santuak* = "disposizio santuak".

Parrafo au, goragokoaren "anplifikamen" bat da: lau zatidun amplifikamen bat; lau zati, aditz-berbo baten mendean: *sayetsak* = "circunstancias"; *egokiak* = "disposiciones"; *ekarraiak* = "frutos"; *iturburuak* — "manantiales". Dana aditz baten mendean, *erakusten* baten mendean.

Egoki eta *ekarrai* itzak gaur, bere ortan, ez dira arkitzen iztegiatan.

Bañan edozeñek daki, *egokitik disposiziora* oso bide laburra dagola; eta berdin, baita *ekarritik fruitura* ere. Eta neurri ortan, parrafo orren muña erderaz, au edo onelako zerbait da :

"El os muestra los lados todos de esta sublime materia; El las santas disposiciones; El los suaves y dulcísimos frutos; El los manantiales celestiales que manan de esta devoción a los hombres".

Ola parrafoa biribilduaz, askatasun apur batekin.

^F TP TP

Kritika oni beroni jarraituaz, esan bear degu, baita, beste gauzatxo bat ere, Aita Larramendi Gramatiko on bat bezela asko abonatzen ez duana; bere Kartako troxu au, alegia: "Etzinioke ain argi ta garbi sail oni ekingo, Jainkoak eman *Ezpazizun*, Jesusen Biotzarekiko dezun jaiera ori, ain bizia ta sutua".

Troxu ontan, ez dakit, nola bere euskal-belarri andoaindarrak protestarik egin etzion Aita Larramendi'ri. Areago oraindik, bere gramatikazko jakinduri aundiak. *Quandoque bonus dormitat Homerus* gertatu zan nunbait: "Homero bera ere, aldiz-aldiz loak artzen duala"...

Gramatiketan *consequitio temporum et modorum* esan oi dana, oraingo ontan ez du bear bezela gorde Andoain'go Gramatikoak. Konturatu bear zuan, trozu ori, dana-dan, modo *subjuntivo condicionalean* sartua dagola ("etzinioke ekingo"); eta, kontrara, bukaerako "Jainkoak eman *Ezpazizun*" ori *modo indicativuan* dagola; eta orregatik olako troxu batean beti ere guk, *indicativoko* "ezpazizun" ez baño, *subjuntivoko* "ezpalizu" esaten degula.

"Jainkoak eman ZIZUN", "Jainkoak eman EZPAZIZUN" *modo indicativuan* daude. *Subjuntivoan*, aditz-jokoa beste bide batetik dabil: "Eman balit, *balizu*, balio". "Eman ezpalit, *ezpalizu*, *ezpalio*"...

*? <fe +TF

Gauza bera esan bait diteke, "etzinioke ekingo"ren eta "eman ezpazizun"en artean arkitzen ez dan *consequitio temporumengatik* ere: *etzinioke* "geroan" dago; *ezpazizun*, "leenean".

Ortaz gañera, bai bait genioke beste zerbait geiago ere esan bearrik,

gure Gramatiko andoaindarrari, eta arekin batean baita gure Mendiburu'ri ere, Gramatika-kontuan; eta konkretuki, Sintaxis-gaian, *conjunctio* diralako gramatikakizun batean; Beterrian itzetik-ortzera ta txitian-pitian erabiltzen dan conjuncio bat aipatu ere ez dutela egiten beren idaz-lanetan : BAIT partikula, partikula causal pator-jatorra.

Aita Larramendi'k bere "El imposible vencido" deritzan Gramatikan, aipatu ere ez, eta aren ondorengo ta eskolako, ez Aita Kardaberatz'ek ez Aita Mendiburu'k beren idaz-lanetan bein bakarrik ere erabili ez.

Bear bada, Larramendi andoaindarrarengan eta bere denboran, etzan ain arritzekoa, Andoain orduan oraindik ain Beterri jator egiten etzalako-edo Beterriko esaerak —eta aien artean gure BAIT ori— etziran ain itz erabiliak. Eta orregatik nunbait gramatikoak etzuan aipatu bere Gramatikan; eta aren ondotik, ezta aren bi lagun Jesuitak ere beren Liburuetan; bestela beintzat —Larramendi'ren itzalez izan ezik beintzat— ez da konprendi-errexera, Mendiburu batek, batez ere, ez erabiltzea, ain "oyartzuarra" dan kausal-itx jator-jator ori; Axular'ek txitian-pitian erabiltzen duan elementu ori... Eta gure Mendiburu'k ez bere "Jesusen Biotzaren debozioa"n, ez "Otoitz-gaietan" ez "Sermoi-Homilietan"...

^F IF *

Gauza ontatik nik beste ondoren bat ateratzen bait det: Euskera guztia ez dagola gure idazleetan, gure Klasikoetan; gure idazleak etzutela beren idaztietara jaso Euskera dana; gauza asko pasa zitzaizkiela, beren Idaztietara, beren Liburuetara jaso gabe.

Izan ere, beren idazti-lanak erderazko "ereduai" begira egin zituzten sobera; eredu oietan ikusten zutena bakarrik jaso zuten beren idazlanetara, Literatur-lanetara; gure Euskera osoak, ordea, gauza asko izan, erderatan arkitzen ez diranak, zenbait elementu sintaktiko, batez ere; ola, adibidez, orain eskuartean darabilgun, *conjunctio causalis* "bait" au, *conjunctio causalis explicativa* esan diteken "bait" sorgin ori, ez Latiñean, ez Grekoan, ez Gaztel-erderan gure Larramendi'k berak bere Gramatikarako berdiñik arkitu etzion gramatika-atal txiki sorgin ori; eta, Larramendi Maisuak bere Gramatikan lekurik eman etziolako, nunbait, gero aren jarraitzalle zintzo ziran Kardaberatz batek eta Mendiburu batek ere beren Liburuetan sartu etzutena.

B U K A T Z E K O

Orain, bukatzeko, gertarizu bat esango dizutet. Orain berrogei ta amabi urtekoa. Bergara'n gertatua. Euskeraren bizitzarekin zer-ikusi aundi duana. Egun otan, ain zuzen, eskuartean darabilgun problema garratzarekin zer-ikusi aundiduna : Euskeraren "il-biziko" problema.

*fr *fr w

Bergara'n Eusko Ikaskuntzak bere bi urtez-beingo Batzarrak zituan. "Arte Errikoiari buruzko" Batzarrak : *Arte Popular*.

Nik Itzaldi bat nuan. Itzaldiaren gaia, *La Poesía Popular*: "Poesi Errikioia".

Lexoti zaarra eraman nuan nik, kantari-ekipo batekin, nere teorien praktikalari bezela. Lexoti'k Toberak kantatu bear zituan, batez ere.

*jp *af *jp

Bergara'ko Kontzejuko Areto Nagusian genduan Itzaldia. Eta baginjoazen Kanean zear Kontzejura. Eta or ateratzen zaigu, taberna batetik, gizon bat. Bertsolaria. Elorrio aldekoa. Bizkaitar jatorra. Gizon praktikoa. Praktikoki mintzatu zitzaigun. Bertso biribil batean, bere bertsoaren bukaera onela bota zuan :

Lengo Legeak akartezpoguz
ilgo iaku Euskeria.

Euskeraren alde guk darabilzkigun lanak gora-beera, alegia.

Lengo Legeak ekartezpoguz
ilgo iaku Euskeria.

Itz bitan, Euskeraren "il-biziaren" problema garratza.

*

Gure Koplari Lexoti'k, gauza pixka bat ausnar-ondoren, onela erantzun zion:

Gaur goizetikan Oyartzun eta
arratsaldian Bergara...
Geldi daudenak, ez dakit, bañan
gabiltzanak bizi gara.
Lege Zar gabe bildur zara zu
ilko ote zaigun Euskara;
dabilen arte ez dago illik,
atera zagusun plazara.

Bi egoera, bi ariera antagonikoak? —Ez iñolaz ere; elkarren osagarriak baizik.

Euskalerrian danok euskeraz mintzatzea, ori da "euskera bizi izatea".

Eta ori, gure Gobernuaren Dekretoz lortu aal baledi, gauza erreza litzake. Bañan ez bait da Dekreto-gauza. Euskaldun bakoitzak, *motu proprio* egin bearreko gauza da; *motu proprio*, kontzientziaz, euskalkontzientziaz.

* * *

Ala ere, Euskal-kontzientzi orri, bein sortu ezker, Gobernuak laguntzea, bultzatzea, ori bai; Gobernuak bere Dekretoen bidez zenbait Instituzio sortuaz, *indirecte*, bañan ausarki lagun ta bultza lezake. Instituzioak: dala Irakaskintzan, dala "Medios de Comunicación" diralako ortan, dala Administrazioan...

Guzti ortan Gobernuak eta Politikak asko dezakeala, ez dago dudarik; eta Instituzio oiek Errietan sortzen duten giroak, asko lagun bait dezaioke, Erriaren baitan Euskeraren aldeko Kontzientzi ta *motu proprioari*. Bata bestearekin.

* * *

Eta, ain zuzen, ori bide zan, Elorrio'ko Bertsolariak ikusten zuana. Gobernuaren egitekoa, arazo ontan.

Bañan, gauzaren bukaeran, zertarako? Gure Lezoti zaarrak eskatzen zuanerako: Erriari bere Izkuntza zaarrean mintzaerazteko, mintzaera zaarrean iraunerazteko. Erria Euskeraz mintzatzen dan arte, Euskera BIZI BAIT DA.

Dabilen arte, ez dago illik;
atera zagun plazara.

A R K I B I D E A

I. DIDAKTIKA	7-277
IZKUNTZA	9-34
AITA KABDABERATZ'EN «EUSKERAEEN BEBBI ONAK» IRAKURTZEN	35-48
GRAMATIKA - ADITZ ZERDUNA	49-75
EUSKERAREN ZERTZELADA BEBEZI BAT.—Alkar-izketa-era	76-79
CONJUGACION DIALOGADA	80-81
AITA LARRAMENDI REN GRAMATIKA-PUNTU BAT	82-85
«ZUEN»? ALA «ZUAN»?—Batasun-bidean	86-89
ZUEN, ALA ZUAN? DUEN, ALA DUAN?	90-93
DEIKIA IZENETAN.—Euskaltzaindiaren itzaldiak Donostian	94-107
DEIKIA ADITZETAN.—Euskaltzaindiaren Itzaldiak Donostian	108-125
EL VOCATIVO EN EL VASCO.—Lección	126-146
GOROZIKA'TIK GURUTZEAGA'RA.—Edo Gurutzearen izena gure to- ki-izendegian. (Euskaltzaindian sarrerako Itzaldia Iruña'n, 1951, gn. Ereiaroa'ren 23'an)	147-176
TOPONIMOS DE FORMA POSESIVA	177-182
LEXICO LATINO EN LA TOPONIMIA MILITAR VASCA	183-186
EUSKEBISMOS EN EL CASTELLANO ANTIGUO.—En el Fuero de Se- púlveda	187-204
«ASKO» ITZAEEN SINTAXISA.—(Liburu baten utsuneak	205-210
ADITZAEEN SINTAXISA.—Solezismo batzuek	211-214
REFLEXIVUM - RECIPEOCUM	215-217
APOSTROFOA	218
-KI, GEEUNDIO-ATZIZKI?	219-222
«BAIT-» AURRE-IZKIA.—N. Jaunaren kritikari buruz	223-224
EUSKERAZKO ERRELATIBOA	225-228
NOIZ «BERE»? NOIZ «AREN»?	229-232
«ON» ITZAREN PEBIPEZIAK ETA GORA-BEERAK	233-237
DET = ZAIT. HABEO = «EST MIHI»	238-239
DE HE STILISTICA	240-241

ARKIBIDEA

SANTO ALA SANTU?	242-244
ONART DEZAGUN	245
«NOSKI» AZKUE'REN IZTEGIAN	246-248
«DI» BOTANIKATZIZKI?	249-253
FRANZISKUA, JESUSA	254-255
«SEGURA» EUSKERAZKO ABIZEN?	256-258
IJITUEN ERDERA	259
METRICA VASCA.—La Métrica del «Cantar de Perucho» y de «Nere Andrea» o «Kaiku»	260-265
DETxEPA'REN BERTSIFIKAMENA.— Aita Altuna'ren liburu bat ...	266-277
IZKUNTZAREN PROBLEMATIKA	279-420
POSTURA DEL CRISTIANO VASCO ANTE LA HISTORIA, LA CULTURA Y EL SER VASCO.—Conferencia en Zarauz	281-291
LA «IKASTOLA» ANTE EL DERECHO NATURAL.—Conferencia	292-301
IKASTOLAK GIZA-LEGEAN.—Itzaldi, umetxoen gurasoai. Andoain.	302-309
LA LENGUA Y LAS CULTURAS.—Conferencia por Radio Vitoria. 1946, 21, II, Acción Cat	310-318
ALARGUN BATEN EDESTE TRISTEA	319-329
EUSKADIKO IZKUNTZA-MAPA	330-342
EL VASCUENCE EN LA RIOJA.—En Murillo del Río Leza (1279)	343-346
PLANES Y ENSAYOS DE EUSKERIZACION EN ALAVA	347-353
LA EPOCA DE AITZOL.—Seminario de Vitoria	354-370
ALTUBE JAUNAREN IDAZKI BAT	371-375
ALTUBE'TAR SEBER.— Lekuona Jaunarekin alkar-izketan	376-379
EUSKAL-IDAZLEENTZAKO ITURRIA BASERRIKO EUSKERA BIZIA	380-383
GARBIZALETASUNA	384-386
BATASUNA	387-388
EL USO DE LA «H» EN LA ORTOGRAFIA VASCA	389-393
TOLOSA'KO EUSKERA	394-402
EL REGIMEN DE BILINGÜISMO EN UNA CAPILLA PUBLICA	403-404
ALFABETATZEA ETA AOZKO LITERATURA	405-411
USURBIL'GO ALFABETATZE-IKASTAROAREN BUKAERA	412-417
GRAMATIKA-FORMAK IDAZ-LANETAN	418-420

III. POLEMIKA-APUR	421-458
«-A» ARTIKULOA NOIZ JARBI TA NOIZ EZ	423-433
JERUNDIOA EUSKERAZ.—Polemika-apur	434-442
OÑATI'KO KALE-IZENAK DIRALA-TA	443-446
«ERRIA» = «LURRA»?	447-449
MOZAMBIKE'KO AITA ZURIAK	450-451
TRANSCRIPCIONES Y TRADUCCIONES DE VIEJOS TEXTOS VASCOS	452-458
IV. KRITIKA	459-530
XENPELAR ETA «HUMORISMOA».—Xenpelar'en urtea. (Errenteria'n)	461-471
SAN IGNAZIO'REN «MARTXA» BERRIZ ERE	472-474
SANTA TERESA'REN «ON BIDEA».—Santa Teresa de Jesús. «On-bidea». («Camino de perfección». Euskeratzalle, Aita J. Onaindia eta Aita L. Akesolo, Karmeldarrak. Gráficas Ellacuria, Bilbao, 1963)	475-476
COMENTANDO UNOS APUNTES DE CLASE.—Definición del Verbo en la Gramática castellana. (Instituto de San Sebastián)	477-485
GRAMATICA DE LA LENGUA VASCA.—Observaciones al Capítulo V ...	486-487
AYALDE'REN LIBURU BERRI BAT.—Itz-aurre	488-489
«AMABOST EGUN URGAIN'EN».—Itzaurre	490
«DEUN IGNAZIO».—Juan Baxurko	491
«SALMUTEGIA» «ORIXE».—Itzaurre	492-494
ZEIN EUSKALDUN?	495
ETXAIDE YONEN «TRATADO DE SINTAXIS»	496-500
OLABIDE LEXIKOLARI	501-503
URKIXO JAUNAREN LIBURUTEGIA	504-511
URKIXO'TAR DON JULIO EUSKERALOJIAN	512-518
«ZELETA»	519-520
AOZKO LITERATURA ERRENTERIA'N.—Juan Krutz Zapiain	521-524
KARDABERAZTARRAK.—Histori-begiratu labur bat	525-526
AITA AGUSTIN KARDABERATZ EUSKAL-IDAZLE	527-530

V. ETIMOLOJIA	531-582
ETIMOLOGIA DE LA voz «NAVARBA»	533-538
BEGOÑA.—Notas etimológicas	539-546
«ZIPITRIA» ABIZENAREN GOBA-BEEBAK	547-549
AMASORRAIN.—Un cuarto a etimologías	550-552
AITA MENDIBURU'BEN URTEA.— 1983. Aita Mendiburu'ren lenengo Liburua irakurtzen	553-562

